
EUSKARA
LURRALDEZ
LURRALDE
— 1 —




Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak

JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

J. 70

E U S K A R A
L U R R A L D E Z
L U R R A L D E

1



**Bizkaialdeko
Ipuin-Esaundak**

ELU

JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du.

*Liburu bonen edonolako berregintza osoa nahiz partziala galerazia dago,
aurrez copyrightaren jabearen idatzizko baimena eskuratzen ez bada,
iturria adieraziz egiten diren aipamenak salbu.*

Egilea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta.
Aztertzailea: Sabin Barruetabeña Barruetabeña.
Koordinatzailea: Sabin Gorrotxategi Zelaieta.
Liburuaren azaleko diseinua: Juan Karlos Landa Alava.
Liburuaren barneko diseinua: Mikel Euba Areitioaurtena.
Marrazkiak: Jesse.
Argazkiak: Juan Manuel Etxebarria Ayesta.
Fotomekanika: Croman.
Tailer grafikoak: ZURE, S.A.

© Ibaizabal Argitaletxea, 48290 Euba-Amorebieta (Bizkaia),
Labayru Ikastegiaren oneritiaz.

ISBN: 84-7992-285-0
Legezko Gordailua: BI-2339-95
Ale kopurua: 1 500

AURKIBIDEA

SARRERA	11
ARGIGARRIAK	13
IPUINAK ETA ESAUNDAK:	
1.1 Itargia-Eguzkia eta Mundua	15
1.2 Gaueko argi ibiltaria	18
1.3 Muskerrari bildurra	19
1.4 Larrabotiko abemariak	20
1.5 Azalaria eta txakurra	21
1.6 Martxanderak	23
1.7 Bedeinkazinoak	25
1.8 Azeguna	28
1.9 Gizonaren edadea	29
1.10 Gorrotobako haserreak	31
1.11 Santa-Agedak	33
1.12 Bidaztiak	35
1.13 Patakon lapurra	39
1.14 Astoa, txakurra, katua eta oilarra	41
2.1 Gaueko arimak Santa Kurtzen	43
2.2 Deabruari Samartinen hamabi egiak	44
2.3 Aita asilora eroan-damutua	46
2.4 Begizkoa	49
2.5 Garia eta artoa berbaz	51
2.6 Saldaingo txakurrarena	55

2.7	Zozoa, errekatxoria eta txindorra	57
2.8	Txirritxirria eta inurria	58
2.9	Eskekoa kontu erratuarena batzen	61
2.10	Txakurra eta katua pleituan	63
2.11	Salomonen amenazua	64
2.12	Gabonetako kontuak	65
2.13	Beleak beti bere haitzera	70
2.14	Burdiak be untatuz gero irrintzarik ez	72
2.15	Haltzaren ondoan haltza erne	74
2.16	Errekadu-kontuak	76
2.17	Untze-joak karu urten	78
2.18	Arimea berbaz tximiniatik	81
2.19	Ermakariak	83
2.20	Hiru ahizta joskila berbaltudunak	84
3.1	Anbotoko Señorea eta urregoria	85
3.2	Aita zaharrari zurezko tenedor-koilarak	87
3.3	Aita baztertuarena	88
4.1	Lamiñak Manualdeko txarkoan	89
4.2	Abadea eta hodeia	92
4.3	Uriolaz geroko deabruaren zubigintza	94
5.1	Inizituari deika	97
5.2	Parte txarrekoak	98
5.3	Sua, ura eta edurra	101
6.1	Lamiñak Ugarten	102
7.1	Jentilak eta lamiñak Untzetapikun	105
8.1	Anbotoko Señorea Sarasolan	106
8.2	Lamiñak Bañutzen	107
9.1	Aibelabeko beste-mundukoak	108
9.2	Saiak Anbotoko Señorearen itxuran	110
10.1	Itargiaren ilundeak	112
11.1	Arimak promesak betatuz Zeberioğanen	113
11.2	Sorginduta hil ezinik Uriondon	115
11.3	Itargiko mantxak edo ilunguneak	117
11.4	Jentilkumak Upon	118
11.5	Parte txarreko zaldia	119
12.1	Lamiñak Gorozitun	120

12.2	Anbotoko Señorea sutan Mandoiatik	122
13.1	Parte txarrekoak karea egite orduan	124
13.2	Jentilak eta gaztaña denporea	127
14.1	Gaueko arimak eta liño zapia	129
15.1	Anbotoko Señorea Anboton eta Lekandan	131
15.2	Jentilak Untzetaben	132
15.3	Jentilak eta pastorea Orozkon	135
16.1	Deabruak zubiginen arima truke	137
17.1	Musker demonin trua	139
18.1	Lamiña eta mutila ezkongai	140
18.2	Zaldiotsa hodeiagaz	142
18.3	Ugaoko abadea eta hodeia	143
18.4	Hil eta gero agertu	144
18.5	Deabruarekin tratua soloa lantzeko	145
19.1	Jentilak: 140 urteko jentila	146
19.2	Jentilak Untzetapikun	147
19.3	Anbotoko Señorea Bertsutenen	148
19.4	Anbotoko Señoreak errotea geratu	149
19.5	Abade bat penitentzia betatuten	151
19.6	Abade-txakurrak	154
19.7	Akerrak andrea eroan aidean	157
19.8	Lamiñak Saldainen	159
19.9	Jentila eta Perutxu	161
19.10	Txerri batek zazpi gantzagi	170
19.11	Txerri-odoloste jan ezinekoak	172
19.12	Jentilak ikatz-egostorduan	176
20.1	Jentilak: Lainoa eta euren azkena	179
20.2	Jentilak Zollo-mendin	180
20.3	Lamiñak Eskori ganean	182
20.4	Anbotoko Señorea Azpitartetik Dimako haitzera	183
21.1	Lamiñak erreketan	184
21.2	Jentilak harri-bolan Untzetabetik Mandoiara	186
21.3	Jentil-umea eskolara	187
21.4	Jentilak eta ereitzea	188
22.1	Anbotoko Señorea eta abadegaia	191
23.1	Errotaria eta bere alaba erregiñagaia	192

24.1	Lamiñak ikatz-egostorduan Uriondon	194
24.2	Zaldi-irrintzak eta kateaotsa	196
25.1	Jentilak eta neba-arreba artzainak Gorbeian	197
25.2	Superlegorren penitentzia betatuten	202
25.3	Gaueko argi deabrua	203
25.4	Jentilak Superlegorren biziten	206
25.5	Anbotoko Señorea Superlegorren	208
25.6	Gaueko arimak eta jentilak Gallartun-Orozkon	213
25.7	Deabru gedarrez ahuntzak pilatuteko	214
25.8	Txikoa eta Pepetxin	215
25.9	Jentilak andrak eroan	217
25.10	Abemarien osteko "beste mutilok"	218
25.11	Lamiñak Lanpreabeko errotan	219
25.12	Jentilak: Ameriketako pastore tuerto indartsua	220
25.13	Arrabako Landa Zeberioarena	221
25.14	Prakagorrien zubia eta marti-oilarra	224
25.15	Musker-bildurra	227
25.16	Muskerra eta subea	229
25.17	Josafaten Landa	230
25.18	Arimak penitentzia betatuten Zeberioan	231
25.19	Urregorria lurpean San Justoko landapean	233
25.20	Urregorria Oiz-mendian	234
25.21	Urregorria etxe-oinarripetan, kuebetan... ..	235
25.22	Norbere kurtzearekin deskontentuz	236
25.23	Kamiñeru emendatu ezina	238
25.24	Gauean eleizportikuari hiru buelta emon ezetz	240
25.25	Jentilak eleiza aldatu gauez	241
25.26	San Juanetako kontuak	242
25.27	Gorbeia inguruko otsoak	246
25.28	Lau anaia ofizioa ikasten	248
25.29	Lamiñak hondatu esne irakinaz	250
26.1	Sorgina katu itxuran	253
27.1	Kastrejanako zubia eta deabrua	255
28.1	Neska galanta neskazahartu	258
28.2	Kalabaza eta ezkurra, biak bere lekuan	260
29.1	Anbotoko Señorearen Sorrera: Anbototik Gorbeia	261

30.1	Jentilak errota-andaparea sikatu	263
30.2	Anbotoko Señorea gauez “ni bakarriiik!” alaurika	264
30.3	Sorginak eta Superlegorreko kurutzea	265
30.4	Lamiñak sutera andrea goruetan dela	266
30.5	Jentilak, Samartin eta artoa	267
30.6	Jentilak, Samartin eta kaldea	268
31.1	Jentilak eta pastore bat Superlegorren	269
31.2	Lapurzuloko kontua	271
31.3	Abade bi Superlegorren	273
31.4	Hodeia eta abadea	274
32.1	Jentilek arreba eroan	275
33.1	Anbotoko Señorea eta eguzkia	276
33.2	Lamiñak Jentil-zulon	277
34.1	Anbotoko Señorea anega-gariak garautan beste urte harona	278
34.2	Pastore bat Superlegorren	279
35.1	Anbotoko Señorea Ganekogortan	280
36.1	Lamiñak Zeanurin	281
36.2	Kastrejanako zubia eta hargina	282
37.1	Napoleonen gerrea-fratzesadea Gorbeian	284
37.2	Lamiñak Lamindao-Petralandan (Dima)	287
37.3	Lamiñak Uriben (Zeanuri)	289
38.1	Sorginak eta, Baltzolan-Petralandan	290
38.2	Anbotoko Señorea eta lamiñak Baltzolan	292
39.1	Anbotoko Señorea: Goru eta guzti garretan neska dendaria	293
39.2	Lamiñak barikuetan Petralandara	295
39.3	Lamiñea ezkongai Lanpreaben	296
40.1	Anbotoko Señorea Baltzolan	298
40.2	Hartzak andrea Baltzolako koban	300
40.3	Anbotoko Señorea Obaburun	301
40.4	Sorginak Mañarin	302
41.1	Lamiñak Usansolon	303
41.2	Anbotoko Señorea Urkiolan	304
41.3	Anbotoko Señorea Upon	305
41.4	Txispeak kondenatu	307
41.5	Patakon lapurra	308
41.6	Asto demoniñoa	310

42.1	Zezena sutan erreka barrutik	311
42.2	Sorginak galdu errogatibekin	313
43.1	Gaueko txerri-elia: Erdia txerria eta erdia arima	314
44.1	Zolloko lapurrak	315
45.1	Anbotoko Señorea, deabruari alaba eskeintzerik	317
46.1	Anbotoko Señorea eta Baranbioarra	320
47.1	Baltzolako gizon-sugea	322
48.1	Jentilak eta sorginak Diman	326
48.2	Deabruari alabaren arimea ofrezidu	327
49.1	Anbotoko Señorea Orduñako haitzean	328
49.2	Saiak Anbotoko Señorearen itxuran	329
49.3	Olarreko Señorea Upon	331
49.4	Udiarragako Amabirjinea (Ugaon)	332
50.1	Surteko hautsa garbikuzirako	334
50.2	Zeberioko aldi bateko neskato sorgindua	336
BERRIEMAILEAK		339
HIZTEGIA		347
AURKIBIDE TEMATIKOA		355

SARRERA

Liburu honetako euskara bizi eta etorkizunera bideratu beharrekora hotz-hotzean sartu baino lehen, ondo letozke argibide gisako bitargi batzuk.

ZER?

Bizkaiko euskararen barruan, Gorbeia inguruko euskara oso aberatsa da eta etorkizuneko euskara aberats baterako oso kontutan hartzekoa.

Liburu honetan, lurralde honetako ia 200 ipuin edo eta esaunda eskeintzen zaizkizu batasunaren bidetik.

Gaiak, herri-herrian hartuak dira. Gorbeia inguruko herritxoetatik egin dira magnetofono-grabazioak, han hor hemengo 50 berriemaile bitarteko.

Ipuin eta esaunda hauen bidez, lurralde honetako euskara aberatsa ezeze, bertako biztanleen bizitza-izakera ere ezagutzeko bidean zaude. Zatoz ipuin edo eta esaundotara eta aberastu etorkizuneko euskararen benetako batasuna!

ZELAN?

1. **Euskara:** Jakitunen artean sarri esaten da euskara batu bat baino gehiago dagoela Euskal Herriaren luze-zabalean.

Euskara baturako minimo batzuk eman ziren baina urteak joan urteak etorri, lurralde bakoitzak bere batua egiten du eta era horretara, batak bestea aberastu.

Liburu honetan, Bizkaiko Gorbeia inguruan jasotako herri-euskara bizi eta aberatsa, batu minimo horrekin "jantzita" eskeintzen da, batu honek beste batuak aberastu ditzan.

Horretarako, lurralde honetako erabilera jatorrak eta aberasbidekoak zaindu egin dira eredu literarioan ere, etorkizunaren lekuko izanik.

2. **Estiloa:** Herrikoitasun eta bizitasun guztiaz eskeintzen dira ipuin-esaundok. Elkarriketa bidezko lan honetan, berriemaileen erantzunak bakarrik agertuko dira baina errez ohartuko zara berriemaileen aurrean batzaile edo jasotzailea dagoela magnetofonoa eskuetan duela.

Estilo honetan, beharbada, ez dituzu beti, beste lan literarioetako esaldi bete beteak aurkituko, baina, ahozkotasanaren presentzia biziko duzu herrikotasun-ean murgilduz.

3. **Gaiak:** Ipuin-esaundok, aurkibide bitan eskeintzen zaizkizu. Batetik, berriemaileen arabera (ikus berriemaileen zerrenda) eta bestetik, gaiak kontutan harturik (ikus aurkibide tematikoa).

Gai batzuk emankorrakoak izan dira herri-tradizioan eta horregatik gaietariko batzuk errepikaturik agertuko dira baina berriemaile bakoitzak bere nortasuna ematen dio gai horri mamian zein azalean.

Adibide bezala, har dezagun: "Anbotoko Señorea". Nork ez dakitzu ezer pertsona honi buruz? Baina batean bestean, bakoitzak bere ipuina, bere herrian eta bere erara kontatzen dizu eta hortxe dago aberastasuna On Jose Migel Barandiaranen irakatsien arabera.

Ipuina ez da matematika, herriak ipuinak bizi ditu eta bizitze horrek dakar aldakortasuna.

Gai batzuetan, ipuin, esaunda edo antzekoak nahastean agertzen dira. Jakina, elkarriketa baten galdera konkretu bat egin arren, berriemaileak galderari edo eta gehiagori erantzuten dio memoriak lagun. Esaterako, 19.12 tituluari (ikus zerrenda), batzailearen galdera "Jentilak" zen eta halaxe hasi ere egin zen erantzuten. Baina, Jentilak eta ikatz-egostea loturik zeudenez, ba, laster baten aldatu zen esaundara eta ikatz-egostearen berri ematera pasatu. Horixe da bizitza!

NORENTZAT?

Orokorrean esanda, alde batetik, edozein herritar alfabetatu bakorentzat eta bestetik, euskalkietan zein euskara batuan alfabetatuentzat.

Zehatzago esanda, DBH-tik hasi eta UBI zein goragokoentzat, irakasleak bitarteko.

Herri-ipuin bilduma honek, hirukoitasun baten jokatu nahi du: **Eskola-Etxea-Herria**. Irakasleak zubi-lana egin behar du ikaslea eta bere etxekoaren artean, hirukoiztasun emankorra lortzeko.

Euskara ezin dugu bizitzatik kanpo atera, euskara geugan dago eta liburu honetako euskara, Bizkaialdekoa izan arren, geure geurea da eta batu minimoaz jantzita Euskal Herri osoarena.

ARGIGARRIAK

Euskalki bakoitzak bere bereiztasun jatorrak ditu eta euskara batuak ez ditu baztertu behar, jaso eta erabili baino. Horregatik, liburu honetako euskara batuak zabal jokatu nahi du.

Dena dela, azkenean eskeintzen den hiztegi lagungarriaz gain, argigarri litza-teke, lurralde honetan ugari diren erabilera batzuk euren kideekin konparatzea, aberasbide zintzoan.

-A + A = EA

Barik = Gabe

Bere; be = Ere

Duna = Dun (hitano femeninoa)

Ei = Omen

-(E)Tan = -Tzen (Kantetan = Kantatzen)

Ete = Ote

-Gaz = -Rekin

Ha = Hura


Lako = Bezalako

Nok = Nork

Superlegor: Era askotara esaten da herrian:

Supelaur, Supelagor, Supelegor, Supilaur, Supileor...

-Tuten = -Tzen (osatuten = osatzen)



Juan Manuel Etxebarria Superlegor kobazuloaren aurrean.

Aldi baten, noizik hona ez dakigula, eguzkia eta itargia andra-gizonak ei ziren, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz helduko dagoela, badinotso eguzkiak harrokeriaz beterik:

Ikusten duna Mundua, egunean baino egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez diat ba!

Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker duna gero!

Bai, eta nire neure gauetako inontzari, ala, inontzak ez dik balio ezertarako!


Hori entzun bazion ba ze, haserretuten zaio eguzkia, hartzen du esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast!, aurpegi aurpegira bota zizkion txin-gerrok itargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko gutzia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun ditu haiek erreuneak, aditutea baino ez dago itargiari ider-gi betea denean.

Baina, eguzkia hain ikusten zuen berde, bildursartu eginda zegoen itargia eta karran hasi zitzaion zein eguzkiak behar ez denaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu zitzaion mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gutxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, ider-gi bete, eta hilbehera guztian eragoion eguzkiak itargia harrapatzen.

Itargiaren arnasestua eta magalotsa inoiz ikusi bakoak ziren eta bere burua holan ikusirik badino berekitan: gesu baten gainetu behar zaidak eguzki armin kokorio hori, baina ez dik berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan har barik zijoakion atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia koiu eginik zeukala, ez dio itargiak bere burua gordetan!



Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu zizkion eta egunak joan egunak etorri, itargia atzerik hara ikusten zuen eta badino bere artean: burua non gorde didan baino ez duk horrek andra galera horrek!

Orduan, atzera egin ezin zuen lez, arin eragoion eragon be itargia barriro atzerik hara koiuteko eta, horretarako denodu guztiaz eta inizitua baino arinago ibilita be, beste hogeita zortzi egun behar izan zituen, baina itargiak osteria be, bere burua gorde, batek badaki non!...

Gaur be oraindino hor dabilzkigu eguzki-itargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gauzez inontza dariola.

Behin baten, hor, Arratiar bat, Martin Astondoa zehatzago esanda, albañil bat zen, eta obra bat akabatu Diman eta Billarorantz zetorren.

Billaron bizi zen eta etxerantzako bidea, kamiñoz, Igorretik bueltan egin barik, basoz egitea hobe zela iruditu zitzaion.

Handik, San Raketik gora zetorrela, segidu egiten zion txapa-txapa argi aparteko batek eskoi alderditik.

Halango baten heldu zen Billarora eta behin haraz gero, eleizaren aurreko bidetik barik, elezportaletik sartu zen atajua egiteko asmoz.

Baina elezportaleko iluntasunean, hesi itxurako barrera handi bat aurkitu zuen ha argia berezia gainean zuela eta ezin pasatu eta, berriro be Dimara joan zen etorritako bideetatik.

Dimarantzean be segitu egiten zion hak argiak, ezker aldetik oraingoan eta inoiz ez lako ikara sartu zitzaion gorputzean.

Behin Dimaraz gero, kaminoz kamino joan zen Igorreraino eta handik beste hainbeste harik eta etxera heldu arteraino.

Bigarren bueltan ez zen sartu elezportikutik. Billaroko eleizara allegatu baino apurtxo bat lehentxuago "angelus" errezatu zuen eta azkenean, berbartu eta guzti baina bakez iritsi zen etxera bihotza taupadotsean zuela.

Bildurra beti izan diogu muskerrari eta euki be egin egin behar ze entzuten genituenak entzunda ez zen gutxiagorako.

Aitonak eta esaten zigun batzutan samara egiten zuela saltu eta beste batzutan zankalostetik be igual goratu eta soltadu ezin harik eta zazpi herritan kanpaiak jo arteraino.

Honek gure amak baten Larramendiko basoan ida batzen geundela ida aspelari azpitik goratu zionean eta muskerra esku artean koiu, honek bota zuen grillistua, gorputzean be pipiladurea urtenda zegoen.

Gaur zuok egin ez duela ezer egiten esaten duzue baina nik neuk egun argiz apartatu gurago holako animaliangandik eta doazela euren bidetik.

Sapoak be, txarrak direlakoan tragatu eta zotzean eskegiten genituen, gaur berriz ez ei dute kalterik egiten, nok jakin horiek kontuok.

Gauiluntzetan, hor abemariak inguruan, kakarraldoak ikusten dira etxe ingurutik eta orduan esaten dugu Larrabotiko abemariak direla.

Fijo ez dakit baina, antza, Larrabotin ez ei da inongo abemariarik entzuten, inongo kanpaiotsik eta orduan, tertzio horretan kakarraldoak datozen letxe, horiek ei dira hango abemariak. Larraboti izan be basoan barrura dago, orain kamiñoa be badauka eta herriz Artea partea da.

Orain, zuk zeuk esanez gainera, libururen baten leidu baduzu "larraoti" kakarraldo edo antzekoren baten izena dela, horrek be euki lezake bere zera, significazinoa, guk geuk besterantz entzunda euki arren gure aita defuntuari eta.

Jakin ez dakit jakin be egingo duzun baina lehenago gaineko santzolariak zeuden larraboti eta inguruetan! Honainoko santzoak botaten zizkiguten eta begiratu hemetik hara zenbat kilometro dagoen!

Gaurko egunetan usadioak aldatuz doaz eta hemen gure San Justoko ermitan be ez dugu abemaria-kanpaerik jotzen. Lehenago, egun bat esan eta berean be ez genuen hutsik egiten. Zelan egingo genuen ba, eleiza naguziko hamabietan be angelus errezetan genuen eta, errezatu, beharren ibilita be bai, ganaduak eaurt egin arte eroan muna bazterrera, kendu txapela eta errezatu, ganoraz gainera!

Baten ba, han tejamana bazterrean txakolin eta sagardo barrikak edo upe-
lak egoten ziren eta batzuk ituzureko ura hartzeko erabilten genituen.

Eta holango gau errasu baten, idergi betea izan ei zen izan be, abema-
riak jo eta urrun barik, azagariren bat zebilen tejamana eta oilategian arrimuan,
buztan hori harro-harro duela uzkaia agirian, eta oilorik ikusi ez edo eta, labe
gainera egin ei zuen saltu eta, ez du ikusten ba upel baten talo eder bat!

Eta ene, saltu egin labe gainetik eta birritan pentsatu barik PLAST!, barri-
ka-urera jausi zen eta ez talo ez talondoko, ur hutsa eta hotza!

Ahalegin guztiak egiten ei zituen urtetako baina ezin seguru, eta urrumak
be geroago eta handiagoak egiten ei zituen eta, ba, halangoren baten txakur
ahausiak be entzun ziren. Hango txakur malezia bako bat be gainetu zitzaion
ondora zer den edo ez den jakin guran.

Azagariak haginotsean eragoion eta txakur horrek be han zeozer dagoe-
lakoan edo badoa eta non dinotson azagariak:

— Hi, hator, talo eder bat zegok hemen, erdia jaui liat eta hiretzako be
bazegok, saltu egin ezak hona barrura eta ikusiko duk zelango tripekada!

Txakur horrek saltu egin ei zuen eta ur txirripistada artean azagaria kan-
pora eta bera barruan lotu, kokorioa halangoa. Eta gero ez talorik ez ezer,
txakur-ames hutsa. Txakur hori hurrengo goizean atera ei zuten lau hankan
egoteko gauza ez dela hanka puntak guztiz kipututa hotzaren hotzez.



JEISE-95

Zelan esango dizut ba nik, horiek martxanderak andrazkoak izaten ziren eta hemen Arratian feriak egiteko usadioa zegoenez, horiek martxanderok, ba, oilo, oilasko, oilanda, oilar eta arraultzak eta saltzen ibiltzen ziren guzurra eta abarra dariola.

Erosten zituzten egaztiak ez zituzten eurek etxean gehiago hasten en jeneral, hobeto zetorkien han hor hemen loditutakoak logretea gero ferian saltzeko.

Arraultzak eta batzeko, otzara besotik eskegita etorten ziren eta hemen dozenerdi hor beste erdi, ba, bete egiten zuten zurmintzezko otzara.

Guk be, saltzen genizkion, zegoenean jakina, ze batzutan oila-lokeari ezarteko imini behar zitzaizkiola edo jan be egin behar zirela edo karetan sartu, ba sarritan ez geneukan euki be.

Al, hori karetan sartzea dinostazu? Ba bai, hor udabarrian arraultza ugariago egoten zen eta saldu egin beharrean karetan sartzen genituen urterako edo gutxiago jaioten direnerako zer jan eukiteko.

Zuk ez dakit jakingo duzun baina lehenago karobietan karea egiten genuen, bai, egin zulo batzuk kontra-terrenoan oska bat kanpora duela, eta gero kare-harriekin arketa bat egin eta goraino bete kare-harriekin. Gero beheko oskan otegurrekin eta, su bizia egin eta dena zurituten zenean karea bihurtuten zen.

Gero hori kare hori solorako eta izaten genuen, gauza askotarako. Eta holango kare bizia hauts eginda botaten genuen bidoi batera eta ura gainetik dela han barruan arraultzak kontuz kontuz sartu eta han kontserbetan zitzaizkigun.

Zoritxarrez, sarritan bat baino gehiago apurtu be egiten zitzaigun atarakeran, baina tira, ez zegoen beste modurik eta konformatu egin behar.

Karea osterantzean, karobi frantzesetan be egiten zen, horietan beste sistema bat erabilten genuen, zera, kapa bat harri eta kapa bat ikatz edo egur eta holan, eta eginaz-eginaz joaten zena behetik atera egiten zen baina ez zen hain kare garbia, ikatz edo egur errearen iduria nahastatuta eukiten zuen eta. Solorako ez zion ardura. Baina arraultzak sartzeko eta horretarako kare garbia lakorik ez zegoen.

Orain ez dugu egiten baina karobi zuloak etxe inguru guztietan daude, hortxe dauzkazu oraintxe be Kurtzebarriko kurban edo Isasi gaineko jitanuen lekuan ikusi gura badituzu, frantzes gura baduzu han daukazu Etxebarri eta Albitzu bitartean, pinudian.

Lehenago dena zen bedeinkazinoa, edozein lekutatik ikusten ziren parte txarreko zein beste mundukoak eta.

Denekin ez natzaizu akordatu be egingo baina aikomenzan banaka batzuk balio izanez gero.

Bedeinkazino batzuk abadeak botaten zituen. Esaterako batzutan abadea soloak bedeinkatuten ibiltzen zen tontorrik tontor eta egon badaude ipuinak be, deabruarenak, hori Juanita auzokoak be kontatu dizu eta ez nijoatzu berriro kontetan.

Bedeinkatuten eleizara be eroaten genituen San Blasetan eskapulario, janari eta holangoak, kandelak be bai. Gero Erramu egunean ereñotza, Santa Kurtzetan arantzak eta holango gauzak.

Zertarako ziren?, ba begiratu ezazu, ura edaten baguenen “Jesus” esan erazoten ziguten, eleizan eguerdiko hamabiak jo ezkerero, soloan egonda be txapela kendu eta angelus erreztatu, iluntzean abemariak, eleizakoak pasetan zirenean belaunikotu. Eta oraintxe akordatu zait, baten bat seguru, eleizakoak pasatu eta ez ei zen belaunikotu eta kondenatu egin ei zen lepoan zekarren karga eta guzti, itargian ei dago kondenatuta.

Aharrausi egiten denean be kurtzeak egin bear dira ahoan, doministikun egin orduan “domistiku” esan behar da.

Hodeiak indartsu daragoionean, kandela bedeinkatua izitu behar da eta ereñotz bedeinkatua erre surten.

Txahal bat jaio eta hurrengo barikuan kandelanegar bedeinkatuaz lepoan hiru kurtze egiten zitzaizkion hodeiaren gaixorako.

Baten bat hiltzen denean be kandela bedeinkatua eta ereñotz bedeinkatua iminten zaizkio begiran dagoen bitartean.

Gehiago be egongo dira baina denekin akordetan be ez da fazila, baina gaur baino sinesmen handiagoa zegoen gure denporan, orain errosariorik be ez duzue errezetan zuok.

Gure denporan, mezzatik aparte, nobenak, maiatzeko lorak, errogatibak, ejerzizioak, paskoazkoarekin betetea, konfesatu, gure jauna hartzeko baraurik joan behar eta ez dakit zenbat gauza gehiago bete behar izaten genuen eleizgizonen esanean biziteko.

Parte batetik adituta, pena da hauek gauzok galtzea baina on egiteko gaur be badago lekua egin gura bada mezara eta joan ez arren be.

Ai!, hori arantzena zertarako? Ba, hor Santa Kurtzetan arantzak edo elorriak bedeinkatuten ziren eleizan eta gero holango erromatxu bakoitza solo bakoitzean sartu soloa bedeinkatu eta koxitza ona hartzeko. Erromatxu bakoitzari kurtzetxu bat egiten zitzaion, San Juan haritzari moduan. Polita izaten zen hori, herri guztia arantzaz beterik eleizan.

Ai, itxaron iezadazu, beste historia bat be badatort gogora, zerarena, gariak zelan kentzen diren, gariak gorputzekoak, ez solokoak.

Zeinda, batzuk gari asko eukiten dute aurpegi, esku edo beste edozein lekutan. Eta asko gizon edo andra hor ibiltzen da medikurik mediku edo kuranderuekin gariok osatuten. Baina nik neuk badakit beste erremedio bat eta inoiz probatu be egin dut eta ondo urten.

Ba hori erremedioa hauxe zaizu: eguzkiak erre bako ziri-bedar bat hartu, ikutu harekin osatu gura den garia, zeurea edo beste batena, eta gero egin errezu bat eta sekretoan enterratu hainbaten ziri-bedar hori, eta osatu egiten ei da. Orain, ez da bat be fazila eguzkiak erre bako ziri-bedar punta bat topatea, gehienak erretea egoten dira eta.

Gero beste bat, je-je-je!, ba begiko txindorra eta eperdiko zaldarra jakingo duzu zergatik agertuten diren ezta? Ba baten bati eperdia ikusi diozulako, orduan, erremedioa, eperdirik ez ikustea. Ba hau dela eta ez dakizu zuk zelango lotsaria pasetan genuen begiko txindor eta eperdiko zaldarrarekin! Bagenekien hori guzurra dena baina!

Lehentxuago arantzen bedeinkazinoa aitatu dizut baina arantzea edo askotan baso larrosa izaten zen, ba, eszema edo hori narru-azaleko gaxoa kentzeko, ba esan dizudana, hor arantza edo baso larrosan eskegiten ziren amabi barakarro eta euki sikatu arte.

Gero sorginkeriak be egiten ziren beste batzutan. Ba begiratu ezazu, fe-txoria hau niri neuri kontatu zidan Simon defuntuak. Hodeia eta inizitua berde zebiltzan baten, entzutea daukala eta, ez zitzaion besterik akordatu, han tejamana zaharrean topatu zuen kirikinolatz bat hartu eta sueteko labean sartzea baino, hodeia kalmetako ona dela eta.

Eta, kirikinolatz hori han itxita joan egin zen ganaduak gobernetan eta handik lasterrera etxeko guztiak usainka, ze hats edo kirats dagoen. Zabaltan dute txapako labe hori eta han zeozer kiskalduta. Zer ete den, ez ete den, eta halangoren baten badator Simon eta ene!, ba hauxe eta hauxetarako egin dut, diseaketako, baina guztiz erre zait. Eta han akabatu zien kiratsok. Akordatu be inon denik gizonari e!

Ez dakit ba hau gura izan duzun, bedeinkazinoekin hasi niatzu eta orain erremedioekin akabatu. Lastima, nik neuk kontu asko dakizkit baina akordatu ez.

Oraintxe be, hauxe albo-hagin honen tabarra dela eta beste kontu bat be bururatu zait, hori saguzarrarena.

Ba, ume bati esne-hagin bat jausten zaionean etxe edo tejamana edo txabola bateko tellatura bota behar da hagin hori eta kanta bat kantatu saguzarrari berri bat ekarteko. Kanta hauxe da, hori zeuk be jakingo duzu, akordatu ez zara egingo baina zoli-zoli kantetan zenion zuk zeuk be saguzarrari txikitan:

“Saguzarra
eutsi hagin zaharra
ekarten ez baduzu berria
saguzarra buru handia.”

Gaurko labradore gazte askoren artean azegunari ez zaio inportantzia handirik emoten baina lehenagoko denporetan letxe orain be lehengo usuko hagea dakargunok, inportantzia handia emoten diogu.

Inportantzia zeukan batez be, txerria hilteko, haziak ereiteko, ernarorako eta arbolak podatu edo inausteko.

Txerria hilteko azeguna, lehenengo egun hotza eta gero idergiari begiratu zitzen zitzaien. Azegunik onenak hilbeherako hurrengo eguna eta zahar-berri artea, zahar-berri artea eta zaharra akabatu eta berria hasten den eguna. Menguanteak denak onak, menguanteari "hilbehera" esaten zaio. Idergia berriz hasten den orduan "hilgora". Hilbeheran odola motelago egoten da.

Arbolak botateko azeguna, neguan hilbeheran. Hilbeheran arbolak ur gutxiago daukate eta sitsa gutxiago gaineratzen zaie.

Haltzak botateko azegunik onena maiatzeko idergi berrian. Orduan ebagitakoak ez ei ditu sitsak be jaten, hori ei zen ona errotarrientzat eta.

Haziak ereiteko azeguna hilbeheran, eta gutxiago zilduten dira eta gutxiago garatu, hori geuk ikusten dugu.


Hilbeheran egiten duen edurra hezoa eta ugaria izaten da eta idergi berrikoa oster a sikuagoa eta hotzagoa, hilbeherakoa baino gazginagoa, eta lurmenak nekezago agertutakoa.

Askotan esaten genien zaharrei ia gizonak zenbat urte bizi diren, eta hauxe erantzuten ziguten: “Gizonak, hiru zaldialdi; zaldiak, hiru txakurraldi; txakurrak, hiru hesialdi; hesiak, hiru urte”.

Kontuak ateratea baino ez daukazu: hesiak hiru urteko bizia badauka, txakurrak bederatzikoa, zaldiak hogeita zazpikoa, eta gizonak laurogeita batekoa.

Edade kontuan, beste zer hau be esango nizuke. Zer?, eta hauxe. Gaur edozeinek dakitzu jaiokerako eguna baina gure gazte denporan eta orain be bai batzuk, soldadiskarik harako urteak esaten dizkizute, hau da, urli urtetako kintoa, gero horri hogeita bat urte gehiago bota eta kitu.

Gero hau beste hau be bai. Baten batek, batez be andrazkoak, urteak esan gura izan ezik, “erdiak eta beste haibeste” dituela erantzuten dizu eta hor konpon, eperdian mun egin iezaiozu!



JESSE-95

Haserreen gorabeheran zer dakitzudan? Ba, auzonetan nahikoa zen asto batek artaburu bat jatea edo oiloak auzokoaren galondoa sartzea edo basoan ahuntzak arbolaren baten azala zuritutea, haserretuteko, eta ez berbekin bakarrik, inoiz hauek bero antzak lepora be bai gainetu deskuidatuz gero.

Baina, amigo de Dios!, etxeren baten ezbeharren bat edo hilte bat suger-tetan zenean, orduan lehenengo be igual agertzen zitzaizkizun laguntan edo errosarioa errezetan, edo lorra egiten haserreok aldea batera utzita.

Begiratu ezazu norainokoa zen hau kontu hau. Ba, baten, horko bati, izena ez nijoatzu esaten, gutxiene da eta, baltzitu arterainokoa emon zizkioten karlistek edo horiek gure arerioek eta gaulendian katuka eta ahal den moduan allegatu zen etxera.

Eta klaro, oheratu zuten eta medikuari esaten be bildur, eta hogeitaka egunak egin zituen ohetik jagi barik odol malaauriak garbitu, odol batuak argitu eta saihets apurtuak osatu arteraino.

Baina, halangoren baten, bera jo zutenetariko bat hil egin zen eta hori gizon hori joan egin zen entierura, eta hori bakarrik ez, meza atera be bai ganera.

Eta, orduan beste bere nazionalista lagun batek esan ei zion apur bat txokatuta egin zuenagatik:

— Hi, urlia, —izena ez nijoakizu esaten oraindikarren familia bizi du eta—, entierura joatearekin be nahiko egin duk eta meza be atera egin diok ba?

— Bai, hara, —erantzun ei zion—, personea, hil, baten baino ez duk egin bai, eta, ni neu goiti beiti ez dezala euki beste mundurako bidean enberazurik. Haserrea duk bat eta gorrotoa beste bat, mendiak ez ditek eukiten bata bestearen beharrizanik, gizonak ostera bai, ze egingo diok ba, denok horiek lakoak izanez gero bizi be ezingo gintezkek egin, josteko be hariak

firuak edo armilluak, orratzak baino luzeagoak izan bear dik, hara-hara, dagoela zeruan, orain gauzak kanbiatu egin dituk eta denek emoten ditek errazoia. Ez diat ez ondo pasatu baina tira, esakerak dinok: “egiak guzurrari jarrita itxaroten diola”, eta halantxe duk izan be. Baina, gorrotorik ez, horixe bai ezetz, lehenago moro!

Bai gizona, horixe egin zuen. Eta holango kontuak asko pasatu dira, orain denekin akordetan be ez dago fasil, baina, tira, izentazinorako beste kontutu dizut.

Honek santa honek indar handia euki du gure herrian, usadioa alosokoa izan da, batez be umeak eta kintoak, aurrerantzako kinto-lagunak kontutan hartuz gero.

Goizean goizetik urtetan zuten, gehienetan elbarrenetik eta gorantz-gorantz etorten ziren kantaotsean.

Eta gero hor egurdartekoa egin orduan, bazkaldu egiten zuten baten baten etxean, ostera be ekiteko arrasti guztian ergoieneraino allegatu arte.

Santa Ageda, izan, izatez, zezeilean bostean da baina kantatu lauan egiten zaigu. Eleizan be kanpabuelako eta guzti joten zizkiguten.

Kantoreek aurrezdik zeuzkaten euren makilak eta prest. Ahal zuenak goroztizkoa, beste batzuk gaztaiñazkoa be bai, jakina, zenbat eta egur gogorragoa hobeto, badakizu, horiek kintoak sasoia zeukaten ba makala! Batzuk txilinak be iminten zizkieten edo kaskabelak. Eurak be dotore plantetan ziren antxinako burrusarekin, abarka-median, garrikoa, samako paiñelua, txapela, berba baten esanda, patxadaz atonduta.

Eta, ba, hor ibiltzen zitzaizkigun etxerik etxe, dirua, solomoa, arraultzak, lukainkak, edo batek badaki zer batzen gero errepartoa egiteko.

Gaur errespetoa be lardangaina galdu da baina orduan bazegoen bai egon be errespetoa. Begiratu ezazu, ba, etxe baten atea jotzen zituazkenean, kanto-re aurrelariak beti esaten zuen:

— Santa Ageda kantatu ala errezatu egingo dugu?

Eta, ba, etxe bakoitzean segun zelan dauden, errezetako be igual esaten zieten, batez be hil-berriren bat edo egonez gero, edo etxean bateren bat gaxorik. Eta kantatu zein errezatu, aginaldoa berdina izaten zen. Otzarak be politak eroaten zituzten, zimentzezkoak edo ziriez eginekoak.

Kanta luzea izaten zen. Santa Agedaren bizitza dena kantetan ziguten, ez oraingo moduan, orain gente asko bai baina kanta laburra, eta askotan Santa Agedaren bizitza barik beste zeozer be igual.

Jakina, lehen be, Santa Agedaren bizitzatik aparte, egiten ziren egin beste kanta batzuk. Esate baterako, ba, aginaldoa be alosokoa izan dadin, ba, zelango etxea halango bertzoa botaten zuten hasikeran. Jakina, etxe bakoitzean nor zen estimatuena, ba, harexeri berberari. Batzuetan, etxeko ugazabari, beste batzuetan etxeko andreari, edo egon ezketiño ezkon edadeko alabari, edo semeari, edo umeari. Agintariei be bai, alkateari, edo abadeari.

Bataz beste danak emoten zuten zeozer, baina zeken antzak be egoten ziren eta kantatu ez egiteko esan barik lehenengo kanta erazo eta gero ezer emon ez.

Orduan, kantoreak eurak be eukiten zuten euren bengantzatxoa, beren beregiko kanta bat edo bi eukiten zituzten holango kasuetarako.

Bata hauxe da:

“Erbia dago azatzen
erbikumea babatzen
etxe honetako ugazaba jauna
samarinoko kakatzen.”

Eta bestea:

“Belea dabil haitzean
berarentzat zori gaitzean
arantza beltza sartuko al zaio
atzeko zulo baltzean.”

Eta holantxe izaten zen. Kintoak gauiluntza edo gaulendian ibiltzen ziren eta gero afaria egiten zuten.

Batutako diruarekin errepartoa egiten zen, asko be ez zan izaten eta. Gero, ba, oraintsuago, noizago hasi ziren neuk be ez dakit ondo, baina dirua limosna egiteko be emoten zuten, edo herrian ume edo zaharrentzako zeozer egiteko.

Orain eskolumeak bakarrik dabilzkigu. Hor Arratian badago usadioa oraindino be, koru handia ibiltzen da, hori zuk zeuk be badakizu, hainbat urte ibili zara eta hor koruan. Horrek koru horrek atzeratuentzat batzen du. Eta domekaz jausiz gero San Mamesen be kantetan du intermedioan, bai, behar ona egiten du horrek koru horrek, holango laguntasuna ondo etorriko zaie horiei gixajooi, sano gaudenok sarritan kexatu egiten gara baina guk Jaungoikoari egunak dauzkan ordu guztietan eskerrak emoten egon bear genuke hazbegiak ondo genituela jaio ginelako.

Gure gazte denporan, eta ia-ia oraintsurarte, bidazkiak, pausuko topetan genituen, hor bideak betean, etxerik etxe.

Bidaztia edozein da, baina batzuk fijoak izaten ziren eta bakoitza bere tertzioan agertuten zen hemetik paraje honetatik.

Batzuk herrikoak zitzaizkizun baina beste batzuk albo-herrietakoak eta banaka batzuk urrunekoak, zeinda, horiek peregrinoak, edo baheroak edo mieleruak esaterako.

Aitearen eta semearen!, denen berri gura duzula?, ba, orduan badaukagu zati baterako bidaztion kontuekin.

Hasteko, gura baduzu, ehunleak edo ehuleruak aitatuko ditugu. Hemetik Zeaniztar bat eta Zeberioako bertako bat ibiltzen ziren, liño denporan, liño beharrak eginda gero. Liño-firuzko harilak pisura hartzen zituzten. Zaldi edo mandoarekin etorten ziren eta euren otzarok bete arte etxerik etxe ibiltzen zitzaizkigun. Gero handik denporakarrean, berriro etorten ziren baina oraingoan misezko izara edo beste klase bateko tela eginda. Eta, kobratu ez zuten egiten diruaz, zeinda, gaur erosten den moduan, ezpabere ze, eurak lotuten ziren honenbeste edo harenbeste firurekin edo harilekin, errotariak arto edo gariarekin egiten duen letxe.

Gero ba, ermandadakoak. Hemen gure parajea, ergoienean, hamabi etxe gara eta ermandadea egiten genuen.

Etxe bakoitzeko ugazaba edo errentorea bada, ganaduen jabea, ba San Justoko ermita-portalean batuten ginen urtean behin.

Zure aitita Frantziskok hartzen zituen kartak eta bateko urrea toketan zitzaiona, presidentea izaten zen, gero beste karta batekin, mayordomoa eta beste birekin beste lagun bi. Eta hau, urtean-urtean.

Hileko lehenengo domekan errekorridua egiten zuten, kortarik korta. Eta, jakina, korta bakoitzean, horiek laurok eta etxeko ugazaba batzen ziren eta hilerok-hilerok behi guztiak tasatu, denen konformidadearekin.

Eta, ba, gero, egunen baten, bateren bati behiren bat tragatu edo maltratatu gero, edo behien batek txala galdu ezketiño, ba, juntatu egiten ziren eta kaltearen kostua denen arte zatitu eta kitutu.

Beste batzuetan, etxe-errearena batzen etorten ziren. Ni neu be ibilita nago horretan menester horretan.

Badakizu, lehenengo baserriak zaharrak be bai eta, gariak eta bedar sikua be kamaran gordetan genuen, kortan berriz, azpigarria eta idea, eta, ba, hagai-tik horregaitik sarri erretan ziren etxeak eta goizetik gauera ezer be barik lotu hango etxeoak.

Orduan, herriko gazteak eta, alkar hartu, eta etxe-errearena batzen joaten ginen etxerik etxe. Borondate oneko genteak ez du zeozer emon barik itxiten. Beste herri batekoa bada be berdin emoten zaie, ze ezebezean lotutea gauza tristeza zaizu gero!

Eta ba, denerik batzen da. Dirua, janaria, erropak, tresnak, muebleak, eta batzuk ardi edo txerri edo beste animaliren bat edo beste be bai. Beste batzuk hagearena, hau zera zaizu, etxe berria egiteko zutunik dauden haritzak emon, behar duenean bota eta hage edo zolibak egiteko etxe berrirako.

Eskekoak berriz, eskandalua ibiltzen zen lehenago, baina hori, eskekoarena amak kontatu dizu lehentxoago hor kontu erratuarena batzen ibili zena-ren kontuan.

Jitanuak izaten ziren beste batzuk. Horiek karro eta guzti etorten ziren eta Zeberion euren lekuak eukiten zituzten gaua egiteko edo emoteko. Bat hementxe dago, Isasin, oraindino be han dago zipresa, arbola ederra, eta hantxe, ziprespean egiten zuten lo, hori zuk zeuk be badakizu, makina bat bildur pasatu duzue zuok eskolarantzean eta, ez da baietz? Orain horri leku horri "jitanuen lekua" deituten diogu denok.

Baheroak, hau da, baheak egiten ibiltzen zitzaizkigunak etxerik etxe munduak aramaio, hortik Galizia aldetik edo etorten ziren, eta ba gurean egiten zuten lo, ostatua eskatuten ziguten eta gero joan etorri guztietan gurera, izan be, gurera Gorbeian begia atereak be joko luke eta.

Hauek baheroak, mandoekin etorten ziren eta badakizu, gari beharrak eta egiteko baheak eta galbaheak euki behar dira eta hauek, batez be baheak egiten zituzten. Etxe bakoitzean zelango neurrikoa halangoxea. Uruna azpiran eralgiten zen eta klaro, azpirak be ez ziren denak berdinak, ganera, bahearen telea edo sarea be ez, tela batzuk zeheago eralgitekoak ziren uruna fina-go eralgiteko, tela finetik eralgiz gero urun zehe-zehea ateraten zen eta hori

zen onena ogi zurirako. Ostera, tremesa egiteko uruna ez zen hain zehea, zahiarekin nahastatutakoa baino. Haregatik ez zeukan hain kolore zuria. Guk ogi zuria geneukan onenentzat eta orain begiratu, orain bestea ei da hobea, zahiarekin nahastatutakoa, integrala deritzogun hori.

Eta, ba, gaua egin orduan, emoten ziguten dirua edo baherik behar iza-
nez gero bahe truke, eta holan izaten zen. Guri grazia egiten zigun euren arte-
ko berbaikuneak.

Pasigerak izaten ziren beste batzuk. Horiek montañesak izaten zitzaizki-
zun, andrazkoak. Eta erropa zaharrak eta lana zaharra batuten zuten. Lepotik
kubanu handi batekin ibiltzen ziren eta kilo erropa edo lana, txakurrandi bat
edo hiru txiki pagetan zuten. Dirua gura ez zuenari orratz batzuk edo ditare
edo holango balio gutxiko zeozegaz pagetan zioten.

Legoak izaten ziren beste batzuk. Horiek ba komentoetatik etorten zi-
tzaizkigun limosna batzen, eta dirua ez zenean gari edo artoa be igual, bada-
kizu ba, komentoko ahoak be bete behar ziren eta. Horiek erreztatu egiten
zuten, estapanak emon be bai. Batzuk morroskoak ederrak ziren, zankaluzeak
eta kokote bete betekoak.

Fraileak, horiek mezakoak be etorten ziren baina ez eskean, mutiko tope-
tan baino, euren komentorako. Hemetik asko joaten ziren, akabatu gitxik.
Lehenago fraile edo abade sartzea ez zen gauerdiko ahuntzaren eztula. Orain,
estudioak akabatu ez egitea be txarto ikusita zegoen. Horiei "malestudiante"
deitzen genien, deitu be.

Frailea, kategoriakoa, Aita Patxi defuntua genuen. Hak makina bat meza
emon du Zeberiko etxeetan, zahar edo ibilpidea galdurik zutenenean batez
be, eta bideak oinez be egiten zituen baina edadekoa zen eta, ba, kantsatu
be bai, eta auto estop egiten zuen bideak betean, baina jakiten genuen, hari
autoa paratuz gero eta komertazinoari utzi, errosarioa errezetan hasiko zitzaiz-
guna eta geratu be ez. Oinez joanda be igual, ni neu burua Barañaora joan
nintzen laguntan eta bidean hiru errosario edo erreztatu genituen. Batzuk bur-
lazar be ekiten zioten, baina ha beti berera, gizon zintzoagorik! Zerurik bada-
go, Aita Patxi han daukagu!

Martxanderak be ibiltzen ziren, baina hau kontu hau kontaduta daukatzut
lehentxoago baten, hor koxituta daukastazu hor aparatuan, grabadora edo
dena delako horretan.

Tratanteak, ganadu erosten etorten ziren, batzuetan mataderorako baina
gehienetan eurak erosi eta beste batzuei ferietan saltzeko.

Batez be txahalak erosten zituzten, eta horiek begipisuan erosten ziren,
hau da, begiz egiten zen tratua, begi ona eukiten zuten, miruak harra ikus-
tekoa lakoxea. Geuk be seguruan jokaturten genuen, eta tratanteak etorri baino
lehen pisu erromanekin pisatuta eukiten genuen eta, jakina, gero euren eri-

tzia entzun orduan konformatu edo ez egiten ginen. Tratanteak okerrak dira gero! Baina gu geu be zuhur, inoiz holangoren bat etorriz gero “urliak hone-xenbeste opatu digu” esaten genien ia jausten den, baina, kia!, nok harrapatu horiek? Horiek?, azkonarrak zer dira gero!

Gero, hilteko ganadua zenean, ba batzutan bizipisuan egiten zen tratua, hau da, bizirik pisatu edo beste batzuetan kanalean, han mataderoan.

Eta gehiago zer esango dizut ba, afiladoreak be etorten ziren, parague-ruak be bai, mieleruak be bai eztia eta gaztaia eta saltzen, eta ba, ez dakit ba nik, iaber, itxaron ezazu, inoiz-inoiz peregrinoak eta be ikusi ditugulazkoa hemetik.

Peregrinoak nire aldian gutxi pasatu dira, lehenago asko ibiltzen zirela daukat nik entzutea, ikusi badinotzut, gutxi baino be gutxiagotan.

Gure etxera bi biderrez etorri dira. Lehenengoz gizon bi, txarto jantzita. Batak samatik dingilizka zeukan errosario modura itsasoko txirlekin eginda kollarra, barrenean kurutze bat eta besteak ezer be ez. Batak jana eskatu zigun eta besteak ura. Esan ziguten Konpostelara doazela promesaren bat betatuten.

Beste baten, beste bat agertu zitzaigun, ha be txarto jantzita, eta ura baino besterik ez zuen eskatu, hak ostera itsasoko bitxoekin egineko pitxer bat zekarren aldean.

Baina badinotsut, hau antxina izan zen, ni neu be ozta-ozta akordetan naiz. Ahaztu ez zaizkit egin ze hain izan ziren bidazti zebreak!

Ai!, eta hauek eurak be bai, zerak, serorak. Serora etorten zen batzen. Eleizarako hamarrenak eta azken antzean beretzat be batzen zuen. Lehenago, eleizari pagatu egin behar izaten zitzaizkion “hamarrenak” ezpabere hil-kanpairik be jo be ez harik eta zorrak kitutu arte.

Hauetan azken aldiotan gari garbiak ez diren bidaztiak be badaragoioe hemendik, bateko guzurra besteko abarra gure zaharrak engañetan. Lapurrak be gainetu zaizkigu baten baino gehiagotan. Gurean sekula ez da itxi atea egunez eta orain solora eta goazenean giltza bota behar, zein lapurrak sartu. Zer ikusi behar ez dugun baino ez da gaurko mundu ziriguztu honetan!

Bueno ba, ekitaldi bat be egin diogu bai, eta utzi diezaiogun bidazti kontuoi eta jan dezagun gazigarri apur bat ogi altzi batekin eta edabe apur bat edan, eze hauek kontuok ezpabere akaberarik be ez daukate!

Hor Bidebietatik San Migelera bitartean Gaztañabaltzeko errebuelta dago eta ondoan Bidebietako mataderoa.

Eta usadioa zena letxe, ba, genteak ganadua eroaten zuen hilten mata-derora eta ba jakina, gero diruarekin etxera.

Holango egunen baten, gizon bati, Patakon lapur famatuak urten zion biderdira hor Gaztañabaltzeko kurban eta altoa bota:

— Soltatu ezak hori gerriko hori eta bota itzak horiek diruok atoan!


Eta hak gizonak ezagutu egin zuen Patakon eta gerrikoa soltetan dagoe-la jausi egin zitzaizkion diruok zorura, zelaira.

— Ekar itzak, arin, Patakonek ez dik itxaroten eta!

— Makurtu eta har itzak hik heuk!, —esan ei zion gizonak-kanpotik firme itxuran baina barrutik bere fraketan egotego gauza ez dela.

Orduan nor?, eta Patakon ber bera makurtu zen diruok hartzeko, baina hartan, gizonak fraka barruan badaezpada gordeta zeukan ziri-porra edo mailu txikerra hartzen du eta, di-dau!, jo buru-buruan, kaskat kaskatean, kokote buruan Patakon hori eta han garbitu ei zuen seguru. Hartu berriro diruok eta orpoetan har barik plantatu ei zen etxean bildur-sartu eginda, izerdi larritan. Ez zen gutxiagorako izan be!

Hau Patakonen historia hau kontu lez kontetan da baina, ha eta guzti be, aitatuten dudan bakoitzean, buruko uleak be arteztu eginik izaten ditut eta pipiladureak urtetan dit eskubitorretik ukondora bitartean. Baina, tira, gesu baten tertzioa da hauek bildurrok kentzeko, osterantzean, beti egongo gina-teke lehengo gauzei eragoten.



Hor ez dakit ba non be, hainbaten izango zen, astoren bat ei zegoen deslai, adinon, eta ba muna bazterrik muna bazter zebilen ezertarako gauza ez dela.

Ibilian-ibilian baten bat beti topetan da eta, ba, asto horrek be txakur galgu bat topatu ei zuen eta:

— Zer egiten duk hemen fetura horretan, alborantz einean, jausi eginik?

— Zer egingo diat ba, behin gauzeztanduz gero ez nautek gura eta anda-fuerazko jantzia emon zidatek, hau duk izatekoa, ondo eginaren pagua ate ostean palua!

— Tiauk mutil, ni neu be han por han nabilek eta hator, zelanbeist bizia-ri eutsingo diagu eta.

Eta joan ziren biak bietara, itxura koitaduan baina tira, belea beltzago ez dela egingo eta, aurrera eragoioen.

Arrasti erdirantz, han pagadui batetako txorbel artean etxun egin ziren biak eta astoak astinaldi batzuk emon be bai.

Zeinakio daudela, norantz hartu ez dakitela, katu bat ikusi zuten pago baten adapoan miau baten, eta badinotso astoak:

— Hi, zer egiten duna hor miauka, katarraren bati deika ala?

— Bai zera!, sagurik be ez diat harrapetan bai, eta suela emon zidatek etxean edo hobeto esanda, gosea emoten izan zidatek eta urten egin behar mundurik aramaio biziko banauk!

Hator, etorri adi geugaz, miau-gedarroi itxita, eta hau txakur hau goiti beiti izango haiz, ze zahartzaroan norbere buruaren jabe izatea be ez duk gutxi, eta ez diat pentsetan pleitu-intzigurik eukiko dozuenik bata bestearen artean.

Alkar hartuta joan ziren joan be, hirurak hiruretara nondik gura eta handixek. Bata bestean arrimuan begiak be alimau egin zitzaizkien.

Allegadu ziren propietario baten etxe ondora be eta, ba, han, oilar mardo eta gargartsu bat ikusi zuten oilategian be kabitan ez dela, artega be artega, bateko kukurrukua, besteko alanbradurea pasadu gurako egazkada, zoratu ez bestean ei zegoen oilar hori, eta horretara badinotso astoak:

— Zer jaungoiko pasetan zaizu ba oilarra hain artega egoteko?

— Zer pasatu dinostazue? Ba etzi zortzi Sandoniak dira, hemeko jaiak eta dagoeneko lapiko eta kazulaotsa barruntetan dut eta hemen itxaronago eta txarrago nago ze nire atzena holango kasularen baten izango da, ai ene! Biripoak be irakin egiten dit. Erduzie laguntan!

Orduan astoak ostikada bidiru boteaz harrate bat egin zion oilategiko alanbradurari eta han eroan zuten euren hankartean ostanduta, estarian, oilar hori.

Eta gero ba han ez dakit ba non be, dena be kontua izango da baina, gau beranduan argia ikusten ei zuten eta txokatuta zeuden. Arrimadu ziren eta oilarrak sorots egin ei zien arbolaren baten ganetik eta ene!, lapurrak!

Orduan, paretan dira astoa azpian, txakurra ganean, katua ganeragoan eta oilarra ganerengo eta hasten dira bata arrantzaka, bestea ahausika, bestea miauka eta oilarra kukurrukuotsean, laster eskapatu zuten urrean lapurrok orpoetan har barik.

Eta gero zer pasatu zen? Ba oilarra suteko bentanan paratu zen, katua supazterrean, txakurra tranpako ateari deusala eta astoa kortako ate ostean.

Lapurrok luze eritxita zeuden eta halangoren baten euretako bat arrimatu ei zen ilunetan eta supazterrera heldu zenean ilenti edo txingerraren bat delakotan botaten dio eskua eta katuak erpaka egin ei zion. Gizon hori karran hasi zen eta sutetik kortara bitartean txakurrak ahausika eta azkenean kortako ate ostean astoak unberdinka ostikada endemoniño bat, eta oraindino oilarrak kukurruku egiten ei zion suteko bentana barrutik.

Lapur hori joan zen lagunokana eta zer?, eta, —badinotse—: ai enetxua! Sutean, supazterrean sorgin batek txatxamarka egin zidak, tranpako ate ostean gizon batek kutxilloa sartu, kortako ate ostean monstroak estakeaz jo eta oraindino suteko kristalezko bentanatik jueza entzuten izan diat esaten: “Ekarri hona, ekarri hona, neuk dominatuko diat eta”.

Bueno, hau kontua dena jakingo dozu ezta! Kontatu klase edo era askotara egingo da, era bat zaizu hau, beste era batzuk be egongo zaizkizu, nik neuk honan euki dut entzunda. Orain, gero diruekin zer pasatu zen ez dakitzut esaten, kontuetan edozein gauza pasatu be egiten da eta. Halantxe hartu egin be egin behar!

Orain kontatuko dizut zer pasatu zitzaion bati: Zeberioko Santa Kurtzen andra bat hil zen eta itxuraz, zeozer, promesaren bat edo euki zuen eginda batenbatekin. Eta gero urtetan zien etxekoei leku askotan eta ezorduetan.

Egun baten joan zen abadeagana preguntez etxeko andrea, ba, aber zer egin diezaioeken edo ba, zelan urtetan dion ba, amak edo ez dakit nor izango zen.

Eta, abadeak esan zion ba ze: "Esan iezaiozu ia zer deseetan zaion, bakez datorren ala zer demonintru!"

Esan eta egin. Preguntatu zion eta beste horrek erantzun: "promesa bat itxi duela kunplitu barik, urli eleizan meza bat entzuteko, eta Jaungoikoaren amor santuagatik haxe mesedea egingo lioken!"

Eta joan zen andra hori kunpliduten promesa hori eta mezea akabatu zen orduan eskatu zion eskua azken agurra egiteko. Baina bestea jakitun zegoe-nez, eskua luzatuten hasi baino lehen, hartu mokozapi bat eta ha eta guzti emon zion eskua badaezpada.

Eta aditu zelan diren gauzak, han paiñueluan hamar hatzamarrak egineko erre-marka agertu zen. Bai, hori erre-markaren kontua sarri entzun dugu. Niri neuri ez zait inoiz suertatu holakorik baina jakitea beti dago ondo, orain agiri ez arren agertu egin litezke eta horiek arimok!

Esatén dute, antxina, hauek barregarri antzak ez zirela gauza onak be eta batzutan abadearen esana egin barik maldizinoka be hasten zirela, berba motzak esan ahal ez direla be, maldizinotsean.

Behin baten, hor ez dakit ba nok be arima ofrezidu ei zion deabruari galondo beharrak egitearren baina damutu egin ei zen eta horrez ganera Samartinen hamabi egiak esan behar izan zituen bere arima salbatuko bazen. Honan hasi ei zen:

Samartin esan ezak bat...

Gure Jauna bera duk bat berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bi...

Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hiru...

Hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak lau...

Lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bost...

Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak sei...

Sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak zazpi...

Zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak zortzi...

Zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bederatzi...

Bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamar...

Hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamaika...

Hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamabi...

Hamabi apostoluak, hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamahiru...

Ez zegok hamahiru, oilarrak joten dik munduan, angerutxoak zeruan!

Zahartzaroa, onena izanda be, zahartzaroa da bai eta batzutan zaharrak okerrak direlako, beste batzuetan gazteak eurak biotz gogorrek direlako, ba, sarritan bat baino gehiagok aurkitu du bere burua asiloan edo lehenago ospitala esaten zitzaion etxean.

Ez dakit noiz be, gizon zekenen batek bere aita hartu lepoan eta asilora bidea hartu ei zuen aita hori lepoan dela.

Joan zen burpiderik burpide, bidezidorrik bidezidor txit erdi bera be egin barik aitari eta halangoren baten han bidekurtzeroren bateko harri nagusi baten jarritea pentsatu zuen zigarro bat egiten.

Alkarri lepoa emonda zeuden aita-semeok deskantsu apur hori hartzen, ixilik, bata besteari aditu be egin barik zein atzera egin.

Baina halangoren baten semeak ezin zuen erremediatu eta adikuna bat bota ei zion aitari eta begi bietatik negarrinpulua dariola zegoela ikustean badinotso:

— Zeri egiten dio ba negar berorrek orain tertzio honetan? Nahikoa ez diot ba aguantatu bikuntzako bizimoduan?

— Ba semetxoa, zeri egingo zioat negar ba, nire neure aita asilora ekarri nianean hementxe bertan, berpetan ezarri ninduan deskantsu apur bat hartzeko eta ez nian euki bihotzik neure aita hartu eta ostera be etxera eroateko! Ez nian uste neure burua egoera honetan inoiz ikusiko nianik, baina niri neuri heldu zaidak nire txarto eginaren pagua! Gurasoak dena zioz zor seme-ari, bazekiat, baina nik neuretzat egin diat lartxo eta hik heuk be nire neure bidea hartu dukala uste diat, baina, berandu baino lehen, har ezak nire kontsejua, zein?, eta hauxe: nik neuk lez, hik heuk be badituk seme-alabak eta honango gauzetan “zer ikusi ha ikasi edo haltzaren ondoan haltza erne” suger-tatzen duk. Ni ez nok luzarorako eta ez zidak hainbeste ardura nire azken egunak etxean zein asiloan egiteak, baina hik atzera begiratu behar duk eta orain erein gerorako hazia, hau dok, ejenploa!



JESSE-95

Semeak horiek berbok entzun zituenean, bihotz ikara batek jota lez, hartu berrien berriz aita lepoan eta ez ei zuen inoiz etxerako bidea arinago egin. Han akabatu ziren asilorako bideok. Bai, gaur be, jokabide asko eta asko, porrak buruan jo arte itxaron barik lehenago arteztuko balira, zenbat hobeto!

Aldi baten, kaskondutxoa nintzela, han, Zaratamon, kriada egon nintzen lekuan, pasatu zen hau fetxoria hau. Lehenago, badakizu, gure denporan eskolara barik kriada botaten gintuzten txakur bigaitik edo askotan mantentalde ezta, eta ba ni be umea oraindino, Zaratamon nengoen kriada, ondo estimadu egon be ganera, ze begiratu ezazu, oraintxe eta oraintxe be hango etxe-ko kuartu batek nire izena daukala esan zidan oraindiño antxina ez dela hango nire ugazabandre defuntearen alabak.

Eta esaten ibili natzaizuna, hori begizkoarena, ba han, ondoko etxe-ko ume bat txarto-txarto paratu zen eta, ba, zer ete den edo ez den asmatu ezinik, han zebiltzan begizkoa izango duela, ez duela ezbaian eta atzenean disponitu zuten ia begizkoa nok bota dion jakitea.

Eta horretarako hartu sarten baten plomoa eta behesuko surteko su bizian urtu zuten plomo hori. Gero bota zuten ur hotzetara eta han urtzan, inon diren figurak urtetan zuten, zeinda, sorginkumak lakoxeak.

Gauzak horretara, disponitzaileak han zebiltzan euren kontuokin ia gizonetzkoa ala andrazkoa den dañino hori jakiten.

Nik neuk orduan ez neukan gaurko argitasuna baina gero jakin nuen meningitisa euki zuela hak umeak.

Hau begizkoaren hau zabal ibili da gure herrietan. Lehenago sinestu be edozein gauza egiten zen eta.

Zaintiratuenaren antzean, han be itzelezko berbak esaten zituzten batzuk. Haiekin berbekin eta kurtzeekin eta, nik neuk ez dakit ezer logratuko zen baina gutxienez bihurrune lekuak igurdi egiten ziren eta hak igurdialdiak mesede baino ez zion egingo hango hemengo erasoari.

Zaintiratua egiteko be ixilean ibiltzen ziren, estari antzean ibiltzen zitzaizkigun sorginkeritzat zeukaten askok eta, batez be eleizaztiku antzak.

Zuk zeuk be zuk eroan zenuen amama ixilean Arteara zaintiratuarena egiten, ako belaun buruko eraso edo bihurrunea egin zuenean. Eta zuk zeuk

esanda dakigu zenbat gura eta harexenbeste aiena egin zuela amamak belaun burua igurditen eragoinean hango errementariaren ondoko etxeko andreak.

Gaurko egunetan begizkorik ez dakit botaten den baina ganeko nahastea zabalduen dabilen horiekin gaurko aztu edo apareju horiekin! Nik neuk ez nuke horien fian geratu gurako badaezpada. Inon denik agertu be gero bake-bakean bizi garenon artera! Zer ikusi behar dugun baino ez da, aitearen eta semearen!

Behinola, gariak ez ei zeukan gauza onik bere burutxo hori altzatu behar-raren altzatu beharraz eta halangoren baten nori? Eta badinotso artoari:

— Hi, hemen labrantza guztitik neu nauk bedarrik onena, zegatik ze, begiratu ezak, niri neuri eskerrak jan egiten dik jan honek gente honek.

Lehenengo, soloko bedarrak udelandu, gero era den tresnarekin lurra arakatu, zokil-mokilak haustu eta dena pres-prest itxi ereitzarako.

Gero hazitarako itxitako galgarauak hartu, bota urez betetako zin batera, galgarau tximelak apartatu, beratu orduan ura kendu, karearekin nahastu eta solora.

Behin soloraz gero, ereiten hasi orduko, azatzak iminten dituk nondik erein jakiteko eta ba hantxe itxiten naiatek harik eta erne arteraiño.

Erne orduan, mokil-hausteko ezin likek aitzurrik sartu eta horregaitino txilindroiaz egiten zizkidatek atzeraurrera batzuk ahal dela iturreko barik zein ernaroa alperrik galdu zapal zapal eginda.

Gero ba han negok solo gehienetan ogiterako baina beste solo batzuetan galberderako be bai, ganaduak berdean jateko.

Maiatz ingururazkero burua egiten zaidak eta bagilean, segun goizetikoa edo belukoa, helduaz nijoak.

Heldu orduan ebagi egiten nautek udako bero-beroan; batzutan igitaiaz eta beste batzuetan kodaiñaz.

Gero zoruan, galondoan, zabal-zabal egin eta solo arloa ebagi akabatu egin orduan sartu uretan aurreko urtean jotako galtzupolla batzuk beratuteko eta eurekin egiten zizkidatek estukinak eta eskutak egiten hasi eskuz joteko baduk, eta makina-trilladorearekin baduk karga handiagoak, besarte bete-koak.

Behin eskutak egin orduan mutxurioak egiten hasten zaizkidak buruak gorantz direla eta handik lasterrera edo igual hurrengo egunean metatu egiten nautek.

San Inazio aurretik ahal dela, holango egun bero baten, kanikularekin, zabaldu berriro gari-metok eta gari-joten hasten zaizkidak eskutok garanduteko.

Horretarako, hartu harri-losak azpian tronko, mokor edo beste harri bat dela eta aurberan imini orduan gari-joteari ekiten zaiok, batzuk akarreoan eta beste batzuk joten, sasoi oneko gizonak bitarteko.

Gariok jo orduan, lehenago artzaz airean, geroago galbaeaz edo eskuzko makinaz eta orain trilladoraz be garbitu egiten nautek. Gero zer? Ba, galgaraua, anegaka zakuetara, galtzua edo ahotza kamara edo tejamanara, galhautsa kortara ganaduei azpiak egiteko eta galondoan lurra betean deslai lotu diren galburuak, oiloentzako.

Eta orain zetorrek onena, horiekin anega gariokin, urterako ogia egiten zidatek. Hartu zorroka eta errotara eroan. Han eho eta eralgi. Urun eralgibikoaz ogiak egin eta baten eralgikoaz tremesa, gaur ogi integrala deritzona. Eta ogiak, ez bat, askoz gehiago. Azpiran zabaldu gari uruna, bota gatzura eta lebadura, igurdi ondo, zatiak egin eta itxi ondo jagiten, jagi bi badira hobeto. Gero horrekin egin ogi nagusiak asterako, edo pamitxak, edo paskoetan morrokotak zein mokotsak, edo momentorako talo jagiak. Hau guzti hau labean. Otekin berotu labea eta templea hartu orduan barrura ogiok. Horixe guzti hori egiten ditek nire urunaz.

Artoak ezin zuen aguantatu gehiago eta berak be bere burua gitxiagotzat ez zeukanez badinotso:

Hi, hik hau eta hori eta bestea dinok, baina ni negokan lekuan be ez zegok goserik e! Eta ezpabere begiratu ezak ia labesuen hire aurretik nor doan labera barrura, neu, eta ganera neuk tenpletan diat ganera hiri labea eta ondo gozo jaten nautek urdai errearekin eta gauetan artosopan, eta... Eta ez hori bakarrik, hire galtzua zein ahotza latzak dituk biak be eta galhautsa zertan esanik be ez, baina nire garbea eta kanila berdetan eta heldu orduan artaburuak zuritu eta haiekin kapaxekin zeinbat gauza, denak be jan gozo-gozo eta finenekin a zelango lastamarrak egiten dizkiaten gero lo egiteko, eta zeukanak, tabakorria erretako be papel ordeaz gastu gutxiago eukiteko, zer pentsetan duk ba?

Nik neuk be ganeko burua zeukeat, eta nire buru ederrekin jaten hasi baino lehen labigerra egiten zidatek eta gero eroan errotara urun ona aterateko. Errotaria be zuhur egoten zuan eta nire labigerreko arto-urusetik hire gari-urusetik baino pitantza handiagoa gordetan zian beretzat eho alde.



JESSE-95

Gero ganeko arto, opil, talo eta morokil gozoak egiten zizkiaten ni neurekin, zer pentsetan duk ba?

Eta ganera oilo eta txarrientzat be banauk jakia, eta gero a zelango arraultza eta txarriki gozoak jaten dizkiaten.

Eta, ba, pasatu zituzten diskutiok, ezbaiok eta trebituok eta beste egun baten artoa gainetu ei zitzaion gariari eta esan:

—Hik hau eta hori eta bestea baina ni neu hi baino handiagoa eta buru hobeagokoa nauk, hi nire ondoan merro, txankerre, kokoterre bat baino ez haiz!

—Hi, entzun iezadak, —erantzun zion gariak—, txikia eta merroa naukala zein ez naukala, baina maiatzean buru izaten nauk eta niretzat neuretzat galtzua edo ahotza baino buru ona eukitea duk lehenengo, eta hori banauk, eta hire lasto larden eta kankailoak ez zidak ikerarik egiten. Horraitino, esan be egitea hori ganorabakokeria hori!

Holan zebiltzan gari-artook. Artez egia esateko, biak be ondo datozkigu baserrirako, gaur mizketuta sarritan jan gura ezik egoten gara baina! “Mizkeria lan gaizto” dinosku esakerak eta begiratu gaur zer ekarri duen munduak, artorik jan gura be ez eta ogia dandarraz hortik zehar edozein lekutan! Non ete daude haiek zoruko ogi zatiak hartu, aitearen egin, mun emon eta jaten genituen egun haiek! Hau bai dela izatekoa, mundurik erdia ogia be jan gura ezean eta beste erdia irentsiko lukeela. Nora allegatu behar dugun baino ez da!

Baten, Saldainen, Saldain badakizu non dagoen ezta? Han, Zeberio elbarrereko egillamu baten, Ba, han seguru, txakurren bat ei zegoen goseak irrintzaka, tripalekin tripak orroaka, eta ba oraindiño ez zen bazkariko tertzioa eta berekitan esan ei zuen:

— Hemen Saldainen oraindiño lapikokoak itarin zeudek eta Uriondora joan behar diat ia han zer topetan diadan, han ordurako zुकुतuta egongo dituk eta lapikokook.

Malbako txakur horrek, hartu be egin zuen Uriondorako bidea, txakur-amesak bitarteko, eta han zihoan beresirik beresi. Uriondora allegatu zenean zer? Eta ba han denak bazkalduta ez zituen ba topatu!

Eta orduan buztana atzeko hankartean sartuta, bere buruari esan ei zion:

— Orain eperdian mun egiok, hurrengoan epe apur bat gehiago euki beharko diat ezpabere gaurkoa pasaduko zaidak, nik bai egin diadala kokoriokeria, ganeko susterbakoa naukan!

Eta horixe pasatu ei zitzaion antza, eta gaur be, baten bati holango zeozer pasetan zaionean: “Saldaingo txakurrarena pasatu zaio” esaten dugu.

Hor Arratia partean, Billaroko Ellakuriko txakurrarena kontetan da gehiago. Han, Ellakurin azpian, monjen komentoa dago eta ba hango txakurren bat, dena beharrekoa zen antza, eta Ellakurin belu bazkaiten dela eta monjetara joatea pentsatu eta egin zuen. Monjatxoak goiztarrak izaten dira eta bazkaldu be hamabi hamabietan egiten dute. Egun horretan inoiz baino tertziozago egin zuten bazkaldu egin be eta Ellakuriko txakur hori heldu zitzaienarako, ba monjatxoak bazkalduta ez zituen aurkitu ba! Eta, jakina, txakur horrek ostera be hartu behar izan zuen Ellakuriko bidea han goiz berandu edo egurdarte luzearen ondoko bazkaria egiteko. Joan bazijoan baina bidean zertan hartan denpora larregi emon edo ez dakit ba zer, fit!, han be bazkalduta. Halantxe geratu zen bazkari barik dena gurako txakur emendatu ezin hori.

Juanito Sarasolakoak esaten digu Ellakuritik monjetara barik Gorbeia ondoko etxe batera joan zela hori txakur mantzin hori eta berdin pasatu zitzaiola. Badakizu, hauek kontuok era askotara kontetan dira eta, ba, atzean dena txakur-amesa!

Lehenagotik, nozik hona ez dakigula, usadioa egon da, oraintsurarte, nire neure gogoaldian ezeze zeurean be ezagutu izango duzu, ba, errogatibak egiteko usadioa bai sikatea edo bai uriolak egoten zirenean sikan.

Lehengo abadeek, errogatibak ezeze, soloak eta be bedekatuten zizkigun parte txarrekoen kontra, koxitza onak koiuteko.

Eta holango errogatiba egun baten, bazijoazten Zeberioztarrok orpoetan har barik ZeberioGANeko Andramarirantz, batean erreZatu bestean kantatu.

Eta halangoren baten han sasitza batetik urten eta zozoren batek kaka egin ei zion Amabirjinearen mantu zuriari. Kapa ederra zeraman eraman be, zuri zuria, magal barrenetan puntillazko aginadura eta guzti.

Joanean-joanean, antza, amabirjinearen andariok errekatxarkoren bat be pasatu behar zuten eta handik zebilen errekatxori batek bere buztan ikera uretan busti eta zozoak egineko kakori garbitu egin ei zion seguru.

Goratxoagora allegatu zirenean, andariok aldatu eta haretan daudela non datorren txindor bat eta errekatxoriaren garbikuzia sikatu!

Eta horregaitik edo nik neuk ez dakit ba, zozoak ez du inoiz aurpegirik emoten, beti dabil hor sasiperik sasipe eta kantetan duenean be habiatik urrun dagoela egiten du.

Ba hori kaka egineko hori marti-zozoren bat edo beste zozo lumorraztubakoren bat izango zitzaizun, kontadu holan egiten ziguten sikan gu gatzeloak ginen interan.

Hori txirritxirriaren kontu hori, aitearen eta semearen!, batek badaki zenbat bider erabili dugun, uda partea denean en partikular, birik baten dara-goioгу horri esakera orri: “inurriarena egiten gabiltza”.

Baina kontua honan da, osoan esan gura dizut. Segun itxura, ba, uda partean eta udagoienean be bai, inurria, behar eta behar ibiltan da, bateko haziak batu, besteko bedar sikuak akarreatu eta ganetiko beste ez dakit zenbat gauza pilatu.

Girgillua berriz, txirri eta txirri denpora guztian, kukua letxe, beharrik traustik egin barik, zotzalbo be ez. Guretzako umeontzako entretenimintua izaten zen girgilluak harrapatutea. Horretarako ziri-bedarrak erabilten genituen eta haiek nahiko izaten ez zirenean, mutikoak, neskak be bai, txixa egiten genion zulora eta txirritxirriak abantean urtetan zuen kanpora. Aitak eta, kontuz ibilteko esaten ziguten, subeak eta ahausika egin ez egiteko.

Eta ba holan zebiltzan, bata beharren jaunekobean eta bestea lepozuri kanpoederraren antzean.

Udagoiena be heldu zen gauak eguna dakarren moduan, eta girgillua triste, jatekorik ez eta kantetako umorerik be ez.

Inurria ostera, bere inurrimendiaren ondoan arraultzak egin eta ezarten eta batutako haziei begia jan eta kanpora ateraten bustirik zeudenak eguzki-begian imini gero sikatu orduan barrero barruan gordetako.

Girgillua ixilik, ikusi ikusten zuen bestea baina nor joan orain jana eske inurriari eginak eginda?

Negua be allegatu zitzaian eta ba girgilluak ezin zuen gehiago agoantatu eta eza eskuan zeukan lez, imini kuitadu aurpegi bat eta horra hor non doakion inurriari atek jotan:

— Tan, tan!

— Nor da?



— Txirritxirria!

— Zek zakartza ba hona tertzio honetan?

— Goseak, goseakilik nago, konortea be galdu eginik!

— Ba hara, udan txir-txir eta neguan eskean, zuretzako ez dago ezer gure etxean!

Eta halan emon ei zion andafuerazko jantzia inurriak girgilluari, eta guk be, girgilluaren antzera dabilenari sarri esan diogu hori atzeneko hori:

“Udan txir-txir eta neguan eskean
zuretzako ez dago ezer gure etxean.”

Gaur be, eskekorik ez da falta batezbe huri bazterretan baina lehenago gure ume denporan eskeko asko zebilen etxerik etxe, gerra ostean badakizu, zer jan askorik be ez zegoen eta, asko euskaldun be etxe barik eta errukarri aurkitu zen gerrostean.

Eta era askotako eskekoak zebiltzan hemetik, batzuk erdaldunak, beste batzuk euskaldunak eta euren artean batzuk asto, mando edo karroarekin be bai baina gehienak oinezkoak.

Eta esan dizudana, ba, etxerik etxe zetozten eta eskatu baino lehenago erretzetan hasten zitzaizkigun, pater noster bat edo abe maria bat. Eta ba limosna edo janaria emoten zitzaien, bakoitzak berak ahal zuena. Ze etxeetan be ez zegoen zer jan askorik, ba begiratu ezazu baten gure ama defunteari, zure amamari, holango eskeko erdaldun bat etorri zitzaion eta limosna eskatu zionean erantzun ei zion zelanbeisteko erderan: “bastante pobre tenemos aquí”, euki be bai, etxe bete ume ginen eta izan be. Intera haretan ez zegoen jakatzurik, ez eta hau jan ezazu edo hori edan ezazu esateko beharrianik, azpira inguruak erlaumea zirudien sarritan. Aditu noraino, nozonoz umeren batek barrabaskeriren bat egin eta bazpiak erantatu barik alde egitea lortuz gero, hau zer hau esaten zitzaion: “joan hoa baina azpirak ekarriko hau”.

Euskaldunak be baziren banaka bat, hemekoak zein gipuzkoarrak. Bat herrikoa be euki genuen eta hor ospitalean emoten zituen gauak eta egunez etxerik etxe.

Horrek herriko horrek eskatu ezeze errekadu be egiten zuen, zuk jakingo duzu errekadu egitea zer den ezta? Ba urliari ezkontza preparatu edo bidean imini. Eta osterantzeko errekaduak be egiten zituzten, ze lehenago automobilik be ez zegoen eta familiak zabal egonez gero ondo etorten zen holango bat alkarren berri emoteko.

Osterantzeko eskekoak lo egiteko etxe seiñalatuak eukiten zituzten, jakiten zuten ze etxekok emoten zuen ostatua, kortan edo tejamanako bedartzan.

Gure etxean be makina bat eskekok lo egin izango du, zer egingo zenien ba! Orain, hori bai, tabakorria eta metxeru edo mistoak sutean itxi erazotea logretan genuen zein kortak edo temejanak sua hartu, eta hurrengo egunean barriro emon. Hauek neurriok hartu be egin behar, ezpabere zeozer pasatuz gero, eperdian mun eiozu! Horiek eurak ez zeukaten zer galdurik baina guk gure azinda apurrak ez ditugu ez neke barik egin!

Eta orain kontaduko dizut kontu erratuarena batzen etorri zenarena. Nongoa zenik ezin esan diezaizuket baina harenbatekoa izango zitzaizun.

Ba, hori gizon hori be eskean zetorren eta ez zeukan fetura edo itxura txarrik be eta esan ei zion baten batek:

— Zuk zer batzen duzu ba horrekin itxura horrekin?

— Ba nik neuk kontu erratuarena batzen dariot.

— Eta zer zaizu ba hori? —esan ei zion.

— Hori? Ba, aditu iezadazu, honenbeste diru neukan aurreratuta zaharzarorako eta honenbeste urte biziko nintzelakotan nengoen. Orduan, urtean urtean gastadu egin dut nire neure kotejazinoa, baina urte gehiago bizi ditut eta orain eskean joan behar, kontu erratuarena batzen, merezidu ez dut baina, uskeritxo bat baino ez bada be emongo bazenit!

Ba, holantxik emon ei zituen bere azkeneko egunak, hawaitik eukiak guztiak ez dira jan behar, gerorako be zeozer itxi behar da. Bateren batzuk bestera be pentsetan dute. Behin hilez gero, ostekoei zorrak itxitea dela onena, ze arean itxiz gero, askotan liorako baino ez da izaten eta. Zorrak kanpaiak pagetan dituela esaten dute beste batzuk. Horiek kanpaiok, hil-kanpa edo tokadak zaizkizu.

Nik neuk ez dut gura ezerlango zorrik. Gure aita defuntuak esaten zigun zorrik onena baino arkienik txarrena hobea izaten dela, eta ni neu be horretan nago, gauean lo nasai egitealangorik ez dago, ez hor askoren moduan, fraketan kabidu ezinda, lorik egin ezinik euren zorrok direla eta ez direla, zertan ez dela buruari lorra emoten, konformidatea gauza handia da ba!, ez duzu pentsetan?

Hauen bion ganean zer esango dizut ba? Ba, txakurrak eta katuak etxe baten bizi behar eta ezin konpondu. Etxe batzuetan berriz, txakur-katu batzuk ezeze bitzuk eta hirutzuk be izaten dira.

Hau kontu hau aspaldikoa zaizu seguru, eta nik entzutea daukat ba hain zeukaten apartakera txarra, ba, ezbaian edo pleituan hasi ei ziren estakit noiz be.

Han ez dakit ba zer trebitu pasatuko zuten baina azkenean katuak esan ei zion abogatuari:

— Bueno, hemen ez dago konpontarik eta lotu dadila txakurra hezurrokin eta ni neu etxeakoandreaken deskuiduekin konformaduko natzaizue!

Eta halantxik egin ei zuten. Eta nik ez dakit baina, katurik mantsoenak be akordatzakoan egingo dizu berearen bat.

Orain kontaduko dizut fetxoria bat. Ba baten, gizonen batek sardina zahar bi ei zeuzkan behesuko txinger ganetan erretan eta azpirara ogiten doala ez dio katuak bat hartu eta kamarako goitegira eskapetan!

Oño!, esan eta, atzerik hara joan zitzaion gizon hori azpirapalua eskue-tan duela. Katuak teilapeko erresumara igon zion eta gizon hori azpirapalu horrekin itxaroten dagoela jan egin zuen rau-rau sardina zahar hori. Gizonak egiten ei zuen bere artean, ba: "Hemen itxarongo diat ba, hik dauzkak hartzeko narrukoak!"

Katua ostendu egin zitzaion han estarian eta egonak egon eginda esan ei zuen gizon horrek: "Gero be arrapaduko diat eta banijoak beste sardina zaharra guztiz erre baino lehen jaten".

Badoa eta, gizona kamaran itxaroten zegoen interan, katu horrek, etexurepeko solibatik oilategira salto egin, joan berrien berriz sutera eta ez dio ba bigarrena be eroan eta jaten! A bai zegoela mutila! Katuaren berririk ez dakit arean, baina ez zen ondo ibiliko. Ikusten duzunez, katuek andrazkoei ezeze gizonezkoei be ederrak enpleetan dizkiete!

Hau zer hau, hau pasadizu hau, nori entzunda daukatzadan be ez dakit, hara, aitari edo beste batenbati entzunda daukatzadalazkoa daukat.

Zirudienez, Salomonek bere ama ei zeukan gaixorik, txarto, eta antza ez zuen gura hil zekion eta orduan amenazatuta zeuzkan denak esanaz: “nire neure ama hil egin zaidala errekaduarekin datorrena hil egingo dut”.

Eta noiz edo noiz hil behar zuen eta hil zitzaion bere ama hori baina iñok ez ei zeukan adorerik errekadu hori eroateko zein Salomonek atzena emon.

Eta, ba, zelan ez dakitzut baina, handik zebilen euskaldunen batek esan ei zien besteei ezelango ikara barik:

— Hori esatea baino ez baduk neuk egingo diat, gauza gatxagorik baze-gok munduan, zer dela eta hori esateko hainbeste ikara eta bildursartu!

Eta joan ei zen euskaldun ori eta tenplau-tenplau, bat be ikara barik jo Salomonen atok eta badinotso:

— Egun on daukola berorrek!

— Zer behar didak nor haizen beist?

— Ba, hemen mundu guztia dago bildurkilik berorregana etorteko eta ni neu nator badakidalako berori errege jakituna besteko arteza dena. Beitso, hartu beza nire notizia:

— “Marti hilbehera, haratuzte hil berri, Salomonen ama, ez gose ez egarri”.

— Orduan hil egin zaidak? —esan ei zion Salomonek.

— Hik euk igarri diok!

Eta Salomonek ez ei zion ezertariko mantzinkeriarik egin, jakina, esan be ez zion edozein modutara egin eta, zuhurtasunez baino.

Gabon inguruan?, aitearen eta semearen!, makina bat kontu, sineskera eta zarraparra inguruetan!

Gaur gauzak asko kanbiatu dira baina oraintsurarte ekarri dugu hagea eta oraintxe eta oraintxe be badaragoiu kontuokin, batzuekin behintzat.

Ba lehenago, gabon ingurua allegetan zenean, gabonkariak ekarten has-ten ginen. Gauza asko etxean geneukan baina gozo-gauzak eta, erosi egiten genituen. Txerria be gabon aurretxoan hiltzen genuen. Intxaurrak eta urretxak be gordeta eukiten zaleak ginen. Eta, intxaurrak ondo estimadu gordetan geni-tuen zakutotxo baten eta kamarako goitegian eskegi zein umeak jan. Begiratu ezazu norainokoa zen hau kontu hau. Intxaur-hondoa etxe inguruan egoten zen eta bete beterik ganera, baina umeekin ezin gauza onik egin. Eta orduan usa-dio bat zegoen, zera, ba, intxaurmantxeruen bildurra intxaurra helduten has-ten denean ganeko mintza arrankaldu egiten zaio eta haren mintzaren sumi-kea edo mantxa lejiak be ez du kentzen. Eta mutikoak, zuok be bai, hor ibiltzen zineten eskuak gordetan zein intxaurmantxeruak eskuak ebagi. Eta eskerrak bildur horri, osterantzean, erdietan, intxaur barik lotuko ginen, gabonetan in-txaur saltza egiteko edo urte berri eta apalazio egunean aginaldoa emoteko.

Gero, ba, badakizu, lehenago familiak be handiak izaten ziren eta ezkon-tan zirenean eta umeak euki, ba, etxekadak egiten ziren eta nok bete haien guztien tripazorriak!

Horregatik usadio batek urten zuen, gabon-otzararenak. Hori zer hau zitzaizun: seme edo alaba bakoitzak amari otzara ekartea gabon-jaiak ospa-tuteko. Eta han otzaran baserriko ezgauzak ekarten ziren, janari bakar bat aldea batera barik, era bateko edo besteko generoak, orio, azukera, gozoak eta holangoak. Zuok zeuok be ekarten diguzue, zuk zeuk be ganeko otzara akarten diguzun, txanpan-kajea eta ganetikoak!

Gero, Gabon gauean, gu geu sinesmenekoak gara eta badakizu, oraindi-no be errosarioa errezatu egiten dugu afari aurretik.

Eta ez dut esan, baina, ezkonduak zatitu egiten dira, gabon gaua batearenean eginez gero, gabonzaharrak bestearenean egiten dituzte, zeuk egiten duzun moduan. Behin ezkontzaraz gero, familia biei eutsi behar zaie. Itxasoa bera be ezkontzak lotu ei zuen, lurrari deusala bizi da haserrerik handiengan be. Ha eta guzti be, gaur egun hainbetzu ikusten da familiatik aparte. Beleak bere haitzera letxe, banaka batzuk joten dizute etxera baina beste askok ez. Gauza ederra zer da familiako beroa!

Gabon gaueko afarian, orain lehen baino gehiago jaten da eta bariaduago. Lehen orio-aza, karakolak, makallao apur bat eta intxaursaltza edo beste gozoren bat. Gaur osterako genero gehiago jaten dugu, mariskoa eta ganetikoak, eta gero hor gabilta haizetuta, botaka edo bihotzerrearekin urdaileari eutsiten.

Gaur labesua egiteari be itxi egin diogu baina oraintsurarte etxeko ogia eta artoa erretan izan ditugu eta afari aurrean ogia ebagiten hasi baino lehen ogiari kurutze bat egiten zitzaion kutxilloaz bedeinkatuteko eta gero lehenengo ogi-kuzkurrari mosua emon eta gorde mantelpean, zertarako? Txakur amorratuarentzat. Oraintsurarte, zelaian edo zoruan topetan genuen ogi zatia-ri be mosua emoten genion.

Eta hau ez da gabonetakoa baina oraintxe akordatu zait, ba eskekoen ogia be ona ei da berba egiten ikasteko. Zuk zeuk be janda daukazu eskekoen ogia, txikitan eskatu egin genion eta eskeko bati, eta ez dakit horregaitik ala zergaitik baina arin etorri zinen berbara.

Hori suarena? Ba, guk antxina kendu genuen behesua. Lehen sua egiten genuen baina guk badaezpada beti amatatu dugu sua ohera joatorduan. Usadio zaharrekoek ez ei zuten amatetan Gabon-sua harik eta urte berria sartu arte eta su horren iduriak soloetan sabaltzen ei zituzten lurak bedeinkatu eta koxitza onak logretako.

Gero Natibete eguna, handia izaten zen eta ba esakerak dinoanez, "nati-bete bete bete, San Esteban txokolate", txokolatea hartzen genuen mezara joan baino hiru ordu lehenago gero gure Jauna hartu ahal izateko. Hiru ordu orain, gure zaharrek baraurik joan behar izaten zuten, eta ha bai izaten ei zen tripetako orrootsa!

Gero inozente egunean be egiten genituen astakeria batzuk, baina etxean gogor egiten ziguten eta galduaz joan da usadio hori. Inozentadearekin nahaste, hauxe kantetan genuen: "inozente, kokosente, lleva la carga y no lo siente".

Gabonzaharretan gero, ba janak antzera. Ai, itxaron ezazu, azaren kantea ez dizut kantatu:

"Aita Juaniko, seme Periko
zer daukazu afariteko
orio-aza gozo gozoa
opil beroagaz jateko."



Afaldu eta gero, kartetan, karta-jokoan. Lehen ez zegoan telebisinorik eta holangorik. Edan be gehitxuago egiten zen, batzuk berez be egarribereak edo sama-sikuak izaten dira eta holango egunetan katutu egiten dira, eta altzatu orduan komediak!, albora-kargarekin eskusadura barik beste edozein kuartura be igual, baina tira, holango egunetan txartzat be ez dira hartzen. Hurrengo goizean izaten dira kontuak. Bepuruak edo betxintak astun, eta deskuidetan bazara ahobizarrekin, jakatsu, eta umore txarrean.

Orain, bateko bolanderak direla besteko hamabietako mahatsak, aldatu egin dira usadioak baina lehenago Gabonzahar gaueko hamabietan, horiek mutil gaztelo edo ezkonparri antzak be, arteak be hartu ezinik edo, zoro be bai eta, ba, astakeriak egiten urtetan zuten hamabi-hamabietan. Antza orduko legeak ez ei zuen zigortuten tertzio horretako astakeriarik.

Zer egiten zuten ordu horretan? Ba, bedar-meten ardatz-hagea edo baranda apurtu, soloko latak atera, burdiak balkoietatik eskegi eta holangoak.

Baten gure Linok eta, erejiak egin zizkieten Larraganekoei. Gauean arran batzuk hartu eta arranotsean hasi solorik solo, eta besteok zaldiak edo behorrak direlakotan lorik be ez ei zuten egin zaldiok topatu ezinik.

Eta beste baten, Uriondoko Azentsio ermitako kanpai-kateatik lotu zuten asto bat eta bedar sikua imini metro pare batera. Eta astoa bedar sikua jaten mogiduten zen bakoitzean, jakina, ezin zuen koiu bedar hori eta kanpaio-tsalangoa atera ei zuen. Auzona guztia lorik egin barik ezeze uleak be arteztuta egon ei zen seguru, eguna argitu eta fetxoria ikusi arte.

Gero ba beste jai handi bi daude, urte berri eta erregen. Urte berrietan ba umeak ibiltzen zitzaizkigun etxerik etxe urteberri eskatuten kanta honi eragoioela:

“Urte berri,
txerri belarri,
daukanak ez daukanari
nik ez daukat eta niri.”

Eta ba zeozertxu eteraten zen, diru apurtxu bat, intxaurrak, urretxak, mahaspasak edo holango beste edozein txutxeria. Urteberri, andrazkoei eskatuten zitzaien.

Erregenetan, apalazio eskatuten zen honexeri kantzino honi eragoioela:

“Apalazio zalduna
hiru erregeen egura
hiru erregenetatik zotzak eta paluak
Martin Antonioren kontuak
Martin Antoniori eroan dizkio
hiru oilanda katuak
horiek hezurrok batu ezinda

hak darabiltzan saltuak
saltu eta saltu katuak.”

Apalazio gizonetzkoiei eskatuten zitzaien.

Erregenetan, ba, gaur umeak zenbat gura eta harexenbeste jugete daukate baina lehen ez zen egoten eta gutxirekin edo ezebezarekin konformatu behar, ezebeza begirako da ona baina!

Eta ez dakit ba gehiago zer kontatu. Orain Olentzero be ezagutu dugu, zer egingo diogu ba, mundua aurrera doa eta ametitu egin beharko ditugu moda berriak be! Lehengoa larra zen batera, eta orain ez dakit ba larra ez ete den bestera! Nire neure eritzi baten, lehengo umeak gitxiagorekin pozago bizi ginean gaurkoak gaurko larrarekin baiño, larra txarra dela esaten dute, eta zeozergaitik esango da, ez deritzazu?

Beleak hemen azkarria egoten dira egon be. Ba hor ibiltzen zaizkigu etxe ingurutik baina euren habia non dagoen edozeinek ez daki gero! Horiek ondorantz arrimatuz gero fit!, egiten dute eta euren haitzera jo. Gero hau kontu hau esakera moduan be asko darabilgu, “beleak beti bere haitzera”. Eta hau esaten da, ba, zuk badakizu, baserrietako semealabak ezkondu egiten dira baina haserrenen bat ez badago bitartean denak jotzen dute etxera amari titi apur bat edaten, eta orduan esaten da hori esakera hori.

Gero belea beste kasu baten be aitauten da, norbera edo beste bat bihozberatuta dagoenean en partikular eta orduan haxe esaten dugu: “belea beltzago ez da egingo”. Horrek esan gura dizu gauzak txarrago ez zaizkizula joango eta alimua hartzeko. Ez gaurko moduan. Gaur edozein huskeriagatik hor dabilta gazteak eta ez hain gazteak bihozberatuta, gogo barik eta inon diren bide okerrak hartzen. Ez horixe! Ez hartu bide okerrik, belea beltzago ez da egingo eta! Laino, hodei eta zaparradaren ostean eguzkiak urtetan du; itxaroten jakin, eta ez izan epebakoak. Euskal Herriak beti jakin du aurrera egiten, orain zergatik ez?

Gero, geiago zer esango dizut ba, a bai, belearen kantak be badaude, itxaron ezazu, bateren bat etorriko zait gogora, a bai, haxe berberau:

Belea dabil haitzean
berarentzat zori gaitzean
arantza beltza sartuko al zaio
atzeko zulo beltzean.

Edo hau beste hau be kantetan ziguten gure aitak eta han supazterrean negu partean batez be, astitsu egoten ziren eta.

Bele, bele jauna
non duk aita jauna?
Artoa ereiten.
Artoa zertarako?

Oiloarentzako.
Oiloa zertarako?
Arraultzak egiteko.
Arraultzak zertarako?
Abadearentzako.
Abadea zertarako?
Meza emoteko.
Meza zertarako?
Purgatorioko arimentzako.

Burdiak orain denak be alperrik daude. Asko etxetan erre be egin dituzte eta txerrinkekin mahaiak egin, zera, burtzila erdibitu eta zeezen ganean lotu eta mahai bihurtu zertarako hartarako.

Lehenago ostera burdia gauza grandea zitzaizun, solo zein basorako, bateko satsak aterateko, besteko egurra ekarteko eta zemendi inguruan idatarako.

Sarri askotan urlia ikusi ez arren, burdi txerrinken irrintzatik jakiten genuen nor nondik dabilen.

Burdiek irrintzak azkarriak egiten zituzten. Etxean urtekeran botaten genion orio gardamutua, koipe zia edo urdai azalaz igurdi aldi bat ez dezan irrintzarik egin baina apur bat ibili orduko horra hor irrintza baten berrien berriz burdi ardatzok. Eta irrintza ez bakarrik burtzilak, galgak be bai. Eta galgak asko sufriduten zuen eta itzekarratu be bai, arrankaldu, eta horregatik esaten da beste esakera bat be: "egur eskarmentatua sugin ona".

Eta hor zemendi inguruan, idebaten joaten zen mundu guztia eta sarri askotan zeinek gehiagoka. Entzutea daukat hor herribasoetan egun seinalaturen baten egiten zela errepartoa, eta horretarako eguna argitu orduan igi-taia lehenengo sartzen zuenarentzat izaten zela aurretizik markatutako arloa. Eta klaro, errentore askok euren ugazabak baino hankak agiltxoago eukiten zituzten eta orpoetan har barik plantatu ida arloan.

Eta ba esaten ibili natzaizuna, ida-akarreo egiteko, lehenengo idak kargatu edo aspelak eginda burpide ondoetara ekarten ziren. Narrean be bai, edo osterantzean lepoz. Narrak ez pentsatu oraingoak, kia, haritz errama zabal batzuk hartu eta hantxe, behin jausi, bein altzatu, behin ida susterrekin bernak odola dariola imini.

Eta gero ba akarreo. Dena zen burdi irrintza. Eta bakez ibiliz gero pozik! Zenbat bider pasatu ete zaigu, zera, burdia irauli eta barrakak egin bidean, karga jausi, inon direnak.

Joan be gero, askotan infernuko lekuraino joaten ginen burkada bat idagatik eta pasatu behar holangoak. Kontuak atera itzazu, Elexurreako basora joaten ginenean, bakez ibilita be goizaldean urten harantz eta egurdartean biaje bat eginez gero pozik. Hak be balioko zuen zeozer gaurko moduan orduak pagatu ezketino e?

Eta ba hortik atera dugu hau esakera hau, "burdiak be untatuz gero irrintzarik ez". Eta ba hau errentorearen ahoan eta, sarri erabili dugu, ugazaba edo ugazabandrea edo uzama pozik eukiteko untatu egin behar, baina ez urdai azalaz, osterantzeko generoez eta norbere beharrak baino ugazabarenak lehenago eginaz.

Eta gaur be zer?, untatu ezik zer?, askotan zu zeu baino gauzeztenaren bat aurrerago plantatu eta agintan hasi edo beste kontu hau, zelan eta ba?, a bai, "munduan beti alperrik galdu, itxasoko euria, urruneko egur igarra eta pobreaken errazoia".

Bueno, ez dakit azkenean nahaste bat armatu ez dizudan, baina bai, holantxik bizi ginen, zotzalbo egin barik egon beharrean, fin-fin jokatuta, osterantzean goseak jan!

Gosea? Lehenago gosea bat, kendubakoa. Idebateko tertzioan maleta sikua eroaten genuen basora eta harekin ura edan behar asko. Izan be, idebatea egarritsua izaten zen eta asko esatea da baina egarriaren egarriaz, zia bera be edango genuela pentsetan dut. Hor batenbatek gerra denporan, besterik ez eta, txixa edan zuela baina, egarria gosea baino be txarragoa delakotan nago. Tira-tira, hobeto holako kalamitaterik aitatu be egin ez egitea, osterantzean!...

Ba, gure birraitita, barregarri antza zen, bromista, beti zebilen burlazar, eta badakizu, holangoak herrian be zelebrea izaten direna.

Baten ba gure aitita, ezkon-edadera etorri zenean gurasoak ezkontza pre-
paretan hasi zitzaizkion, bateko etxe-iminia, besteko dote-dirua eta gainetiko
eginenak tolestuten.

Eta, lehenago, usadioa zitzaigun ba errekadu egitea edo gurasoak eurak
tratatea semalabentzako ezkontzea, euren dote eta holangoak.

Eta gure birraitita be joan zen seguru, Argiñaora, gure amama izango
zenaren aitagana ezkontza-tratua edo konpontan.

Hasi ziren berbaz eta dena zen aitzakia, bateko haltzaren ondoan haltza
ernetan dela, besteko satsbako ereitzea eta pobrearen ezkontzea berdinar
direla, gero, ba, ezkonperritan galbahean be ura ekarten dela eta gero behin
ezkonduz gero erradan be ez eta holango teklekin ei eragoion Argiñaokoak.

Gure birraititak ez zuen etxera esku hutsik joan gura eta berak be esa-
ten zion ba itsasoa be ezkontzeak lotu zuelazkoa, semea ez dela aitalango
barregarria, ezkontan badira laratzuak ezagutuko duela egunerokoan, den-
poreak agertuko duela edurra mendian, herriko zer esanen gainean berriz, ez
den bedarra berez igertuko dela, egiak guzurrari beti jarrita itxaroten diola.
eta ez dakit ba zenbat gauza gehiago esan zizkion.

Gauza da ze, aurrera egin zutela ezkontza horrekin. Gazteok be egin
zuten euren haronakoa alkar ezagututeko eta ezkondu ziren, eta begiratu
ezazu, gure aititak gizon modeloak urten zuen. Esakerak be beti ez dira bete-
tan, gehienetan bai, aikorzan kasu baterako, zer ikusi ha ikasi edo umearen
zentzuna etxean entzuna, holangoak sobra be betetan dira.

Ezkontza kontuan besterantz be sugertetan da, batzutan errekadu auzo-
auzokoari egin, guraizana euki eta ezin logratu ezkontzea. Holango kasuetan
zera esaten dugu, hauxe: "ukondoa hur baina ezin mosurik eman".

Gero sarri pasatu zaie, neskatoei batez be, utzi eta utzi egin eta gero nes-
kazahartu orduan, ba, badakizu, udagoieneko loreak indar gutxi eukiten du
eta lagunabarra topetan komediak eukiten dituzte. Ostera, hemen Uriondon,
neskak miruak harra letxe eroan gaituzte, zure aita be begiratu nondik hasi-
ta etorri zitzaidan topetan! Ezkondu ginen eta hemen gaude urrezko ezteguak
laster ospatzeko asmotan eta inoiz baino enamoratuago bizimoduan hainbat
eta hainbat aurgoratik pasatu behar izan arren! Bizimodua gogorra dena denok
dakigu baina alkartuta beti da hobeto banatuta baino. Gaurko askok ez du
asmatu bizitzako lege hau eta holan dabilta beti aldazberea bila baina kon-
tuz!, aurgorabako aurberea nekez aurkitzen da aurkitu be arean ganoraz bizi
gura izanez gero!

Bueno, errekadu egitea zer den jakin egingo duzu zuk ezta? Ba, lehena-go, eta orain be ez dugu galdu usadio hori, ezkontzedadea allegetan zenean askok ez zeukan lagunabarra topetako erarik be, eta errekadu egiten zen batez be arean lotsorra edo betuxoa izakeran.

Batzutan, lagun bat edo senitarteko bat izaten zen, baina beste batzuetan eskekoak be igual, etxerik etxe ibiltzen ziren lez, ba, handik guzurra eta hortik abarra, banaka bat iminten zuten eztegu bidean.

Errekadu kontuetan istoriak be zelebreek pasetan ziren. Oraintxe denekin akordetea be ez da fazila baina bi edo hiru kontauko dizkizut.

Baten joan ei zen mutil bat errekadu egiten lagun batentzat eta neskaren etxera allegatu zenean, ondo baiño hobeto hartu zuten eta inoiz ez lako merindafaria be atera eta egon eta egon, ez zaio mutila bera gustetan neskatxiari! Eta ba biak plantatu ziren ezkontako. Bestea paratu zitzaion paretakoa! garbitu eginik izan zuen lehenengotan, baina tira gero beste batekin ezkondu zen eta ahaztu zitzaion ha afruntua, osterantzean, batek badaki zer trebituk urtengo zuen alkarren artean!

Beste errekadu antzeko bat be izaten zen neska bat nobiatzat hartzeko, neska mutil bien artean ume bat besoetan hartzea, eta horixe zen nahiko herri guztiak parejatzat hartzeko. Eta hor ibiltzen ziren zuhur, umerik non jaioko, bateoko aitabitxi-amabitxiak izateko.

Eta hau oraintxe kontatuko dizudan pasadizu hau be polita zaizu. Baten, ez dakit ba nor be, errentea pagetan joan ei zen eta ugazaba horren etxean krida gazte bat ei zegoen behesuan, eurei eperdia emonda, ba, talaburrinaren taloak erretan.

Ugazaba horrek tardatu egiten ei zuen ipuztarriko edeak soltetan eta errentore horrek talo usainera edo, badiñotso krideari:

— Nik neuk jango nituzke bai zuk erretako taloak!

— Nik neuk erre be bai zuri zeuri! —erantzun ei zion.

Eta begiratu gauzak zelan etorri litezken, zertu, ezkondu egin ziren seguru, handik urteagarrenera.

Eta holangoak?, zenbat gura eta harexen beste, makina bat fetxoria eta denodu batean bestean!

Gero beste batzuetan bestera be sugertetan zen, urliak aberatsago bategatik edo utzi eta ezkontzea lotu. Orduan batzuk joan bertzolari bategana, eskribitu bertzotan sugertadu zaiona eta gero Urkiolan eta, saldu egiten zituzten bertzo-paperak eta askok buruz ikasi be bai. Holango gauzekin kreditua galtzen zen askotan. Horiek kontuok erleztarra edo kurebioen ahausigiak baino min gehiago egiten zuten sarri askotan, gero denporarekin ahaztuz joan arren.

Bueno, hauek kontuok ixilean eukiteko hobeak dira baina hain eragon didazu asko eta ba ia ke eta ezkontza-beharren berri jakingo duzunez gero, ba kontatu egingo dizkizut holango ixileko kontu batzuk. Horrek aitak barre egiten du hortik bazterretik, baina tira horrek badario kartetan eta guk konta ditzagun ixilpeko kontuok.

Orain dela denporatxua, urlia, Arratiar bat, izenik ez noatzu esaten, zergaitik ze oraindino bera bizi da eta, eta ganera nor den jakitea gutxiena zaizu.

Esaten ibili niatzun moduan, neskamutil bik ezkondu egin behar zuten eta eleizara arrimatu zirenean, han ei zegoen andrazko bat ume jazoa besotan dela eta nor ete den ez ete den, eta halangoren baten arrimatu zitzaion ezkondu behar zuen mutilari eta zer? Eta ia akordetan den ako soldadu egon zenean zelan eta zertan ibili zen sasi oste baten!

Ezkongai horren aita be gainetu zitzaien ezbai horretara eta ia zer pase-tan den, eta, ba, semeak:

— Aita, ba, soldadizkan lelokeria asko egiten dira eta, bai, ibili, ibili nintzen honekin neskato beronekin, baina nik neuk txotxoka baten egin arrik gehiagok be igual joko zion narrua, nok jakin?

— Nok jakin dinostak? —esaten ei zion aitak odolak ur egiteko moduan—, badakik zelango trebitua imini didakan, desde luego!, gizonari zentzuna potro-
etara bajatuz gero ez zegok zereginik. Orain zer egingo diat nik? Hik egin didak egitekoa, kokorio pitxin luze horrek! Han ibiliko hintzan hi potro-boltsak tximortu arte eta ixorrabarri itxiko uan nor den beist neskato hori! Tirauk ba, sikan inok ez dik esango horretarako, zererako, balio ez duanik, mekasuen zotz!

Ha eta guzti be, kontu hori tratatu ei zuten eta aita horrek esan ei zion umedun neskato horri:

— Hik heuk be ondo euki duna ba hire uso hori gordetako, baina, tira, lotsaria goiti beiti aurrera egin behar da eta, a ber, zenbat da eskatuten duzuna hori untze-jo hori kitututeko?

Eta ez dakit zenbat izango zen baina, behinik behinean diru ederrak pagatu behar izan ei zituen urliaren aita horrek.

Eta gero sarri kontetan zuen lagun artean eta: “semearen untze-joak karu urten ziola”.

Bueno, utzi diezaiogun hauei kontuoi bai!, ze pasetan dudana lotsaria ez da txikerra gero!

Gure baduzu, kontuokin akabetako, daragoiogun komertazinoko esake-ra batzuk kontaduko dizkizut.

Badakizu andreari mun egiteko zeintzuk diren hiru lekurik onenak? Hauexek: begia, ahoa eta usoa! Barre egiten duzu? Eta esaten dute, usoa, deskuidu baten, dagoen lekuan barik bekokian balego, inor enemoratu be ez traste hori ikusikeran!

Gero, hauei tabernetako neskatxiei eta be esaten zaie: “bide ertzeko hari-tzak eta tabernako neskatxiak sarri zirria eta aparajua”!

Gero hauek tabernetako kontuak, edan-edan egin orduan, batak handia botaten badu besteak handiagoa, zeinek gehiagoka, eta hauek fanfarroiak esaten dute: “eltxoari aidean doala be egingo lioketela narrutan”. Eta gero behin katutuz gero, faltetan be igual hasten dira, bateko urliaren andrea harekin dabilela, bestearena besteakin eta holango susterbakokeriak. Holangoren baten, ez noatzu izena esaten, baina, urliak ederra kontestadu zion beste urliari. Batak esan zion ba ze:

— Hi, hire andrea urli lekutako gizonarekin zebilki!

— Ba, begiratu iezaio, —erantzun ei zion—, niri neuri behar dudana emoten zidak eta gainetikoarekin berak agintan dik!

Bueno, oraingoxean bai, utzi diezaiogun komertazino honi. Oraintsurarte hauek gauzok kontatu be ezin litezkeen egin, kontetea be pekatua zen, gaur graziak ez dagoela lehengorik, orain abadeak be ez diote mirarik egiten honango kontuak konteteari, batzuk barre be majo egiten dute, orain, jakina, kontetea da gauza bat eta egitea beste bat, ze gaur be txarto dagoena txarto dago, gaur ez dakit ba lar ez ete den pasatu jentea bestera, jakina, askori kupoa denpora baino lehenago betetan zaie eta gero ez dago dibortzio eta pesteke-ria baino besterik. Artez dabilena ez da inoiz damutuko, eta ez euki inoiz artez ibilienaren damurik, oker dabilena lehentxuago edo gerotxuago agirian lotu-ten da eta gero zure fama eta kredituari eperdian mun egin iezaiozu!

Ai, itxaron iezadazu, komertazino honen gainean kanta batzuk be bada-kizkit, orain arte ez dizkizut kantatu baina ia ke eta haretan gabiltzan, aikomenzan:

“Udaberria data
Manuela bero
harexek emoten dik
eskatu ezkeru.”

Gero beste bat, kanta barregarria izan be, eta gainera erderaz. Hor Zeberio aldeko andre bendejeraren bat Bilbora joan ei zen buruan otzarea dela gaztaina saltzen eta Bilboko kaleetatik joanean-joanean haxe kanta hau kantetan ei zuen berekitan:

“Gastañas de mentugorri
no hay como la mía
a noche probó mi marido
y buen gusto tenía.”

Eta guardiak detenitu egin ei zuten. Berak ezin zuen entenditu zergaitik, baina halangoren baten guardia edo denadelako euskaldunen batek esan ei zion:

— Andratxoa, badakina zer esaten habilan?

— Ba, zer esan diat ba? Atzo gauean nire gizonak gaineko tripakadea egin zian honangoxe gaztainekin eta gozo gainera, hauek gaztaina mentugorriak dituk, klase gehiago be bazegok, esaterako, ataloak, lopetxak, saldaimentuak, baina hauek lako gaztaina gozorik ez zegok!

Orduan konturatu ei ziren erderaz zioena ez zela guardiek aditu ziotena, eta, jakina, atera ei zuten gartzelatik edo perreratik.

Honango erderakadak gehiago be entzunda dauzkat. Beste baten be, Durangoar bat ei zegoen Bilboko plazan txorizo edo lukainka saltzen. Eta ekin egiten zioten ia ba lukainka onak diren, etxeko piperrekin eginda dauden eta ez dakit ba zenbat tekla eta teklondoko.

Halangoren baten arteak be ezin zuen hartu andre hori hainbeste ekite-rekin eta badinotso atiko koplaz beteko andraren bati:

— “Oye, ustes, mejor choriso que yo en todo Durango tampoco no ay e!”

Eta holantxik emon ei zion hankajokoa edo andafuerazko jantzia hari andra mirakollosari.

Lehenago, makina bat egote hor behesuan, batezbe negu-partean. Ordu-xean egiten genuen arto zuritan edo zurituta badaude artagarantan, edo goruetan, edo mediginen edo frantzesillazko erropari adabazaina eta botaten, ba, badakizu, neguko beharrak.

Zuok umeok berriz, han eragoiozuen olgetan edo bazterrak enderdetan okolurik okolu. Batzuetan artaburruxekin aurkiak egiten eta olgetan zenuten. Beste batzuetan aitariakin edo amamarekin “atxea-motxea”ra. Hau badakizu, ume bakoitzak hatzamar bat imini aititaren belaunburuan edo amamaren altzoan eta gero kantatu egiten zitzaizuen. Guk era bitara dakigu eta irakatsi be halantxik egin zaizue:

“Atxea motxea, konilipan
zeure semea errotan
errota txikerra klin-klan
Katalina bentan
korrentan
tipirripiton
Martin zapaton
kainabera trompeta
lau kirikon,
txirripi, txarrapa, txirripi, txarrapa... TXAUST!”

Eta hatzamarra harrapatuz gero bateren bati: “pispit ala koskot” esan eta zigorra emoten zitzaion.

Edo beste hau be kantetan zitzaizuen:

“Atxea motxea, konilipan
zure semea errotan
errota txikerra klin-klan
joan nintzen basora
topatu nuen erbi bat

jaurti nion harri bat
Eta atera nion ezkerreko
begi gorri handi bat,
zelemina kanpa, zelemina kanpa... TXAUST!

Eta hemen be zigorra hatzamarra goratuten zitzaionari.

Tximiniako arimaren kontu hori, Pedro Sasolakoari daukatzat entzunda. Baten seguru, ama bati ala ez dakit ba andre bati, semea edo gizona hil zitzaion eta gaulendietan tximiniako zulotik deitu egiten ei zion eta besteak erantzun be bai.

Eta egunen baten, horrek andre horrek, amesetan ala itzarrik dagoen jakiteko, esan ei zion tximiniakoari:

— Non zaude ba, semetxo edo gizontxo?

— Hemen, tximiniako zuloan, —erantzuten ei zion—, begiratu ezazu hobeto, hortik laratzu gainetik!

Eta sua amatatu antzean zeukala, sartu zuen burua tximiniako zulo edo arratean eta, arimaren berba entzun egiten zuen baina ikusi ezer be ez. Halangoren baten, nik ez dakit ba, tximinia zulotik idergibetea ala inizituren baten argia ikusi bazuen ez bazuen, badinotso:

— Semetxo edo gizontxo, lehen begi zoli eta eder bi zenezkan baina orain bat eta bera iluna baino ez dizut ikusten! Zer jazo zaizun baino ez da han Josafaten landa haretan!

Eta holan ekin ei zion andre horrek arimari berbaz supazterretik egun-sentiaz batera oilarrak kukurruku egin artean.

Lamiñak be, tximiniatik sartzen ei ziren, maskilluan esnea egosten iminten zutenean en partikular, ze, esne zaleak ei ziren eta mazkillutik ganaz egiten zuenean esneak; "txuria gora"ka hasten ei ziren.

Bai, ilunetako kontuek ez daukate akaberarik. Argi-indarra etorri zitzaigunear eta sute berria egin, hantxe akabatu ziren behesu eta tximiniako kontu guztiok.

Ume bat jaioten zen orduan, usadioa zen ume hori hurrengo egunean bateatutea zein hil eta limbora joan betirako. Eta bateoa hurrengo egunean izanez gero, amak ezin joan izaten zuenez, aita, aitabitxi-amabitxi eta beste senitartekoekin egiten zen hori eleizkizun hori.

Bateo egunean, eleizportalean, partereak amabitxiri emoten zion umea besoetan hartzeko, hak aitabitxiri eta abadeak portikuan kanpoan hasten zituen bere errezuak, eleizan ezin zelako sartu umea harik eta errezuok egin eta ura botateko sartu arte, han korupeko pontean, eta gero eroaten zuten eleiza barruan aurrera.

Gero urtekeran aitabitxi-amabitxiok euren gozoak eta botaten zituzten eleizportalean eta han denak harrapatata bata besteen buruak jo eginik.

Gero ba, hamabosgarren egunean ermakariak esaten zitzaiona zelebretan zuten amak eta bere haizta eta kuñetak. Hauek eurek ekarten zuten jaki-edaki zerbaist, oiloa besapean, otzaran fota, azukerea, kafea, txokolatea... Eta bazkari ostean ur gozotua edaten zuten paitar orde.

Gero berrogaigarren egunean eleizurterea ospatuten zen eta orduan be ahal zuenak zelebretan zuen.

Orain esango dudanak ez dauka ermakariekin zerikusirik baina, ume bat bateatu barik hilez gero, ortusantuko kanpo aldean emoten zitzaion lurra.

Eta, gehiago oraindiño, umea galdu edo abortoa egonez gero, jaiotako etxeko etexurapean emoten zieten lurra lehenago hoiei hilda jaiotakooi, baina eleizea enteratu ahala, usadio hori galduz joan zen.

Bizialargun batek hiru alaba euki zituen eta hirurak berbaltudunak edo tar-tamutuak. Joskilak ziren eta iruteari be alosu ekiten zioten.

Eta usadioa den moduan, ama hori enteratu zen baten bat errekadu egiteko iterantzunak botaten zebilela eta esan ei zien alaboi:

— Akordatzakoan baletorkigu baten bat ezkontza-errekaduaz, zuok ixilik egon eta ekin gorueteari, neuk esango ditut esan behar direnok eta, ze ahoa askatan baduzue askatu, neskazahar lotuko zarete.

Etorri ei zen baten bat errekadu egiten eta ama horrek berbagura eraga-oin hiru alabon aurrean, bateko dotea, besteko zera eta... halangoren baten:

— Batak: “Talan, firua apurtu duna!”

— Besteak: “Ba, torontila (moropila) emon iezaiona!”

— Hirugarrenak: “Amak esan ixilik egoteko eta gu ez ixilik egon!”

Baina, tira, errekaduduna jakitun zegoen eta berbartua goiti beiti ezkondu ziren ofizio eta guztizko hiru haiztok, eta beste neska galant askok baino hobeto eroan bizimodua.

Gaurko kristau sineskera gurean sartu baino lehen, zaharrek esaten zigutenez, ezelango konsultarik behar bazen, Anbotoko Señoragana joan behar izaten ei zen.

Urteak joan urteak etorri, kristautasuna allegatu zitzaigun, baina ha eta guzti be, egun baten, mandazain bat joan zitzaion Anbotoko Señorari, Gorbeiaiko Superlegor kobara, zelango halango kolsulta egitera.

Kobako atakara heldu zenean berba egiten hasi baino lehen badinotso Anbotoko Señorak:

— Ezarri hadi hor, harri landuzko aurkian eta edan urregorritzko basu honetatik sagardo gozo hau!

Mandazainak, sagardoa edan aurretik, kurtze bat egin zion baso-sagardoari eta gero edan dranga-dranga, ia-ia gosunea egin beharrean.

Ez dakizut esaten ze konsulta egingo zion, baina bere eginbehar hori bete orduan, mandazainari gedar egin zion Anbotoko Señoreak esanez:

— Eroan ezak basu hori heurekin, bedeinkatu egin duk eta ezin duk hemen utzi. Bedeikazioa duk niretzat arazo eta ez urre gorria, zenbat gura eta harexen beste zeukat hor koba sakonean eta!

— Emon beist gehiago! —esan zion mandazainak.

— Gehiago? Oraintxe ikusiko duk! Hireak egin dik!

Mandazainak gedar horiek entzun zituenean, orpoetan har barik hasi zen arineketan eta Anbotoko Señorea atzerik hara.

Mandazaina, pagaperik pagape eta Anbotoko Señorea lainoperik lainope zihoazten eta zuhurtasuna askotan indarra bera baino be kapazagoa izaten denez, mandazainak lortu egin zuen Orozkoko Olarteko eleizako ur-bedeinkatuaz aitearen egitea.

Anbotoko Señoreak ezin zion ezer egin baina azkenean maldazioa bota ei zion esanez:

— Hirekoen artean ez duk faltako aurrerantzean itsu edo koxorik!

Beti entzun dugu han etxean sarri egon dela holakoren bat. Jakina, gaur ez du hori inok sinestu be egiten. Horixe baino ez genuke behar! Kontuak kontu dira eta kitu!

Baten horko ez dakit nongo etxeren baten agureren batekin ezin zen konpondu bere semea eta jatorduetan eta, ezin ei zuen soportatu antoju emoten ei zion eta.

Eta egun baten hartu maiatzeko idergi berriko bigarren egunean ebagitako haltz egurra eta han zebilen zertan hartan erramienta batzukin.

Hartan daragoiola badatorkio eskolatik mutikoa, kaskondutxua, eta aita erramientokin ikusikeran badinotso:

— Aita zertan zabilta?

— Ba, aitaita zaharra dugu bai eta gure tenedor-koilarak ibili ez ditzan beretzako zurezko tenedor-koilarok egiten.

Mutikoak ez ei zion jaramon handirik egin eta merienda iski bat hartu, jan eta berak be heldu kutxillo txiki bati eta non hasten den zeozertan!

Horretara badinotso aitak bere begietako betuleak igurdiz:

— Hi, zertan habil, zeri dariok eskuotako trasteokin?

— Ba, zu zeu zahar izaten zarenerako tenedor-koilarak egiten! Hemen, badakizu, hazitarako inor ez da geratuten eta zu zeu be zahartuko zara aitaita letxe!

Gizon horrek orduan, hartu erdi eginean zeuzkan tresnok eta erdi bi egin da surtera bota ei zituen, mutikoari beste hainbeste eginazoz.

Hantxe eta halantxik akabatu ziren haiek kontuak eta gizon horrek esaten ei zuen berekitan: “Aikomen hamaika t’erdiak! Nik neuk neure aitari sekula esango ez niona nori eta niri neuri ez dit esan ba neure seme atrebitu honek! Bueno, gauzak ondo pentsatuta, zahar on egin gaitzela denok eta aurrera bolea, hoba ez!”

Etxeren baten han ei zeukaten aita zaharra deslai eta inok jaramonik egiten ez diola. Eta ba auzokoek hain ikusten zuten errukarri egunen baten auzoko batek deitu eta bere etxera aroan ei zuen.

Eta esan ei zion ba ze: «urlia, begiratu iezadazu, aberatsa bazinateke zure etxekoak zoliago ibiliko litzaizkizuke, baina aditu ezazu, ez ezazu gogait egin eta nire neure esanak egin itzazu, nik neuk utziko dizkizut hamaseiko gorri batzuk eta iluntzero-iluntzero zatoz neure etxeko toilarara, igon ezazu kamarara eta han hasi zaitez diru zaratak egiten eta altuan kontetan, eta kontatuakabatu orduan berriro kontetan hasi barik aurrera egin eta halangoren baten indar handiagoaz esan hauxe: “bueno bihar segituko dut, hasi baino besterik ez dut egin eta”, eta ikusiko duzu zer pasatuko den, denpora izango da testigu, bai, denporak berak agertuko du edurra mendian!»

Esan eta egin, agure horri auzora-joateak hasi zituenetik eta hona, inoiz baino hobeto esaten zioten etxekoek. Inon diren nahierak egiten zizkieten egin be.

Eta halangoren baten ba hil be egin behar zuen agure horrek eta hil zenean entierura joan baino lehenago egin ei zuten bueltaren bat auzoko etxera bere seme-alabok eta ha bai izan zela ikustea! Zer? Eta ez zuten ba estaka endemoniño bat aurkitu letreru batekin!, zer letreru eta hauxe: “hona datoren bakoitzak honexekin beronekin merezidu ditu narruko on batzuk, emendatu ezineko diruzaleok halangook.”

Baten Estefana Ugertekoaren aita joan zen goizean goizetik solora gana-
duekin beharren eta goizaldeko lauterdiak inguru edo izango zen, goizalde-
an binke goizaldean izan behar. Eta halangoren baten lamiña batzuk etorri
zitzaizkion beragana Manualdeko txarkoan, errekatxoan. Eta horiek lamiñok,
abemariatatik hasi eta kukurrukuak edo harri kanpaeak jo arte indartsu baino
indartsuagoak izaten ei ziren eta kontu handia euki behar izaten ei zen eure-
kin. Gizon hori akordatzakoan harrapatu zuten lamiñok lainabera zarratuko
lausoaldian eta euren kobazulora eroan.

Gizon horrek ez zekien zer egin, zorabiatu-rik zegoen, edanbako hordiaz,
eta berekitan iñoan:

— “Zer egingo diat ba nik orain, argia niagok, hauek lamiñok ez dituk
parte onekoak eta eleizako kanpandorreko harri kanpaeak jo arteraiño ez zeu-
keat urtenbiderik, honangorik! Pasatu be egitea honango gauza bat gizonari
honetan tertzio honetan!”

Eta burua txapela eroateko bakarrik ez dela eta, pentsatu eta pentsatu
badinotso bere buruari:

— “Nik hauei parte txarreko-oi denpora emonazoteko kanta bat kantatu-
ko diet zaleak direla daukat entzunda eta.”

Eta hasi zitzaien liñoaren kanta kantetan. Hori liñoaren kanta hori berak
jakin bazekien, ondo jakin be, eta, hasi zen baina astirotxo ibili arren be, aka-
batu egiten zitzaion atoan. Baina zuhurra zenez, atzera berrien berriz hasten
zitzaien eta holan ekin zion hainbat denporan kantetan.

Halangoren baten, ba, horretan daudela entzun ziren harri kanpaeak elei-
zan eta kukurrukua Zabaleko oilategian. Eta ene bada!, orduan hasi ziren lami-
ñok ostenduten han kobazuloko estarian. Gizonak horretara, ikusirik podere
barik geratu direla, “oraintxe duk neurea” —esanda—, han zeinakio zebilen
lamiñetariko bat hartu, burdi ondora narraz eroan, bota burdi gainera eta solo-
ra barik etxera bidea hartu zuen.



JESSE-95

Etxean zeukan lamoñori eta behin etxeraz gero, gura zion berba eginazo baina ezin egin eta orduan egon ziren egun batzutan ia berbaz ete zekien edo ez ete zekien baina, kia, ezin zion berberdi be eginazo.

Egun baten, gaulendi inguruan, imini zuen esnea egosten mutilak eta esneak surten eperdia emon orduko ganaz egiten duenez, ba, mutil hori zetan hatan zebilela, maskiluko esnea ganezka hasi zen. Orduxean lamiña horrek, esnea asko gustetan zitzaion moduan, alperrik galdu ez dadin, hasi zen esaten:

— “Txuria gora! Txuria gora!”

Eta orduxean egin zuten gizon horren etxeokoa ia-ia santzo gedarrez:

— “Ene! baina, honek badaki berbaz ba eta! Ondo gorderik euki ditu berbok nor den beist andre gauza hau!”

Eta hortik hasi ziren ba berba eraginazoten. Behin berbaraz gero, era guztietako preguntak egiten eragoioen. Bateko non bizi diren, besteko zelan galduazo litezken eta holangoak.

Lamiñeak, bere aldetik, tripakada bat esnegatik, eurak betiko zelan galdu litezken sekretoak azalduz, bere eta bere lagunen burua saldu egin zien esanez:

— “Bueno ba, gu geu galduteko haxe eta haxe egin behar duzue: Ba, San Juan egunean jaio behar dute herri-zekorrek, bik, izan behar dute bikoitzak eta horiekin zekorrokin egin behar duzuen zer hau da: intilla bat hartu esaneko zekorrok ipuztarrian direla eta idergi bete den orduan, erreka-txarkoa goitik behera pasatu, tragastu, eta urtengo du odolak, odoloz sano handiak, eta horixe izango da gure hondamendia betirako”.

Eta holan ibili ziran topetan horiek herri-zekorrok biok. Eta halangoren baten topatu zituzten, bikoitzak izan behar zuten eta herri-zekorrok, eta efektibamente, herri-zekorrok topatu zituzten orduan, intilla edo tragasaz hori erreka-txarko hori, Manualdeko errekatxo hori, gora eta behera pasatu zuten.

Han urten ei zuen urtetako odolozak! Hantxe akabatu ei ziren sekula eta santarako lamiña parte txarrekoak odola dariola eta tragas hagnetatik uleak guztiak katigatuta.

Hauek kontuok kontetan dizkiguna jakin badakigu nor den baina lamiñok ikusi dituen batek badaki nor dugun, nok jakin? Honango kontuetatik hobe egun argiz apartatu, osterantzean ez duzu ez gauza garbirik aterako. Esakerak dinoenez, ez direnik ez esan eta direnik ez sinestu!

Behin baten izan zen abade bat eta ibili zebilen uda inguruan bere kanpoak eta ikusten. Urte horretan, artotzak ernaro ederrean zeuden eta galondoak inoiz ez lakoak. Abade hori sotaneak be ez zuen hartzen pozaren pozez eta eleiz erropak soinean dituela han eragoion solook bedeinkatu eta solook bedeinkatu zein behar ez denaren bat sugertatu, zein hodeiak jo eta dena alperrik galdu.

Eta, halangoren baten agertu egin zitzaion gizon bat. Hori izan zen deabrua gizonaren feturan, forma-itxuran ezta, eta etorri zitzaion tentazar. Ez zekien berak nor zen, eta horretara, badinotso horrek gizon zer horrek abadeari:

— Zelango kanpo ederrak dauzkazuen ezta herri honetan?

— Bai, benetan ederrak! Hobeak be inoiz euki ditugu baina!

Eta esan zion gizon edo deabru horrek:

— Nik baditut ba zaldiak hauek kanpoak behingoan apurtuko dituztenak!

— Eta bai?

— Ba, bai!

Eta abadeak erantzun zion:

— Ba nik neuk be baditut hede zail eta luzangak horiek zaldi madarika-tuok lotutekoak!

Eta, bueno, holan ibili zitzaizkigun berbaz biak bietara eta lehen esanari gutxi eritzita edo non diotson berriro hak deabru mantzinak abadeari:

— Ba gaur gauera orduko hauek kanpoak ezerbezean, gauzentandurik utziko dizkizut horiekin nire neure zaldi gorriokin, lotsari eta bajeza gorrian iminiko zaituztet, ikusiko duzue! Inoiz ez lakoak bizi beharko dizkidazue!

Eta joan zen ha gizon ha eta abadea izerdi larria dariola geratu zitzaigun bere buruari zinotsola:

— Zek izan behar ete du hemen? Nor izan den baino ez duk hau berbaz euki dudan elementu parte txarreko hau!

Eta, halangoren baten abade hori apur bat konortera etorri zenean etxera joan zen gose bako bazkari antzerako bat egiten. Bazkaldu eta estukurak jota ezin zuen bekanekoa be bota eta balkoian plantatu zen zerura adi. Eguna argia zen izan be eta arrastirantz laino batzuk agertu ziren, hodei laino batzuk Aibelabeko haitz gainetik. Abadea estututen hasi zen eta abadetxeak be ez zuen hartzen batera besterako sotana-magalots eta guzti.

— Jagoten egon bear dut ba —zioen abadeak— ia zer datorkigun ikusi arteraino! Jainkoarren, ez dadila izan harri, txirgora, abazuza edo gauza txarren bat, holan bada argiak gaude aurten!

Eta bazetorren etorri be kargetan-kargetan denporala txarra, afruntua, akordatzako ekaitza eta hodei dorreak alde guztietatik denak bat egin guran.

Eta ba herriko jentea be sano estututa paratu zen zek pasatu behar ete duen pentsetan!

Inizituak eta trumoiotsa inoiz ez lakoa zen izan be eta herri guztia zegoen bildursartu eginda.

Abadea hasi be egin zen bere brebiario edo otoitz liburu hori atera eta errezuak egiten abadetxeko atakatik.

Euki be bazeukan ortu bat abade horrek eta halangoren baten ikusi zuen orduan ba jausi behar duela ur-golpe handiren batek berekitan eragoion: ekaitz hau jaustekoa bada, jausi dadila nire neure ortuko barrikara barrura! Hantxe zeukan euki be abadeak sagado upel handi bat itoxureko urerako, eta haraxe!

Eta hasi zen jausten harria eta gainetiko guztia, ganoso jausi be. Zeruak lurrera etorri behar zuela zirudien baina mirakulua edo nik ez dakit zer, nora?, eta ez da ba ekaitz osoa abadearen barrika horretara jausten!

Herrikoek ezin zuten ia sinestu be egin. Abadeak be ez zekien iratzarrik ala ametsetan dagoen. Gauza da ze, horretan urte horretan inoizkorik eta kositzarik handiena ezagutu zutela abadearen errezuei esker.

Horrena, Kastrejanako zubi horren kontua honantxe izan zitzaizun. Bazen behin neskato bat, galanta segun esaten zuten, han baserri baten bizi zena.

Astitsu zegoenetan, errekez bestalde zegoen baserri baten ondoko iturri-
ra joaten zen sarritan hango lagunekin arrastia emoten etxerantzean iturriko
ura ekarriz bide batez. Errekea pasetako harri-pausuak zeuden eta handixik
egiten zuen erreka haronakoa.

Baina, iluntzeren baten azartatu zitzaion beren beregi joatea iturriko ure-
tan. Egun iluna zen, euria be dezente bota zuen eta errekek handi zetozten.

Joan zen neskaxi hori iturriko uretan baina, koño!, erreka hain zetorren
handi, harri-pausuak non direnik be ez!

Neskato hori larritu zer egin zen berak baino ez zekien. Gaua ia-ia gain
ganean, eleizako abemarien kanpaiotsa inoiz baino biziago, eta iturria erre-
kaz bestalde, sugertatu be inon denik!

Asko pertsona izan balitz etxera bueltatuko zen eta kitu, baina buru-gogor
antza zenez eta iturriko ur barik etxera joan gura ez zuenez, eguzkiak sar-
tzamendiko estarian bere burua gordeaz batera non dinon erdi durdiduta hau
zer hau, maldizino hau:

— Errekoño!, oraingoxe honetan ezetz egon inpernu gorian be hemeti-
xik erreka honetatik zubi bat egiteko kapaz den deabrurik!

Ene, Jesus, Maria eta Jose! Berbok esan bazituen ba ze, agertuten zaio
deabrua zaldi ganean eta ahoa askatuz batera esan:

— Zer gura duna ba neskato haisbeste erregurekin?

— Koño!, ba nik hemeko erreka honateko harri-pausuen gainetik zubi bat
egitearren emongo nuke, ez dakit zer emongo nukeen be!

— Zer emongo zenuke ba, zure zeure arima emongo zenidake?

Ba, bai, pozik be emongo nizuke!

— Bueno, —esan zion deabru horrek—, bota bostekoa!

Eta neskatoak, betiko usadioari jarraituz, badaezpada, eskuan zapi bat duela eman zion eskua, eta eskerrak holan egin zuena, ze deabruaren bost hatzamarren erre-markak utzi zizkion zapian. Gero, horretara, esan zion deabruak:

— Bihar goizaldean oilarrak joten duen ordurako zubia eginda egongo da, ja-ja-ja, eta zure arima pedroboteroren galdarara, hantxe kiskalduko zara!

Neskatxi hori, dardar esatea gutxi da, kakadariorainoko guztia heldu zitzaion eta birritan pentsatu be egin barik, badoa herriko abadeagana eta badinotso:

— Jauna, jauna, larri nauka berorrek!

— Zer pasetan zaizu ba, horretan fetura horretan etorteko tertzio honetan?

— Ba, hauxe eta hauxe, honantxik eta honantxik urten dit deabruak berberak hauek berbok esan ditudanean: “Bueno, ez dakit zer esan diodan be, baina badakit maldizinoa bota diodana eta biok biotara eskua bota dugula. Ikusi, ikusi beza berorrek zer marka utzi didan zapi honetan!”

Eta horretara esan zion abadeak:

— Onak gaude! Galduta zaude alabatxo errukarria! Horrek deabru mantzin horrek galduko zaitu! “Euki ez dut egin sarri honango kasurik baina tira, —esan zion— abade horrek”: zoaz, estutu zaitez eta topatu ezazu ba lehen baino lehen Martian arrauntza eta Martian txita izan den oilar bat kantari onak dituzu eta, eta topatu iezadazu horixe eta ia deabruak hori zubi hori eginakabatu orduko ia horrek oilar horrek joten duen eguzkia mendian agiri den ordu antzean!

Eta hasi zen, hasi zen topetan eta topetan eta topetan eta topetan zuen topatu be Martian arrauntza eta Martian txita izandako oilarra.

Eta ekarri zuen ba etxera oilar hori eta bien bitartean deabrua eta bere-neko guztiak joan ziren zubi hori egiten, euren materialak hartu, harri eta ba zerak guztiak hartuta prest zeuden beharleku horri goratuteko.

Eta agertu ei ziren ba deabru edo prakagorri partida ezta, eta atzetik koxo bat ei zetorren. Denek eroan zuten euren materiala, eta hak koxoak, atzetik zetorrenak koxoa zelako, bostehun arroako harritzarra eta erremintak eroan zituen seguru, eta besteok, ba, besteok gehiago, besteek begiratu ezazu zer ez zuten eroango!

Eta zubia aurrera zijoan. Goizaldea agertu zen, eta, halangoren baten gutxi falta zela oilar horrek joten du bidiru bider: “Kuuukurrrrrruuuuu! Eta kuku-

rrokuots hori entzun zuten orduan deabruok, zubi hori harri baten faltan euki ei zeukaten.

Orduan, deabru deabruak, amorruren amorruez, jo azkenengo harri hori eta bost hatzamarren markak utzi zizkion harexeri harriari.

Hor Salamankatik edo hortik be egon behar ei du erromanuen zubi ike-ragarriren batek eta haxe be harri baten faltan lotu zelazkoa daukat entzunda herriko parroko zaharrari, izan be egin egingo da igual egia hori kontu hori, nok jakin?

Egun sargori bateko gaubiluntzean Zeberiko Undurratik Larragotirantz zihoala Pantxin Larragotikoari, hodei astrapalak eta inizituak hasi zitzaizkion gainetuten. Baina-baina, egundo ezagutu bakoak ei ziren, bildursartuaren bildursartuaz odolak ur egiteko modukoak!

Orduan pagadui eta gaztañadui handiak zeudenez, ilundu orduan pagaperik pagape, gaztañaperik gaztañape Pantxinek ez zuen ezer ikusten.

Eta orduan, inizitu bakoitzeko aurrera pausu batzuk egiten zituenez, badiotso inizituari berari maldizio gedarrez:

— “Argi, Argi demoniñotxoa zeu barik ez nuke jakingo hurrengo pausua non bota eta”.

Eta berbok esan bazituen ba ze, hasten da inizituots ikeragarrizko bat, egundo ez lako bat eta Pantxin bildurtu egin zen, moduz bildurtu be, eta berriro esan ei ziola inizituari:

— “Lar barik, lar barik, demonintrua, ez diat gura neure ezkena hemen egiterik eta”.

Eta mutil hori, Pantxin panparroia, oztaz-oztaz eta berriro holako maldiziorik botateko asmo barik heldu zen Larragoitira.

Etxea hartuz batera heldu zion errezeteari eta han ei eragoion bere errezuokin artegatasuna kendu arteraino. “Berriro ez nik neuk holangorik parte txarrekoekin” —esaten ei zuen harrezkero.

Horiek parte txarrekoak, zeinda, sorginak edo lamiñak edo jentilok edo, iluntzeko abemariatatik aurrera urtetan zutela esaten ziguten.

Eta begiratu ezazu zelango bildurra izango zien horiei gure zaharrek, ze guri geuri be, amandre defunteak eta, iturriko uretan joaten ginenean kontu handia eukiteko esaten ziguten.


Eta ba egunen baten abemariak jo eta gero ekarriz gero iturriko ura, eta hori, ondo irakutzita eta guzti e, ba esaten ibili natzaizun moduan, iturriko ur hori edan baino lehen "Jesus" esanazoten zitzaigun eta hori bakarrik ez, surteko ilenti batekin kurtze bat edo gehiago be egiten zioten pitxarreko iturriko urari zein parte txarrekoak kalteren bat egin ez diezaigun.

Eta hau ilentiaren kontu hau, kafeari be egiten genion. Kafea asko be ez zen egoten baina, inoiz artagarau erre-erreak eho eta be egin izan dugu kafea baina gustu txarra! Zia be ez da ona edateko baina ha be askoz hobeagoa ez.

Eta ba eukiten genuenean egiten genuen kafea mizkeria edo ia-ia guleriarainokoa izan arren. Imini behesuan, han surten, zoruan zein trebera baten gainean lapikotxa bete ur eta irakin orduan bota kafe hautsa, apurtxo bat, asko barik, maltea edo atxikoria ugariago dela, eta orduxeanean hartzen zen surtetik ilenti bat eta zirigutzi batzuk egiten zitzaizkion lapikotxari ganaz hasten zen monentoan. Ilentia sartukeran fisisss! egiten zuen eta keea gora goraka botaten hasiz batera harrira eroaten zen iragazteko.

Orain, nik neuk be ez dakit hori ilentiaren kontu hori zertako izaten zen, parte txarrekoengaitik igual, nok jakin? Baina egiten zela bai, hori oraintsurte ezagutu dugu egiten.

Gero ba esnea, hori bai, hori etxean logretan genuen, buztarriko behiak ez zeukaten esne askorik baina. Eta ba, zera, esne hori be, behesuko lara-tzuan eskegi maskellua eta han egosten genuen. Sarritan eperdia emon orduko ganaz egiten zigun eta erdi tertzioa surtera jausi, edo maskellu eperdian esnea erre be bai eta kiratsa zelangoa! Gaur zuok hori zer den be ez daki-



JESSE 95

zue, eta surteko sastaparraren bat edo tximiniko kedarre zatiren bat barrura jausi ezketiño iragazi egiten zen zelango halango iragaztontziren batekin. Ai!, eta, ba oraintxe datorkit burura, zuk jakin be ez duzu igual egingo, baina badakizu, pastoreak, han goietan daudenean zelan iragazten duten ardien esnea? Ba zurezko edo zinezko enbudoan asunak iminten dituzte eta handik pasa erazo esnari, holantxik iragazten dute. Eta egosi, orain zinezko edo osterantzeko kantinetan egiten da baina lehenago egurrezko askatxoetara bota esnea harriak berotu eta barrura botata emoten zitzaion irakinaldia esne horri, eta haiek harriek berotukeran botaten zuten tiro bakoitzik!

Eta holangoxe kontuak. Orain adelantuak be handiak etorri zaizkigu eta, lehengorik lardangaina, baina tira, onerako bada bijon deigula!

U rarekin ez dugu euki hemen, ergoienen, zer handirik, uriolarik, altutxuan bizi gara bizi be eta. Baina hor behin elbarreneraz gero kontuz ibili behar izaten da, errekek handi joaten direnean batez be.

Sua ostera, sarri ikusi dugu bereak eta gehiago egiten. Auzunan be etxe bat baino gehiago erre zaigu. Erre nire neure gogoaldian egin dira deskuidu edo inizituren batek jota.

Basoak be inoiz hartu ditu suak eta holango kasuetan denok alkartu eta amatatu egiten genituen.

Etxea erretea zenean, ba, etxe-errearena batzen zen ezbeharduna berriro martxan iminteko, goizetik gauera ezer be barik lotuten zirelako.

Edurtzak be mortalak ikusi ditugu eta edurra be zuria dela beltza da, ikus-teko polita baina beste guztirako azkeña. Edurrak hasiera dauka polita baina gero behin lodituz gero, larri egoten gara lurmenak agertu arte edo guztiz urtu arteraino.

Horregaitik, gure aitita eta amandrek esaten ziguten edurra mendian dela ona eta sua eta ura be onak baina belaunpetatik, handik gora kontuz!

Suarekin jolasten be ez ziguten uzten, eta eginez gero gauez ohean txixa egiten dela eta holakoak esaten zizkiguten.

Begiratu norainokoak diren umeak! Ba baten baserri bat erre eginik izan zen ume batek katuari ilenti gori bat lotu ziolako buztanetik. Jakina, katuak bere burua era horretan ikusikeran, zer?, eta badakizu zer egin zuen? Ba lumarrrotuta lastategira joan eta kamarako eta goitegiko kapaxa, bedar siku eta gal-tzuak guztiak suak hartu. Eskerrak tertzioz heldu ziotela sua amateteari, osterantzean etxea guztiz erre.

Horregatik dino esakereak, behin belaunetaraz gero arriskutsua dela sua eta izan be bada. Ura eta edurra be ez dira bat be lagun hobeak euren neurritik kanpora!

Orain holango konturik ez dugu sinestuten baina, txikerretan, derrigor izan behar txikerretan, amak urte eta erdirekin utzi ninduen eta, ba, txikerretan lamiñen kontu asko entzuten genuen eta gaineko bildurrak bizi be! Ni neu, izan be, beti izan natzaizu piti bat bildurtia, jakina, hain gazterik umezurtz ikusiz gero norbere burua, zer eskatuko zenioke ba holango kaskondubako ume-ari?

Amandre zazpi urte nituela hil zitzaidan. Gero, harrezkero, aitarekin paratu ginen etxean, gure zoria ha izan zen.

Txiki txikitatik geneuzkan geure eginbeharrak eta gure beharlekua izaten zen ba itaurren egin, iturriko ura ekarri, ahuntzak lekuz aldatu, buztarriko ganaduei eltxo, euli edo ezpadurdinak uxatu eta holango beharrak. Inoiz ez genuen behar: “hau eizu edo hori eizu” esaterik, esan barik egiten genituen beharrok, zelan ez ba, aita alarguna trájura haretan ikusita.

Guk ardura handia eukiten genuen, berezkoa, oraingo umeei esan iezaiozue! Deskuidatzen bazara, zotzalbo be ez dizute egiten, hauxe aurki hau hortik hona ekarteko esan eta haxe be ez!

Ardura esan dizut ezta? Ba, begiratu baten aitak niri zer egin zidan harrikoa egiteko uretan lehenengoz bialdu ninduenean.

Orduan ez geneukan urik etxean eta garbikuziak egiteko eta errekatik ekarten genuen ura. Hartu hiru zinezko balde edo inoiz lau be bai eta bete baldeok eta etxera ekarri, bi lepoan egur batetik eskegita, beste bat esku batean eta laugarrena buruan.

Nik neuk, lehengotan, lartxo eritziten nion buruko eta guztiari eta badiosat aitari: “Aita, burura nok altzatuko dit ba urbaldea?”

Ba, alabatxoa, —erantzun zidan—, “Ardura” joango zaizu laguntzera niri neuri be etortzen zitzaidan eta!

Eta ba, zinezko baldeok bete nituen eta ni han, ezarrita “Ardura”ri itxaroten! Baina luzetxo eritzi nion eta “Ardura” horri gehiago itxaron barik, imini labaderoko orma gainean lepoz eroateko balde biak, altzatu lehenengo balde txikiena burura, erdi betean, jakina, gero bota lepora beste biak eta laugarrena eskuan dela egin nuen nire lehenengo ur eroate hori.

Ez naiz ni fazil haserretzekoa baina egun horretan odolak be irakin egin zidan eta aita ikusiz batera esan nion:

Ez didazu esan ba “Ardura” etorriko zitzaidala laguntzen horra Lamin-subiko errecondoko labaderora?

Ba, joan zaizu, —erantzun zidan aitak irribarreka—, nor izan zaizu ba urok aldean hartzen lagundu dizuna?

Ez nuen behar ez esplikazino gehiago aitarena ulertuteko eta harrezkero makina bat ur ekarri dut nik etxera zertara-hartarako.

Gutxitan, baina, noiz edo noiz konduta txarra be eukiten genuen, bada-kizu, umeak Madrilen be ume dira eta. Holangorik bazen, aitak gaztigu lez minarekin zelaian mosua emonazoten zigun hurrengoan artez ibilteko. Egin be egin egin behar, osterantzean nok tolestu gu lako ume koadrillea! Sarritan aitaren haserrea, beharra eta ez-eukia izaten zen, zer egingo diozu ba?

Domeketan korta-beharrak eta ganaduen jatekoak akabatuz batera, garbitu, jantzi eta meza nagusira eroaten gintuzten gure aitak.

Arratsaldean be jai egiten genuen eta Undurrako ermitan errosarioa erre-zatu eta gero ba, umeak olgetan, andrazkoak kartetan ermitaportalean eta gizonak Patxi-Undurrarenean egiten zuten karta-jokoan, dirura egin be. Guk txakurrandi edo txakurtxiak jokaturen genituen, dena be, ez zen erreal batzuk baino! Era horretara emoten genuen domeka arrastia.

Olgatu, harriak gorde eta igartera, soka, txirikelan intxaurrekin potxolara eta beste hainbat gauzetara egiten genuen.

Lamiñen kontuekin hasi natzaizu eta begitu nora jo dugun! Dena dela, dakidan apurra esango dizut.

Baten Kurtzebarritik gatozela, gauiluntzea zen izan be, horien lamiña edo ez dakit ba nik sorginen edo kiratsa asmetan genuen, baina zelango kiratsa gero hantxe, Kurtzebarriko karobiaren ingurumarian!

Orduan, aurrera egin beharrean, buelta hartu eta Albitzupeko bidetik ekin genion bideari eta uleak be arteztuta etorri ginen etxera.

Hor Kurtzebarrin zeozer egon be egingo zaizu, ze entieruetan be gorpua lotu eta abadeak erresponsoa errezetan zuen, zeozergatik izango zen, ez deritzazu? Horiek bidekurtzeak kargu hartzekoak dira behin gaulendiraz gero.

Hau esan dizudan hau, hemen ezeze, Gorozitupeko zubi ondoan be egoten ei da oraindino be hori kirats hori. Zoaz ia, ikusiko duzu zelango kiratsa barruntatuko duzun!

Inoiz, baten bati, entzun be egin diodalazkoa daukat, ba, hori kirats hori mozollo-kakarena ete den be, baina batek badaki! Hobe horietatik lekuotatik egun argiz ibili zer den beist kirats hori.

Hori Jentilena? Mekasuen zotz! Jakingo ez diat ba, lamiñena be bai, bitzuen entzutea zeukat eta bitzuek emoten zidatek errespetoa. Errekoño!, horiek ez dituk ez parte onekoak! Orain, norberak kalterik egin ezik eurak be ez dituk arrimetan.

Jentilekin hasteko, kontuak atera itzak zelango kankailoak zituan. Zerean, hor, Untzetapikun imini kadera bata, eta beste kaderea Uriondo ganean, eta ura edaten ibiltzen zituan han, errotea dagoen lekuan, Elorribietako errekan. Handiak! O! Gizontzarrak! Egia esateko ikusi ez dizkiat inoiz egin baina gure zaharrek bai antza!

Horiek lamiñak ostera errekarik erreka, txarkorik txarko eta iturrietan be ibiltzen dituk, baina batenbat arrimatuz gero, zazt!, urera edo zuloren batera egiten ditek saltu. Gehienetan urregorritzko orrazia aurkituten zela zeukat entzutea.

Hemen Zeberion, lamiñak zerean egoten zituan antza, Etsazorako bidean, Ametzatik, handik gora.

Zerari, Antero Amesolakoari, han Zeberioganeko zarradura ondoan, urten biderdira eta zelango sustua seguru!

Antero, estu eta larri hasi ei zuan esaten:

—“Kendu hadi, kenakit ostikopetatik, zer Jaungoikok izan behar dik hemen?”

Lamiña horrek “Jaungoikoa” berba entzun zuenean, derrepente, handi be handia egin zuan eta Antero gizajoak egaz ez bestekoak egin eta atoan plantatu zuan Amesolako etxean.

Anbotoko Señorearen konturik dakitzudan? Artez esanda, urliari, horri, Luzianori, zuk ez zenuen ezagutu be egingo baina, harexi berberari entzunda daukotzat pasadizu hau.

Ako, baten seguru, hemeko Gezalako batenbat joan ei zen Artea-Arratiako errotaren batera labigerra ehoten eta hortik Sarasola gainera helduz nahaste, hantxe urten ei zion Anbotoko Señora horrek biderdira. Kandela berdeak ei zeuzkan eskuetan eta euren kandela-negarrak oinetatik dandarrez zekartzan kateetara dariola ikusi ei zizkion.

Anbotoko Señora horrek, harantzzean barik honantzzean urten ei zion bide-
ra, jakina, etorri be abemariak jo eta gero egin zen egin be eta.

Lehenago, holango kontu edo pasadizu asko entzuten genituen. Bateko, bati honek urten diola bidera, besteko, besteari hau egin diotela, eta beti holangoren bat.

Gaur dakidana baneki nik neuk be ez nuke sinestuko baina gure ume denporan ez geneukan ez autorik ez ezer eta mundu guztia zebilen oinez bideak betean eta sarritan gauez. Orduxean sugertetan ziren horiek kontuok eta bildur izaten ginenez, jakina, dena sinestu.

Ba horixe baino ez dakitzut. Mutil horrek errezu guztiak gutxi zituen baina tira, basorik baso heldu ei zen Gezalara.

Basorik basoko bideak ez zekizkien ondo baina horretarako ez ei dago astoa lakorik ilunik ilunenean edo lainaberarik zarratuenean be etxea tope-
tako.

Hemen Gezalan, hor Bañutzeko baserrian, bueno, baserria egoneko lekuan, ur gaziak urtetan zuen eta bañu-etxea zegoen.

Gero, ba, bañu-hartuteari utzi ziotenean, beste etxe bat egin zen eta ur gazi horrek urtetan zuen lekutik hasi eta errekararteraino tuberia bat imini zuten eskusaduko urekin batera, horregatik, gaur ez da iturri gazi hori ikusten.

Ur gazi hori, bañetako ezeze, gaztainak egosteko be eroaten zuen gen-deak ona baino be hobea zen eta.

Lamiñak? Pausuko egoten ei ziren hemen Gezala-erreka guztian. Nik neuk ez ditut egundo be ikusi baina zaharrek bazekitzuen horien berri. Sarri askotan kontetan ziguten zelan urregorritzko orrazia muna bazterrean ahaztuta urera sartuten ziren txirripistadotsean.

Nire neure gogoaldian, lamiñak ez, baina, Gorbeia aurretxoan dagoen Arrabako landara elia, ganadu elia pasetan sarri daukat ikusita. Hemetixik pasetan ziren. Han, Ermitabarriko parrokia ondoko harizduian abaro egin eta goizeko inontzean zoli-zoli ikusten genuen joaten herri-behi eli hori. Ikustea zen gero ha!

Gaur ez dago holangorik. Gezalaraino kaminoa egin digute. Hemendik aurrera ez dago burpidea baino. Hor goragoan, Beresia, Urtea, Elexartza, Elordui eta horiek auzuneok dauzkagu eta hortik gora joaten zitzaigun eli hori.

Mandazainak be ibiltzen ziren lehenago hemendik gure parajetik. Gizon lerdan eta bizkorrak izaten ziren, lamiñen eta holangoen bildurbakoak.

Guk oster, batez be andrazkoek bildur handia izaten genien horiei lamiña horiei. Bildurra euki be egin egin behar entzuten genituenak entzunda.

Eta eskerrak Don Damian abadeari! Harekek emon zigun erremedioa, holangorik agertuz gero errezetako aginduz. Zelango gauzak e, horregaitino!

Inoiz entzun be egin diet horiei horko goiko auzunetakoei han Aibelabeko haitzean be agertuten zirela lamiñak argi eta guzti. Han egon be igual!

Baten, hemeko gure auzoko pastore bat etorri zen Orozkotik Zeberiora basorik baso eta hortik, Aibelabeko haitzaren ondotik zetorrela sustu ikaragarri bat hartu zuen.

Izan be, bildurgarrizko katea zaratak entzun zituen seguru, baina oraindino be ez daki zer parte txarreko izango zen.

Hor Aibelabeko haitz inguruan askok hartuten izan ditu sustuak, bateko jentilak direla, besteko lamiñak, hor beti egon da zeozer sekula argitu ez duguna.

Jentilak be egoten ei zirelazkoa daukat entzunda. Hor, hortik aurreratxogo Orozko partea dago eta han Jentilzulo daukagu eta handik etorriko ziren Aibelabera. Horiek jentilok alosokoak izaten zitzaizkizun eta zelango destrozua egin batean bestean eurekin sartuz gero!

Beste batzuetan, hor Aibelabeko haitzean, argi azul-azul batek urtetan zuen eta hau ete den hori ete den, hor ibiltzen zitzaizkigun atso-agure guztiak argi azul horren zer hori sustertu ezinik.

Elexondoko sakristauak esaten zigun horrek argi azul horrek intzentsoa zirudiela ze harexek be holangoxe kolore urdina zeukala.

Gero, hori, Anbotoko Señora hori, zazpi urte egoten ei zen Anboton, zazpi Gorbeiaiko Itxinan eta beste zazpi itxasoan.

Hemetik, Aibelabetik be inoiz ikusi zutela kontetan ziguten. Garra dariola joaten zela horrantz, Gorbeiarantz. Baina entzun ez dut egin inoiz inori kalterik egin dionik.

Lamiñak berriz, aitearen eta semearen! eskandalua egoten ei zen hemendik, hasi hor Aibelabepen eta Gezala-erreka guztian. Baina horiek be galdu ziren, ako han San Juan egunean jaioko herri-zekorrek erreka areatu zituztenean. Area ez edozein modutakoa gero!, urregorritzko haginduna. Halantxik tragatu ziren betiko seguru, lamiña enbelekok.

Gure gogaldian eleizara joan gara denok eta orain ez dugu holangoetan sinestuten, eta bake santu bat!, osterantzean horiek kontuok ez daukate akaberarik.

Saiak, txori bildurgarriak izan dira batez be artzain eta baserritarrentzat. Horregatik, ahal izaten zutenetan, tranpa bidez harrapatu be egiten zituzten.

Behin baten, hor, Anboto ondoan, Bernagoitian, saiak harrapatu zituzten. Lurrean zulo handi bat egin zuten, ardi tragatu bat bota barrura eta saiak jaten etorri ziren unean, sare bat gainetik botata, bizi bizirik harrapatu zituzten harrapatu be saiok Bernagoitiar gazte batzuek.

Saiok hiltekozat egon ziren baina hango gazteetariko bati ez zitzaion gogoratu besterik haxe egitea baino:

— Oraingo honetan, saiak hil barik, zergatik ez diagu broma bat egiten, saiok bizirik hartu, euren erpetan pekorotz sikuz beteriko otzara bana lotu, sua emon pekorotz horri eta egaz bota saiok Anbotoko Señorearen itxura har ditzaten eta ikusi ia herriak zer dioen!

Esan eta egin. Hartu zituzten saiok, pekorotzez betetako otzarak erpetan lotu, sua emon eta egaz bota gau iluntzean.

Egaz bota egin zituzten, baina bildurtu egin ziren hango sugarrak ikustean. Zaharren esanetako Anbotoko Señoreak zirudien baina saiok bajatzen hasi eta baso edo baserriren bat erre balitz zer?

Herritarrek, dena den, Anbotoko Señoratzat hartu zuten baina gazteok urteetan zehar gorde zuten euren fetxoriaren sekreto.

Beste behin, antzerako fetxoria bat egin ei zuten Zeberion. Fraile karmeldar bat joaten ei zen sarri Zeberiora eta egun baten, gazte talde bat hartuz saiak harrapatzea erabaki zuten.

Orozko eta Zeberio bitartean dagoen Aibelabe inguruan harrapatu zituzten saiak eta han be, pekorotz sikuak batu, maskelu eta kobrezko galdailetan sartu, erpetan lotu, sua emon eta egaz bota ei zituzten saiok, era horretara herriari kontatu eta Anbotoko Señorearen sineskera gauzeztanduteko.

Egin zuten fetxoria hori eta saiak egaz joan be bai Mandoiarantz, baina fraile karmeldarrarengandik hasita bildurkilik egon ziren, gertatu ez zen kasuan, gertatu zitekeena pentsatuz, hau da, baserri edo pinudiak erre.

Kasu honetan kontatu egin zuten ha fetxoria berriro inork egin ez dezan holakorik badaezpada. Izan be, herriko esaerak dioen letxe, sua eta urarekin kontu handiz ibili behar dela batez be, belaunetatik gora denetan!

Honango kontuak gure aitita difunutu eta amandre difunteari entzuten genizkion supazterrean arto garantan edo beste zeozertan ekiten genionean batez be negu parteko iluntze luzeetan.

Baten seguru, Bariku Santuz, andra faturen bat, holango suster handi bakoren bat, eleizara barik labegurretan joan ei zen Elexurreako basorantz eta baten batek ikusi be egin ei zuen ota karga endemoniño batekin baina ez ei zen gehiago agertu ha andrea.

Esaten dute ba ze, kondenatuta paratu zela itargian eta nik neuk ez dakit egia izango den baina idergi betea daukagunean adituz gero itargiari, esan liteke ota-karga eta guztiko andrearen itxura daukala itargiko ilunde nagusienak.

Bai, Bariku Santuz, herri guztia joaten ginen eleizara baina ha ez zena lez joan horregaitik paratu ei zen kondenatuta, izan egingo zaizu igual egia, nok jakin?

Hauek itargiaren ilundeok alde batera utzita, itargia sano kontutan hartu izan dugu eta, oraintxe eta oraintxe be, euki daukagu kontutan.

Non? Ba, edozein ereitzetan ernaro on baterako. Txerria hilte orduan, odoloste-buzkentak eta urdai-pernilak galdu ez egiteko, eta beste hainbat gauzetan.

Gaur, hor mataderoetan edo inbernaderoetan ez dira holango kontuei begira egoten baina, gurean geurean behinik behin, jagon egiten ditugu lehen-go usadioak eta ondo doazkigu.

Gizona, itargira joan be egin dela entzun dugu baina ez dakit ba hori guztiz sinestu ala ez! Gaur adelantu handiak daude eta izango da, haragora be ei doaz eta.

Hau da mundua! Hemeko munduko gauzak ezin konpondu eta haragora joan guran plagak harturik, zeinek gehiagoka. Zer ikusi eta bizi behar dugun baino ez da aurrerantzean! Holangorik!

Zeberioگانeko Andra Mariaren eleizako portikura joan ei zen baten eskeko bat, gaua egiten. Zakutotik atera jaki apur bat, afari iski bat jan, lo aurreko errezuak egin eta loari eman zion.

Gaberdian, desoran, jan-zaharreko amesetan zegoelakotan, zer?, eta berbalotsa eta grillistuak barruntatu zituen han errekarritz atondutako eleizportikuan zehar.

Ikaratu egin zen eskeko hori eta atinik zegoen kasuan, zutundu eta berbaltu eta guzti badinotsie:

— Jesus, Maria eta Jose!, zer dator hemen? Nortzuk zaituztedan baino ez duk!

Eta besteok esan zien:

— Gu, Purgatorioko arimak gatzazkizu eta geure penitentzia kunplitan gatoz, gaur leku batera eta bihar beste leku batera, eleizarik eleiza, ermitarik ermita, zeruan sartuko bagara!

Hak eskekoak, horretara, ez zeukan adorerik eta susto-sartuaren susto-sartuaz, konortea be galdu eginik izan zuen.

Arimok ez zutenez logratu ezer eskekoagandik, gedar baten eta grillistuka hartu zuten Santo Tomas zaharreko bidea.

Eskapakeran, “gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat” esaten ei zuten handik beresia behera zihoaztela.

Hurrengo goizean, eskeko hori, artez joan zen herriko abadeagana eta kontatu zer gertatu zitzaion gauaroan.

Abadeak, horretara, hauxe esan zion:

— Berriro holangorik sugertetan bazaizu, ikaratu beharrean hauxe esango diezu horiei arimoi: “Ez zaitezte arrimatu nigana honebeste estadiotan eta zek zakartzate hona?”

Eurak, horiek arimok hasiko zaizkizu bakoitzak bere betatu bako promesa edo dena delako koitak kontetan eta laguntza eskatuko dizute. Holan balitz, lagundu baina hurrengo domekan, han eukiko dituzu itxaroten eleizportikuan eskua emoteko. Zuk ez emon eskua zapi batekin edo ez bada. Eskua emokeran, han ikusiko dituzu euren hatzamar markak edo erreuneak.

Eskekoak nasaialdi bat hartu zuen eta aurrerantzean, eleizportikuetan barik labe aurreetako aterpeetan eman zion lo egiteari badaezpada.

Uriondon egon ei zen batenbat sorginduta. Ez dakit ba non edo zelan baina sorgin-orratzok jota zegoen etxetik kanpora urten be egiten ez zuela.

Noiz edo noiz ikusi be egiten zuten han kamarako balkoian mamarroz beteko txolet aho estu batekin. Mamarrookin berba eta guztiak egiten ei zituen eta baten batek ikusiz gero barrura sartzen zen.

Halangoren baten gaixotu be egin zen eta lastamarrazko ohean zeukaten etzunda hil-biziko guztiz kolorgatuta.

Noiz hilgo baina ez zen inoiz hiltzen. Orduan familiak abadeari deitu eta eleizakoak ekartea erabaki zuten.

Abadeak, hartu eleizakoak eta sakristaua aurretik dela txilinetsean heldu zen sorgindu horren etxera.

Etxeko guztiak belaunikotu ziren eta abadea jaunartze aurreko otoitzak egiten hasiz batera, ziiiiizzzt!, bentanatik, bentana-marko eta guzti arrankatu eta garretan urten ei zuen sorgindu horrek harrizko orman zulo endemoniño bat utzita.

Gehiago ez zen jakin haren berririk. Hori egia ezin liteke izan baina kontatu holantxe egiten ziguten gurekoek eta pentseteak be ikaralakoa ematen digu eman be!

Gero ba zeresanak eta egon ez egiteko, entierrua egitea disponitu zuten. Horretarako atautea harriz bete ei zuten eta ortusantuaren kanpokaldean enteratu.

Badinotzut, hau kontatu egiten ziguten baina sinesterik ez daukagu, horixe baino ez genuke behar, ez dena be sinestu?, ez horixe!

Jakina, hauek kontuok kontetan zizkiguten sorginkierietan sartu ez egiteko, handik ez zetorren etorri be eta gauzonik. Hor, lehenago, sorginkieriak direla eta zigorrak be egoten zirelazkoa daukat entzunda. Hori, dakienak jakingo dizu, ez deritzazu?



Gaurko munduan usadioak kanbietan doaz baina lehenago eleizako funtzinoak beste era batekoak genituen.

Euretariko bat, "eleizakoak" deritzona zen. Hau da, Gure Jauna eta Azken Igortza emotea noiz hilgo dagoenari.

Eleizakoak, lehenago, oinez eroaten ziren. Abadeak hartu Gure Jauna eta Orio bedeinkatuok eta sakristaua aurretik dela joaten zitzaigun beharrezana zegoen etxera.

Sakristauak txilina jotzen zuten bidean eta bidazkiren bat aurkituz gero bidean, belaunikotu egin behar izaten zuten. Ni neu be sarri belaunikotu naiz Eleizakoen aurrean.

Eta baten, seguru, andrazkoren bat ei zetorren labesua egiteko ota-karga batekin eta Eleizakoak bere ondotik pasakeran, karga lurrera bota eta belaunikotu beharrean, aurrera egin zuten burpidea behera.

Denporatzarrak pasatu eta gero be, nondik denik be ez zekien inok andrazko hori eta esaten dute ba ze, kondenatu egin zela eta han dagoela itargian ota-karga eta guzti. Izan be, itargiaren ilungune batek, lepoan karga batekin dagoen andre baten antza ei dauka batzuentzat segun itxura.

Nik ezin esan nezake hori holan denik, ikusi be ez dut ondo egiten eta, baina batzuk holan dinote.

Dena dela, gaur adelantu handiak daude eta horiek ilunguneok beste zeozer izango zaizkizu, ezpabere horiei eskolastikuei itandu.

Itargira joan be egin dira eta honantzean ez digute esan holango konturik, jakina, lehenegokoak be zeozer asmatu behar bizimoduari antza emoteko, nahikoa ez zuten egiten ba? Hobeto ez, nahikoa eta lar!

Zeberiko Upotik zebilen behin baten abade bat perretxiko topetan, han Upoko ermita ingurumarian.

Harona ibili eta ibili, halangoren baten mutiko kaskondutxo bi aurkitu zituen zaran batera pekorotzak batzen.

Abade hori apur bat zertuta, zer pentsatu ez dakiala geratu zen eta beste barik badinotsie:

— Mutikoak, nortzuk zareten beist, fin be badaragoiozue pekorotzak bazteari!

Eta, mutikook ez zioten jaramonik be egin, eta abade horrek pentsaturik ba erdaldunak edo izan litezkeela badino:

— Andais finos!

Eta, orduan be jaramonik be ez, eta gainera adikuna betuxozkoak eta guztiak egiten hasi zitzaizkion.

Abade hori, bildurtu egin zen eta parte txarrekoren batzuk edo izan litezkeelakoan, hartu errosarioa eskuetan Kurtze Santuaren egin eta badinotsie:

Kristauak ala demoniñoak zarete?, eta erderaz badaezpada ¿sois cristianos o demonios?

Horiek berbok esan bazituen ba ze, mutiko txiki biok jentil ikaragarriak fundatu ziren eta pekorotzok bertanbera utzita alde egin zuten alauri baten harantz, Mandoiako puntarantz.

Abade horrek be, estukuraren estukuraz, ez zuen ez erronka handirik kontatu etxera heldu zenean bidean perretxiko erdiak galduta eskuetako dardakeoaz!

Holango kontuak pasatu egiten ei ziren lehanago. Horregatik esaten ziguten zaharrek ez lekuren baten batenbat topatuz gero Aitearen egin eta itaunduteko nortzuk ditugun eta han izango dela ezagun nor eta zer diren.

Gure aitita, nik ez nuen ezagutu, baina nire aitak kontetan zigun, medikuarena kobretan ibiltzen zela, medikuaren igualea, urteko honenbeste. Ez zen askorik izan be egingo ze egon be ez zegoen diru askorik etxeetan eta.

Holango egun baten, goizean goizetik, inontz zarratuaz, hartu bere zakutoa eta medikuaren kotejazino hori batzen urten zuen txapa-txapa.

Eta hortik, Zeberioako parrokiaren azpiko errekontotik zihoala, zaldi edo behorren apatxotsa entzuten ei zuen, apatxotsa baina, ez edozein modutakoa gero!

Aititak, hori goiti beiti, aurrera egin ei zuen zarata horiei mirarik egin barik, ganadu soltu edo deslaren batzuk zirelakotan.

Aurrera bai, baina, apatxotsa geroago eta handiagoa ei zen eta atzerik hara ezeze, alborik hara zein aurrerik hara gaintu ei zitzaizkion zaldi mada-rikatuok.

Horretara, aititak, usadioa zen letxe, aitearen egin eta pater noster bat errezatu zuen hantxe errekek presa egiten duen lekuan. Presa horretatik ubide bat dago errotako andapara betetako eta hantxe, seguru, beste mutilok.

Errezuok egin zituenean, haietariko zaldi bat, batenbat ganean dela ikusi ei zuen drinean presako urera sartzen sokorru baten.

Pozik egon ei zen egunsentiarekin batera oilarrak eta eleizako arri-kanpaiak entzun zituenean.

Luzaroan euki ei zuen pasadizu hau kontatu barik zein etxeko eta ingurukoak ez zitezen ikaratu. Urteak eta urteak geroago kontatu ei zuen lehenengoz fetxoria hori. Janina, gizon arteza ei zen izan be gure aitita eta horregatik ez zuen gurako berekorik larritu berak be egia ez dela jakin arren.

Hori pasadizu hori goizaldeko iluntasuneko bildurrak eragingo zion eta bildurrean edozein gauza pentsetan da egin be, ez dena be ikusi. Bildurra zer den e!

Lamiñen kontuak jakingo ez dizkizut ba? Jakinez gainera egongo zara hor Gorozituko haitzean kueba bat dagoena ezta?

Ba hor egoten ei ziren lamiñok. Bateko errekan uger, besteko munara urtenda orraztuten, berba baten esanda, euren kontuetan.

Hor Gorozitupean, lamiñen kiratsa be zelangoa egoten zen jakinez gainera gaude. Gaur be oraindino barruntetan dugu kirats hori, zoaz ia, ikusiko duzu!

Lamiñok ez ziren izan be parte onekoak. Zenbat ogi eta arto koiu izango ete zuten Gorozituko labeetatik! Hori eurek baino ez dakite.

Okerrak zer ziren horiek lamiñok! Baten, ganeko sustua eman zion hango gizon bati holako lamiña batek!

Ba, segun itxura, gauerdian zihoan gizonen bat etxerantz tabernan betebete eginda, aurrekorik be ikusten ez zuela, albora kargarekin, behin katuka, behin narraz.

Horra Gorozitu-errekako zubira heldu zenean lamiñaren batek buruzapuztetik oratu eta berarekin eroan gura ei zuen haitz-zulora.

Kasualitatez, gizon horrek, San Blas-kordela zeukan samatik eskegita eta mozkor eta guztiz be harexi heldu zion eskuekin eta esan:

— “San Blas eta gainetiko guztiok, erduzie laguntan, non nagoen ez nok naroan be ez dakit eta”.

Laminea, haiek barbak entzukan, podere barik, gauzeztanduta geratu zen eta horretara libre sugertatu ei zen gizon hori.

Kendu zitzaizkion bai mozkorrok gizon hari eta zuzian hartu ei zuen bere etxea zein berriro beste lamiñaren batek beste haibeste egin.

Baina, badiotzut, gaur eta gaur be, oraindinokarren asmatu eta barruntatu egiten dugu lamiña-kiratsa hor Gorozitupeko errekatarroan. Zerena den?

Horixe ez dakizut esaten baina badagoena bai, Albitzu pareko karobiaren inguruko modukoa. Haxe parajea be zalea zaizu holangoxe kiratsean. Dagoenean, zezer izango da, gauza bat ez bada, beste bat! Zek emoten duen baino ez da kirats hori! Bedarren batzuk be igual, baliteke!

Zemendi ingurua zen eta orduxean genbiltzan ibili be idebaten han Mandoiapeko herri-baso eta gainetikoetan.

Goizean goizetik joaten ginen, kuadrillea joan be idebaten eta gure antzean beste asko, geure igitai eta kodaña eta guzti.

Lehenengo ugazabaren idak ebagiten genituen, ze, horixe be bageneukan errenta-kontratuan berba emonda, eta gero ba gainetikoa ba geuretzat.

Esaten nabilkizun moduan, ba, zemendiko egun on baten, kortako idiak, kateatik soltatu, buztartu, gurdia hartu eta han nindoan burpidea gora Mandoiaperantz burkada bat ida ekarteko asmoz.

Heldu nintzen basora, imini ume bat idiei txorbel batekin euli, mandauli eta ezpadurninak kentzen, kargatu ida-aspelak, soka bota estuteko eta banentorren etxera-bidean eguzkia sartzamendira noiz sartuko dagoela.

Bidekurtze baten, idiak geratu eta zigarro bat egiten hasi nintzen. Atera tabakorri-petaka boltsatik, tabakorria birrindu, zigarroa egin, harrizko metxeruaraz sua emon eta han nengoen, ketan-ketan, Aibelabeko haitzerantz begira.

Halango baten, zer ete zen ez ete zen, non ikusten dudan zeozer garretan Untzetabetik Aibelabera eta gero handik Mandoiako puntara.

Neure gainetik pasatu zen pasatu be eta hobeto begiratuten hasi nintzeanean, zizzzt!, garrretan berrriro, zer hori, Anbotoko Señora hori. Eta norantz egin zuen? Ba, Gorbeiako bidea hartu zuelazkoa esango nizuke.

Hauek kontuok, lehenagokoak zaizkizu eta gaur balitz sinestu be ez nituzke egingo baina zer egingo diozu ba, gaur argitasun gehiago daukagu euki be eta, orain ez dago lehengorik.



Lehenago, hemen Zeberion karobi asko genituen. Karobietan karea egiten genuen, kare bizia, kare-harriaz.

Horretarako karobiak geneuzkan. Era bitakoak ziren. Batzuk, geure geureak. Hauek gureok gehienetan kontraterreno baten egiten ziren. Kare-harria hur zegoen lekuetan zulo biribil bat egin behar izaten zen. Zelango neurrikoa, halango sakonarikoa.

Esan dizudan letxe, kontraterreno horretako beheko aldetik alborik harako zulo bat egiten zitzaion karobiari. Gero, hor, metro bat alturara inguruan kare-harrizko arketa bat, gainetiko guztiari eutsiteko.

Behin hori eginez gero, goi aldetik hasten genuen kare akarreoa eta kare-harri zatiz betetan genuen karobi guztia.

Hori beharleku hori akabakeran, beheko aldeko arketapeko zuloan sua egiten zen generalean ota-egurrekin, oteak sua bizia eukiten du euki be eta.

Holantxe hasten zen karobia martxan eta kare-harriak zurituz-zurituz zihoazten arketatik hasi eta gora.

Goirengo harriak zurituten zirenean, sua egiteari uzten zitzaion eta arketapeko iduri, ilenti eta sastaparra guztiak garbitu egiten ziren.

Gero, kare egin berri hori aterateko, goitik zein behetik egiten zen. Behetik eginez gero, arketa apurtu eta jausi ahala kanpora atera, edo ezpabere, goitik.

Kare errea, zuri-zuria, atera eta gero solora edo behar zen lekura eroaten genuen eta han, zabaldu baino lehen, ura bota kare bizia lortuteko.

Ura botakeran, keak urtetan zuen, baina zelango keak! Badaezpada hurregi barik ibili behar izaten genuen zein begiak erre.

Holantxe egiten genituen kare beharrok. Gaur ez da egiten, baina karobiak hor daude, sasiz eta denoduz beteta. Gaur askok jakin be ez daki horiek zulook zer diren ez zertarako erabilten genituen.

Hor, Etxazon, karobi zahar baten zuloa konpondu eta ur-depositua egin dute. Horiei sikeran zeozertarako balio izan die lehengo usadioko zer horrek.

Hauek karobiok, etxe bakoitzarentzat bat barik, gehiagoren artean egiten ziren, eskubeharra aprobetxetako eta gero karea banandu. Errentoreak, uga-zabari egin behar izaten zioten errenta truke edo.

Parte txarrekoak esan dizut, baina, ibili be egiten zitzaizkigun karobi inguruetatik batezbe gauiluntzetan bazterrak enderdetan. Eurak izango ziren! Zaratak eta alauriak entzuten genituen. Inoiz karea ostu be bai, edo sua amatu eta holangoak.

Nik neuk ez dut ikusi baina lamiñak eta inoiz Anbotoko Señorea be ikusi zutelazkoa daukat entzunda. Ez da harrizkoa! Orduan gosea eta hotza ez zen falta eta arean bildurtia zenak, ikusi be, inon direnak ikusten zituen!

Lehengora joanik, beste karobi batzuk be bagenituen. Geroagokoak jakina. Frantzesak deituten genien.

Hauek karobi frantzesok, ikatza, kokarekin erabilten genituen. Harrizko ormadunak ziren. Behe partetik zulo bat, labesua egiteko labeak lakoa eta barrua biribila.

Behean, lehenengo ikatza, koka kapa bat iminten zen eta gainean kare-harrizko bete kapa bat. Gero berriro koka eta gainean kare-harriak. Holan bete arteraino.

Sua behetik emoten zitzaion eta ikatza erre ahala kare-harria zurituz zihonan eta karobi barruko blokea beherantz.

Orduan, karea egin ahala atera egiten zen beheko partetik eta nibela zelan bajatu halan kargetan zen goitik karobia beti beterik eukiteko.

Honek sistema honek geratu barik zeukan karobia, goitik bota behetik atera baina karea ez zen garbia, lehen esan dizudan gure karobietakoa lakoa. Hauetako karobi frantzesotako karea, ikatz errearekin batera zetorren eta jakina, derrigorrez nahastu behar.

Horregatik, hau kare nahastu hau, solorako erabilten genuen gehienbat, soloak karea ezeze, ikatz iduriak be ondo hartzen dituelako.

Ostera, arrauntzak karetan sartzeko, ormak zurituteko eta holangoetarako gure karobietako kare zuri-zuria erabilten genuen.

Honango karobi frantzes bat ikusi gura baduzu, ez daukazu horraxa, Etzebarriko basora joatea baino edo Lemoan be hantxe daukazu kamino ertzean bista bistan.

Hau, tristea da, baina, lehenago, ortusantuetan atauta barik enterratuten zirenean hilak, kare bizia botaten zioten hilari gorpu gainera eta gero lurra.

Azkenean, parte txarrekoetz barik, karobien gainean berba egin dizut. Nora joan garen baino ez da kontuokin! Dena dela, parte txarreko edo oneko, haiek denporak joan zitzaizkigun eta orain oraingoei eutsin beharko diogu, ez deritzazu?

Nik neuk ezin esan nezake horiek jentilok ikusi ditudanik baina euki badaukat entzunda gaztaina batze orduan eta, ikusten zituztela. Jakina, eurak be gose izango ziren eta, gure moduan, hatantxe, gaztaina pilatzen ibiliko ziren.

Lehenago gaztainea baso guztietan eukiten genuen, behar be urte guztian zehar jateko behar izaten genuen eta.

Hor zemendi inguruan hasten ginen gaztainondoak erazten fartika luze batzuekin eta gero kirikiñoak batu eskutila edo ugelaxoaz zein kirikiño-harrak esku edo beste zeozer mankatu.

Fartikarekin kontuz ibili behar izaten genuen, ezpabere, begiratu zure aiti-ta Manueli zer sugertatu zitzaion. Jakingo duzu, fartikatik behera jausi zitzaion holango kirikiño bat, begi-begian jo eta begi bata galdu egin zitzaion.

Behin kirikiñoak batuz gero, batzuk etxera be ekarten genituen lehenengotan jateko baina gainetikoak basoan bertan uzten ziren. Horretarako, kirikiñusiak egiteko usadioa zegoen. Batzuk agurrezkoak eta beste batzuk harrizkoak.

Kirikiñusiak bete bete egiten genituenean, gainetik ida eta egur abarrez josita iminten zen gain guztia eta gero harri edo egur mokor handiak imini zein ganaduek gaztaiñok jan, haizetu eta tragatu, urdailak errementaturik.

Gaztaiñak, klase askotakoak geneuzkan, saldaimentuak, ataloak, lopetxak, mentugorriak, batzuk esatearren.

Gure gazte denporan, zer janik asko be ez zen egoten eta horregatik gaztaiña asko jaten genuen, batez be gauetan, bateko egosita besteko erreta, jakina, zerekin harekin bete behar gure ume eta ameen urdailak.

Kirikiñusietan kirikiñoak usteldu egiten ziren eta gero beleki batekin errez apartatuten ziren, eta jan ahala etxera ekarri edo asko egonez gero saldu.

Gero ba denporak joan ahala, gaztaiñari gaixoa etorri zitzaion eta egurra aprobetxetako de reo botaten hasi ziren eta apurka apurka bere orde z pinua sartu.

Pinuak asko emon digu. Alde batetik azpigarria eta bestetik egur-dirua seme-alabei laguntako.

Eta ba, jentilok handik ibiltzen ei ziren, eurok be gaztaiña batzen eta deskuidatuz gero kirikiñusiren bateko guztiak jan be bai. Handiak ziren izan be eta ba asko behar holango gizonzarrak!

Gaur hori joan zen. Han hor hemego gaztainondo baten kirikiñoak arrankalduta ikusi arren, askok eta askok ez die mirarik egiten, mizkeria zer den ezta?

Beresietan be eukiten genituen gaztaina gazte edo berez erneak. Horiek, zimentzak egiteko gordetan zituzten gure aurrekoek eta guk geuk be bai. Gaztaina egur gazteok, ebagi, etxera ekarri, uretan beratuten imini, labean berotu eta gero matxet batekin zimentzak ateraten ziren. Gero, zimentzok findu eta zesto-otzarak egin, edo silla-eperdiak bota, zursubilaren laguntzaz.

Silla-eperdiak, urritz-zimentzez be botaten genituen baina gaztaina-zimentza zailagoa zitzaizun eta zahartzaro hobia zeukatzun.

Liñoa ereiten genuen zemendi ingurumarian eta gero ha liñoa egiten zen atera, maiatza edo ez dakit ba, gariarekin nahaste antzean edo.

Behin ateraz gero ha liñoa egiten zen zabaldu landan, apur bat bigundu dadin, inontzean, eurian edo urik egonez gero urean. Zabaldu, zeinda, garia egiten zen moduan eskura ebagita.

Gero ha liño-bedarra bigunduten zitzaigunean, eskupoilak egiten genituen eta poilatuta ekarten zen liño guztia etxera, eta etxean labesua eginda gero, labea ia epelduta dagoela, haraxe, labera barrura sartzen zen.

Gero han labean apur bat epelduten zenean, trangea esaten zitzaion erramintzarekin jo-jo-jo egiten genuen liñoaren azal marroizka guztia bota erazo arte.

Trangea, egurrezko tresna bat zitzaizun. Holango parrilla bikoitza lakoa baina itxikeran listoiak ezkondu egiten zitzaizkion eta bitartean linoa siskatu egiten zuen. Hankak be bazituen, norberak gura dituen neurrikoak. Eta harexekin, jo-jo-jo egiten zen.

Gero ezpata esaten zitzaion egur batekin bigundu egin behar izaten zen ha liño moltzoa, hazituteko, harrotuteko.

Hori guzti hori egin orduan, sarrantxatu egin behar izaten zen, sarrantxea, bai, holan egur bat haginez atonduta, honan hatzamarraren tamañuko lodiak, bostosei edo gehiago, eta han egiten zen sarrantxatu, ahal denik eta finen imini arte.

Eta gero irun egiten zen. Makinatxoak egoten ziren txerrinka edo erruda batekin, eta kaderekin ereiten zitzaion, eta holantxe egiten zen liño-firua.

Gero firua eginda gero, mataza egin behar izaten genuen, lau kuadruko zer bat, tresna bat, eta han egiten zen mataza, batera eta bestera.

Gero gobadan garbitu, gobada bidiru bai sikeran, lexia, errandonean egiten genuen bogada edo lexia.

Eta apur bat bigundu eta zuritu be egiten ziren liñoak. Horretarako bogadaz batera igero egin behar izaten zen liñoa zurituteko.

Bogada be errandonean egiten zen, ez oraingo moduan lejiarekin eta holan, errandonea, barrika izaten zen, punta kenduta, eta han igero egin behar izaten zen. Hau da, ur jabonatu botatzen behera. Behean egur abarrik imini iragaztontzi letxe eta buelta berrien berriz zuritu arte.

Behin garbituz gero, atera liño garbi hori eta harildu egiten genuen gero harilok ehuleari emoteko.

Gero, ehulerua zegoen Diman, lehenago bazegoen Zeberion be baina, ehuleruari "Txankerri" esaten zioten, han eleiza berria dagoen bizimodu biko etxean bizi zen, eta erre egin zen ha etxea, eta gero ez dakit ba nora joan zen.

Esan dizudan letxe, Diman zegoen ehulea, eta Dimako ehulerua etorten zitzaigun abisatuz gero. Etorten zen mando batekin, eta eroaten zizkigun harilok.

Ehuleak telea egiten zuenean, berak ekarten zigun liño-telea edo mizezkoa esaten zitzaiona etxera baina ez haril guztiena. Zati bat beretzat izaten zen egitalde.

Gero mizezko izarok berriro be beratu egin behar izaten ziren, jabonatu eta harrien jo-jo egin zuritu eta biguntako. Ereinotza be botaten zitzaion lexia-ri usain gozoa hartzeko.

Eta, ha bai, hori esan didazuna, gaueko arimena, ba abemariatatik hasi eta oilarrak jo arte ibiltzen ei ziren horiek arimok euren penak betatuten eta baten batek logretan zuenean hurrengo domekan, elezportalean eskua eskatuten ei zuen, hak penitentzia batatutako arimak, baina ez ei zitzaion emon behar gehiagoko barik esku hutsa, liño-zko edo mizezko zapi baten esku hori batuta baino.

Eta zeozer izango zen ze, dinote arima horrek bere bost hatzamarren erre-markea itxi zuela liño-zapi horretan eta orduan bai, orduxean sartu zela zeruan.

Anbotoko Señorea? Bai, antezedenteak daude, zeinda gure pastoreek, eurek kontetan zizkiguten Señora horren kontuak.

Ibili, leku askotatik ibiltzen zen seguru, baina batezbe, hortik, Anbototik Lekandara, Gorbeia partera.

Hor Lekandako haitzean kueba handi bat daukagu eta hor pasetan ei zituen zazpi urte. Gero Hortik Anbotora ostera be, eta han, beste zazpi urte.

Gero, hau ez dakizut egia den ala ez, baina, beste zazpi urte itxasoan be egiten zituelazkoa daukatziet entzunda horiei Gorbeiaiko pastoreoi.

Gorbeiaiko pastore batzuk brabo antzak eta fanfarroiak izaten ziren baina Anbotoko Señora hori garretan pasetan ikusten zutenean, uleak be arteztuta joaten ei ziren euren txaboletara.

Pastore elexastikuak ostera, ez zeukaten Señora horren bildurrik. Ikusten zuten bakoitzean, errezatu edo kandela bedeinkatua izitu edo holango kristau izentazinoren bat erabilten zuten eta kito, Señora hori arrimatu be ez zitzairen egiten, jakina, kristau-gauzen aurrean ez zeukan euki be eta poderirik.

Gaur entzun be ez da egiten holango konturik. Lehenagokoek ikusten zituzten gau-garrok batek badaki zertzuk izango ziren! Norbere burutazinoak be igual! Ze, benetakoa izan balitz, gaur be ikusiko genuke, ez deritzazu?

Izan dena izan dela, makina bat berbabide emon digu Anbotoko Señora horrek. Gure suteko zizeiluak berbaz baleki, kontatuko lituzke bai kontatu be Señora horren eta beste antzeko askoren kontuak!

Untzetabe, Zeberio eta Orozko herrien artean dagoen mendia dugu. Entzutetsua genuen mendi hori, batez be jentilak eta ibilten zirelako bertatik.

Gaur, antena bat dago han goiko puntan, baina, lehenago han jentilen balkoia zegoen. Haitzean ateratako balkoia eta handik Kortabasorantz harrizko txabolaren orma-harriak be bai, oraintsu bateren batek hainbatera eroan ez baditu.

Jentilak ikaragarritzko gizontzarrak ei ziren. Harri-bolan egiten ei zuten Untzetabetik Mandoiara. Harriak, baina, zelango harriak! Biribil biribilak, kare-harrizkoak. Euretarike batzuk topatu be egin zituzten eta Kallera, Miraballesera eroan. Harrezkero beste hainbat harri-bola be topatu dituzte han Orozkora aldeko egillamuetako zulo baten eta Arkulandara ekarri dituztela entzun dut.

Gure zaharrek esaten ziguten horiek jentilok aurrean begi bat eta kokotean beste bat eukiten zutela. Euretatik bat begi-bakarra ei zen antza.

Horiek jentilok indartsuak ziren baina eleiza inguruko zeozer esan edo erakutsiz gero, podere barik gelditzen zitzaizkigun. Eskerrak horrexi, osterantzean nok egin gauzonik horiekin jentilokin?

Baten be, han Kortabasoko mugarri ondoan egurginen zebilen gizon bati berandu egin zitzaion eta abemariak joaz batera, harrapatu egin zuen jentiletariko batek eta esan:

— Orain neurekin etorri behar duk!

— Bai, baina, itxaron ezak piti baten, hi indartsua haiz eta lagunduko didak hauxe haritz-mokor hau erdibituten?

— Bai gura baduk!

— Ederto! Sar itzak eure atzondoak hemen mokorreko ziri bien erdian eta nik ziri-mailuaz ziriak jo bitartean, hik indar egin albo bietara.

— Hori baino ez baduk, jo!



Eta egurginen egoanak, ziria barrura barik alborik hara jo, jentilaren hatzamarra mokor arrankalduan katigatu erazo eta zuzian alde egin zuen jentila haritz-mokorra hatzamarretatik dangilizka utzita.

Etixerantzean, abamariak errezatu zituen ahal zuen moduan eta konortea be galdu eginik heldu ei zen etxera. Sustu-sartua egunakarrenean be aldean ei zeukan seguru!

Hor, Orozko partean Jentilzulo izeneko koba-zulo bat daukagu, Untzetabe eta Gorbeiaeren bitartean.

Egun baten, orozkoar bat zebilen Jentilzulo ingurutik zertan hartan bere ganaduokin eta akordatzakoan argituten zaio jentil begi-bakarra eta dzaust!, kobara barrura bota zuen txirikila letxe.

Orozkoar horrek barrutik urten ez egiteko, jentilak, hartu berrogeita hamar arroako harria eta kuebaren ataka guztia zarratu zion.

Pastoreak ez zeukan urtenbiderik eta han zebilen inon diren guzur eta abarrak kontetan jentilari.

Jentilak, halango baten, afalduteari emon zion eta hartu burduntzian eguerdiko hondakinak eta jaten eragoion.

Zilbota bete zuenean, begi-itxi bat egiten hasi zen jentila eta ez zuen behar denpora handirik lo-arrantzaka hasteko.

Orduan, orozkoarrak, hartu burduntzia, berotu surten eta zzziiisst!, begi-begitik sartu zion jentilari eta itsutu.

Aiena eta alauri baten iratzartu zen jentila eta han zebilkun orozkoar hori koiuten, jo eta bertan garbituteko.

Baina jentil kankailoak ezin zuen harrapatu ha orozkoarra eta orduan, kendu koba-atakako harri endemoniñoa eta ardiak banan-banan kanpora jaurtiten hasi zen.

Orozkoarrak hau ikusirik, berak be hartu han eskegita zegoen ardi-narru bat, bota lepotik eta lau-hankan plantatu zen ixil-ixilik.

Halangoren baten, jentilak, ardiren bat delakotan, hartu pastore hori eta hara ez dakit nongo pagoraino bota ei zuen.

Orozkoko pastore hori, alauri eta grillistu baten egon ei zen bidiru egu-
nean eta herriko gentea ez ei zen atometan bertara joaten be.

Holantxe akabatu ei ziren jentil begi-bakar horren kontuok. Harrezkero
ez da entzun beste holangorik ezer. Hil edo hobeto esanda, tragatu egingo
zen!

Hori kastrejanako zubiaren kontu hori, era askotara kontetan da. Nik neuk, hemen Zeberiko Artiñaon entzunekoa kontatuko dizut. Hortik zehar badira ni baino kontalari hobeak baina hor doatzu nirea.

Ba, baten, seguru, neska galantaren bat ei zegoen han Kastrejana inguruan. Ez ei zeukan beharrerako taiu handirik eta beti ibilten ei zen nondik libratuko beharrik egin barik.

Udagoieneko egun haizerretsu baten, neskato horren aita egarriak tximeltan zegoen, egarriberea zen izan be eta, eta kopletarako asti barik badi-notzo bere alaba galant horri:

— Hi, har ezana ur-jarroa eta ekarri arin iturriko ura, hau nire aho siku hau bustiteko, bitsez bete behar zaizkidana eta aho-ezpainok!

Neskato alper horri kostatu zitzaion erantetan baina tira, halango baten hartu zuen iturrirako bidea.

Iluntzea zen eta iturria erreka bestalde zeukan. Egurrezko zubi bat igaro behar zuen eta bildur izaten zen handik pasetan, zein urak bista eroan eta erreka jausi.

Burutazino horiei eragoiola, ernegu-sartua etorri zitzaion eta rrrast!, maldazino bat bota zuen:

— Ez zaidak etorriko oraintxe inpernuko deabrua hemendixik zubi dezenteago bat egiteko!

Berbok ahotik askatu bazituen ba ze, horra hor non datorkion deabrua berbera eta esan:

— Zer gura duna ba neskato?

— Zer gurako diat ba, zubia!

— Horretarako heure arima emon behar didak oilarrak jo baino lehena-go zubia akabetan badiagu!

— Konforme! —erantzun ei zion neskato galant horrek.

Handik lasterrera, deabru eta deabrukumaz bete ei zen erreka inguru guztia eta nik neuk ez dakit ba, euskera jakin ez edo zergatik, baina erderaz eragoioen deabruok euren artean.

Neskatoak, ikusten zegoena ikusi zuenean, etxera bidea barik, abadearen etxerako bidea hartu zuen eta beragana helduz batera esan:

— Jauna-jauna, hauxe eta hauxe egin dut eta inpernuan nago bizi bizirik oilarrak jo baino lehenago zubi hori egiten badute beste mutilok, zerok, parte txarreko deabruok!

— Alabatxua, —erantzun ei zion abadeak—, hemen ez dago erantetea baino besterik eta zelan edo halan jo erazo behar diogu kukurrukuari, marti-oilar gorriren bati.

Gaua ilun zegoen eta oilarrak otan. Abadea bere buruari bueltaka eta neskatoa tipirrika dardakeoaz.

Halangoren baten, abadeak berak egin zuen “kukurruku!”, ia oilarren bat erantetan zuen edo, eta:

— “¡Ese es el gallo negro, adelante!” —esan ei zien deabruak beste guztiei.

Abade hori be estutu egin zen eta batetik sugarrak egin, bestetik kanpaiak jo, non joten duen marti-oilar gorriak “kukurruku!”.

— ¡Ese es el gallo rojo, ya hemos terminado, no hay nada que hacer!

Berbok esakeran, denak martxatu zuten paraje haretatik eta esaten dute Kastrejanako zubi hori harri baten faltan geratu zela, behin oilarrak joz gero deabruok ez dutelako zereginik edo podererik.

Hauxe izan zaizu ba nik kastrejanako zubiaren gainean entzunda daukatzudan guztia.

Muskerrari bildur handia izaten genion eta orain kontatuko dizut baten zer pasatu zitzaigun hor zemendi inguruan.

Zemendia izaten da garia ereiteko tertziarik onena. Soloa makinatuteko makinarik ez zeukanak, laietan egin behar izaten zuen. Laietarako etxekadak joaten ginen. Bi plantetan zitzaizkigun arloaren hasikera-akaberan zoparrea logretako eta besteok hiladan laia-parez.

Behin lurrarri buelta emonez gero, aitzurraz jo-jo egiten zen apur bat lorrinduteko eta bitarteak edo lur-harroak betetako. Artadua egoneko soloa izanez gero, haiek arta-lasto hezoak lurpean sartuten ziren usteltako.

Makina zeukana, harro egoteko zegoen, makina atzean bat eta iturreko beste batekin nahikoa izaten zelako, laietan ostera etxekada edo auzokoak be bai sarritan, lehenengo batarenean eta gero bestearnean.

Gero ba, solo hori garia ereiteko moduan zegoenean, azatzak iminten ziren, urritz egur edo galtzuzkoak. Jarraian garia erein, ahal denik eta berdin-nen mehatzunerik utzi barik. Galondo bazterretan baba-txikerra ereiten genuen, geuretzat zein ganaduentzat.

Eta kontetan joan natzaizuna ba, baten gari ereiten geundela, hor muna bazterreko sagar harro baten non ikusten dudan musker demonintru bat!

Gorpuz narria pipiladuraz bete zitzaidan eta badaezpada ospa egin nuen solo goienera zein muskerrek samara saltu egin.

Guri beti esan digute gure zaharrek, horiek muskerrok samara saltu eginenez gero ez dutela soltetan harik eta zazpi herritako kanpaiak jo arteraiño.

Gaur hauek gure ilobok dinote muskerrek ez dutela ezer egiten baina ni neu badaezpada oraintxe eta oraintxe be ez ninteke horietara arrimatuko, ezer egiten ez dutelakotan zeozer eginean be!

Bazegoen behin baten etxe oneko mutil lerdan bat eta sasoiara etorri zenean neska-laguna bila hasi zitzaigun beste batzuk beste izateko asmoz.

Baserria, mendian barruratxo zegoen eta bere herrirako joan-etorrietan hango hainbateko neska galant bat ezagutu zuen, ezagutu bakarrik ez, ezkontza tratua be ia-ia eginik zeukaten.

Mutil hori, pozik baino pozago zebilen eta herriko lagunengana etorten zen bakoitzean barruko pozak hartu ezinik zegoen.

Lagunek, euren aldetik, kargu hartu zioten, ia zer neska edo zer ote zen hainbestean pozik egoteko. Eta nor?, eta lamiña polit bat ez zen ba!

Orduan, mutil horren lagunek egia esatea ebatzi zuten, dendik be, egia guzurra baino hobea zela pentsatuz.

Halantxe egin ei zuten. Mutil gazte hori hurrengo eurengana etorri zitzaizenean, burlazar edo txantxetan barik badinotse:

— Hi, mutil, jakin badakik norekin habilen edo nor den hori neska hori?

— Egia esateko, ez zekiat bere berri askorik baina gaineko neskea den!

— Baina, ez diok igarri zelango oinak dituen?

— Ba, ez, beti zetorrek gona luzeekin eta ni neu be ez naizenez batezurrekoa ba, ez diat magalpekorik ezer ikusi, horretarako gero be astia zegok eta.

Ba, hurrengoan begira iezaioke oinetara eta ezagun izango duk neska hori nor edo zer den!

Mutil horri joan zitzaizkion barregureok eta burumakur, bihozberatuta etxera joan zen betiko bidetik.

Bere buruari inon den lorra emoten zihoala, hara han non agertuten zaion bere neska ule-gorri eta begi-urdin hori.

Mutila adi geratu zitzaion eta txiterdi be esan barik, aditu neskaren oinetara eta non ikusten dizkion ahateak lako hankak!

Ene mutilak! Lagunen esanetatik bihozberatuta egon bazen, lamiña zela jakin zuenean hil ez zen egin ba mutil gaztea! Disgustuak hil ei zuen, bai, disgustuak.

Lamiña horrek be inon diren negarrak egin ei zizkion mutilari eta lehenengo bidaztia agertu zenean estaldu egin zen zein baten batek ikusi.

Eraman zuten mutilaren gorpua etxera, gauean begira egin eta hurrengo egunean entierrua izatekotan zeuden.

Bazetozten etortekook baserria behera eleizarantz, abadea aurretik, sepulturakoak jarraian kandelak buruan direla, andariak gorpua eskeilara baten zutela ostean eta gainetiko herritar eta senideak hurrengo.

Lehenengotan inortxo be ez zen konturatu, baina, andre artean zetorren ha lamiña ha, gona edo kapa luze-luze batekin.

Lamiñak bere kapa bota gura zion mutilari, eleizan sartu baino lehenago beraren, mutilaren arima ostuteko.

Baina, abadea konturatu egin zen eta andariei eleizan agudo sartzeko agindu zien ezertariko esplikaziorik emon barik. Halantxe egin zuten eta mutilaren gorpua eleizan sartuz batera, lamiña sokorru baten eta alaurika hasi zen eleizan sartu gura eta ezinean.

Halantxe salbatu ei zen, dendik be, mutilaren arima. Eskerrak horiek lamiñak eta, eleizan sartzeko podererik ez daukatena, osterantzean batek badaki han zer gertatuko zen!

Aurrerantzean zuhur baino zuhurrago ibiltzen ziren mutilak zein berriro gertatu horren antzekoren bat. Parte txarrekoekin, kontuz!, gauzak sugertatu egiten dira eta, ez deritzazu?

Hau kontu hau, Saldaingo erreka ondoko kueba baten inguruan pasatu zelazkoa daukat entzunda. Egia esateko, entzunarekin ezin joan liteke urrun, baina entzun, halan daukotziet entzunda gure zaharrei.

Lehenago baserrietan ganadua ugari eukiten genuen, batzuk kortan eta ganetikoak basoan edo mendian, batez be ardiak, basabehiak eta zaldiak.

Holango neguko afrontudun egun baten aitaseme bi joan ziren mendira behorretara, ia behorrok mendia hartu zuten ikustera.

Bazihoazten aitasemeok bitargiak aprobeztatuz mendia gora, orpoetan har barik, bata bestea baino arnasestu handiagoaz.

Halangoren baten, badatorkie ilunde ikaragarri bat, hasten da hodeia (trumoia) eta inizitua goian-behean, eta kortabaso bateko txabola zahar baten ondoan plantatu ziren kukumixo aitasemeok.

Ha zen txirgora eta abazuza botatea! Inizituak berriz, zerua ebagi egin behar zuela zirudien bere astrapalots eta guzti.

Aita be bildur zen baina semea arteak hartu ezinik zegoen, grillistu baten, ze, antza, euren behorrak barik, zaldi negargarri batzuk asmetan ei zituen kateots ikaragarri batekin. Eta horretara badinotso bere aitari:

— Aita, zer demonintru dira horiek zaratok, horiek kateotsok?

— Horiek, —erantzun ei zion aitak—, parte txarrekoak be igual, baina ez ikaratu erreztatu dezagun pater noster bat eta ez digute ezer egingo nortzuk diren beits!

Egin zituzten euren errezuok eta seme hori, dendik be, lehen baino nasaitxoago zegoen.

Atertu zuenean, behorretarako haronakoa bertanbera utzita etxera bihurtu ziren erropok guztiz hondatuta.

Gente gehiagok be entzun ei ditu zaldien kateotsak. Azken baten inok be ez daki garbian zertzuk ziren. Kontuak kontu, makina bat bildur pasatu du genteak horiek direla eta ez direla!

Hor Zeberio barrenean, Ugao dago, Miraballes erderaz, Kalle be esaten diote Zeberioztarrek, lehen kale bakarra zegoelako.

Ba, han, seguru, Udiarrako amaren eleizatik beheko eleizarantz ei zihoazten errogatibak egiten ohitura zen lez.

Bidean datozela, ilunduten ezeze, hodei eta inizituak be hasi ziren jaunnekobean gentearen ikararako.

Abadeak bere letaniari eragoion bitartean, sakristaua estu eta larri zegoen, hodei-lainoen artetik parte txarrekoak ikusten zituelako edo.

Abadeak, keinu batzuk egiten zizkion geldi egoteko baina sakristaua geroago eta artegago. Abadearen estolari esku biekin goratuta zegoen dar-dar sakristau hori, ur bedeinkatu-ontziari be eutsiteko gauza ez dela.

Orduan, hak abadeak, bere letaniok esateari utzi ezin zion lez, ba, zer egin zuen?, zera, bota ostikada bat aidera eta zapata jaurtin hodei-lainoetara.

Abadearen zapata horrek hodei-lainoak jo zituenean, bitargi handi bat egin ei zen zeruan eta halantxe desaparezitu parte txarreko guztiok.

Letaniak akabatu zirenean, abadeak esan ei zion kakadario zegoen sakristau errukarriari:

— Gutxiago kostatu zaidak parte txarrekoak uxatzea hiri heuri bildurra kentzea baino. Arteak har itzak, nasai hadi, zein berbaltua edo etor ez dakian!

Zeberiko elbarrenean Elosu eta Elorribita auzuneak dauzkagu eta hor Elorribitako zubi ondoan ito egin zen Martin Gordo defuntua.

Holango ezbeharrak ahaztu be nekezago egiten direnez, Zeberioztarrek luze ekiten zioten horri kontu horri.

Familiatz kanpokoak ezin bagenuen ahaztu, noizago ahaztuko zuten ba bere familia artekoek!

Egunak joan eta joan egin arren be, Martin Gordo agertu egiten ei zitzaion bere lobari hortxe Elorribitako zubian.

Agertu, ez bakarrik zetorreanean bakarrik, ezpabere ze nobioak etxera lagunduten zionean be bai.

Baten, seguru, bazetozten Martin Gordoren loba hori eta bere nobioa eta Elorribitako zubira allegatu orduan, ene!, badinotso nobioari:

— Ikusten duk nire osaba? Ez duk hortxe zubiari deutsalala ikusten?

— Ez ba, —erantzun ei zion nobioak—, ez dinat inor ikusten, hemen ez zegok hire osabarik, utz itzan horiek buruko lorrok eta nasaitu!

Hurrengo egunen baten, abadeari emon ei zioten parte. Abadeak bedeinkatu egin zuen neska hori eta hurrengoan holango ikusterik bazen errezetako aginduz kendu ei zizkion aspaldiko buruhausteok.

Hor, holan akabatu ei ziren kontuok, baina beste batzuetan, horiek ari-mok ez ei zuten uzten baketan harik eta euren huts egiteak betatu arte. Eta betatu orduan, eta eskua emon agur egiteko, hatzamar markak uzten ei zituzten zapi eta guzti emon behar izaten zitzaien eskuko zapi zurian. Horregatik, guk geuk behintzat, gauari errespeto handia izaten genion, ez zen gutxiagorako izan be!

Ba begiratu ezazu, zerean pasatu zena, Zeberioako Areilzan, geure Antonioren anaiaren etxean, Tratu defuntuarenean.

Kridu bat zeukaten horiek, eta kridu horrek ez dakit ba zer behar egite-arririk deabruari zeozer ofrezitu zion Ganbitarteko soloko mokil arloa joteko.

Eta kriduari txismetxuren bat emon ei zion jitanu edo eskekoren batek haxe esanez:

— Haxe txismetxu hau zabaltan baduk hire soloko mokil-hauste guztiak joan dituk. Baina kontuz!, horretarako eure arima ofrezitu behar didak!

— Ba, bale! —esan ei zion—, hori duk eta!

Berbok esan bazituen ba ze, solo guztia deabruz plantatu zitzaion eta mokilak guztiak apurtu, lorrindu, haustu.

Baina gero, arima emon behar edo ezpabere beste kontua, deabruok. Eta mutil hori estutu egin ei zen eta deabru hoiei aurreak harturik, abadearengana jo zuen, Santa Kurtzeko D. Domingo abade balienteagana.

Luzaroan ibili ei ziren Tratu zaharra eta bere kridua Santa Kurtzeko eleizara joan, konfesatu eta komulgetan, penitentzia moduan.

Ganbitarteko zelaia mokil-hausteko gogorra zen izan be, baina berriro ez zitzaion etorri ez kriduari arima deabruari opatuteko gogorik, lehenago moro!

Ganeko estukura pasatu zuen Tratu zaharraren kriduak! Baina, tira, D. Domingo lakoak badakite zer egin holango larrialdietan, hoba ez!

Gizonen artean ez dugu ezagutu 140 urtekorik baina jentilen artean baze-
goen bat behintzat gure zaharrek kontetan zigutenez.

Han, Untzetabeko puntan, jentilen balkoia esaten zaion lekuan egoten ei
zen hori 140 urtetako jentil hori.

Han zeukaten jentil zahar hori ezarrita, izan be, erdi gauzeztanduta bai-
tzegoen, hankak loka, gorputza sor, burua galduta eta begi-txapelak zaharra-
ren zaharrez jausita zituela.

Belarriak ei zeuzkan sano eta ezer barruntetan zuenean, alaurika hasten
ei zen beste jentilok jakitun iminteko.

Baten, seguru, jentil zahar horrek, ikusi egin gura ei zuen orduko urteko
gari koxitza eta esan ei zien bere legunei:

— Aiko, lagunok! Hemen niagok gauzeztanduta, hezurak kare bihurtu-
ten, hatzamarrak kipututa eta aspaldian ezer ikusten ez diadala; neuk baino
ez zekiak zenbat emongo nikean aurtengo gariak ikustearren!

— Hori baino ez baduk, —erantzun zieten besteek—, beteko diaguk hori
hire egarri hori, hoba ez!

Orduan, jentil gazte eta indartsu bik, hartu bakoitzak ehun kintaleko esta-
ka bana, joan jentil zahar horrengana eta begi-txapelok altzatu zizkieten.

Jentil zaharra, irribarreka hasi zitzaien eta haiek galgarau piloak ikusike-
ran badino eskuak txuxo edo txorimaloa lez iminita:

— Edera zer duk hau gari koxitza hau! Ez duk bat be harritzekoa horiek
horko behetako gizontxoak guri sorots egin eta gari eske ibiltea.

Gero, berrien berriz eroan ei zuten jentil zahar hori betiko lekura eta ez
dakigu noiz arte biziko zen!

Untzetapiku, Zeberrioko eta Orozko herrien artean dagoen mendi bat dugu eta han, seguru, jentilak bizi ei ziren gure aurrekoen ustez.

Zeberrioren beste aldean, Galdakaorekin muga egiten duen lekuan Mandoia mendia daukagu. Untzetabetik Mandoiara zazpi-zortziren bat kilometro egongo dira begi bista baten adituta.

Horiek Untzetabeko jentilok, handiak zer ziren kontuak atera, ze, hanka bat iminten ei zuten Untzetaben, bestea Mandoian eta Arkulandako erreka harri-pausuetan ura edan.

Hori, tamañua dela eta, baina gero hor gauza gehiago be badago. Hor Untzetabepen jentil-bolak egoten ziren. Kare-harrizkoak, biribil biribilak, eurek landuak, baina zelan landuak!

Jentil-bola batzuk Kallera, Miraballesera bajatu zituzten. Besteren bat Bertsutenera be bai. Arrianditik Atzabaleko bidean be egoten izan da oraintsurarte holango beste jentil-bola bat.

Oraintsutxoago, beste partida bat jentil-bola aurkitu dituzte Untzetabe inguruan eta Arkulandara bajatu. Han daude.

Zaharrek esaten zuten harri-bolan egiten zutela jentilek horiekin harri-bolokin mendi batetik bestera botaz edo jaurtinez.

Entzute handiak daude Anbotoko Señoarearen ganean, eta hemen Zeberion be bai segun kontetan ziguten.

Gure aitak eta, ikusi egin zutela esaten ziguten. Birritan pasatu zela hemendik Untzetabe gainetik Gorbeiarantz.

Euren esanetatik dakigu, Anbotoko Señoareak zazpi urte egiten zituela Anboton eta beste zazpi Gorbeia ondoko Supilaur koban.

Ikusi, garretan joaten ikusten ei zuten, ota-karga bat sua dariola letxe eta eskutaila moduko bat atzetik duela. Ha eskutaila antzekoa buztana zelazkoa esaten ziguten.

Gure soloetako kositzetan be ezagun izaten ei zen Anbotoko Señorea nondik zebilen, Anboton zegoeneko urteetan kositzak hobeak zirelako.

Horixe, pare bat bider ikusi zela Untzetabetik pasetan Anbotoko Señora hori ikatz egostorduan. Ikasginak izan zirela señora horren sugarrak barruntatu zituztenak.

Egunez ez ei zuen inok ikusi. Horiek kontuok gauetz izaten ei ziren eta batezbe baso-beharretan ibiltorduan, ikazginen edo egurginen eragoioenetan.

Gu, gazteok, bildurtu egiten ginen, eta ez gutxi, horiek kontuok entzunaz bakarrik, baina abadeek nasaitu egiten gintuzten, holango kontuetan sinestu ez egiteko aginduz.

Lehenago, errota asko zegoen Zeberion, hergoienetik hasi eta helbarrenera bitartean. Ia etxe guztietan ereiten genuen garia eta artoa, eta jakina, erroretak ahoko ogia lez behar genituen ogi edo artoa jango bazen.

Egunen baten, errotariren batek, bere errotako zereginak txarto urten edo zergatik hargatik, maldizinoa bota ei zion Anbotoko Señoreari esanez: “tragatuko al haiz”.

Esan bazituen ba ze horiek berbok, drist-draust!, geratu egin zitzaion errotea eta lehen zegoena baino txarrago lotu zen errotari hori.

Ekinak ekinda be, ezin zuen errotea martxan bota eta ohiturari jarraituz, eleizara joan zen ha errotaria soinekoak aldatu barik, lehen baino lehen konfesetako asmoz.

Abadeak, hain estu eta larri ikusi zuenez, konfesonarioan ezarteko asti barik esan zion:

— Zer egin duk ba, mutil, horren larri etorteko? Ez huan izango deskuidu santuan Anbotoko Señorearekin trebituren bat?

— Ba, bai —erantzun zion errotariak—, honantxe eta honantxe madarikatu egin dut Señora hori birao bat boteaz.

— Hori egingo huan ba, joan hadi beragana eta parka eska iezaiok lehen bait lehen berandu izan orduko. Baina kontuz ibili hadi! Kobara aurrerantz sartzen bahaiz, atzerantz urten ezak, osterantzean bera baino barrurago geratu beharko duk eure aldi guztian, betirako!

Joan zen ba errotari hori Anbotoko Señoreagana, Gorbeia ondoko Supilaur kobara. Eta bere aurrean belaunikaturik badinotso:

— Parka beza berorrek nire biraoa eta errota martxan imini! Inoiz egon banaiz, ez naiz egon oraintxe baino damutuago!

— Tira ba, oraingoagatik, joan hadi bakean eta hurrengoan kontuzago ibili beharlekuan estuegi ibili barik!

Errotaria zutunduz, aurrerantz barik atzerantz urtetan hasi zen Supilaurreko koba-zulotik. Hori ikusirik badinotso Anbotoko Señoreak:

— Hi, nonork ondo akontsejatuta etorri haiz, eskerrak eperdia emon barik urten dukala, osterantzean, neu baino barrurago geretuko hintzen betirako, eure aldi guztirako!

Ha errotaria erdi durdiduta geratu zen eta etxera orduko, errotea martxan zeukan beste egunetan lez. Harrezkero, kendu zitzaion biraoak botateko usadioa eta aurrerantzean errota-beharrari nasaitxoago heldu zion, mundua errontan ez dela akabetan eta!

Gure herrietan, hor garizuma aldean, batez be Aste Santu aurretxoan, misinoiak edo ejerzizioak egoten ziren. Eleizaztikoak, domekero joaten ziren mezara baina banakaren batzuk urtean behin bakarrik, paskoazkoaz betetako. Horretarako, misinoietako astea izaten zen ona urteko autortza egin eta gero Paskoa egunean Gure Jauna hartzeko eleizearen agindua beteaz.

Urte baten, ezin nezake esan Zeberio ala beste inguruko herriren bat zen, antzinako kontua da eta izan be hau eta, misinoiak zeuden Aste Santu aurreko astean.

Ia-ia herri guztia joaten zen misiolariari entzuten eta bide batez euren pekatuen autortza egiten.

Bazegoen eleizaztikua ez zen gizon bat be paskoazkoaz bete guran eta joan egiten ei zen eleizara baina gente asko aurkitzen zuen konfesionario ondoan txanda jagoten.

Halako baten, zer hau bururatu zitzaion, gaua eleizan egitea hurrengo egunean lehenengo izateko misiolariarekin autortza egiten.

Halantxe egin zuen egin be. Korura joan zen sakristauak eleizako atearik itxikeran ikusi ez egiteko. Gaua heldu zen, sakristauak atearik itxi eta han geratu zen gizon hori ilunetan eleiza hutsik eta hotzik zegoela.

Kostatu zitzaion, baina halakoren baten loak be hartu zuen. Handik lasterrera, zer?, eta karraaask!, eleizako atearik zabaldu egin ziren.

Gizona buruko uleak be arteztuta eta gorputzean pipiladura eta guzti geratu zitzaigun zerk izan behar ete duen pentsatuz.

Gaueko iluntasunean koruko gizon horrek ez zuen ezer ikusten, baina pausuotsa asmatu bai oster.

Halako baten argiak izitu ziren eta ene! Abade bat, ezezaguna, zahar zaharra, itxura txarrekoa!

Abade hori, sartu zen sakristinian, meza erropak jantzi eta altarara etorri zen meza emoteko tresna guztiekin.

Behin altararaz gero, alde guztietara begiratu zuen eta inor be ez zegoe-la ikustean, hartu berriro meza esateko tresnok eta sakristinian sartu zen.

Urten sakristiatik, argiak amatatu eta eleizako ateak ostera be itxiaz, alde egin zuen abade denadelako horrek.

Gure koruko gizona dar-dar zegoen koru bazterrean. Gehiago ez zuen lorik egin. Bateko eleiztorreko erlojuaren kanpaiotsa, besteko saguzaharren egazkadak, haragoko mozoloen uuuuuekin, baina batez be ezin lorik egin zuen ikusitakoa ulertu ezinik.

Eguna argitu zenean, sakristaua eta misiolaria biak sartu ziren eleizan eta ordurako itxaroten zegoen ha gizona misiolariarekin konfesetako.

Misiolaria, ikaratu egin zen ha gizona hain tertzioz ikusteaz eta beste ezer baino lehenago itandu zion:

— Zelan ba inor baino lehenago paraje honetan?

— Ba, jauna, —erantzun zion hak gizonak—, bart hemen egin dut lo, hor koru bazterrean gaur berorrekin konfesatzeko lehenengoa izateko, baina sus-tatu egin naiz hauxe eta hauxe, honantxe eta honantxe pasatu delako —eta ikusitako guztia kontatu zion misiolariari.

Misiolaria bera be ikaratu egin zen eta jazotakoa amets hutsa ala egia zen jakin guran badinotso hari gizon hari:

— Gaur gauez geratuko zinateke berriro koruan lo egiten?

— Bakarrik ez, —erantzun zion atoan gizonak.

— Eta biok biotara bai?

— Ba, berorrek gura badu ni neu prest nauka!

Gaua heldu zenean, misiolaria eta ha gizona koruko estarian ostendu ziren eta konfesetako ezeze beste berriketa asko egiteko astia be eduki zuten.

Behin gauerdiraz gero, zer?, eta karrrrrraaask!, eleizako atea zabaldu zen. Korukook ixilik zeuden, sorots egiten, eta argiak izitukeran ha abade zaharra ikusi zutenean badinotso misiolariari:

— Don Anastasio, aikor ha atzoko abade zaharra, ikusi egiten du ikusi berorrek?

— Bai, ikusiko ez diat ba!, holangorik!

Gauerdiko abade zahar hori, sakristinian sartu zen eta aurreko gauean lez, jantzi meza emoteko erropok eta tresnok hartuta non datorren altarara!

Misiolariak hori fetxoria hori ikustean, orpoetan har barik bajatu koruko eskilarok, joan altarara eta esan zion hari denadelako abadeari:

— Mutil, zerk hakar hi hona altarara honetan tertzio honetan?

— Ba, gegira, —erantzun zion—, ni ehiztari edo kazari ona nintzoan eta behin baten meza emoten egonik, mezerdian hartu nijoan nire txakurrek jasotako erbia hiltzen joateko erabakia eta jakina, kondenatuta geratu nintzoan harik eta ha meza ha emon arte. Bostehun urte egon nauk gauero hona altarara etorten baina meza erasoteko inor aurkitu ez eta, berrien berriz joan behar izaten nauk kanpora.

— Hori baino ez baduk, eman ezak meza hori neuk erasota eta joan hadi bake bakean Jaungoikoaren legean!

Emon zuen erdi-emonean utzitako meza hori eta bere penitentzia betatu zuela ikusirik esan zion misiolariari:

— Eskerrik asko zeruko atear zabaltzeagatik, gauzak ondo egitealakorik ez zegok munduan, agur, ongileak izan eta zahar on egin zaitetzela!

Herri eta kanpoherri guztietan zabaldu zen gertatutakoa eta ordurarteko Mateo Txistu edo Abade-txakurren bildurra be ia ezerbezean geratu zitzaigun.

Orain dela urte asko, ehiztari edo kazari itzala zen abade bat ei zegoen hemen gure Zeberioko herrian edo ingurumarietan.

Egun baten, domekaz gainera, kasan ibili zitzaigun bere erbi-txakurrekin goizeko inontzean. Sotana-magalak be busti-busti eginda zebilen, humore txarrean, erbirik nondik dabilen be ikusten ez zuela.

Etorri zitzaion meza emoteko ordua eta joan be bai bere zereginera erropak mudetako asti barik.

Egun horretako meza, dena zen laprastkadea, latineko otoitzok erdi-esanean eta inoiz ez letxe barruntetan zen abade hori.

Sermoa be inoiz baino garratzagoa bota zuen eta kantatu be erdi urrumaka, ganaduen damorroa zirudiela, ganora handi barik.

Mezerdian, zer?, eta ez ditu entzuten ba bere txakurak “i, au, i, au”, erbi baten atzean, han eleizpeko harizduian!

Ene, bada! Abade hori arteak be ezin zuen hartu eta birritan pentsatu barik, utzi meza bertanbera eta erbiaren atzetik joan ei zen erbi-txakur eta eskopeta eta guzti.

Abade hori ez ei zen gehiago agertu eta kondenatu zelazkoa daukat entzunda txakur eta guzti.

Herritar guztiak ikaratu egin ziren eta harrezkero, batez be ekaitza denean eta, entzun egiten ei dira “abade-txakurrok” mendi batetik bestera pase-tan, “i, au, i, au, i, au” hots baten.

Egun baten, hor, Ugetako basoan, Uriondo ondoan, zerrariak zeudean trontzekin oholak egiten. Euren arteko batenbatek ez zuen holako kontuetan sinesten eta egun baten esan zioten lagunek:

- Ezetz ekarri urlri lekutako iturritik iturriko ura abemariak jo eta gero!
- Baietz! Zenbat postura!



Eta joan zen gizon hori. Baina iturrira allegatu zenean heltzen diote abade-txakurrok kaderatatik eta zeretik eta... eta mutil hori, ur barik eta belarriak arteztuta non datorkien bueltan!

Gero ba denporak joan denporak etorri, galduz joan zaigu bildur hori. Kontatzen dute hark abadeak betatu egin zuela bere penitentzia eta halakoren baten sartu zela zeruan betirako. Bakealangoa!

Zeberioko Santakruzdik gora joan eta Bertsuten eta Larrakoetxe gainean dago Torre esaten zaion auzune bat.

Hango andre bat, Erramona deritzana, iturrira joan ei zen, Nagiturri deritzon iturrira gaulendi gaulendian.

Iturriko txorroa beheratxo zegoen eta Erramona makur makur eginda zegoen jarro murkoa txorropean iminten.

Ia gaututa zegoenez, asko kostatzen zitzaion jarroa betetea eta baten edo bitan irauli be egin zitzaion jarroa eta ur guztia hutsitu.

Artega zegoen Erramona. Abemarietako kanpaiak be entzun zituen baina errezetako asti barik zebilen jarro murko hori arin bete eta etxera joan guran, horixe zelako guren zuena.

Horretan zegoela, badatorkio aker bat, aparteko aker bat, parte txarrekoa, eta zartzen zaio hankartetik atzekoz aurrera eta hara han non daroan gure Erramona aidean aker horrek!

Parte txarreko aker horrek, Ortuzelai esaten zaion landa batera eroan ei zuen lehenengo eta Gaztañandi-ko basora gero. Han erabili ei zuen Ortuzelaitik Gaztañandira bitartean bueltaka.

Hirugarren bueltan, ostera be Nagiturrin utzi ei zuen Erramona hak akerrak. Urruma ikaragarriak botaten ei zituen aker horrek. Ahotik bitsa dariola ei zegoen eta apatxez iturri inguru guztia lorrintzen ei zebilen.

Bien bitartean, Erramonak errezeteari emon ei zion eta halantxe uxatu ei zuen ha parte txarreko akerra.

Etxekoak luze eritzita zeudenez, Erramonaren bila joan ziren iturrira gal-tzu zuziak izituta eta zelan? Ba berbabarik topatu zuten Erramona koitadea, susto-sartu ikaragarriaz eta fetura nagargarrian.

Erramona, berbara etorri zenean, jazotako guztia kontetan hasi zen eta luzaroan egon ei zen gentea gauez hara iturrira joan barik, badaezpada! Esaerak dinon lez, hobe egun argiz apartatu horiekandik parte txarrekoon-gandik!

Lehenago, erreka txarkoetan egoten ziren lamiñak eta erreka-munara urtetan zuten orraztuten.

Baten, neskaxi bat egon zen Saldaingo Olarran krida. Gure gazte denporan, kridu eta krida joatea usadioa zen. Modurik ez zegoenez, eta eskolak ikasteko dite edo afan handirik be ez, gazte gazterik joaten zen gentea behar-leku horretara. Asko eta asko mantenitalde, beste batzuk soldata eskas bategatik. Eta kridu edo krida ona izateko, urte bete, gutxienez, egon behar izaten zen etxe baten, osterantzean, kridu edo krida txarra, seminarioetatik urtetea “mal-estudiante” izatea lez.

Eta Saldaingo Olarrako krida hori Zeberioko herriko Sandonietako erromeriara joan zen. Dantza gura dena egin eta gero, oraindino egun argiz, etxerantz zetorren.

Saldain-errekara heldu zenean, lamiñak ikusi zituen ertzeko munetara igonda uleak orraztuten urregorritzko orraziaz.

Katua saga edo satarraren atzean dabilenean baino ixilago zihoan neska hori lamiñak hurretik ikusi guran.

Baina, ondora allegatu zenerako, plist-plaust!, lamiñok errekarara saltu egin eta estaldu zitzaizkion.

Orrazia ez, orrazia ez zuten urera eroan, muna bazterrean ahaztuta utzi baino neskatoaren pozerako.

Olarreko neskaxi horrek, ez zuen behar esaterik ha orrazia hartu eta etxera arin, galapan joateko!

Heldu zen etxera, merindafaria egin gazigarri altzi batekin eta oheratu be bai orrazi horrekin iratzarrik ametsetan.

Behin abemariak joz gero, badatorkio neskaxi horri lamiña elia, pilo bat bere kuartuko lehiopera eta ez zaizkio ba sokorru baten hasten, esanez:

“Saldaingo neskatxa
ekar ezana gure arraska.”

Bildurtu egin ei zen ha neskatxia eta atoan jaurtin zien orrazi hori, bakea diruaz be ez dela pagetan eta!

Gero, denporarekin, desagertu egin ei ziren lamiñok. Ako, lamiña esnelazeren batek, tripakada bat esnegatik, eurak galtzeko sekreto argitu ei zuen eta harrezkero, ez ei dago lamiñarik. San Juan egunean jaiotako zekor birekin errekak intilatu edo tragastu zituztenean, onduantxe galdu ei ziren betiko lamiñok. Sokorruka eta odola dariola joan ei ziren erreka behera guztiz tragatu arte.

Perutxu, hiru anaietarik txikiena baina bizkorrena zen. Baserri baten bizi zitzaizkigun hiru anaiok guraso zaharrekin eta ez eduki gorrian.

Bizimoduari eutsiteko zeozer egin behar zela eta, beharra topetan hasi ziren zaharrenarengandik hasita.

Han, mendian, jentil bat bizi ei zen. Txerri-pastorea bera. Eta harexegana kridu edo morroi joatea pentsatu zuten txerrikuma batzuen truke edo.

Lehenengo, anaia zaharrena joan ze eta haregana jentil haregana heldu zenean esan zion:

- Hi, jentiltzar, hemen niatork kridu!
- Nigana?, ja-ja-ja!
- Bai, higana heugana, zer ba?
- Zer ba, dinostak? Hik ez duk balio honako!
- Ezetz? Hori ikusiko diaguk!

Jentilak, bera goitibeitik mutila ez zela atxantetan ikusirik, aginduak emoten hasi zitzaion esanez:

— Hemen ez diat gura haserririk gero! Jakin ezak ondo nire legea: lehenengo haserretzen denari narru zati bat kenduko zaiok, nik neuk heuri edo hik heuk neuri, entzuk didak?

— Bai!

— Orduan, hartu makila eta joan hadi txerriak jagoten ezkur asko dagoen lekuren batera, aurten ezkur-urtea diagu eta!

Joan zen mutil hori eta eguna harizperik harizpe emon orduan, jentilaren kortara etorri zen afaldu eta lo egiteko.

Ordurako, jentilak jaki apur bat zeukan iminita eta biak bietara jateko plantatu zirenean, badinotso jentilak:

— Nire legea ahaztu barik, jan ezak hau lapikoko hau lapikoari tapea kendu barik!

— Zelan jango diat ba horrela, kankailo arraio hori?

— A!, haserretu egin haizenez, rast!, narru zati bat!

Oraindino aieneka zegoela badiotso berrien berriz kriduari:

— Ardoz beteko zagi hau ikusten duk? Ba, edan ezak ardo gozoa zagiari estukinik soltatu barik!

— Lehengoaz gainera, hau be bai? Ez horixe! Ni neu banihoak hemendik paraje honetatik eta hao bakarrik, mandazain kankailo hori!

Berbok esanda, alde egin zuen anaia zaharrenak zein beste narru zati bat ebagi eskuetan kutxilloa dela zegoen jentilak.

Etxera heldu zenean eta gertatutakoa kontatu, bigarren anaiak esan zuen barruko amorrua aguantatu ezinean:

— Neu joango nauk hire ordezt!

— Ez, ez hadi joan, —erantzun zion zaharrenak—, txarra zer duk ha jentila!

— Ez dik ardura! Banihoak!

Joan egin zen bigarren anaia baina haren jentilaren fetura eta trajura ikuziz batera, ahotik berbarik askatu be egin barik, eaurt egin eta etxera bueltatu zen, eta abantean gainera!

Perutxu bakarrik geratzen zen. Bere anaiena ikusita gogait eginda zegoen eta berak be sinesten ez zuela badinotse etxeko guztiei:

— Eta neu joaten banatzaio zer?

— Ezta, pentsatu be! —erantzun zioten denak batera—, hi, irentsi egingo hau hak jantiltzar kankailo, kokorioak eta ez!, hi ez!

Perutxuk, ekin eta ekin egiten zien eta bakearren utzi egin zioten joaten baina zuhur ibilteko aginduz.

Hartu zuen Perutxuk basorako bidea eta egurdarte barruan heldu zen jentilagana txistuka eta inon diren itzulumurdiak eginez.

Jentilak, olgetan dabilen mutikoren bat zelakotan, jaramon handirik be ez zion egin baina badinotso:

— Hi, mutiko, zer darabilk hemendik ba?

— Zer darabildan? Ni Perutxu nauk, aurreko mutil bien anaia txikia eta kridu niatork heugana!

— Hi kridu? Hao ixilik, kakadario hori!

— Ni kakadario? Ez horixe!



— Hator, hator, ikusiko diaguk ia zenbaterako haizen! Hire narruaren errukia! Heure anaiengandik jakingo duk ez duk? Haserreak narru zatia kentzea zekark! Aditu duk?

— Bai horixe! Benga, bota beharrok! Zer egin behar diat?

— Hasteko, errukia ematen didakenez, heutso jateko zeozer!

Perutxu sartu zen jentilaren bizilekura eta jentiltzar horrek han supazte-
rrean zeukan lurrezko lapiko sumika, ugeldarri eta kortikaduna atera zion
aurrera eta esan:

— Jan ezak lapikoko hau, baina gaineko tapea kendu barik!

Perutxuk, orduan, egin azpitik zulo bat eta rapa-rapa jan zuen eta oste-
an aupatz bat edo bi be bota korrokada eta guzti.

Aitearen eta semearen! Jentilak hartu zuen hartzeko haserrea eta badinotso
Perutxuri:

— Zer egin didak? Lapikoa apurtu?

— Al, haserretu egin haiz ez duk? Ale, ekark lepoa narru zati bat ken-
tzeko, —eta rast!, kendu zion kendu be narru zati dezentea, lepo zati bat hara-
gi bizian utziz!

Jentilak, orduan, zagitik ardoa edateko agindu zion baina estukinik sol-
tatu barik, moropilak kendu barik.

Perutxuk, hartu ezten bat, zuloa egin eta dranga-dranga ez dio edaten ba
zagiko ardoa gainetikoa dariola utziaz!

Jentilak, beste haserrealdi bat hartu zuen eta Perutxuk beste narru zati bat
kendu zion lepo bizkarretik.

Pentsakor zegoen jentila eta egin ezineko lan bat agintzea pentsatu zuen,
ia Perutxu hainbaten harrapatzen duen, eta badinotso:

— Hi, Perutxu trasto, joan hadi basora eta ekarri adar handi eta zabale-
ko arbola garrazta bat, agudo, zain egongo nauk!

Perutxuk, hartu aizkora eta basora barik, joan jentilaren txabolako hego-
aldera, jo eperdi eperditik mahats parrarik handiena eta badoa txistuka.

Jentilak, ha ikustean, ezin arteak be hartu eta lehen baino haserre han-
diagoaz badinotso Perutxuri:

— Zergatik ebagi didakan baino ez duk hori mahats parra eder hori? Agur
aurtengo nire mahats morda gozoei!

Beste narru zati eder bat kendu zion Perutxuk jentilari. Honek, erdi zora-
turik, beste lan bat bialdu zion. Zuhaitz berdin berdinezko burkada bat ekar-
teko, ez duelakoan aurkituko.

Baina, Perutzuk, begizaturik zeukan haritz sabi edo mintegi batera joan eta burkadea bete arteko arloa banan banan atera eta hor doakigu santzo eta irrintzika jentilagana.

Jentiltzarrak, ha fetxoria ikustean, ezin zuen gehiago eta hagin karraskada eta guzti esaten dio Perutzuri:

— Aikomen hemen nire lepoa eta kendu azkenengo zatia, akabatu duk lege hori joan hadi txerrietara, hilakorik ez diat ikusi be egin eta!

Perutzuri bildurra hartu zion jentilak. Baina ezin zuenez ulertu Perutzurena, lehengo legea barik, apostuak egitea pentsatu zuen.

Iluntzean, Perutxu txabolara heldu zenean, hauxe esan zion jentilak barre-santzoka eta harrokeriaz beterik:

— Hi, bihar zeinek harria urrunago bota egin behar diagu, zer deritzak?

— Nik neuk ondo! Gabon, bihar arte!

Perutxu hurrengo goizean, tertzioz joan zen txerrietara eta lehenengo lehenengo, igon hara pago-harro batera, hartu kolkoan han begizaturik zeukan basamikea eta nasai!

Eguerdi inguruan, jentilak eupada egin zion Perutzuri harri-botaten zeinek gehiagoka egiteko.

Lehenengo jentilak bota zuen harria. Izan be harri endemoniñoa, tremendoa, eta hara hurengo mendi magaletaraino bota zuen.

Perutzuk, hartu badaezpadako harri bat, abiada hartu behar duela esan eta pausu batzuk atzera egin zuen. Horretara, egin kikiribuelta eta itzulumurdi batzuk jentila zorabiatzeko, bota harria zorura, hartu kolkoko txoria, basamikea, eta sssiiiiissssttt!, hara han non doan mendi guztien gainetik “harri” hori, lekutako puntara!

Perutzuk, jentilaren harridura ikustean badinotso paparra aurrera botata eta bat be betuxokeria barik:

— Ikusi egiten duk, ikusi, nire harria? Hire harrikada, nirearen ondoan, esku bete euli hego bako, zarama be ez duk!

Jentila, dendik be, ez zegoen konforme, eta hurrengo egunerako harria zeinek zatitu egin behar zutela esan zion Perutzuri. Honek, baietz!

Gau haretan, jentila lo-arrantzaka zegoen bitartean, Perutzuk, hartu zinezko erradako ardi-esnea, legarra bota eta gaztai zuria, guri-guria egin zuen. Gero urten txabolaren albatetik, gaztai guri hori lur buztin apur batez igurdi eta han utzi zuen txabolari deutsola beste harri batzuren artean jentila kon-turatu ez egiteko moduan.

Hurrengo goizean, jentila tertzioz jagi zen eta Perutxu geroago baten, lo-itzarria kendu ezinik eta nagiak ateraten ikusi zuenean badinotso:

— Zer, prest hago postura egin eta galduteko?

— Hori gero ikusiko diaguk! Atzokoa ahaztu egin duk ala?

Egurdarte erdi ingurumarian, ganaduak gobernatu zituztenean, hara han non plantetan zaizkigun biak harria apurtuteko.

Jentilak, han inguruan zegoen harririk handiena hartu, imini haitz baten gainean, jo ikubilaz eta laurkindu egin zuen, lau zatiak txirran zirela mendia behera.

Perutxu, tenplatu zegoen laurkindutako zatiori adi eta barrurikako estukura agertu barik badinotso:

— Lau zati? Hori zer duk ba? Hakusk nire harria, nire burdin-harria!

Perutxu astiro-astiro zihoan txabola bazterrerantz besoak erremangatuz. Hartu zuen goizaldean egindako harri-itxurako gaztaia eta astun-plantak eginenez jentilaren ondora itzuli zen esanez:

— Hau nire harri hau hirea baino gogorragoa duk, burdin-harriak burdina zeukak nahastuta eta badaezpada joan hadi harago zein harri birrinak begiren baten jo.

Malezia bako jentil hori atzeratu zenean, Perutxuk jotzen du “harri” hori ikubilaz eta birrin-birrin ez zuen egin ba!

Jentila hurreratu egin zitzaion Perutxuri bere fetxoria ikusteko eta egia zela ikustean samako intxaurrak be gora eta behera egiten zion sinestu ezinik.

Perutxuk, ikusirik jentilaren ikara, apurtxo bat harroturik eta jentila arean bildurtu guran badinotso:

— Orain zer, asazkatu haiz pozturak egiten ala ez?

— Ba egia esateko ez! —erantzun zion jentilak. Bihar palanka urrunago nok bota egin behar diaguk!

— Noiz gura! —erantzun zion Perutxuk esku biak igurdiz!

Igurdi egin zituen Perutxuk eskuak baina hurrengo postura horretarako zeozer asmatu beharrean zegoen.

Esan eta egin. Arrasti guztia emon zuen burua hausten oraingo zeinek-gehiago honi aurre egiteko.

Ez zitzaion ezer bururatzen. Gauiluntzean, afari izki bat egiten zeudela biak bietara, badinotso Perutxuk jentilari zeozer esatearren:

— Hi, hik zer familia arteko daukak?

— Nik neuk? Ba, hemen inor be ez! Salamankan zeukat senitarte guztia, zer ba?

— Oño! Salamanka esan didak? Han erdera egiten duk eta hemendik hara estudiante asko joaten zaiguk, tunante bakarren bat be bai!

Berbaldi bat egin orduan, ohera sartu ziren. Jentila, etzunaz batera hartu zuen loak baina Perutxuk ezin lorik egin.

Halakoren baten, Salamanka etorri zitzaion burura. Ez zeukan beste biderik jentila bildurtzea baino ze jakin bazekien ezingo zuela palanka jentilak bestean bota.

Oilarra kukurrukuka hasiz batera, jagi ziren biak eta hasi ziren bakoitza bere neurriko palanka atonduten.

Egin-akabatu zituztenean palankok, joan ziren mendiaren antepetxu bateko egillamura eta jentila izan zen lehenengo bota zuena, eta urrun gainera, beste mendi tontorrerarte.

Perutxuk, hartu bere palanka hori, igurdi inontz apur batez eta jentilari adikuna betuxo bat eginez badino zekien erdera apurrean:

— “Aiba la palanka hasta la Salamanka!” —hiru bider.

Jentilak entzuten du hori eta Perutxuri palanka eskuetatik kendu eta bildurren bildurrez badinotso:

— Ez, mesedez! Ez ezak bota palanka Salamankara! Han zeukat nire senitarte guztia eta botaten baduk bota, hil egingo didak neure familia! Mesedez, hao geldi, heuk irabasi didak oraingoan be! Postura honen ordeztu beste bat egingo diaguk bihar!

— Zein? —itandu zion Perutxuk.

— Ba, pagoak eperdi-eperditik ateraten, horiek inoiz inausi bako pago garraztak. Horixe izango duk atzenengo postura, hortxe irabazten badidak, ez zegok hilangorik!

Perutxuren azkenengo buruhaustea. Egunaren ordu guztiak emon zituen zeozer asmatu guran. Goiza joan zitzaion, arrastia be bai eta gauean afaldu be ez zuen egin patxadaz.

Hurrengo goizean, akordatzakoan, estukin luze bat aurkitu zuen Perutxuk han txabolako erresumako akuilu batetik dingilizka. Hartu egin zuen, batu, sartu lepoko morralean eta badinotso jentilari:

— Zer, bahator ala?

— Bai, atoan nihoak!

Pagaduirantzako bidean, Perutxuk ez zion agertzen indargatasunik jentilari. Honek be azkenengo postura zuenez, nor den demostratu gura zion Perutxuri, eta biak zihoazen ixil ixilik.

Pagadaira heldu zirenean, jentilak, hartu pagoak denodu guztiaz eta, porrua lez, banan-banan ateraten zituen sustar-sustarretik, eperdi eperditik.

Perutxuk hori ikusikeran, zer?, eta hauxe egin zuen: Puntarik punta, pagoak lotuten hasi zen jentilaren harridurarako:

— Zertan habil, mutil katamixarra lez arbolarik arbola? —esan zion jentilak ikaraturik.

— Zertan ibiliko nauk ba, hire antzean banan-banan barik, denak batera aterateko pagoak estukinez amarretan!

— Ez, mutil! Ez iezadak egin holangorik! Pago guztiak ateraz gero, zer ezkur edo zer arraio jango diaguk ba txerriekin aurten? Txerriak guztiak gosez hiltea gura duk ala? Bajatu hadi agudo eta hator txabolara, heuk irabazi didak, hilangorik ez diat sekula ikusi! Batek zer ikusi behar duen baino ez duk hemen mundu honetan! Holangorik!

Aurrerantzean bakean utzi zion jentilak Perutxuri eta bere begien aurrean ikusteak lotzaria emoten zionez badinotso jentilak:

— Joan hadi mendira txerriekin eta ez etorri zati handi baten. Hartu jaki eta edaki apur bat eta ospa hemendik, honako neu nauk nahiko eta!

Perutxu nasai bizi zen mendian eta jentilenetik hartutako jaki-edakiak akabatu orduan, noizean behin txerri bat hil eta jateari emon zion.

Egunak joan egunak etorri, jentila, luze eritzita zegoen eta joan egin zen mendira Perutxuren berri jakiten.

Mendian gora zihoala, Perutxu txerri bat hilten ikusi zuen eta gora-goraka gedar egin zion esanez:

— Hi, zer darabilk nire txerriekin? Nork esanda hil duk nire neure txerriarik onena, aurten zezin orde jatekoa?

— Ez hadi hona arrimatu e! —erantzun zion Perutxuk— osterantzean txikitu egingo haut aldi bateko “harria” lez eta gero gerokoak!

Jentila ikaratu egin zitzaion eta oraingoagatik txabolara bueltatu zen. Haserre zegoen egon be eta arteak hartu ezinda, burduntzi bat zorrotzuten hasi zen, mendira joan eta Perutxuri behar ez denaren bat egiteko.

Perutxuk, bien bitartean, txerri-odola eta gainetikoak prest-prest zeuzkan odoloste eta buzkantzak egiteko. Odola, aurreko txerriaren puxiga putzitian zeukan gordeta, izan be ez zuelako beste ontzirik horretarako.

Egunaren joanean, mendiko ixiltasunean, zarata batzuk barruntatu zituen Perutxuk. Sorots egiten du eta ene!, ez du ikusten ba jentila ikaragarritzko burduntzi batekin mendia gora!

Orduan, Perutxuk, utzi bertanbera dena eta argudio bidez hartu odolez betetako puxiga, sartu kolkloan, zilbota zirudiela, eta mendia behara hasi zen abantean.

Jentilak ikusi egin zuen eta atzerik hara jarraitzen zion Perutxuri. Honek ez zeukan atzera begiratzeko astirik be, bakez etxera eldutea baino gura ez zuela.

Bata aurretik, bestea atzetik, ha zen ha ikustea! Halangoren baten, Perutxu bere etxe ondoko baserrira allegatu zen eta karra egiteari urzi barik badinotso hango etxeko etxagunari:

— Hortik atzerik hara inor ikusten duk, holango jentilik edo?

— Bai mutil, —erantzun zion—, hortxe zetorrek, galapan egin ezak, osterantzean hil egingo hau dakarren burduntzi luzeaz!

— A, bai, hor zetorrek? Ba, —ezkerreko begiaz keinu eginaz auzoko etxagun horri—, arinago joateko harri punta-zorrotz batez zulotuko diat hau neure zilbot hau!

Esan eta egin! Perutxuk hartu lehenengo kare-harri zorrotza eta zzaazzttt!, sartu zilbotetik eta hara han non doan odola dariola lehen baino bizkorrago, orpoetan har barik joan be.

Jentila be, santiamen baten allegatu zen haren etxagunaren etxe ingurumarira eta berak be itaun-gedarrez esan zion hango gizon hari:

— Perutxulangorik ikusi al duzue hemendik?

— Bai, —erantzun zion etxagunak—, oraintxe puntu puntutxoan joan duk eta gainera, lehen baino bizkorrago joateko, harri punta batez zilbota jo eta apurtu dik eta hor joan duk odola dariola zuzian, egaz letxe!

— Oño! Orduan nik neuk be beste hainbeste egin behar diat!

Jentilak, harria hartzeko asti barik, hartu eskuetan zeraman burduntzia, sartu bere benetako zilbotetik eta rraasst!, odol-hutsituta berpetan hil zen burubakoa halangoa!

Perutxunean ez zen gehiago ezeukirik ezagutu. Jentilaren eukiak edo azindak ondo baino hobeto etorri zitzaizkien.

Euskal Herri osoan zabaldu zen Perutxuren zuhurtasunaren berri eta harrezkero jentil-bildur gutxiago bizi izan zen herritarren artean.

Lehenago Kortabason pasatu zen pasetakoa! Txerri batek zazpi gantzagi euki zituen. Euki bat baino ez du eukiten, zati bitan atera arren, baina hak txerriak antza zazpi.

Zeberrioko Felis Artxiki defuntua, Akiñao defuntua eta Santi Zabale defuntua izan ziren trebitu horretan ibili zitzaizkigunak.

Hirurotarik bi Olatzarren bizi zitzaizkigun eta bestea Akiñaon. Eta egun baten, Juaniko defuntua, Kortabasokoa, txerria hilteko errekaduarekin joan zitzaien, hor, Gabon aurretik egun hotz baten.

Hurrengo goizean, tertzioz erantatu ziren gizonok eta Kortabasarantz joan be bai hirurak hiruretara berbalotsean, egiten zuen intzerrea goiti beitik.

Aurrera joan ahala, bakoitzak bere barruko ardua azaldu guran edo zeresanari aurreak hartzeko edo nik neuk ez dakit ba zergatik, baina kuestinoa da ba ze, batak besteari esaten hasi zirela estukuraz beterik:

— Hi, mutil, joan bagoazek baina txerria nok hilgo diaguk ba?

— Hik badakik hilten?

— Nik neuk ez!, batak.

— Hik bai?

— Nik neuk be ez!, besteak.

— Eta hik?

— Nik neuk be ez!, hirugarrenak.

Ba, mutilak, argiak gaudek, txerria hilten goazek eta ez zekiaguk txerria hilten iñok be eta!

— Aiko mutilak! —esan zuen batek. Hori arreglatuko diaguk. Kortabasora allegatu orduan, barausi egingo diaguk, honezkero Juanikok eukiko dik

barauskarria prest, eta kopau batzuk egin eta paitar apur bat edaten diagunean, ikusiko duzue!

Heldu ziren Juanikonera, barausi be bai eta paitarra edaten hasi zirenean badino batek:

— Neuk hil behar diat txerria!

— Hik ez, neuk baino! —besteak.

— Zaudete biok ixilik, neuk hil behar diat eta! —hirugarrenak.

Azkenean, tokamenean, Santi Zabale defuntuari tokatu zitzaion Kortabasoko txerria hil eta gobernatea.

Bajatu ziren mutilok kortara tranpako eskilaretatik, sartu kortatxian, heldu txerri horri batak gantxoaz papadatik eta besteok lau kaderetatik, eta behingo baten gobernatu zuten.

Gero txerri hori erre ida siku eta galtzupolla zuziekin, ur eta tella kasku batzuekin garbitu, eta tripak ateraten eragoiola Santi Zabale horrek, mina, estegoria, bidiak, barasarea, esteak eta ganetiko guztiak ondo atera zizkion seguru, baina gantzagiak ateraten komediak erabili zituen. Alde bakoitzekoa osoan ezin atera eta zazpi zatitan atera zituen gantzagiok, guztiz tripiskilduta. Eta gainera badinotso etxeko uzama edo ugazabandreari:

— Hau txerri hau bargastaren bat izan da ala, hainbesteko gantzagiak eukiteko?

— Ez gizona! Hau makerea zaizu, hamaikatxo umaldi emonekoa!

— Ba, eskerrak makerea izan dena, makerea izanda zazpi gantzagi izan baditu, zenbat eukiko ete zituen bargastea izan balitz!

Barreak langoak egin zituzten denek be ha fetxoria ikusikeran. Etxeko uzamak be errementatu ez besteko barre karkaxadak bota eta gero badinotso matarifeari:

Graziak gantzagiok gero be urtu eta koipea egiteko direla, lukainkak gorde zein zartenekoa egiteko, osterantzean solomoak izaten badira deskuiduan, alperrik galtzen dizkidazu.

Horixe pasadu zitzaien matarifeoi eta arrastiko txarri-morrolladan izan zan bai barriketa eta aparajua, baina txerria hiltorduan non eta noiz ez da ba pasatu holango edo antzeko fetxoriren bat? Nahinon eta nahinoz!

Zer dinostak, lagun?, hitano dakidan? Jakingo ez diat ba, besterik ez diat egin neure aldi guztian eta!

Ba holan gura baduk, holan kontaduko diat baten zer pasadu zitzaien oso-osoko anaia biri hemen gure herrian.

Ba aitarekin bizi zituan anaiok eta ez zeukeaten tajurik ezertako be eta auzokoren batek txerria edo zezina hiltzen ziatenean enbidiaz erreta egoten zituan, klaro, eurak be sasoi onean eta entrama be ez txikerra.

Eta ba, aita be, zekena ez dela be, siku antza huan eta txakur txiker baten gastua egin baino lehenago moro! Eta ba semeok apur bat mundua be gehiago eta egunen baten esan ei zioten aita horri:

— Aita, begiratu beza, berorrek gura ezbadu be, aurrerantzarako txerrikuma bat ekarten goaz, eze, hau ez da bizimodua, denak daukate zer jan eta gu emen beti gosez irrintzaka zertan ez dela, zer deritzo berorrek?

— Ba, egin ezazue zeurok gura duzuen, zeuron eukiekin zeurok dis-punitu behar duzue eta!

Eta ba joan zituan anaiok urtarrileko San Antonioetan Urkiolara eta behe-rantzean hor Diman erosi ziaten txerrikuma ordotz mardo-mardo bat.

Lehenengo lekua egin zioaten kortan, txarrikorta edo kortatxi eder bat. Hazi ziaten txerri hori eta bere tertzioan kapatu be bai, Bediako Zipri kapadorea izaten zuan en jeneral, eta ba pozik zeudean anaiok Gabon inguruan txerri hori hiltzeko, ahoan txua eginda.

Allegatu zituan gabonok eta ba hasi zituan euren preparatibook egiten. Eta inori ezertarako ezer esan barik badinotsak anaia batak besteari:

— Hi, txerri-beharrak egiteko laguntasuna eskatuko diaguk hor auzoan baina odolosteak izan be berritsuak izaten dituk eta horiek geuk egin behar-ko dizkiaguk ixilean, eta hik badakizkik egiten?



JESSE-95

— Nik zelan jakingo diat ba?

— Argiak gaudek orduan!, zeozer asmatu beharko diaguk ba!

— Ba begiratu ezak, txerriari egun batzuk lehenago ba zera, porrua, arroza eta gainetiko guztiak emonez gero ez diaguk behar gehiago ezer!

— Eta holan honek beharleku honek ondo urtengo zigukala uste duk?

— Tirauk mutil, zeozek urtengo ziguk, nasaitu hadi, eta ez hadi izan hain epe bako kakadario!

Esan eta egin. Mantenitu ziaten txerri hori eta ba heldu zuan orduko urteko gabon aurretuxua eta ba bota ziaten errekadua auzo guztietara eta matariefeari en partikular.

Orduko egunean goizean goizetik jagi zituan, oilarrak jo baino be lehenago ba barauskarriok eta atonduteko.

Heldu zitzaizkiean auzokook eta barausi ziaten ogi altziren bat eta txerria-hilteko apur bat, hori “txerriiltekoa” anisari esaten ziateen, anis korrienteari, eta ba jatsi zituan kortara.

Heldu txerri horri, sartu gantxoa, eta laster gobernatu zian matarife horrek. Odolak be zelanbeist hartu zizkiaten eta gero txerria erretan, idea eta galtzuaz. Gero garbitu eta tripok zabaldu, atera este, barazare, gantzagi, bidi eta gainetiko guztiak eta eskegi ziaten tollarako soliba batetik hamazortzi arroako txerri demas hori.

Horiek beharrok eginda, auzokook alde egin ziaten morrolladara lotu barik eze haiek ez zeukeaten taju ez feturarik.

Anaiok bakarrik paratu zituanean, hartu zinezko balde zabal baten esteok eta halan delakoan, barruko lohiok kendu barik hasten dituk gehiagoko barik kordel batzugin esteok estuten eta behingo baten akabatu ziaten buz kentz estute hori.

Eta gero ba imini ziaten ura irakiten han behesuan, laratzuan, eta ba hasi zituan morzillok geldorretetan.

Emon irakinaldi batzuk eta halangoren baten ba atera zizkiaten kanpora odoosteok eta badinotsak batak besteari:

— Hi, zera, inori eroaten hasi baino lehen probatu ez dizkiaguk egingo? Hartu ezak, hartu ezak bat, ia jan liratzeken gainetikook, edo iaber zera...!

Probatu zian egin be anaia horrek eta aurpegi gaziagorik inok ez ei zian inoiz imini eta erantzun ei zioan:

— Hi, hauek ezin dituk jan, konfiantzarik handienekoari be ezin diezaizkiok emon, zer egin diagun baino ez duk!

Ba horixe pasatu zuan seguru, eta ba orain txerri bat hiltzen den bakoi-tzean, beti zegok baten bat haxe kontu hau kontetako, eta oraintxe eta oraintxe be barre guredana egiten diaguk haxe dela eta ez dela, barre, baina barre gero e, errementatu ez bestean!

Lehenago, ikatz-egosten asko egiten zen. Aste guztirako eta, joaten ginen pagaduietara edo burbuxduietara.

Baina gauetan be han egon behar ikatz-txondorrek jagoten, eta makina bat bildur pasatu dugu horiekin jentilokin.

Ikusi ez zait sugertatu ikusterik baina horiek jentilok direla eta, jana sarri faltetan zitzaigun eta eurok izango ziren lapurrek. Inoiz, ikatz-txondorrek be lorrinduta agertu izan zaizkigu, jakina, horiek izango ziren, jentilok.

Horien gainean ez dakizut gehiago esaten baina hori dela eta, gura baduzu ikatz egosten zelan egiten genuen kontaduko dizut, zuk ezagutu be ez duzu egin izango igual eta.

Ba, zemendi inguruan asten ginen basora joaten. Guk enpartikular burbux ikatza egiten genuen, enjeneral burbux egurrarekin.

Joaten ginen preparentan, egurginen egiten genuen, zemendi inguruan hasita zezeila edo martirarteraino eta gero egur batzen botoetara.

Botoak egiteko behetik hesi bat egiten zen, hesi fuerte bat, burbux egurrekin, eta gero goiko lurrak behera bota eta zelaitu, zeinda kortabaso txiki baten antzera, biribila, bueltan-bueltan, baina zelai-zelai, larrina letxe.

Gero urten zuen beste usu edo kostumbre batek, aidean egiten zen botoa urkulu edo urkatxen gainean iminten ziren egur batzuk lurrean sartuta, lurretik inkatuta eta zelaia askoz be fazilago egiten genuen, egillamuaren antza eukiten zuen baina biribilean, behetik palatua letxe iminita, hesi ganorazkoaren gainean.

Gero ba txondorginen hasten ginen eta ba txondorra kargetan zen. Denodu guztiarekin ibili behar izaten genuen.

Erdian iminten zitzaion kargerea esaten zitzaion egur bat, egur lerden eta lodi bat, eta hasten ginen egurra zutunik iminten kargereari deutsalala.

Bere inguruan egurra zutunik imini eta gero beste pisu bat, oseake, iru edo lau pisu eukiten zituen txondorrak.

Haiek egurrak zutunik imini eta gero txondorra apur bat holan berrogeita bost gradu inguruan edo paratuko zen zelai-aldatzean. Gero egiten zitzaion azala esaten zaiona egur txikerragoekin eta finagoekin, bai, azala egiten zitzaion.

Eta gero zohia egon ezketino eraz, zohia ateraten zen tapetako eta zohia egon ezik eraz, idea ekarten zen, eta idearekin tapetan genuen lehenengo eta gero gainetik botaten zitzaion iduria esaten zaion hautsa.

Iduria egoten zen lehenengo boto zaharretan. Han topetan zen baina osterantzean holan lur fazil bat topatu eta galbaheaz eralgi egin behar izaten genuen gainetik tapetako arnasarik hartu ez egiteko. Ikatzak egosi egin behar du, ez erre.

Eta gero kargerea esaten zaiona ez zen luzea izaten, hor metroterdi bat edo zeukan eta txondorra kargatu ahala gorantz eroaten zen ateraz-ateraz kargerea.

Zenbat eta txondorra luzeagoa egin, gorago eroan behar izaten zen ha egurra eta gero atzenez atera egiten zitzaion.

Gero iduriz eta idaz tapetan zenez handik zuloatik behera botaten zitzaion brasa eta egur txikitxoak, abar antzekoak, zezpal meheekin batera, behean hartu dezan suak.

Lehenengo apurtxo baten txondorraren ahoa zabalik eukiten zen baina gero ahoa tapatu egiten zitzaion, suak hobeto hartzeko.

Eta gero suak hartzen zuenean ha gainea tapatu eta gero ordu bat edo beste barru ha zuloa egurrez betetan zitzaion, egur txikitxoak txikertuta ha bete eta gero beste ordu bi edo hiru barru, betegarria eskatuten zuen txondorrak.

Betegarria zera izaten zen, egurrak zutunik zeudenak harroren bat euki eta ikatz egiten hasi orduan plegatu egiten ziren eta haiek plegatu orduan bitarteak urtetan zuen, zuloak, eta zuloa betetako izaten zen ha betegarria esaten zaiona.

Eta txondorrak holan berrogei bat karga inguruko txondorrak, karga izaten zen zaku bi ikatz, berrogei bat karga inguruko txondorrak, ba, eskatuten zuen lau edo bost betegarri harik eta puntan ikatza egin arteraino.

Txondorraren puntan ikatza egin orduan, txondorrari betegarriak uzten zion, eta zigarro bat egiteko astiak be emoten zigun.

Hori zigarroarena, zuk jakingo duzu, esakera da, eta hori esatea deskantsu apur bat hartutea izaten zen, solo-beharretan be tamañu baten zigarroa erretan zen, zeukanak, jakina, eta ez zeukanak deskantsu piti bat eta pozik gainera.

Gaubiluntzean egiten zitzaion, zapalagea esaten zitzaion porra bat egoten zen eta harekin zapaldu eta gauean iduri apur bat bota goian goiko puntan gaua pasetako, betegarrian dagoen arte ez, betegarrian dagoen arte gauerdian be igual-igual eskatuten du betegarria eta gero etorten da beherantz-beherantz ikatza egiten goitik eta gau guztietan egiten zaio martxa, ba zapalagatu eta zulorik badauka tapatu eta iduri apur bat bota eta apur bat itota utzi gauean bake apur bat emoteko, lo altzi bat egiteko be.

Eta gero magaletara esaten zaiona beheko barrenera allegatu orduan be bastante prisaz ibilten da, alde bat tapetan zaionean beste magaletik urten lezake suak, eta haiek tapetan ia magalean dagoenean be behar handia emoten du eta magaletara allegatuz gero ba gau bat edo egun bat eta gau bat edo uzten da eta akabetan da, aituten didazu? Ez dakit ba, hau beharleku hau zuontzat gazteontzat enbrollu lar ez ete den!

Goazen aurrera. Eta gero egiten da hotzitu esaten zaiona, hotzitu txondorra. Belekiak egoten ziren lehenago, orain ez da usatuko, orain ez da holango usadiorik be eta orain ez da egiten ikatzik be baina, belekia, olezko arraspa baten antzekoa da eta harekin goitik behera dana arraspatu ondo eta basoiñarrak imini preparatuta eta basoiñarrearekin igurdi eta gero haiek iduriak siku-siku egoten dira eta haiek ikatz bitarteetatik sartu egiten dira eta amatatu egiten dute txondorra, oseake, sano sua galtzen du, suabe pasetan zaio ba hotzituteko eta gero bigarren egunean edo maskalak ateraten zaizkio zergatik ze maskaletan egoten da ostera be surik gehien.

Eta gero ba hurrengo goizean goizetitxo jagita eguzkiak urten orduko enjeneral ikatza ateraten da, segun zelan pentsetan duen batek.

Ba, aterata gero, boto barrenean egoten da zabal, suagaitino, surik urtean badu amatatu eta gero han egon behar du sikieran zortzi hamar orduan.

Eta gero surik ez badauka botaten da larrina esaten zaion lekura horko txondorreko ikatza.

Horixe, horixe zen gure ikatz egostea. Txondor baten lana egin-akabeteak eginen handia emoten zigun eta beharlekuelangoa izaten zen ba, itzala, batez be, bero txangori edo bero handietan, egun kanikulan berriz, azkena!

Eta nik neuk ez dakit ba beharragaitik edo zergaitik, lehen esaten ibili natzaizuna berriro aitatzuz, horiek jentilok asmatu edo barruntetako be asti barik ibilten ginen jo eta ke beharren. Jakina, txondor ingurumarian baten bat beti egoten zen letxe igual ez ziren atomatuko bazterrak enderdetan horiek jentil mantzin eta goseakilok. Dena dela, noiz edo noiz janak faltatu eta txondor inguruak lorrinduta be ezagutu ditugu. Gaur horiek kontuok joan ziren baina txarragoak etorri dira, orain etxe etxera datorzkizu ostuten, eta jana ez prezisamente, dirutan beren beregi, holangorik!, zer ikusi behar dugun baino ez da!

Jentilak, Zeberiko Bertsuten eta Iruatxeta gainean dagoen Untzetabeko mendi magaletan bizi ziren gure zaharren esanetatik dakigunez.

Harri-bola biribil biribilak egiten zituzten, bost edo sei arroakoak, gero harri-bolan egiteko Untzetabetik Mandoiara.

Horiek harriok ezagunak izan dira eta gaur be oraindino hor daude, euretariko batzuk herrira behera bajatu badira be.

Horiek jentilok, euron txabola be bazeukaten hor Untzetaben, oraindino hortik dira txabola jausi horren harriak.

Untzetabeko puntan, haitzean aterata, balkoi antzeko bat be bazeukaten, zertarako ez dakit baina.

Hori balkoi hori orain ikusi be ez da patxadaz ikusten, antena bat imini dutelako bere gainean.

Zeberiko genteak bildur handia izaten zien horiei jentil horiei, ibili be beti ibiltzen ziren behar ez denaren bat egiten eta.

Baina horiei jentil horiei be, noiz ez dakit, baina etorri zitzairen euren azkena edo hondamendia.

Hortik Gorbeia aldetik laino zuri, argitsu eta berezi bat agertu zitzaientean, jentilok aho batez hasi ziren esaten:

— “Gureak egin du, gureak egin du, gureak egin du”.

Eta harrezkero ez da gehiago jentilik ezagutu. Halantxe akabatu ziren jentil kankailo, mandazain eta denabeharrekoak.

Baten, seguru, hor Zollo partean horiek txapel-okerrak edo guardia zibilak jentilen bat koiu eta detenitu egin gura zuten labetatik ogi eta artoak ostu eta mantzinkeriak egiten ibiltzen zelako.

Hori dela eta, txapel-okerrok joan egin ziren solora, gizon bat beharren zegoen lekura eta esan zioten:

— Non bizi duk jentila?

Eta berak koiu tragasa edo intillea ipuztarri eta guzti, altzatu akuilua letxe esku batekin eta esan zien:

— Han goiko etxean bizi zaizue!

Ikaratu egin ziren haren gizonaren indarraz baina halan eta guztiz be joan egin ziren hango etxera eta aterik jo barik sartuz barrura esan zioten etxe-beharrak egiten zegoen andreari:

— Hemen bizi al da jentila?

— Bai, nire neure neba da baina hor beheko soloan tragasaz dabilena zaizue, zer ba? Zeozer pasatu da ala?

Eta joan ziren ahalik eta arinen solora txapel-okerrok eta allegatuz batera esan zioten jentilari:

— Presondegira etorri behar duk derrigor, hator geurekin, aguro, onezean hobeto!

— Zer dela eta?

— Ba herritarrei bakean utzi ez egiteagatik!

— Itxaron iezadazue piti baten, etxera joan eta makila koiu dezadan!

— Ez, hi ez, gutariko bat joango gaituk, hi geldi hemen, zirkinik egin barik!

Eta joan zen ba bata eta arrebari eskatu be egin zion makila eta arrebak ekarri be bai esanaz:

— Eutsi makilla hau eta eroan iezaiozu nire nebari!

— Zer diostazu? Hau ez da makila, hau haritz garrazta bat da ba eta!

— Ba, bai!

— Baina hau nik eroan be ezin nezake, asko pisatuten du honek eta!

— Askok? Ez hainbeste, 300 arroa bakarrik! —erantzun zion jentilaren arrebak.

Entzunak entzun eta ikusiak ikusita, hak txapel-okerrak, hartu makila ika-ragarri ha eta beste era batera eroan ezin zuen lez, txerrintola letxe eroan zuen bueltaka soloa behera.

Hak beste guardia zibilak hori ikusi zuenean lagunari “goazen hemendik” —esanda— orpoetan har barik eskapatu egin behar izan zuten galapan zein jentilak lepo bete eman.

Hemen Zeberiko Eskori ganean egon ei zen lamiñetxeren bat eta herri-tarrek bildur handia izaten zieten.

Lamiñok, han ibiltzen ziren Solatxi erreka ertzean uleak orraztu eta uleak orraztu batez be egun eguzkitsuetan.

Lamiñak esnezaleak ziren eta egun baten, abemarietako kanpaiak jo eta gero, horietariko lamiña bat hurreratu ei zen Eskori eta Solatxi bitartean dagoen etxe batera esnea ostuteko asmoz.

Sartu be egin zen kortara eta inori ezer esan barik esnea edaten hasi be bai zinezko kantina batetik.

Baina, etxeko gizona zertan hartan bajatu zen kortara eta lamiña esne edaten ikusi zuenean, hartu lata-hagea lako egur kirten bat eta jo-jo egin zuen.

Lamiñak, halako malezia handirik barik badinotso negar baten hari gizon indartsuari:

— Nor zara zu? Zelan zaizu izena?

— Ni nor naizen? Ba, nor izango nauzu ba, NEU!

Lamiñak, orduan, alde egin zuen eta Eskori gaineko lamiñetxera allegatu zenean eta odola dariola datorrela ikusi, beste lamiñak esan zioten:

— Nork egin dizun baino ez da! Nork jo zaitu ba?

— NEU-k! —erantzun zien lamiñak alauri baten!

— Ba, “zeu” izan bazara zeri daragoiozu negar eta alaurika? Hurrengoan kontuzago ibili zeure burua hobeto zainduaz, malbako hori halango hori!

Egun baten ikatz egozten geunden Felix, Larrondo eta hirurok hor Azpitarteko basoan. Txondorra dezentea egin genuen egin be eta eginen handia ematen ziguren egunez eta batezbe gaez.

Gauak be ikatz-txondorraren ondoan emoten genituen eta horretarako txabola moduko bat egiten genuen hotzat hil ez egiteko.

Holako gau baten, niri neuri tokatu zitzaidan txondorraren ondoan begirran egotea eta gauerdia tertzioan Anbotoko Señorea garrrrretan joaten ikusi nuen.

Felix eta Larrondo itzartu egin nituen eta hirurok geunden ahoa zabalik gora adi ikusten genuena sinestu ezinik.

Egia zen. Anbotoko Señorea ikusi genuen garrrrretan. Azpitartetik Gorbeara zihoan txispotsssssssean!

Niri neuri be kostatu egin zitzaidan ikusitakoa sinestuten baina beste testigu bi nituenez ez neukan beste erremediorik!

Halantxe daukat ikusita Anbotoko Señora hori. Aurpegia ez nion ikusi baina beste gaintekoa bai, dena sugarretan, zuzian!

Orduko gauean lorik be ez genuen egin eta gauaroa bildurkilik eta kakadario emon genuen. Ez zen gutxiagarako!

Hemen Zeberion errekatxo asko dago egon be eta zaharrek kontatzen zigutenez, lamiñak nahinondik egertuten ziren.

Batzuk aitzazearren horra hor, Undurra-erreka, Etxaso-erreka, Solatxi-erreka, Saldain-erreka.


Lamiñak nahinoz ikusten ei ziren esaneko erreka arroetan kaskatera urtenda orraztu eta orraztu euren ule gorriok.

Egunez ez ei zuten ezer egiten. Eurengana arrimatuz gero, urean sartzen ziren seguru, eta ezin ikusi. Gauez ostera bildugarriak zirelazkoa entzuten genuen, batez be baten batek urregorritzko orrazia ostuz gero.

Gero, denporarekin, lamiñetariko batek, bere eta besteen burua saldu ei zuen esne truke, zelan galtzen diren betiko adieraziz.

Halantxe egin zuten. San Juan egunean jaiotako zekor parejea buztartu eta urregorritzko hagindun area batekin errekek arakatu Gabon gaueko hamabietan.

Orduxean galdu ziren betiko lamiñok. Sokorru baten eta odola dariola galdu ziren betiko. Kontatu, holan egiten da. Kontatu duena hemen daukazu, ikusi zuena berriz, batek badaki!



JESSE-95

Zeberio eta Orozkoko linderoan dagoen Untzetabe mendian jentilak bizi ziren. Batzuk begibakarrak zirela esaten ziguten gure zaharrek eta baten bateri entzunda daukatzat kokotean be beste begiren bat eukiten zutela horiek begibakarrok.

Jentilek inon diren kirtenkeriak egiten zituzten, latak apurtu, bedar metak bota, labeko ogi eta artoak ostu eta nik neuk ez dakit zenbat gauza gehiago.

Humore onean egoten zirenean, harri-bolan egiten zuten Untzetabetik Mandoiara. Indarra beharko zen horretarako e?

Mendi batetik bestera kilometro asko dago, baina indartsuak zirenez ikara handi barik botaten zituzten harri-bolok.

Horiek harriok, biribil biribilak dira. Euretariko batzuk nire neba Felipek bajatu zituen Ugaora hango lantegi bateko ugazabaren aginduz. Pober zitzaion izena eta kapritxo handia zeukan holako harri-landu batzuk bere etxean eukiteko. Gaur ez dakit han egongo diren, baina nire neba Felipek karretila baten eroan zituena badakit.

Oraindino holako jentil-harri gehiago be egongo da hor Untzetabe inguruko zuloetan. Zuok eskolastikuok ez duzue sinestuko baina zertarako harretarako eginda egongo zaizkizu horiek harri borobilok, berezkoak ez dira eta!

Untzetabeko jentilkuma bat Santa Kurtzeko eskolara joaten hasi zen aeioiak eta eskolak ikasteko ditearekin.

Beste umeen aldean, handitxoa zen eta bere jazkuna be ez zen besteen modukoa. Narruzko soinekoak eta oinetakoak zekartzan eta eskuetan ehun kintal inguruko makila bat.

Umeak Madrilen be ume izaten diren lez, burlazar ekiten zioten jentilkumeari. Hark osteraz ez zuen behar zirri handirik golpeka hasteko. Bere ahoko purrustada bat nahikoa zen beste ume guztiak aidean botateko.

Eskolak ikasteko burugorra zen eta ezin zituen aeioiak ez eta abedea be ikasi. Baina, hori bai, kirtenkeriak egiteko primerakoa zen.

Egun baten, beste umeen burlazarragatik sano haserre zegoen eta beste barik hartu umeok eta banan-banan bota zituen bentanatik kanpora.

Andereñoak ezin zuen gehiago soportatu eta gehiago ez etorteko agindu zion jentilkume horri.

Jentilkumea, ikara handi barik, bere ehun kintaleko makila eta guzti Untzetabera joan zen. Handik gehiago ez zuen eskolarik zapaldu. Halantxe akabatu ei ziren haren eskolara joateak.

Guk beti euki dugu entzunda ba hor Untzetaben, hor egoten zirela jentilak. Hor daude orain be jentil-bolak, harrizkoak, borobil borobilak. Batzuk hona Arkulandara be ekarri dituzte.

Eta ba, ereitza kontuan aurreratuak ei ziren seguru. Pagadiak eta harizduiak azkarriak ei zeuzkaten, batzuk berez erneak eta beste batzuk sabirik harakoak.

Sabiak zer ziren? Ba, lehenago, gaur be bai oraindino, hor basoetan lur zatitxo batzuk labratu egiten ziren gura den arbola-hazia ereiteko. Ereiten zen eta gero hesia egin zein ganaduak malogratu.

Eta, ba, hazion ernaroa ondo jagon behar izaten zen eta ikusi ia zelango hazkaia daukan landareak.

Gero tertzio baterazkero atera landarok eta sartu egiten ziren arloan-arloan. Eta gero ba hazten utzi. Batzuk garraztak hazten ziren gero hage edo solibetarako eta beste batzuk iñausi egiten genituen eta egurra erre edo ikatza egin. Eta horiek iñausiak ezagun izaten dira, adapoa daukatelako.

Eta labrantzatic genero ona hartzean zuten antza, horiek jentilok. Artoa be azkarria koiuten ei zen euren basoetan.

Orain Ameriketatik etorri zela esaten dute baina lehenago Samartinek izan behar zuen hori logratu zuenak. Zeozer egin behar, herrikoek ez ei zeukaten ez gari ez artorik arean eta.

Artoa noiz ereiten den be hainbatetik ikasi genuen, eta tertziorik onena esakereak esaten digu: "San Yurgi, artoak ereiteko goizegi" (aprilean 23an); "San Martin, artoak ereinik baleude" (aprilean 25ean).

Gero ba hau ez dakit zertatik be baina kandelarioetan be bildur handiaz ibiltzen ginen, eta sarri esaten genuen: "kandelario egunean eguzkia baino otsoa ardi artean hobe".

Eta ba, jentilekandik edo denadelakotik ikasi dugu zeozer eta ba atëra dugu bizimodua zelanbeist.

Orain ez dago lehengorik. Orain jentea beharrera doa fabrikara eta hilean txahal bat dakar etxera, txahala, zera esan gura dut soldata. Lehen ez zegoen ia soldatarik hemen, alogeran ibiliren batena izan ezik. Makina bat behar egin dugu ugazabarentzat, baina, tira, pozik bizi izan gara eta egun onak be pasatu ditugu. Zuon Uriondoko aititari daukatzat entzunda ba, ha be, alargun gazterik eta etxe bete ume eta egun baten esan ei zion D. Damiani:

— D. Damian, berorrek ez daki ondo zenbat egun txar pasatu dudan bizimoduan!

— Zenbat urte dauzkazu Manuel? —esan ei zion abadeak.

— Ba jauna, aurtengoarekin laurogeita zortzi urte.

— Ba, hara, Manuel, laurogeita zortzi Gabon, laurogeita zortzi Asentzio, (Uriondoko jai eguna), laurogeita zortzi ez dakit zer eta badakit nor, badakizu zenbat egun eder?

— Ene!, ba errezoia dauka berorrek, —kostestatu ei zion zure aitaita defuntuak.

Hori onezean hartu ezketiño ondo baina hak be gorriak pasatuko zituen beste askoren antzean, esan ezazu ze, lehenago orain baino konformitatea be gehitxuago egoten zela, osterantzean nok soportatu ha bizimodu gogorra?

Zuon aitaita gainera, sinesmen handiko gizona zitzaizun. Baten be, akordetan naiz, gerra denporan, Santa Kurtzeko abadeak igon gura ez Uriondora bonben bildurrez edo, eta Uriondoko guztiei Santa Kurtzera etorteko ordena eman zien.

Zuon aitaita mobitu be egin zen seguru, baina auzokoek esan zioten hantxe Uriondo barrenean:

— Manuel, ez daukazu joaterik, ezin gara arrisgatu, abadea bat izanda etorri ez badatorkigu, gu geu be ez goakioz hara beheko eleizara!

— Bueno ba, mezara ahal ez dela be, beste zeozer egin beharko diagu domekakoaz kumplituteko! —erantzun zien zure aitaita Manuelek.

Orduan zer egin zuten? Ba, joan Asentzio zaharrera eta handik Asentzio berrira prozosiñoa egin eta errosarioa errezatu zuten meza orde.

Eta gero ba pasatu zen gerra eta urte baten Aste Santu aurreko misinietan konfesiño generala egiten joan zen zuon Manuel eta fraideari kontatu zionean ha fetxoria, ez zion parkazinoa eman gura, eta ba, “Jesukristo neure jauna”, errezatu eta joan zen. Gero, horretara, herriko parrokoari esan zion gertatutakoa, eta hak eman zion absoluzinoa. Zelango gauzak e!

Je-je-je!, begiratu zerekin hasi garen eta norekin akabatu dizudan. Guk tertzio baterazkero edozein gauza, tira, hartu dezagun kakoko edo zarteneko apur bat, honezkero entrame apurren bat euki be egingo duzu eta, bai, ogi kuskur bat eta pernil altzi bat jateko goserik be ez da behar, hastea neke, tira, utzi hori aparatu hori hor azpira gainean eta erdu!

A, eskuak?, hortxe, harrian, eta eskuak sikatuteko hor daukazu esku-sorkia edo itxaron ezazu, misezko eskupañu bat ekarriko dizut eta!...

Merienda-afaria egin, kontu gehiago entzun eta azkenean Damianak eta bere alaba Rosaliak bertso-paper mordo bat be eman zidaten. Jentilon ereitza ez dakit baina nire "koxitza" inoiz ez lakoa izan zen!

Otxandio herriko Olaeta auzoan abadegai bat bizi zen. Aspalditik zegoen abade sartuta eta laster meza emoteko zen.

Egun baten, Urkiola gainetik zehar, Polpol iturrian ur trago bat egin eta Anbotorantz zihoan.

Anbatora heldu eta Mari anbotokoaren kuebara sartu baino lehen, sotana gainetik estola imini zuen.

Sartu zen barrura eta han aurkitu zuen Anbotoko Señorea goruetan. Abadagaiak ura eskatu zion esanez:

— Egariak tximeltan nago eta ur apur bat emango didazu?

— Hobe ez! —erantzun zion Mari Anbotokoak. Eutsi eta edan emendatu arte!

Ha abadegaia ikaratu egin zen ura uregorrizko basuan atera zionean, baina halan eta guztiz be edan egin zuen. Edan bai, baina ez “Jesus” esan barik, ohitura zen lez.

Urregorrizko basuko ura bedeinkatu egin zuela konturatu zenean, badi-notso Anbotoko Señoreak:

— Urten ezazu atoan hemendik kanpora!

— Zer ba? —erantzun zion abadegaiak.

— Zuk bedeinkatu egin duzu basu-ura! Edan ezazu hori ur hori eta zoaz hortik zehar ur-basu eta guzti!

Abadegaiak bildur-sartu eginda urten zuen kobatik, baina atzerantz badaezpada, zein koban barruan kondenatuta geratu betiko!

Errotari batek alaba eder bat zeukan baina aziendak ez ziren, hurrik be, jauntxo edo etxagun nagusiekin konparatzekoak.

Neskak bazekien polita zena eta beste neska batzuen antzera itzarrik amesetan egiten zuen norekin ezkonduko ote zen pentsatuz.

Egun baten, errota aurrean zegoen errotariaren alaba galant hori garia jo osteko galtzu piloak metatuten.

Beharleku horretan zebilela, bidazti bat agertu zitzaion eta bere ondoan gelditurik esan:

— Errege gaztearekin ezkondu nahi baduzu, hauek galtzu guzti hauek urregorri bihurtu behar dituzu!

Neskak, entzun egin zituen berbok baina barrutik negarrari eutsi ezinda esaten zion bere buruari:

— Askok baleki zenbat baino gurago nukeen errege gaztearekin ezkontzea! Baina ez da posible, hauek galtzu guztiok urregorri bihurtuko dituenik ez dago!

Burutazio horiekin zebilela, itxura txarreko eta jazkuna ez hobeagoko iratxo bat agertu zitzaion esanaz:

— Zergatik ematen diozu hainbesteko lorra zeure buruari? Zer da ba gura duzuna?

— Zer gurako dut ba, hauek galtzu pilook urregorri bihurtzea errege gaztearekin ezkondu ahal izateko!

— Hori baino ez bada, nik neuk egingo dizut, baina kondizio batekin: ezkontzako lehenengo semea kaskondu baino lehen neuretzat izango da, onartzen duzu?

— Hoba ez! Tratua eginda dago, neure berba ematen dizut.

Hak iratxoak, mementoan bihurtu zituen urregorri haiek galtzu guztiak. Neska sinestu ezinik zegoen baina ametsak egi bihurtu zitzaizkion.

Errege gaztea be enteratu zen eta ezkontza-errekadua egin be bai, ez beste batenbat bialduta, bera beren beregi joanda baino.

Ezkondu ziren. Eztegu ederrak ospatu zituzten. Lehenengo semea be izan zuten eta poz pozik zeuden.

Egunak joan egunak etorri, neska larritzen hasi zen semea kaskonduten ziholako baina ez zen ausartzen erregeari iratxoaren tratua berri esaten.

Iratxoa, bere aldetik, jauregira etorten hasi zitzaion eta semea eskatzen. Neskak ez zion eman nahi. Iratxoak ekin berriro be, eta neskak ukatu. Ostera be bai eta berdin.

Iratxoak orduan, igarkizun bat jarri zion bitarteko. Igarkizuna bere izena zen. Neskak iratxoaren izena asmatu behar zuen hirugarren bisitaldirako.

Lehenengo bisitaldian hainbat izen esan zizkion baina ez zuen igarri. Bigarreanean beste hainbeste.

Baina hirugarren bisitaldia baino lehentxuago, neskaren aitak, errotariak, tratua berri zekien bakarrak, sorots egin zion iratxoari eta esan zion alabari:

— Sorgin-landara joan da iratxo hori. Zoaz gauean eta abemariatatik goizeko egusentira bitartean ia ezer barruntetan duzun!

Esan eta egin. Joan zen eta eguna argitzeko zegoela barbarotsa barruntatu zuen sorgin-landan. Apur bat gehiago hurreratu zen eta hauexek berbok entzun zituen haren iratxoaren ahotik:

— “Izenik eza da nire izena”.

Errotariaren alaba, orpoetan har barik joan zen jauregira. Hurrengo egunean hirugarren eta azkenengo bisitaldia egin zion iratxoak semea berarekin eramateko asmoz.

— Zein da nire izena? —galdetu zion iratxoak.

— “Izenik eza da zure izena” —erantzun neskak.

Hak iratxo enbelekoak, horiek berbok entzun zituenean, herri-idi hezi bakoaren damorroak baino urruma handiagoekin alde egin zuen jauregi ingurutik eta halaxe bukatu ziren errotariaren alaba-erreginaren larritasunak.

Uriondoko Mariano eta Manuel ikatz egosten joan ziren Atxondoko trokara. Lehenengo, egurrezko txabola bat egin zuten, oboen-oboena ida eta zohiak iminita.

Behin txabola egin-akabatuz gero, egurginen hasi ziren txondorra egiteko. Pagadui txiki baten zebiltzan, pagorik zaharrenak edo harjoak eperditik ebagi eta zehatuten.

Txondor baterako lain egur egin zutenean, txondorrari heldu eta sasoi-koak zirenez, behingo baten tolestu zuten txondor hori. Sua emon eta atoan hasi zitzairen txondorra kea dariola.

Iluntzea zen eta txabola antzerako horretan sartu ziren biak bietara, zeozer afaldu eta batak lo egiteko bestea begiran zegoen bitartean.

Marianori tokatu zitzaion lehenengo begira. Txondorrek ketan eragoion eta halakoren baten, betegarria eskatuten hasi zen.

Mariano joan be egin zen egurretan betegarria botateko baina laminen alauriak entzun zituen han euren ondoko haitz zulo baten eta Manueli deika hasi:

- Hi, Manuel, laminen alauriak entzun dizkiat, hator atoan!
- Zer dinostak mutil?
- Ba, bai, laminak!

Orduan, Manuelek, eleizaztikoa be bazen eta, errezu batzuk egin zituen eta halantxe libratu zuten euren burua laminongandik.

Gero, bien arte bota zioten betegarria txondorrari eta asteagarrenean bakez heldu ziren etxera.

Etxean, gertatutako guztia kontatu zuten. Marianorenean, sinestu be ez zioten egiten eta gainera burlazar ekin esanez:

— Zuek amesetan egingo zenuten laminokin!

— Amesetan? Ez horixe! Manueli itandu ezpabere! Eta gehiago oraindik, gaur egun santua den moduan, laminak izan zirela dinotsuet, eta eskerrak Manuel errezetan hasi zena, osterantzean ez dakit bizirik urtengo genuen be! Hurrengoan etxerik hara egingo ditugu errezuok eta kitu!

Beste baten be, Galdakao parteko Ereñotik Uriondora zetorren gizon bat gauez, basorik baso.

Iluntzeko abemariak jota zeuden eta eupadaka zetorren gizon hori bere buruari bildurra kentzeko.

Baina gauez edozein zarata izaten da nahikoa buruko uleak arteztuteko eta gizon hori larrituten hasi zen, oraindino urruntxo zeukan euki be eta Uriondo.

Halakoren baten, inoiz ez lako zaratak entzun zituen. Gelditu egin zen zer den edo zer ez den jakiteko eta badinotso bere buruari:

— “Ene! Zaldi irrintzak eta kateaotsa dituk ba eta! Ni niagok ona, zer egingo diat orain?”

Uriondon mutil bizkorrak egon dira beti, baina halakorik ez da ezagutu. Horregatik, hasi zen galapan eta zeinek arinago etorri ziren aurretik mutil bizkor hori eta atzerik hara zaldi-irrintzadunok euren kateaots eta guztia.

Estukuraren estukuraz, errezetea be ez zitzaion gogoratu hari mutilari eta bere zankoez bakarrik baliatuz heldu zen Asentzio zaharreko baselizara.

Han bai, han arnasa hartu zuen eta errezatu be bai. Harrezkero ez zuen gehiago halako zaratarik barruntatu baina halan eta guztiz be susto-sartu handiarekin iritsi zen etxera.

Behin etxeraz gero, gertatutako guztia kontatu zuen bereen artean eta horretara esan zion aiteitak:

— Neu be holango pasadizua bizita nago nire neure gazte denporan eta estukura galanta pasatuta. Holakoetan, errezetealakorik ez dago, horiek parte honekoak ez dira eta.

Jentilen berri mendi, haitz zein baso askotan aurkitu genezake batez be Gorbeia ingurutik haronako bat eginez gero.

Behin baten, Gorbeiatik Orozkorantz dagoen Supilaur koba-zuloaren aurreko landan, neba-arreba bi zeuden euren ardiak jagoten, Gabon egun bateko egurdartean.

Eguraldi hotza baina ona egiten zuen eta ardiak be zoli-zoli zebiltzan landa-bedar txikia baina gozoa jaten, neguaren hasierako egun-argi laburrenean.

Eguerdia heldu zenean, neba-arrebok, Supilaur koba-zuloko atakara hurreratu ziren bazkari sikua egiteko asmoz.

Zabaldu lepoko morral-zakutoa, atera gaztaidun otarteko bana, bigilia edo haratuztea gordez eta jateari eman zioten noiz behinka ardo zahatoari txurruplin batzuk eginaz.

Behingobaten egin zuten neba-arrebok egun haretako bazkaria baina gose apur batekin geratzea hobea baino ez zen, etxera itzuli orduan, Gabon gaueko afariari ganosoago ekiteko.

Handik lasterrera, etxera bidea hartzeko zeudela, neskak suge bat ikusi zuen euren ondoko ogi-apurrak jan guran edo, eta badinotso bere nebari:

— Hi, mutil, begira ezak hona, suge handi bat zeukeagu ahotik ezpia agirian ia-ia geure ostikopetan ba eta!

— Ene, bai berriz! —erantzun zion nebak. Hau suge hau nik neuk dominatuko dinat, ikusiko dun!

— Kontuz ibili hadi mutil, badaezpada, parte txarrekoren bat izanean be, gaur Gabon eguna diagu eta.

Artzain gazteak, utzi bere eskuetako makila mehea, hartu han pagadui baten barda luze bat eta sugea hiltera zihoan.

Sugea, bien bitartean, Supilaur kobara barrura sartu zitzaion eta hango barruko sakonetako estarian estaldu.

Artzainak ahalegin guztiak egin zituen ha sugea jo buru-buruan eta tra-getako baina dena alperrik.

Halakoren baten, koba-zuloan barrurantz zihoala, zer?, eta han koba-zulo-aren sakon-sakonean basajaun bat aurkitu zuen ikatza egosten.

Ikaratu egin zen. Hankak dar-dar zeuzkan, bekokian izerdi larria, gor-putzean ikara bihotzean taupada estuak eta buruan zer pentsatu handia!

Egoera horretan zegoela, ikatz txondorraren ondotik basajaunaren hots hauek entzun zituen oihartzun eta guzti:

— Ez hadi larritu, mutil, ez diat ezer egingo eta! Hurreratu hadi nire neure ikatz txondorrera. Hator eta esan: “Hire aitak egiten al dik nik neuk bezala-ko ikatzik?”

— Ez zekiat ba! Baina egur-berdin, denak be antzerakoak izango dituk! —erantzun zion artzainak bildurkilik.

— Ba, berdinak diren ala ez jakiteko, har ezak esku biak bete ikatz eta atera argitara han hobeto ikusteko!

Artzain gazteak, hartu zuen esku biak bete ikatz eta kobaren atakara hel-duz batera, bere arrebari erakutsi zion. Arrebak, ha altxor ederra ikustean badinotso bere nebari:

— Hi, mutil, zer dakark hortik barrutik?


— Zer ekarriko diat ba, basajaunak emoneko ikatza!

— Ikatza? —esan zion arrebak begiak zabal zabalik—, hau urregorria duk ba eta! Joan hadi berriro barrura eta eska iezaioke gehiago aberatsak izango gaituk eta!

Mutila berrien berriz joan zen kobara barrura eta honela esan zion hari basajaun ikazginari:

— Hi, nire aitak ez dik egiten honelako ikatzik. Honelakorik ez zegok gure herrian ez eta gurekoen artean be, herriko ikazginik onenak izan arren. Horretara, emango didak apur bat gehiago nire neure etxeko eta herrikoei era-kusteko?

— Bai, mutil, zenbat gura eta harexen beste hartu, baina kontuz! Hor koba sakon sakonean deabrua zegok lo-arrantzaka eta hire zaratetara itzar-tuten baduk, hireak egin dik!



Artzain gaztea, aberastu nahiaren aberastu nahiaz, fraketako boltsa biak, kolkkoa eta sorbaldetatik dangilizka zeukan morral-zakutoa betetzen hasi zen urregorritz.

Baina, denaguran, zarata handiegiak egin zituen eta jakina, deabrua itzartu egin zitzaion bere lozorrotik.

Itzartu bakarrik ez, deabrua oso haserre plantatu zitzaion eta orroe-santzoka hasi zen burduntzi luze bat eskuetan hartuz.

Ha bai zela larrialdia! Artzainak ez zekien zer egin. Eta estualdian basajaunari esan zion guztiz kakadariotuta:

— Hi, zer egingo diat orain?

— Zer egin? Ba ospa egin hemendik lehen baino lehen! Deabruak harra-patzen bahu hireak egin dik betiko! Joan hadi agudo!

Artzainak, utzi bertanbera urregorriok eta kanporako bidea hartu zuen basajaunari esana eginez.

Kobaren atakara heldu eta bere arreba ikusi zuenean hauxe esan zion pausurik galdu be egin barik arduraz beteta:

— Hi, ezin dinat kontatu orain hor barruan gertatutakoa, joan hadi etxera gautu baino lehen eta tertziarako heltzen ez banauk Gabon afaria ondo ospatu, nik nahikoa zeukat atzerik hara datorkidan deabruari ospa egiten!

Arreba, ikaratu egin zen bere nebaren berbak entzutean baina ikara handiagoak etorri zitzaizkion handik lasterrera deabrua kobatik urtetan ikusi zuenean.

Neska errukarria negarrez zihoan etxerantz eta bereengana iritsi zenean hasi zitzaien esaten berbaltu eta guzti:

— Ene ama! Gure mutila hortik zehar dabil deabruari ospa egiten eta ez dakit Gabon gaua egiteko bizirik etorriko zaigun be!

— Ez estutu! —erantzun zion aitak—, gure mutila bizkorra da eta ondo ezagutzen ditu basabideak, goizago edo beranduago joko du etxea. Guk erro-sario errezatuko dugu eta Jaungoikoak gura duena izan dadila!

Bien bitartean, han zebiltzan, guztiz gaututa, artzaina aurretik eta deabrua atzerik hara pagaperik pagape, mendirik mendi eta landarik landa.

Gaueko iluntasunean ez zuten alkar ikusten baina alkar barruntatu bai, eta bata gelditzen zenean bestea be bai. Horrela ibili zire luzaroan.

Orduak aurrera zihoazten eta mutilak etxera joan nahi zuenez Gabon gaua ospatzeko bere buruari esaten zion:

— Zer zuhurtasun erabiliko diat nik honi deabru honi eskapatzeko? Mùgitzen banauk, bazetork gainera, a bai, bazekiat zer egin!

Artzainak pago punta batera igo zuen katua sagutan baino isilago eta handik ahal den guztian jaurtin bere morrala.

Deabrua, zarata entzun zen lekura abiatu zen bete-betean artzaina izango zelakotan baina ezer be ez.

Gauzak horrela, artzaina konturatu zen deabrua apur bat urrundurik zegoela eta ahal denik ete ixilen jaitsi pagotik eta behatzen puntan zihoan astiro astiro.

Halako baten arbolapeak utzi eta ailegatu zen artzaina Orozko parteko landa batera baina beste arerio bat agertu zitzaion, ilargia. Ilargipean ikusi egin zezakeen deabruak eta halaxe egin zuen.

Deabrua askoz gorago zegoen baina bere zanko zuzeeekin berehala harrapatuko zuen ha mutil gaztea.

Mutilak deabruarekin amorrutarako zaratak entzun zituenean, ezin den lekutik be indarrak aterata, aurrera jo zuen hurbil baitzeukan bere etxea.

Etxekoek be arduraz beterik zeuden. Orduak aurrera, Gabon afaria prest baina ez zeukaten humorerik ospakizunetarako.

Artzain gazteak ezin zuen gehiago eta deabrua gainera zetorkiola konturatzean zoruan etzan zen bereak egin zuela pentsatuz.

Pausu batzuk bakarrik falta zitzaizkiola deabruari artzaina harrapatzeko, zer?, eta tan-tan, tan-tan, tan-tan! Orozkoko Olarteko eleizako kanpaiotsa entzun zen, jakina, Gabon gaueko hamabietako mezako kanpaiotsa!

Kanpaiok entzun zirenean, deabrua podere edo ahalmen barik geratu zen eta ezin zion ezertxo be egin artzain guztiz nekatuari.

Deabruak alde egiten zuela ikustean, artzaina, zutundu, Olarteko eleizan Gabon-meza entzun eta bere etxera joan zen Gabon gaua ospatzera familia-ko batasunean.

Aspaldi baten, gizon aberats bat zegoen Superlegor koba-zuloan penitentzia betetan. Arratia barruan Igorrekoa zen eta gerrirainoko bizarrak zeuzkan.

Egun baten, Santi-motz eta bere lagun bat Superlegor inguruetatik zebiltzan euren ganaduak ikusten eta ibili eta ibili, etxera etorteko berandu egin zitzairen. Horregatik gaua egiten Superlegorrera joatea pentsatu zuten.

Hara heldu zirenean gizon bizartsu hori burduntzian urdaia erretan topatu zuten eta eurek esan zioten ze:

— Gabon, nor zaitugun beist! Berandu egin zaigu etxera joateko eta bertan gaua egitea pentsatu dugu.

— Hemen lehen be lagunik asko gaude! —erantzun zien hak gizon bizartsuak. Ni neu be hona etorri nintzenean neure penitentzia betatuten, bakarririk egongo nintzela uste nuen baina hemen ez da falta parte txarrekorik! Horregatik, hobe duzue hemendik alde egitea zein behar ez denaren bat suertatu.

Santi-motz, bildur gutxiko gizona zen baina ikaratu egin zuen hak bizartsuak eta bere lagunari badinotso:

— Hi, hau gizon bizartsu hau, aldi bateko Igorreko zelebrea duk, eta lehen be bildurra emotekoa izan bazuan, orain handiagoa emateko fetura edo itxuran zegok, beraz, joan egin behar diagu paraje honetatik lehen bait lehen!

Esan eta egin! Handik arineketa, hortik errezua, etxera jo zuten lagun biek eta hurrengo egunean herrian kontatu eurei jazorikoa.

Orozkoko Gallartuko Txomingorri, burrukaria zen, indartsua, kompromisorik ez emon behar berari, osterantzean lepora zetorren atoan!

Eta egun baten, Txomingorri hori Billarora joan zen, ganadu-feriara. Lehenago Orozkotik gente asko joaten zen hortxik, Sintatxetik Arratiako ferietara. Neu be sarritan joanda nago.

Sintatxetik, Aibelabe ondotik zegoen senda bat eta handik, San Martingo sendatik, Aibelabetik, argi aparteko bat zetorren eta berekautan badino:

— Koño!, hortxe zetorrek argi madarikatu hori eta oraintxe niagok ni ona! Horrax Pagalandara urten behar zioat sikan argi hori hobeto ikusteko!

Eta argi hori bazetorkion atzerik hara. Txomingorrik orduan Pagalandara urten zion, leku ezaguna zuelako.

Argi hori Pagalandara iritsi zenean, hango pagaduiko pago baten puntan geratu zen katigatuta lez.

Orduan, Txomingorrik, hartu pago-makila luze bat eta jo-jo egin zuen ha argi berezia berba hauek esaten zizkiola:


— Bidean nentorrela ez didak bakean utzi, ba orain, eutso!

Txomingorrik, makilotsa atera zuen argi hori joten baina joago eta larriago plantatu zen, argi horretatik deabrua urtetan ikusi zuenean.

Handik argitik urtendako deabruak hil egin gura zuen Txomingorri baina honek, orpoetan har barik, ospa egin zion ondo baino hobeto ezagututen zituen bideetatik.

Han zihoazten galapan bata aurretik eta bestea atzerik hara nor arinago-ka Adaroko auzunerantz.

Txomingorri Adaroko auzunera heldu zenean Adaroko Inazio Mantxuaren etxera sartu zen, baina ez beti lez, zekarren abiadaz atea jo eta botata baino.



Inazio Mantxuarenean orduantxe zeuden goizeko mezarako domeka-soi-nekoak janzen eta etxeko andreak badinotso:

— Ene!, zer Jaungoiko!, zer jazo zaizu ba, bakez zatozkigu?

— Ai ene!, ai ene! —suteak be hartu ezinik seguru, Txomingorrik.

— Zer pasetan zaizun baino ez da!

— Zer gertatzen zaidan? Ba, honantxe eta honantxe deabruak berberak urten dit bidera eta alde egin diot baina eskerrak etxe bedeinkatu honetan sartu naizena, osterantzean, banaroa hortik zehar berarekin, batek badaki nora!

— Tira ba —erantzun zion hak etxeko andreak—, egunsentiko angelus errezatu dezagun, kandela bedeinkatua izitu eta ereinotz bedeinkatua erre, ia deabru hori uxatuten dugun eta bakez joan zu zeure etxera eta gu domekako goizeko meza entzutera!

Halantxe egin zuten eta ez zitzaien deabrurik agertu han paraje haretan baina Txomingorrik denporak eta denporakarenean be ahaztu ezinik zeukan ha Pagalandako susto-sartua.

Behin baten, Gorbeiaiko landa-zeharretatik zehar pastore bi zebiltzan euren ardi eta ardi-txakurrekin.

Negua zen eta ekaitza zetorren ipar aldetik. Horregatik, artzainok, euren ardiok pilatuten zebiltzan edurra botaten hasi baino lehen goietatik beheragoko landetara etorteko.

Egin ahalak egin arren be, dena alperrik. Edurra hasi zitzaien mara-mara eta santiamen baten dena zuritu.

Egoera haretan ez zeukaten beste irtenbiderik hara ondoko Superlegor kobara sartzea baino gaua zelan edo halan emoteko.

Halaxe egin zuten. Superlegorreko kobara sartu zirenean, ardiok euren artileak astindu zituzten edur-bolak botateko eta artzainak be beste hainbeste egin behar izan zuten.

Iluntzea heldu zitzaizenean, artzain zaharrenak esan zion beste artzain gazteagoari:

— Hi, ohitura onak galdu ez egiteko, abemariak errezatu behar dizkiagu eta gero lo egiteko etzan baino lehenago, badaezpada morral-zakutoan beti eroaten diadan kandela bedeinkatua izituko diat.

Esana egin zuen artzain zaharrak. Baina hor gau erdi inguruan zarata berezi batzuk entzun zituzten.

Itzartu egin ziren artzain biak eta begirada bat bota ia ardi artera otsoren bat edo sartu ote zen.

Berrito etzan ziren eta handik geroagora berriz zaratak, lehengoak baino handiagoak, ardiak be gora-goraka jartzerainokoak.

Artzain zaharrak kandela bedeinkatua hartu zuen eta haronako batzuk egin zituen ardi artetik, baina ezer be ez.

Artzain gaztea bildurkilik zegoen baina artzain zaharraren nasaitasuna ikusi orduan badinotso:

— Zer? Hi ez haiz bildur ala?

— Begirada bota aurretik akaso, baina orain ez! —erantzun zion. Orain bazekiat zaratok zer diren. Nik entzunda zeukat hemen, koba honetan, jentilak bizi direla eta horiexek dituk zaratagileok. Guk biok, angelus errezatu diagu eta gainera kandela bedeinkatua izitu, horregatik, horiek jentilok urten gura eta urten ezinik zeudek hor barruan, errezu edo kandela bedeinkatua- ren aurrean ez zeukatek podererik eta.

Igaro zuten gauaroa eta hurrengo goizean, lurmen dagoela ikusirik, argi- kanpaiak jo aurretik urten zuten pastoreok euren ardiekin.

Superlegorreko koba utziz batera, hara han non doazen kanpora jentil guztiok ikaragarritzko zaratak boteaz.

— Ez diat esan nik!, —esan zion artzain zaharrak gazteari—, aikorzan jentilok kanpoan. Kristau ezaugarri oztoporik aurkitu ez orduan, urten egin ditek.

Biziak bizita, bakez heldu ziren artzainok etxera egurdarte barruan eta zer jana zer esana baino lehenago faltatzen denez, herrian luzaroan eragoioen pastore bioi gertatutakoari.

Kristautasuna Euskal herrira heldu berri zegoela, Gorbeia inguruko herri txiki eta polit baten, olagizon handiki bat bizi zen bere ola zaharrean.

Urteak joan urteak etorri, zaharkitu eta gauzeztandu egin zitzaion bere ola zahar maitea eta berria egitea pentsatu zuen.

Esan eta egin. Lehenengo, ola zaharrak zeuzkan gauza probetxugarriak aukeratu, gero falta zitzaion beste guztia lortu eta hasi zen ola berri hori egiten handikeriaz beterik.

Behingo baten lortu zuen ola berri hori egitea eta pozik baino be poza-go zegoen lehengoa baino ola handiagoa eta hobea egin zuelako.

Herriko zein albo-herrietako beste olagizonek sorots egiten zioten euren olatxoak ezerezean geratuko ote ziren bildurrez.

Egunak joan egunak etorri, heldu zitzaion olagizon handiki horri ola berria martxan botateko eguna.

Harrokeria ez zitzaion falta eta herri guztiari ezeze, beste olagizon apal guztiei be agindu zien bere ola modernoa ikusten joateko gonbitea.

Ha bai zela ikustea! Herri osoa ola berriaren inguruan, beste olagizonak be urruntxutik begira eta erdi-erdian olagizon handikia.

Denak ixildu zirenean, olagizon handiki horrek hiru-lau berba botateko errotarrizko mahai batera igon eta badino:

— Hemen daukazue aspaldiko partez, inguru guztiko olarik handiena eta onena. Aurrerantzean ez duzue eukiko zeuon lan-tresnak logretako arazorik. Oraitxe, zeuon guztion aurrean botako dut martxan ola berri hau eta bada-kizute, aurrerantzean etorri denok neure ola berrira!

Entzuleen artean era guztietako harrerak ikusi zitezkeen. Olagizon handikiaren bezeroak pozik, beste batzuk ezbaian eta hirugarren batzuk arduraz ea beste olagizon apalekin zer gertatuko ote den pentsatzen.



JETTE-95

Handik lasterrera, jaitsi zen olagizon handiki hori igonda zegoen mahaitik eta bere ola martxan botateko, antaparako uhatea zabaldu zuen ur-indarra joan zekion olari. Baina ur hori joaten haziaz batera, krisst-krausssst!, zarata berezi bat entzun zen eta olak zirkinik be ez! Bigarrenez ere egin eta berdin!

Olagizon handikia ez zen ausartzen irugarren intentoa egiten. Zuri-zuri zegoen, kolorga, zer pentsatu ez zekiela herritar guztien berbaroaren erdian. Berbalotsa ez zen falta ez herritarren artean eta apur bat ixildu zenean gentea, badinotso handik atze partetik beste olagizon apal eta zintzo batek:

— Hi, hor eure burua apurtzen egon beharrean, zergatik ez hoa Gorbeia ondoko Supilaur kobara eta Mari Anbotokoari kontsulta eskatu. Inork esatekotan, harexek esango dik zer arraio gertatzen zaion ola berri honi!

— Ba, mutil, —erantzun zion olagizon handikiak—, hori baino ez baduk joan egingo natzaiok lehen bait lehen eta beren beregi joan be gainera.

Asmo horrekin etxeratu zen ha olagizon handikia beste guztiak, harriturik, euren etxeetara zihoazten bitartean.

Gau luzeak asko igaro zituen, baina ez halakorik. Inondik eta inora be ezin zuen loak hartu. Kanpandorreko erlojuko ordu laurden, erdi eta oso guztiak entzun zituen gauaro larri haretan.

Hurrengo goizean, tertzioz jagi, barausi, hartu zakuto baten biderako jakia, jantzi mendirako soineko eta oinetakoak, aitearen egin etxetik urtekeran eta Gorbeiaiko bidea hartu zuen.

Bazihoan Supilaur kobarantz, arin joan be, inori berbarik egiteko intzigu eta adore handi barik.

Mendian gora zela, hainbat artzain, mandazain, egurgin, ikazgin eta gaintetiko ikusten zuen ikusi be baina ez zegoen berbagura olagizon handiki hori, harik eta bere barruko ardura kendu arte.

Joan eta joan, halako baten heldu zen Supelegorreko kobaren atakara. Barrura sartu orduko, atsedean piti bat hartu zuen, izerdia sikatu eta arnases-tua kentzeko.

Nasaitu zenean, zutundu eta astiro-astiro sartu zen sartu be Supelegorreko koba nagusi eta ikaragarrira.

Ikaraturik zegoen hango harri landuzko mahaiak, urregorritzko tresnak eta apaingarri guztiak ikustean.

Bazter guztietara adi zihoan koba-zuloan barrurantz eta halako baten, handik sakonetik, berba hauek entzun zituen:

— Nor dabil hor?

— Neu nauzu, —erantzun zion olagizon handikiak birdurkilik—, urlri lekutako olagizona! Eta zu nor zaitut ba?

— Ni? Mari Anbotokoa!

— Ba zeugana nator kontsulta egitera!

— Eseri hor harri landuzko aurki baten eta itxaron, atoan nauzu zeure aurrean!

Olagizon handikia jazarri zen eta, esaneko moduan, berehala plantatu zitzaion Mari Anbotokoa bere ondoan.

Andre zoragarria zirudien, ondo jantzita, uleak ondo orraztuta, narru-azala urdin-urdina eta berbaikuna gozoduna.

Mari Anbotoko horrek, sagardoa atera zion mahaira urregorritzko basu baten eta olagizonak, ohitura zukanez, “Jesus” esan eta tragu bat egin zuen.

Olagizonaren harridura eta ulertu ezina ikustean, badinotso duntze-dultze eta erdi irribarrez Mari Anbotokoak:

— Ez hadi ikaratu! Kristo jaioz gero ez ahainbeste baina aurretik herritar asko etorri izan duk hona, nigara, kontsulta eskatzera. Beraz, nasai! Zerk hakar hona hain estu eta larri?

— Ba, hara, ola berri bat egin berri dut eta martxan botaten joan naizeanean, krisst-krausssst!, entzun ondoren zirkinik ere ez dit egin eta berorren-gana nator kontsulta eske!

— Baina, martxan bota aurretik kristau-ohiturako bedeinkazinatorik edo errezurik bota diozue?

— Ez ba!

— Ba, begira, —erantzun zion Mari Anbotokoak—, hori ola berri hori deabruak zeukak lotuta eta martxan bota eta behar den moduan ibiltea gura baduk, urlri lekutako komentuko abadeak bedeinkatu egin behar dik Gabon eguneko gauerdian, gaueko hamabietan.

— Gabon egunean? —zirautson olagizonak—, ba Gabonak gaine gaine-an ditugu, oraintxe gabilitza gabonkariak prestatzen egun handiok ospatzeko!

— Holan baduk hobe, arinago lortuko duk ola berria martxan imintea. Orain joan hadi bake bakean eta urregorako badakik zer egin. Ni neu hemen geratuko nauk kristau-aroan ez baitzeukat potererik, baina zuok ospatu zintzo-zintzo eguberri kristautuak. Gehiago oraindik, hau urregorritzko basu hau eroan ezak eurekin, edakeran bedeinkatu egin duk eta!

Olagizon handikiak eskerrak eman zizkion Mari Anbotokoari eta kobazulotik atzerantz urtenez, etxerako bidea hartu zuen urregorritzko basu eta guzti.

Gorantzean baino beherantzean adoretzuago zegoen olagizon handikia eta santzo batzuk ere bota zituen pozaren pozez.

Olara heldu zenean, inori ezer esan barik, jantzi domeketako soinekoak, hartu zalpurdia eta Mari Anbotokoak esaneko komentora abiatu zen.

Aida! Aida! —esanda— bizkortzen zituen zaldiok eta bazihoan bideak betean herriko gente guztia adi utzita.

Komentora iritsi zenean, saltu bat egin bere zalpurditik eta komentoko ateko kanpatxoak jo zuen eta abadea eskatu.

Etorri zitzaion abadea eta olagizon horren urduritasuna ikustean, ezbehar gorriren bat gertatu zelakoan edo badinotso:

— Zer Jaungoiko gertatzen da ba hain estu eta larri etorteko?

— Zer gertatzen zaidan? Ba, aditu: Ola berria egin berri dut eta Mari Anbotokoaren esanetatik, deabruak dauka lotuta ola hori eta martxan botateko komento honetako abadearen bedeinkazinoa behar dela jakin dut.

— Tira ba, —erantzun zion abadeak—, gaur Gabon bezpera dugu eta bihar joango natzaizu. Gabon gaua zeuonean egingo dugu eta gauerdiko hamabietan bedeinkazinoa botako diogu ola berri horri.

Halantxe egin zuten. Abadeak bedeinkazinoa boteaz batera deabruaren ikaragarritzko burrrrundada!, bat entzun zen ola guztian zehar.

Bedeinkazino ostean, trikitin-traukitin! martxan hasi zen mugitu ezinik zegoen ola berria.

Olagizonak, alde batera bota zituen bere ordurarteko harrokeria guztiak eta herritar on lez biziten ikasi etorkizunean.

Gure zaharren esanetatik dakigunez, horiek jentilok era askotakoak izaten ziren. Batzuk handiak eta beste batzuk txikiagoak.

Handiak okerrak zirela zertan esanik be ez dago, baina, txikiekin be kontuz ibili behar izaten zen, seguru.

Holako jentil txikiren bat aurkituz gero eta bere ahoa topatu, eraldatu egiten ziren, hau da, handi-handi bihurtu eta errukarri aurkitzen ei zen bat euren aurrean.

Baina, eleiz-gizonei esker, errez geneukan jentilen kontrako erremedioa. Holako jentil bat agertu eta eleizako edo kristau ezaugarri bat egitea zen nahikoa jentilik handiena ezeze deabrua berbera be uxatzeko.

Batzuetan, aurrean esaneko guztia eginda be ez ziren desagertzen. Horiek ez ziren jentilak, gauetako arimak baino.

Gauetan, argiak ikusten ziren sarritan, arimen argiak. Horiek arimok, munduan zeozer ondo bete barik hildakoak zitzaizkizun eta harik eta euren penitentziak betatu arteraino ezin ziren zeruan sartu.

Hori dela eta, holako arimaren bat agertzen bazaizu, hauxe esan behar zaio: “ez zaitez hurreratu nigana honenbeste estadiotan, pausutan!”, eta gero itandu: Zer ofreziduten zaizu? Eta berak esango du zer utzi duen bete barik munduan.

Behinola, hemen Gallartun, Orozko gainean, holako arima-argi asko agertu ziren. Hortik Sintatxe gainetik ikusi ei zituzten.

Ikusi zituztenak “angelus domini nuntiavit Mariae” errezetan hasi ziren eta gero “por las almas del Purgatorio” hiru “Pater Noster”.

Arimok euren penitentzia betatu zutenean, eleizportalera etorri ei ziren eskua emon eta agurtzeko. Baina, abadearen kontsejua jarraituz, eskua emon aurretik, herritarrek zapi bat zeukaten eskuan eta zapi horretan arimaren hartzamarretako erre-markak agertu ei ziren. Zelango gauzak e?

Behin baten, Gregorio, betule handidun antigualeko gizona, ahuntzak pilatu ezinik zebilen han Legorpeko haizpean, Gorbeia ondoan.

Euria zen goian-behean eta aurrekorik be ez zuen ikusten; ahuntzen beeeak bai baina besterik ez.

Iluntze aurrettoa zuen eta geroago eta artegago ikusirik bere burua, badi-no esku biak gora-goratan jasota:

— “Ez duk agertuko oraintxe inpernuko deabrua hauexek ahuntzok pilatuteko?”

Esan egin zituen berbok baina akordatzakoan inpernuko deabrua berbera agertu zitzaion kaballero baten itxuran esanez:

— Ahuntzak pilatutea gura baduk eure odola eskeini behar didak, odol tantakada bat gutxienez!

— Odolik ez horraitio!, lehenago moro!

Gregoriok orduan, etxerako bidea hartu zuen, baina zuzian, orpoetan har barik, erbi-txakurra bera baino be arinago.

Etxera heldu zenean eta bere andreari kontatu gertatutakoa, badinotso andreak buruai alde bietara eginez iduneko zainak urten eginik:

— Beti zabilta zu horiei deika eta egunen baten disgustu demasen bat izango duzu, ikusiko duzu!

Gregorio berbaltu eta guzti zegoen susto-sartuaz. Andreak, oporretan zegoen auzoko mutil abadegaiari dei egin zion. Hak errezu batzuk egin zizkion Gregoriori eta tira, orduxean etorri zen bere senera Gregorio. Kendu zitzaizkion, bai, berriro holangoetan ibiltzeko gogoak!

Behin baten, Pepetxin gazteloa Gorbeiatik behera zetorren bere ardiei eguneroko ikustaldia egin eta gero.

Eguzkia sartzamendian noiz sartuko zegoen eta igarri barik iluntzea etorri zitzaion gainera etxera orduko.

Hirumugarrietako zelaikadara heldu zenean, apatxotsak barruntatu zituen bere atze alderdian. Geratu egin zen zer den ikusteko eta zera zen, txikoa edo zaldikuma bat, saltoka eta olgetari.

Berriro ekin zion bideari baina ha txikoa ez zitzaion atzetik kentzen, deslai edo jaube bila balebil letxe.

Pepetxin orduan arineketan hasi zen; txikoa bere atzean. Berriro be geratu eta txikoa be bai. Horretara badinotso bere buruari:

— Ez zaidak inoiz holakorik gertatu, neurea ez den txikoa bat hain ugazaba-zulo eta gauez gainera! Besteren bat naizelekotan egongo duk, horraitino!

Lehen baino arinago hasi zen Pepetxin arineketan Pagalandara behingo baten heltzeko, behin haraz gero etxea hur zeukalako.

Pagalandako mehatzunera heldu zenean eta txikoa atzerik hara zetorkiola ikusi, badinotso ahotik bitsa dariola zetorren txikoa horri:

— Hi ez haiz parte onekoa! Oraintxe ikusiko duk ikustekoa!

Pepetxinek han erazen zuen paga-makila luze bat hartu eta buru-buruan jo zuen ha txikoa madarikatua.

Jo bazuen ba ze, deabruak berberak ez zion urten ba txikoaren gorputzetik! Ai ene! Ha zen bildurra eta edan bako hordia!

Pepetxinek ondo ezagutzen zituen hango bideak eta Pagalandatik behera ez zegoen berari karran irabaztekorik. Emon zion galapadari eta deabruak atzerik hara harrapatu baino lehen etxean zen.

Etxekoek jaubetu zitzaizkion eta esanapur bat arnasestua eta bioztaupadak eskastu zitzaizkionean:

— Zer Jaungoiko pasatu zaizu ba?

— Ba, hauxe eta hauxe eta honantxik eta honantxik —erantzun Peptxinek!

— Tira ba! —erantzun zion aititak. Honako kasuetan errezatzea izaten da onena eta horixe egingo dugu. Eta hurrengoan, holakoren bat agertuz gero, hantxe bertan egin behar da errezu edo antzerakoa, oraingoalako afonturik pasatu ez egiteko!

Orduxean nasaitu zen Peptxin gaztea eta hurrengorako ondo baino hobeto ikasi zuen holako kasuetan egin beharrekoa.

Aibelabeko haitzetik Orozkorantzako mendi zeharretan, Jentil-zulo deritzon koba-zuloa dago eta han antzina jentilak bizi ei ziren gure aurrekoei entzunda daukagunez.

Udaberria zen eta Orozkoar gizon eta andrak beharren zebiltzan arta-
duian, batzuk mokil-hausten eta besteek artajorran Jentil-zuloko kobaren azpi-
txoan.

Eguzkia berotzen hasi zenean, artajorra eta mokil-hausteari utzi eta etxe-
rako bidea hartzekotan zeudela, hara han non datozkien jentilak solora eta
dena lorrintzeaz gain, hartu andrak eta eurekin eroan goiko kobara, Jentil-
-zulora.

Gizonek herriko abadeari eman zioten parte eta abade horrekin joan
Jentil-zulora, bedeinkazino batzuk bota eta tira, bakez atera zituzten euren
androk.

Ordurik hona, lehen baino bildur handiagoa izaten zieten jentilei eta
horragatik, abadeak soloak bedeinkatu egiten zituen edo ezpabere Santa
Kurtzetan bedeinkaturiko arantza edo elorriak sartu solo bakoitzean jentilok
ezer txarrik egin ez egiteko.

Arratiar bat joan zen behin baten ardietara Gorbeia inguruko larre-zeharretara bazkal osteko bekanekoa egin eta gero.

Ardiak uste baino haratxoago joanda zeuzkan eta jakina, denpora gehiago emon behar izan zuen ardiotara heldu eta tolostuten.

Konturatu orduko gautu egin zitzaion eta Pagomakurretik datorrela, Zeanuriko Ipiñaburuko abemaria-kanpaiak entzun zituen.

Bazetorren mendia behera, arin etorri be, baina halako baten "beste muti-
lok", parte txarrekoek urten zioten bidera esanez:

— Orain geurekin etorri behar duk!

— Ez horixe! Lehenago moro!

Arratiar hori arineketan hasi zen eta parte txarrekoek atzerik hara plantatu zitzaizkion nok arinagoka.

Mendia gora eta mendia behera erabili zuten artzain gizagaixoa, erdi zora-
biatuta eta zer egiten duen be ez zekiela.

Gau guztia horrela emon eta gero, halako baten Upo-mendi inguruko baserri bateko oilarrak "kukurruku" egin zuen.

Orduxean etorri zen konortera eta jakin non dagoen. Upon. Billarotik Gorbealara bidean dagoen mendiaren magalean.

Behin konortera etorritz gero eta egunsentia ikusi, behingo baten hartu zuen bere etxea eta azaldu gauaroan gertatutakoa.

Zeanuriko herrian, hor, Ipiñaburura bidean, Lanpreabe dago eta bertan ur-errotak zahar bat.

Behin baten, Lanpreabeko errotakoek, gauez, lamiñak barruntatu zituzten euren errotako andaparan.

Iduneraino zeuden lamiñon kontuokin eta gau horretan, lamiña bat harripatzea pentsatu zuten.

Zabaldutako albatea, joan ixil ixilik errotaren andaparara eta sast!, lamiña txiki bat koiu zuten eta etxera barrura eroan.

Lamiñak ospa egin nahi zien baina eskapatu ez egiteko, ate, lehio eta bentanak ondo itxi zituzten.

Han zeukaten ha lamiña euren artean sukaldean eta halangoren baten, surteko laratzutik eskegitako maskeluko esnea ganez eginbeharrean zegoeanean: "Txuria gora-txuria gora"ka hasi zitzairen ha lamiña txikia.

Barre guradenak egin zituzten egin be etxeko guztiek haren lamiña txikiaren esanetara eta barre ezeze, esne tragu batzuk be emon zizkioten emendatu arterainokoak.

Gau guztian zehar eragon zioten lamiña horri burlazar, baina egunsentiaz baterako marti-oilarrak jo eta eleizako arri-kanpaiak entzun zirenean, lamiña horrek, ssssiissst!, alde egin zien kanpoko ateko giltza zulotik.

Euskal Herrian, jentilak ezagunak ditugu baina bazegoen behin baten beste jentik bat, Ameriketa edo hainbatetik etorrikoa. Handia besteko okerra zen, begibakarra, eta hortik, Gorbeia inguruko kuebetatik ibiltzen ei zen gizonez-
korik arrimatuz gero, hil eta jaten.

Behinola, artzain bi hurreratu ziren jentil horren koba-zulora, sorots egiteko asmoz baina, akordatzakoan, badatorkie jentil hori eta, Raul, koban barruan arrapatu zituen eta harri handi batez itxi kobaren ataka.

Behin barruraz gero, alauri baten eragoion jentilak eta lehenengo harrapatu zuen artzaina hartu, burduntzian erre eta jan egin ei zuen.

Beste artzaina, estu eta larri zegoen eta berari be zer zetorkion ikusirik, jentilaren deskuidu baten, hartu surtetik ilenti gori bat, jo jentila begi-begian eta itsutu egin zuen.

Jentila aieneka zegoen amorru bizian bere begi hustuari eutsiten eta ha beste artzaina harrapatu nahian badinotso:

— Hik egin didak egitekoa! Orain ez nauk gauza ezertarako baina ez duk eurea egingo, ikusi ez, baina atakako harria kentzen diadanean urtekeran harrapatuko haut!

Halantxe egin zuen, baina artzainak, zuhurtasunezko argudioaz, ardi narru bat imini zuen soinean eta beste ardiekin nahaste jentilaren hankapetatik txirrist!, ospa egin zion.

Harrezkero ez dakigu haren jentilaren berririk. Behin begi bakarra galduz gero hil egingo zen seguruenez troka edo amildegiren baten.

Gorbeia eta Lekanda bitartean Arrabako Landa dago. Landa ederra, zelaia eta ganaduentzat bedar gozokoa.

Gaur, Zeanuri partea da baina lehenago, Arrabako Landa Zeberioiko Santo Tomas-ena zen.

Lehenago, Zeberioiko abadea, ohiturari jarraituz, urtero urtero joaten zen Arrabara urteko bedeikazioa botaten.

Zeberioiko herriak, elia eroaten zuen Gorbeia ondoko landa horretara. Arrabako Landa taket eta alambradura ederrez hesituta egoten zen zein ganaduak mundurik aramaio joan.

Zeberioiko herriak, bere elia batzanduten zuenean, Santo Tomas eleiza nagusiko eleizportalera eroaten zuen lehenengo. Han bedeinkatu, gero eleizondoko harizpetan abaroan euki eta hurrengo egunean, freskuran Arrabako bidea hartu.

Era horretara, urteetan ibili ziren baina halangoren baten, Zeanuriko herriak demandea sartu zion Zeberioiko herriari Arrabako landa erreklamatu.

Egia esateko, Arrabako Landa hurbilago dago Zeanuritik Zeberiotik baino, baina usadioak usadio Zeberioik be ez zuen bere ohitura galdu gura.

Abokatuekin hasi barik, izan be abogaduek ez-baiari emoten diote emon be indarra eta, beste apostu hau hartu zuten ontzat: San Juan egunean jaiotako zekor bana aukeratu, urte betean hazi eta gero biak borrokan imintea Arrabako landan eta irabazten duena haxe izateko landa horren jaube.

Esan eta egin. Baina Zeberioztarrak larri zeuden, euren zekorra irdarga eta hezur hutsa zelako eta Zeanuriztarrena ostera mardo mardo eta indartsua.

Baina, berbari eutsi behar zitzaion lez, heldu zen San Inazio, Gorbeiaiko jai eguna eta eroan zituzten urteko zekorrok.



JESSE-95

Hasi zen zekor-enbitea herri bietako testiguen aurrean eta Zeanurikoak aurretik zeraman Zeberioko zekor mekoa.

Hain zen handia Zeanuriko zekorraren indarra, halako baten taket eta alanbradurazko hesia be apurtu egin zuen eta Zeberioko zekor borroa amildegira noiz botako zeukanean, zer?, eta laprast ez du egiten ba Zeanuriko zekorrak eta bera jausi amildegira!

Ikusle guztiak harrিতa zeuden, batez be zeanuriztarrak, baina berba, berba denez, berriro be Zeberioentzat izan zen Arrabako Landa.

Urteak joan urteak etorri, Zeberioko abadea zahartu egin zen eta utzi egin zion Arrabako Landa bedeinkatzen joateari.

Apurka apurka elia eroateari be utzi egin zion Zeberioko herriak eta jaubetu ezaren jaubetu ezaz, azkenean Arrabako Landa Zeanuriko herriko propietatera joan zen eta hantxe dago. Bake santu bat!

Lehenago herrietako neska asko kriada joaten ziren hurira, batzuk diru truke eta beste asko mantenitalde.

Holako kriada bat, hor Kastrejana ingurumarietan zegoen kriada. Erdera be ikasi zuen eta pozik zebilen zentzain eta etxeko beharrak egiten.

Domeketan, hor Bilbaoko Kasillan erromeria egiten zen eta hantxe alkar-tzen ziren herrietatik joaneko kriada guztiak aberatsen alabak Bilbaoko Gran Viatik paseatzen zuten bitartean.

Kriada hori pozik zebilen erromerian, bateko jotak jantzan egin, besteko baltseoa, etxera joateko ardura handi barik.

Baina, aurbereak aurgorea dakarren moduan, iluntzea heldu zitzaion eta, jakina, etxera ordu.

Arin be arin hartu zuen etxerako bidea, euki be urruntxo zeukan oraidi-no eta. Orpoetan har barik joanda be, berandu egin zitzaion eta etxera hel-duaz batera badinotso uzamak:

— Jakin duna ba iturriko ura ilundu baino lehen ekarri behar izan dukala! Non egon haizen baino ez duk tertzio honetararte!


Kriada horrek txitik atera barik, hartu jarroa eta iturriko uretan joan zen abemariak jo aurretik egiteko haronako hori.

Baina alperrik. Abamarietako kanpaiotsa asmatu zuen eta arteak hartu ezinik badino berekitan:

— Ez zaidak etorriko baten bat laguntzera, besterik ez bada inpernuko deabrua!

Berbok ahotik askatuz batera, deabrua berbera agertu zitzaion zaldi baten gainean praka gorri eta guzti eta esan:

— Gura baduna, erreka bestaldeko iturrira arinago heltzeko, harrizko zubia egingo dinat, baina eure arimaren truke. Gura duna?



— Bai, baina arin! —erantzun zion hak kriadak.

Han agertu zen deabrueria!, elia zirudien, eli gorria. Batzuk handiak, beste batzuk txikerrak, denerik.

Kriadak ha mogimendu guztia barruntatu zuenean, bildursartu eginda, bota jarroa eta zuzian joan zen herriko abadeagana gertatutako guztia kontatzen.

Abadeak harrera txarra egin zion lehenegotan baina tira, azkenerako biozberatu egin zitzaion eta esan:

— Alabatxoa, nik neuk ezin dizut hori konpondu, hori kargu handiegia da eta zoaz urli lekutako komentora eta hango superiorrak egin beharko dizu egiteko hori.

Joan zen kriada hori hara be eta kontatu zion gertatutakoa superiorrari. Hak be ezpainei batera eta bestera eginez badinotso:

— Nik bedeinkatu egingo zaitut baina ez duzu nahikoa izango. Zeure arima salbatu gura baduzu, “martian oilarrarekin ibilitako arrauntzarik harako oilarrak kukurruku egin behar du horiek deabruok zubiginen akabatu orduko”, osterantzean zure arimak egin du!

Kriadeak, bedeinkazinoa hartu, superiorrak agindutako penitentzia batatu eta oilar hori topetan eragoion.

Kostatu zitzaion baina, ekinak balio izaten duenez, azken baten aurkitu zuen marti-oilar hori eta kukurruku egin erazi galtzu-zuziak izituta.

Deabruak akaberan zeukaten zubia eta marti-oilarrak kukurruku egin orduan, harri baten faltan geratu zen Kastrejanako zubi famatua. Leku onetik libratu zen ha kriada ha!

Muskerrari bildurra? Azkarria! Beroekin en partikular arbola mokor ganetan ikusten genituen eta badaezpada makina bat “aitearen” egin izan dugu horiekandik bakez urtetako.

Baten, zer bat, eleizaztikua ez zen andraren batek Bariku Santu egunez eleizara joateari itxi egin ei zion seguru eta Paskoa-labesua egiteko ota igerak eske joan basora.

Bero egiten zuen eta eleizako kanpaiotsa be ondo zetorkion belarrietara baina ha eta guzti be aurrera eragoion basoa gora elezkanpai haiei entzun eta gor egin.

Eta hor Kortabasoko aurberako ikatz bitora allegatu zenean, koño!, ez diote musker endemonintru bik saltu egiten, batak idunera, sama ondora eta besteak belaun burura!

Andre horrek bertan bera bota ei zituen ota igerrok eta hasi zen barda batez muskerrok uxatuten baina ekinago eta txarrago seguru. Belaun burukoak geroago eta barrurago sartzen ei zizkion hartzok eta besteak samatik barrura ez zion egin ba?

Ha zegoen egotekoa!, eta ez zen sinesmenekoa baina entzuteak zeuzkan paskoazkoarekin bete egin behar dela eta eleizara bidea hartu ei zuen fraile autor entzuleari muskerrok erakusteko.

Joan zen, arin joan be, eleizara eta ba, allegatuz batera fraile horrek badiño so aitearenka eta txera handiegirik egin barik:

— Zer Jaungoiko!, feturea langoa dakastazu alabatxua, zer pasetan zaizun baino ez da horiek alauriok botateko, baina-baina, nondik zabiltza gaurko egunez?

— Ba, jauna, honantxe eta honantxe joan naiz eta ez zaizkit ba gainetu hauek musker madarikatu biok!

— Alabatxua, damututa bazaude belaunikatu zaitetz eta errezatu ezazu “neure Jesukristo gure jauna” baina horrekin ez duzu nahiko izango, horiek muskerrok uxatuteko zoaz eta zazpi herritako kanpaiak joteko agindu ezazu! —erantzun zion fraideak.

Jo zituzten ba kanpaiok eta orduxean itxi ei zioten muskerrok bakean. Eta hurrengo egunean joan ei zen otatan eta basorikarako otokin biztu labea eta inoiz baino ogi, pamitxa, tremes, arto, opil eta mokotz edo morrokota gehiago erre ei zuen seguru.

Hauek kontuok entzunda, ez diogu ba bildur izango muskarrari? Hobe ez! Oraintxe eta oraintxe be, pipiladureak urtetan dit narru-azalean muskerra aitatz batera. Ez da gutxiagorako, gaur egun ezer ez dutela egiten jakin arren!

Muskerra eta subea beti zebiltzan euren trebituokin eta ez ziren bat be ondo konpontan baina bietatik bat ikusi ezketino bestea be ez zegoen askoz urrunago.

Subea beti izan da txarra eta mantzina baina muskerra ez ei da txarra eta inoiz entzunda daukat personei eta, lagundu be egiten dietela.

Baten, zemendi ingurua izan zen eta idebaten eragoion jenteak eta holango baten batek siesta edo bekaneko apurren bat bota gura eta ida ganean hartu zuen loak.

Lo arrantzaka dagoela, aurpegitik eta, kirimillak egiten zizkion zeozek eta musker mardokote batek ez zuen ba eragi gizon hori!

Gizon horrek lehenengotan ez zuen ez burlasar hartu, bene benetan baino eta txori gorrika ahal ez dela be maldizinoka ez da hasten ba!

Muskerra gorde egin zitzaion han estarian eta topetan dabilela ez du ikusten ba endemoninozko sube bat ahoa zabalik eta ezpia aterata!

Uleak be arteztu egin zitzaizkion eta gerrikoan eskegita zeukan igitaia hartu eta sasst!, burua ebagi zion sube horri eta berekitan esan ei zuen: "koño!", horregaitik musker horregaitik izan ez balitzok gorriak pasatuko nizkian, hori musker hori ona duk eta bake bakean itxita be kontuak zeuzkat!

Beste baten be, subea eta muskerra biak burrukan zebiltzan eta subeak gehiago egiten zion. Baina muskerra kardulatz berde baten ostentan zitzaion eta subeak ikusi ezin.

Baina egunen baten konejuentzat kardutan joan zen propietarioren bat eta ez du ebagiten ba muskerra zegoen kardua be!

Muskerrak orduan saltu azkarriren bat egin ei zuen eta subeak atzerikara segitu, aurberan okerrak dira izan be horiek subeok eta, eta ba hori ikusirik etxagun horrek jaurtin egin ei zion igitaia, ahal den guztian, eta koño! jo zuen bai sube hori eta bertan tragatu, bai, hantxe garbitu ei zuen sube mantzin hori eta muskerrari bizia logratu.

Beste mundutik inor etorri delazkorik ez dakigu baina gure zaharren esanetarik, landa bat ei dago gure mundua eta bestearen artean. Josafat-en Landa deritzo eta handik pasatu behar ei dugu derrigorrez beste mundura joateko.

Horko landa horretan, hemeko munduan ondo betatu ez dituzun egin-beharren ordea bete behar ei da. Esate baterako, zeozer ostu baduzu, ostu duzunarekin emoten dizute lepoa askatu arterainokoak. Beste mantzinkeriarren bat egin baduzu, ba, beste era bateko zigorra hartu behar ei duzu zeruan zor barik sartzeko.

Eleizgizonak ostera, garbitokia edo purgatorioa dagoela esaten ziguten munduko okerrak garbituteko.

Baina, handiena zuri zeuri entzun dizut. Horraio! Orduan, Josafat-en Landa Jerusalengo ortu santua da! Zu zeu han egon zarela esan ez bazenit, sinestu be ez nuen egingo! Holangorik! Badakit jakin egia dinostazuna, baina oraintxe eta oraintxe be kostatu egiten zait, ez gutxi, hori sinestea. Orandino zer ikusteko eta jakiteko daukagun baino ez da! Zer den eskolatua izatea! Dena dela, bata egon zein bestea egon, ez da izango hobe hemeko munduan gauzak ondo eginda uztea, batetik ez bestetik pasatu behar ez izateko?

Gaubiluntzetan seguru, arima koadrilla ikaragarria, elia ibiltzen ei zen eleiza eta ermitarik ermita euren munduko okerrak arteztu arteraino.

Baten, aberatsen baten arima ei zebilen sokorru baten Zeberioganeko elezportalean eta ba hango baten batek barruntatu be egin ei zuen eta joan be bai. Eta badaezpada “aitearen” bat egin eta badinotso:

— Nor zaren beist, zer ofreziduten zaizu?

— Ba urlia natzaizu eta honantxe eta honantxe urli lekutako etxeko horma zuloan honenbeste hamaseiko gorri utzi nituen gordeta eta senitarteko inori esan barik hil, eta inori esan barik hilez gero ezin da bat sartu zeruan, horixe mesedez esango bazenio gurekoren bati?

— Hori baino ez bada egingo zaizu, baina ez zaitetz honenbeste estadio barruan arrimatu nigana, zaude hor geldi eginbeharrok egin arte.

Eta gizon horrek emon ei zuen parte eta familiak hartu be bai diruon gozamina eta zati bat hamarrenak eta limosnatan emon seguru, eleizeari. Handik gehiago ez ei zen ikusi arima hori, zeruak hartuko zuen!



Sarri be sarri euki dot kebranta-aitzur bat hartu eta San Justoko landea ude-landu lehenengo eta sakonduteko tentaziñoa edo intzigua.

Entzuteak daude ba hor ermita ondoko landan idi narru bete urregorri dagoela ez dakit noizik hona.

Esan dizudana letxe, ondo tenol handi eta denodu guztiaz ekingo nioke beharleku horri baina nok jakin non eta zenbateko sakonarian dagoen hori urregorri beteko idi narru hori. Eta gainera hori landa hori ermitarena da eta ez litzateke ondo egongo arakatuten ibiltea, Undurragako auzunakoak eta beste Zeberioztarrek be ez liezaioke ondo eritziko horri kontu horri, hori goitik behetik aberatsak berdin izango gara, je-je-je, eta gainera Josafat-en Landan igual kontuak argitu beharko nituzke, ez, ez, daudela bertanbera urregorriok!

Urkiola gainera mendia asko ikusten dira eta euren artean Oiz mendia, gaur egun antenaz beterik.

Nik neuk ez dakit nori be, baina baten bati entzunda daukatzat urregoria dagoela Oiz mendian.

Mendi horretako urre gorri hori, goizean eguzkiak lehenengoz jotzen duen tokian ei dago edo ikusten ei da, brillu eta guztia botaten ei du eguzkia jagitenean.

Egun eguzkitsu baten hara joateko ganeak be emoten dit ia egia den jakiteko baina beste alde batetik, honezkero urre gorriok altzaturik egongo dira, guk asko dakigulakotan gaude baina lehenagokoak be gu besteko edo zuhurragoak genituen gaur besteko adelantuak euki ez arren.

Urregorriaren kontuak asko daude. Zuk jakin be igual egingo duzu, zerean, hor etxe bat egiten denean eta lehenengo harria imini, usadioa egoten zen azpian izentazino bat iminteko. Batzuetan surteko ikatza iminten zen, beste batzuetan teila kasku bat be bai eta modukoa izanez gero dirua, batzuk urregorria, hamaseiko gorri bat edo ehun erleko gorria, beste batzuk urre zuria be bai.

Hor Ermitabarriko eskola egin zenean be, nok ez dakit, baina zimentupean hogerelekoren bat ei dago.

Eta, etxe berriren bat egiteko harritan joaten ginenean etxe-erreren batera eta zimentu harriak arakatu, inoiz agertu zaizkigu holangoak, Kareagan be topadu genuen bat, hamaseiko gorri bat. Zuk zeuk be ez zenuen topadu ba ehun erleko gorri bat han Zabaleko etxe ostean?

— Bai, egia da, eta Zábalek (Pedro Zabalekoak) esan be egin zidan: “pozik egoteko hago, hainbat eguneko soldata irabazi duk eta”. (Hitzok neu-reak dira eta Pedro Zábalek urregorrizkoa zela jakiteko ehun erleko gorria eskatu eta haginekin marka bat egitea lortu zuenean esan zidan: “urregorrizkoa duk, ez zegok dudarik”).

Gero ba zera, gaur ermitetara eta dirua botaten da limosna egiteko baina lehenago be, nik hori zaharrei eta entzunda daukatziet kuebatara be botaten ei zela dirua zertako hartako, Anbotoko Señorea edo horientzat izango zen igual, horixe ez dakitzut, horiek, kontuak be igual izango dira eta, nok jakin!

Gaur egunean hamaseiko eta ehun erleko gorriak ezkontza egunean arra moduan be eroaten ditu batek baino gehiagok, dituenak jakina, edozeinek euki be ez dauzka, edo eukita be, eroan be ez, zein galdu. Lehenago be zezergatik gordeko ziren ondo horma zuloetan, ez deritzazu?

Hau kontu hau urli lekutako fraideren bati entzuna ei da seguru. Ez dakit ondo esango dudan ala ez dudan, hauek eleizastikuok asko dakite eta.

Ba baten, hor ei zebilen baten bat bere bizitzako kurtzea astunegia dela eta kanbiatu gurean.

Joan ei zen zerura eta han San Pedrori edo ez dakit ba nori kexaz beteko txera bat eginez esan ei zion:

— Nik neuk ezin nezake gehiago eta hau kurtze hau kanbiatuko baze-nit?

— Ba, aditu, hemen zenbat gura eta harexen beste dauzkazu eta hartu zuk zeuk gura duzuna, zuri zeuri erazen datorkizuna!


Joan ei zen kurtzerik kurtze eta batak hau bazeukan besteak hori, ez zuen gustukorik aurkituten.

Eta azken antzean han ate inguruan tentetan du bat eta: hauxe!, hauxe datorkit ondo, eroso, eta hauxe!

Eta badinotso San Pedro edo dena delako horrek:

— Ba, hori oraintxe puntuan zeuk utzi duzuna da!

Eta atzera etorri ei zen lehengo bere kurtzearekin. Zer den konformida-de txikikoa izatea e? Badino esakereak be, “auzoko behiak beti esne gehia-go”, baina norbera be aintzakotzat hartzen jakin egin behar da, ezta baietz?



Lehengo ipuinaren antzekoa beste bat be badakit. Ez dakit nori be entzunda baina baten seguru, baeragoion emendatu ezineko kamiñeru lepozuriren batek harri apurtan kamiñoa zabaltako. Ziri-porrea ona zeukan baina haitza gogor plantetan zitzaion, eta eguzkia bero, kanikulea. Eta ba halangoren baten badino:

— Zenbat baino gurago nitek oraintxe eguzkia izatea!

Eta ba, berak be ez dakiela eguzki egin ei zen. Eta pozik baino pozago zebilen, baina, handik lasterrera hodei laino batzuk plantatu zitzaizkion azpian eta ezer ikusi ezin, eta koño!, badino berekitan:

— Nor izan liteken oraintxe hodei lainoa!

Eta, laino egin ei zen, eta pozik, hobe ez. Baina gero atera zuen haizeta bat, haize indartsua eta lainook nondik gura eta handixek eroaten zituen haize horrek, eta badino oraingoan:

— Zer? Eta ba haizea izan gura nitek!

Eta ba haize bihurtu zen, baina lainook astindu zituenean mendiak egiten zion aurre, eta ezin mobidu inondik be mendiok, eta:

— Ahoko ogia baino gurago diat oraintxe mendia izatea, ez al nauk izango? —esan ei zuen-eskari larrean zebilela jakitun zegoelarik.

Eta ba mendia, haitzezko mendia bolbidu ei zen. Eta, hatara, pozik baino pozago zegoala, behatz puntetan kaskazuak barruntetan ei zituen eta gero baino be min handiagoa emoten zioten. Eta adituten du behatzetara, eta hara hor koño non ikusten duen kamiñeru merro bat ziri-porraz haitza apurtan kamiñoa zabaltako! Eta hatara badino:

— Zenbat gustatuko liatak berrien berriz kamiñeru izatea!

Eta ba kamiñeru bihurtu zen berriro. Hauek, kontuak izango dira, baina konformidaderik ez daukana, nekez biziko da pozik.

THE GREAT WALL OF CHINA
BY JESSE W. WATSON



Guk beti euki dugu entzutea gauean eleizportikuari hiru buelta emonez gero ortu santuan argiak ikusten direla.

Egon be egon egiten ziren fanfarroiak postura hori egin guran baina buelta bi emon eta irugarrena emon akabatu orduko uleak be arteztuta atzera egiten zuten.

Ortu santuarekin kontuz! Ortu santuak errespeto handia emoten du, gauean ezeze egun argiz be bai.

Orain ba ei dakite horiek argiok zer diren baina lehenago eskolarik be ez zekiten eta dena zen bildurra, gauetan en partikular.

Gaur, jakitetik aparte, eleizingurua argi ederrekin dago eta ganera oraingo gazteek ez daukate holango kopletarako astirik, orain kotxeok hartuta hor dabilta mundurik aramaio egunak eta gauak dauzkan ordu guztietan, eta eleizportikuak ez ditu ez azpian harrapatuko domeketan be. Gaurko gazteria beste portikupe batzutatik dabilkigu eta denporak agertuko du edurra mendian!

Hau Zeberioiko parrokia hau antzinakoa dugu eta nik neuk entzunda daukadanez, arazoak gertatu ei ziren egikeran.

Zeberioztarrak hasi ziren eleiza naguzi hau egiten, handia da izan begero!, eta zelango elezportikua, erreka-harri biribilekin eginda, eta esaten ibili natzaizun lez, ba, egunez egiten zituzten beharrak, gauez, batenbatzuek lekuz aldatuten zizkioten.

Horrela ibili ei ziren luzaroan eta ezin zuten gauza onik egin. Jentilen susmoa zeukaten, jakina, haiek ez zutelako eleizarik nahi.

Luzaroan ibili eta gero trebitu horretan, ebatzi bat hartu zuten Zeberioztarrek, zein?, eta gauean batenbatek sorots egitea, ia nor edo nortzuk diren jakiteko gauetako zerok.

Gaua heldu zenean, jentilak agertu ziren eleizako obrara eta egunez egineko guztia apurtu eta eta beste leku batera eroaten hasi.

Sorosten zegoenaren lehiopetik pasatu zirenean jentilok, konturatu egin ziren eta maldizioa bota zioten esanez: “horri sorots egiten dagoen horri lehioa itxiko balitzaio”.

Eta hurrengo egunean, ha sorosten zegoena begi bat galduta agertu zen, tuerto, eta haiexek jentilak izango ziren, nor osterantzean?

Zeberioztarrek hori ikusi zutenean, argudioz, kurutze bat jarri zuten eleiza berria egiten zeuden tokian eta horrelaxe lortu zuten gauezko jentilok uxatzea.

Orain hor dago Santo Tomas de Olabarrieta deritzon eleiza nagusia. Ederra zer da eleiza hori! Ganeko elezportikua! Gaur kenduta dago baina oraintzurarte abadetxea be bazeukan portikuaren gainean hegoaldeko hormari deusala. Berba baten esanda, esbelteza handiko eleiza, gutxilakoa!

San Juanetan?, Jesus, Maria eta Jose!, inon diren kontuak egiten genituen egun sentia edo arrikanpaiak entzuten genituenetik eta aurrera, oilarrak be hortxe tertzio horretan jotzen zuen.

Ba, zera, gura baduzu, goizerik zer egiten genuen esaten hasiko natzazu, nik neuk egiten nuena e, ze beste batzuk keto antzak be baziren eta ez zuten hainbeste atzeraurrera egiten.

Ni neu, San Juan egunean, goizean goizetik jagi eta goizeko inontzean ortozik joaten nintzen solorik solo era guztietako bedarrak eta arbola-klase guztien erramatxuak batzen eta bakoitzari, hartuaz-hartuaz, pater noster bat errezetan.

Zertarako egiten nuen, zertu, batu eta erreztatu? Ba, zera, hasteko, hori ortozik ibiltea zeragaitik izaten zen? Ba, urtean zehar osasun ona eukiteko. Hankak bustiz gero ez ei da katarrorik eta eukiten, je-je-je! igual egia be izango zaizu hori e? Eta hori bakarririk ez, entzutea daukat goizeko inontzean, San Juan goizeko inontzean biluzik kikiribuelta batzuk emon ezketino bedar artean, ez ei da gaixorik eta eukiten urte guztian! je-je-je!, nik neuk ez dut egin hori inoiz, zein auzokoren batek ikusi, baina, ortozik ibili bai.

Eta hori errezatearena, ba, begiratu, bedar batzuk osasunerako izaten dira, batzuk personen gaixorako eta beste batzuk animalien gaixorako, eta beste batzuk esate baterako hemen daukazu hementxe etxe ostean sube-bedarrak, hauekin eta pater noster batekin ez dizu subeak ausikirik egiten. Ni baten hor Kerixetako muna bazterrean nengoen igitaiarekin albizbedarra ebagiten eta ikusi be ez dut ondo egiten, eta halangoren baten eskuan bedar artean zeozer mobitan barruntatu nuen. Adituten diot hobeto eta subea, eta ez zidanez ausikirik egin jaurtin egin nuen sube hori.

Eta ba esan dizudan letxe, ba bedarrokin ganaduen gaixoak gobernetan genituen, eta bedarrok erabili, ba, ez dakit ba, lasiertuna edo errapea gogortuten zitzaierako, apatxartekoa osatuteko, enpatxurako, txala galdu ordu-

rako, esne-zabaldurako, gastelusearrerako, (hau gaixo hau da, ba ganaduen samea edo iduna eta inguruak narru bizian edo ule barik lotutea), sulderak dauzkatenerako, edo aho-bizarrekin daudenerako, eta holango kontuetarako. Gaur, indizinoak eta daude baina lehenago geuk egiten genuen dena genekien apurrarekin.

Personen gaixoetarako be balio zuten baina beste erremedio batzuk be bazeuden. San Juan bedarretatik aparte, ba, esate baterako, samako minerako sedazko zapi baten arto-urun beroa iminten zen lehenengo talaburdinan berotuta. Gero saman imini bero eukiteko. Katarrorako asun friegak emoten ziren lepoan, ozpelak eta hatzamar kiputuak, ba, ur bero, gatz eta berakatzarekin igurdi egin behar izaten ziren. Zaintiratueta berriz errezu eta sorginkerietarainokoak egiten ziren, eta holango kontuak.

Bueno, segitu egin beharko diogu lehengoari ezta? Ba gero, egunez, San Juan-haritza iminten da, en jeneral, balkoietan edo bentanako antepetxuan. Lehenago haritza iminten zen baina gaur leizarra iminten da. Kurtze bat egiten zaio eta gero ba galburu eta lore txorta bat be imini.

Nik badaukat entzutea, nori ezin nezake esan baina, lehenago errekadu egiteko be erabilten zela San Juan-haritza. Kasurako, batek urli neskatxia, propiedadekoa en jeneral, ezkontako gura zuenean, mutilaren etxeokoe seguru, neskatoren etxean iminten ei zuten San Juan-haritza, eta kontestazinoa baiezkoa zenean, neskearen etxeokoe mutilarenean iminten ei zuten baina San Pedro egunean.

Eta gero ba gauiluntzean egiten ziren konturik handienak. Hor abemariak jo eta lastertxura, hartzen genituen galtzupolla garanduak, eta gero puntan sua emon eta zuzia izaten zen eta horiekin joaten ginean solorik solo kantetan, zu zeu be akordaduko zara, mutikoak be joaten zineten eta. Eta kantatu ba, zera, hauxe:

“San Juan bagilean
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
subeak eta sapoak erre
San Juan bezpera gaua!”

Eta soloak guztiak inguratuten gendituenean, etorri hona, Undurrako etxe bitartera eta sugarrak egiten genituen.

Horretarako, ba lehenagotik eukiten genituen sasiak eta otak eta ebakita. Gutxi baziren errama siku eta abarrak eta ekarten genituen inguruko baso edo beresietatik. Hor, sabi zaharreko bolalekuan be sasi gura dena egoten zen.

Gero ba sua izitukeran, guk, jakingo duzu, nik neuk aurreko urtean batu-ko San Juan bedar sikuen sobrekin emoten genion sua sasi eta egur moltzolari.



JESSE-95

Egun horretan umorea ona egoten zen, umeen artean batezbe. Eta orain azkenantzean ez dugu egiten izan baina lehenago, usadioa zegoenez, holan bedar txarrak eta galtzeko, San Juanugarretara botaz gero bedar txarrok ez ei ziren hazten berriro, baina ezin ziren bota edozein modutara, biluzik egin behar izaten zen, eta ba, badakizu, nor atomatu biluzik jente aurrean ori egiten? Baina beti egoten ziren gazteren batzuk, badakizu, zoro oraindino bai, eta holango batzuk ibiltzen zitzaizkigun biluzik solorik solo bedar txarrok tope-tan eta sugarretara botaten. Genteak, pentsatu ezazu, errementatu ez beste-ko barre-karkaxadak egiten zituen fetxoriok ikusita.

Gero su hori edo sugarrok amatatuaz-amatatuaz zetoztenean saltuak eta egiten ziren, batez be gazteak, eta bat baiño gehiago txingar artera be jausi, baina tira, ez zen ezer pasetan.

Gero ba tertzio bateraz gero denok etxera. Eta hurrengo goizean oraindino sua guztiz amatatu barik egoten zen eta guztiz amatatu orduan haiek hautsak edo iduriak soloetara eroaten genituen koxitza onak logretako.

Eta hoiekin kontuokin, ba, parte txarrekoak be uxatu egiten ei ziren seguru, horiek jentil, sorgin eta holangoak.

Hauxe duzu, ba, dakitzudan guztia San Juanen gainean. Jaiak be politak ospatuten dira hemen Zeberioan, kofradi eta guztiak!

Behin baten, Iruartze (Iruarriza) Adaro ondoan (Orozkon) Juaniko Etxebarriak, horrek gaur 140 urte euko zituen, (1979an) Gorbeia inguruan des-lai aurkitutako otsokuma bat zeukan etxean hazten eta baten Gorbeiara ziho-ala otso horrekin, han Berretineko senda baten, Gorbeiako Arraba partean, beste otso bat etorri zitzaion seguru, eta otso biak burrukan hasi, otsoak otso-kirik jan ez duela egiten baina.

Orduan Juanikok erazen zeukan pago batera igon eta otsoak burrukan zebiltzan bitartean, saltu endemoniño bat egin eta eskapadu egin ei zuen zelan beist.

Eta handik urrun barik ei dago iturri bat, Oztagarai izenekoa eta hori ei da Gorbeiako iturririk altuena. Behin haraz gero, ezarri eta ur trago bat egin zuen Juanikok, Bizkaiko iturririk gorengoenean, otsook alkar jan beharrean utzi zituela.

Otsoak lehenago asko egoten ziren eta gose izaten zirenean etxeetarai-no etorten zitzaizkigun eta batzutan ezin genuen gauza onik egin eurokin.

Horregatik, hauek gizon gazteloak edo sasoiko mutilak, hartu euren esko-peta edo zepoak eta otso zein azagaritan ibiltzen ziren eta baten bat harrapa-tu edo hilez gero, estu lau hankok eta palu batetik eskegita ekarten zuten etxerik etxe erakusten, eta batean bestean zeozer emoten zieten eskura pizti mantzinok koiu alde.

Orain aspalditxoan ez da egiten baina lehenago inoiz otso-heiza be egin izan da Gorbeia inguruetan.

Gizon kuadrillak alkar hartzen zuten hasi Zeanuritik eta hortik Orozko eta Baranbiorarteñoakoak. Batzuk otsoak uxatu goietarantz eta kazariak, han, Gorbeian egoten ziren itxaroten, otsoak noiz etorriko, otso-heiza edo kaza egi-teko. Eta, seguru, han jausten ei ziren otsook plasta-plasta!, egin behar!, ze ezpabere ezin genuen gauza onik egin. Batetik otsoak, bestetik azagariak eta deskuidatuz gero azkunarrak be etorri eta kositza guztiak alperrik galtzen ziz-

kiguten. Zertan esanik be ez basabei edo zaldi eta beorak. Mandoak be bai, jakina, orain mandazainik be ez dago. Basaurdak berriz, etxe-etxeraino etortzen zaizkigu. Hortxe dauzkagu oraintxe be errastuak, zoaz ia!, ikusiko duzu zenbat basaurda-bide eginda dagoen gure soloetan!

Antxina esaten zuten Urduñako tren bidea egin zenean galdu zirela otsoak, ezin ei zuten eta pasatu trenbidea seguru, baina, demonintra!, ez dira galdu ez, eta ez zaizkie ez etxera-bideak ahaztu! Lehengo egun baten telebisinoan ikusi dut gizon bat otsoekin olgetan eta eurekatik ondo berba egiten, ba, hemen ikusi gura nuke hori gizon hori holango fetxoriaren bat egiten digutenean! Errekoño! Zuk zeuk zer deritzazu?

Gizon bati, bigarren ezkontzako andreak antzuak urten zion eta andre hori ez zen ondo konponduten gizonaren lehenengo ezkontzako lau semeekin.

Beharren hasteko tertzioa allegatu zitzaizenean aita horrek, ondo beharrian, esan zien ba ze:

— Ia ba mutilak, orain arte mantenitu zaituztet eta orain ofizioen bat edo beste ikasi beharko didazue zuon zeuon buruen jabe izaten ikasi diezadazuten bihar etzi baterako eta zoazte nondik gura zeozer ikasten.

Eta ba mutilok, bakearren, aitak be euren ama-ordearekin bizi behar zuela eta, ba, joan ziren harenbatetik.

Joan eta joan, burpidea akabatu eta lau mandabide topadu zituzten aurrez aur eta zaharrenak esan ei zien besteei ba ze:

— Bueno, bakoitzak bide bana hartuko diagu eta urte bete barru honaxe bolbitu eta hementxe ikusiko diagu alkar, ondo deritzazue?

Baietz erantzun zioten eta atzera begiratu be egin barik hartu ei zuten aurrera bidea bizimodua aterateko.

Urtea emon zutenean juntatu ziren berriro esaneko lekuan eta laurak joan ziren aitagana, eta aitak:

— Zer? Badakastazute ofiziorik ala zer?

Orduan, batak esan zion josten ikasi duela, bestea, astronomo, hurrengoak, kazari, eta azkenengoak lapur.

Aitak egin ei zuen bere artean: “Hauek laurok oraintxe probaduko dizkiat”, eta esan zien semeoi:

— Erduzie neurekin horra beresira, eta hortxe egingo dugu proba, ia zer ofizio edo zer ikasi didazuen.

Astronomo ikasi zuenari deitu zion eta:

— Hi, hor haritz garraztako goirengo urkoitzean, urkuluan, belearen habia zeukat begiztatuta eta begira ezak ia zenbat arrauntza dizkian.

Beste horrek hartzen ditu begietako tramankulook, katalejuok eta badinotso bere aitari:

— Aita, lau arrauntza dauzka.

— Bai, egia duk!

Gero lapur ikasi zuenari badinotso:

— Igon ezak eta ia belea habiatik altzatu barik arrauntzok ostuteko kapaz haizen!

Igon zuen eta belearen uskaiko lumapetatik sartu eskua eta ostu zizkion arrauntzok eta aitari eroan.

Aitak orduan kazari ikasi zuenari esan ei zion:

— Ekar itzak lau arrauntzok eta arra betean zabal iminiko dizkiat zoruan eta tiro batekin apurtu behar dizkidak!

Imini zituen eta daunba!, lau arrauntzak sats, mintz eta guzti, gorringo eta zuringo txirripistadaz beterik.

Gero josten ikasi zuenari esan zion:

— Orain jos itzak arrauntzok!

Eta beste horrek josi egin ei zituen seguru, bueno, hauek kontuak izango dira ezta?

Eta ba gero lapur ikasi zuenak berrien berriz utzi zizkion arrauntzok beleari arean be ikaratu barik.

Aita pozik zegoen eta handik denporakarrenean, entzutea daukat, ba hor huri nagusiren baten erregearen alabaren bat ostu zuelazkoa dragoiren batek eta orduan aitak lau semeok ofrezitu zizkiotela erregeari eta logratu zutela alaba hori ekartea eta gehiago ez ei zuten arean be goserik pasatu. Je, je, je! Arean zentzunik daukanak ezin litzake hauek kontuok sinestu, konteteak ez dauka kalterik, umeei zeozerekin denpora emon erazo behar zaie eta.

Lanpreabeko errotan beti egon da lamiñen entzutea eta kontadu be zenbat gura eta harexenbeste kontatu be egin da gure gogaldian.

Gure etxea etxaguntzakoia izan zaizu beti eta errota beharretatik aparte, ganadu asko eta labrantza be handia eukiten genuen. Ganadua kortakada eta gainetikoak mendian, ardiak eta batez be ahuntzak.

Lamiñokin hasteko, gure zaharrak esan beistike, hemen Lanpreabeko errotan, bakean be es ei zieten uzten lamiñak beti esnea eske, batez be astelehenetan. Eta, ba, emon egin behar, ezpabere zelango tabarra!

Egun baten, domeka ei zen izan be, Lanpreabeko errotako etxaguna, ahuntzetara joan ei zen goizean goizetik, barausia gerorako utzita. Solorik solo zijoan, bidebatez, bezperan laiatu eta zotatuko solo arloari adi.

Sartu zen isasi edo beresira eta ezin ei zituen ahuntzok pillatu, eta handik buelta hortik buelta belu egin zitzaion.


Eleizako mezarako lehenengo kanpaia entzun zuenean, ahuntzak bertanbera utzita etxera etorri ei zen barauskarri apur bat eta esnea edan orduan, prestatu eta meza nagusira joateko.

Baeragoion barausten esnea maskeluan egosten zeukan bitartean, eta jantzi be egin zen antza, frantzezillazko fraka plantxatu eta guzti, baina eleizako bigarren kanpaia entzun orduan larritu egin zen eta birritan pentsatu be egin barik, hartu maskelutik burduntzalakada batzuk esne eta estegorri, bioztura eta ametsorirainoko guztiak erre eginik mobitu zen eleizarantz.

Bidean dijoala, belu allegetako ardura ezeze, urdailako esne irakinak be ez ei zion onik egin.

Mezara sartu zen baina aurrekorik be ezin ei zuen ikusten urdailako min erre eta tripalakaz.

Meza ostean, inogaz egoteko asti barik, etxera zetorren, harantzean baino alosotxoago eta bidean pentsetan ei zuen:



— Oño! Or gabiltzak horiek lamiñok uxatu ezinda, ba nik neuk gorriak ikusi badizkiat eurei be beste hainbeste eginez gero, santo erremedio!, kendo zaizkiek esnea edateko intziguok, esne zaleak badituk be.

Etxera allegadu zenean, kontadu ei zien zer pasatu zitzaion eta domeketao erropok kentzeko asti barik badinotsie seguru:

— E! astelehenean, edo ilenean, Zeberio eta Orozkon esaten dutenez, horiek lamiñok datozkigunean, esan egin behar diegu: “badago esnea, gura dena, zenbat gura eta harexen beste”, eta maskeluko esne irakina emon tri-pak guztiak erretako, ez zaizkigu berriro etorriko, ikusiko duzue!

Esan eta egin. Badatoz lamiñok ilen edo astelehen goizean, hartzen dituzte zurrupada batzuk esne irakin eta ene! hango grillistu, magalots eta galapada!

Holantxe galdu ei ziren betiko lamiñok. Esne irakina edan orduan, batzuk pagartetik beste batzuk lizar artetik, lamiña denak ostendu ei ziren Lanpreabeko errota osteko hazbitarteetako estarietan, eta gehiago ez ei ziren atomatu etorten.

Holan izango zitzaizun, ze ni neu bertakoa natzaizu eta nire gogoaldian ez dut ikusi lamiñarik gure errotan.

Denak dira entzuteak, lehenagokoek antza, sinestu egiten ei zuten holangoetan. Zer egingo diogu ba, gaur ez dago lehengorik, graziak!

Lehenago Uriondon goruetan asko egiten genuen, linoarekin linatzak egoten zirenean zein lanearekin, ardiak nahinon egoten ziren eta.

Lantzean etxe baten juntetan ginen kandelargi batekin auzonako guztiok iruteko lana-linook.

Eta hantxe entzunda daukat, zelan baten, katu beltz demonintru bat gainetuten ei zitzaion andraren bati supazterrera gauetan goruetan eragoiola.

Eta ba andre horrek bere gizonari esan ei zion zer pasetan zitzaion eta gizonak esan ei zion ba ze:

— Gaur gauean gura baduna neu lotuko nauna goruetan!

Eta ba atan lotu ziren Gizon horrek zelan beist baeragoion goruetari eta halangoren baten non agertuten zaion hankartetik buztana gora duela katu beltz bat eta esan:

— Ene!, gizona eta goruetan?

— Katua eta berbaz! —erantzun gizonak.

Eta orduan gizon horrek surten berotuten zeukan burruntzia hartu eta didau! emon zizkion narruko batzuk eta gero trebera gainetik zartena hartu eta barruko koipe irakina bota buruti behera.

Gatu beltz horrek egaz egin ez bazuen gutxiagorik ez zuen egin tximiania zulotik gora laratzua arandelotsean utzita.

Eta esaten dute, hurrengo egunean auzoko ez dakit nor be mandaituta eta aurpegia erreta agertu zela, nondik eta zelan berak be ez zekiela.



Baten, Kastrejanako neskato bat Bilboko jaietara joan ei zen eta gustura ibili be antza erromerian bere lagunabarrekin.

Orduak aurrera zihoazkion eta gesu baten ilundu egin behar, eta, lagunok bertanbera utziz abantean mobitu ei zen Kastrejanako aldatza gora orpoetan har barik, begiak bota beharrean eta bularrestuarekin arnasa hartu ezin duela.

Etxe aintzineran allegatu zenean gogor baino gogorrago hartu zuen aitak eta mihian har barik badinotso:

— Zer tertzio duna hau etxera etorteko, ez dinat argi esan hortik zear zeinakio egon beharrean abemariak jo aurretik etxera etorri eta iturriko ura ekarteko? Ba orain, hartu ezana jarroa eta joan hadi agudo iturriko uretan egarriz tximeltan gaudek etxeko guztiok eta!, gainera ondo irakutzi ezana jarroa, honezkero egurdiko ur egondurekin sumikea eta ugeldarrirainoko guztiak eginda eukiko dizkina eta!

Neskatxi horrek ez ei zuen txitik be atera eta zuzi baten hartu ei zuen iturrira bidea guztiz gautu orduko egiteko iturriko haronako hori.

Iturria urruntxo zeukan eta gainera erreka bestalde. Gaua gainera gainetu behar zitzaion eta, estukuraren estukuraz badino berekitan: “Oraintxe ez zaidak etorriko parte txarrekoren bat hemetixek horraxa, iturrira, zubi bat egiteko?” Askok balekik zenbat baino gurago nikan horixe! Demonintra!

Esan zuena esan bazuen ba ze, ez zaio agertuten bere magal petralaren ondoan endemoniñozko kaballero bat eta esan:

— Zer gura didana ba neskato?

— Zer gurako diat ba, zubia!

— Ba, zubia gura baduna hik heuk heure arima emon behar didana zubia egin akabatuz batera!

— Ba, bai, eutsi arima hau nor zaren beist!

Esan egin zituen horiek berbok baina akordatzakoan agertuten zaizkio infernuko prakagorri guztiok eta berbaturainoko guztiak etorri zitzaizkion neskato horri. Kontuak atera ha zer izango zen, deabru koxoren batek, koxoa izateagaitik, beste guztien erramientak eta nik ez dakit zenbat kintaleko harria eroaten zuen be.

Ha bai zela ikustea, denak eragoioen beharren, batzuk harritan, beste batzuk harrilanduten eta deabru kaballeroa zaldi gagnetik agintan. Esaten dute, harriak Gorbeiatik, Dimatxetatik (Dimako haitzetatik) eta hortik zeretik, Oiztik ekarten zituztela.

Neskatoa, arteak be ezin zuen hartu eta belea beltzago ez dela egingo pentsatuta, jaurtin jarro hori, utzi bertanbera prakagorriok eta karran joan ei zen herriko abadeagana eta esan:

— Jauna, jauna!, zabaldu beist atea, arin, berorrek baleki nondik eta zertan natorkion! Ai, amatxua! Hau da biozturako mina! Hau bai dela edan bako hordia! Durduidua sekula inor ez da egon izango!, ai enetxua!, zer behar didan baino ez duk horrek deabru mantzin horrek!

Eta abadeak esan ei zion gora-goratan:

— Baina, baina, zer jaungoiko egin didazu ba alabatxo errukarria fetura horretan etorteko? Aitearen eta semearen...! Zek emon dizun baino ez da hori afruntu hori!

— Ba, jauna, hauxe eta hauxe, eta honantxek eta honantxek deabruari arima ez diot ba ofresitu!, eta, berorregana nator zein arima galdu. Beitsoz nire pekatuok eta parkatu beistaz!

— Hori egingo zenuen ba alabatxoa, zuk egin duzu egitekoa, ez dakizu ba nire bedeinkazinoarekin be nahikoa ez dena!

— Zer egin behar dut ba orduan nire neure arima betirako galdu ez egiteko?

— Ba, hara, martian oilarrarekin ibilitako oiloaren arrauntzatik martioilar batek jaio behar du eta zubi hori egin akabatu baino lehenago kukurruku gedarrez hasten ez bada zure arimarenak egin du! Pedro boteroren galdaran zaude esanekoa egiten ez badidazu.

Abadeak, eleizako kanpantorreko kanpaiots guztiak gutxi zituen, eta Kastrejana inguruko guztiak batu ei ziren oilar hori topetako. Denodu gutziarekin eragoioen eragon be adinon egoteko asti barik, baina, eginena lan-goia emoten zien emon be hak beharlekuak.

Gaua aurrera zihoakien baina marti oilar hori ezin topatu eta bienbitartean deabruak bazebiltzan zubiginen eta azken antzean ibili be, tenolik ez zitzaien falta ez!

Deabru kaballeroak, adikuna bat zubiari eta beste bat inguruko oilategiari egiten ei zien seguru, eta, luze eritzita zegoana lez, inizitua bera baino zolia-go joan ei zen bera be berenberegi harritan Oiz mendira, hor zerean, Durango aldean egon behar du horrek mendi horrek, eta horra seguru, nik hori gure zaharrei entzunda, badakizu.

Abadeari be orduak luze egiten zitzaizkion arrikanpaietarazkero deabruak podererik ez zeukatela bazekien eta, ze zuk jakingo didazu horiek egunez podererik ez daukatena.

Beste guztiei ostera arinegi zihoakien gaua marti-oilar hori topatu guran topatu guraz.

Ibili eta ibili, halangoren baten ez dute topetan marti-oilar hori eta galtzu zuziak sutan iminita kukurruku egin erazo!

Neskatoak, deabruak katigatutako arima berrien berriz logratu ei zuen eta, aditu gauzak zelan diren e, deabruak berak ei zekarren zubirako azkenengo harria, baina marti-oilar horren kukurrukua entzukan, hor, Oiz ondoko bazterren baten bota ei zuen harri endemoniño hori eta erneguaren erneguaz emon zion eskukazuaz bere arrabeteko hatzamar marka eta guzti utzi ei zuen seguru. Hak emongo zioan emoteko zaplada!

Horrexegaitik esaten dute Kastrejanako zubia harri baten faltan lotu zitzaigula. Aikorzan ba Kastrejanako zubi horren gorabeherok! Egia ala guzurrara? Batek bazekik!

Neskaren bat ei zegoen galanta seguru, eta askok egiten ei zion errekadu ezkontako, baina berak antza ez zuen topetan beretzako lagunabarrik.

Eta, badakizu, holan dabilenari be denpora joan egiten zaio eta neskato galant horri be urteak aurrera zihoazkion.

Eta, jakina, neskatxi horri be zera pasetan zitzaion, oinezkorik gura ez eta zaldizkorik etorri ez, eta halangoren baten bere burua udagoieneko lorea lez ikusten zuenean esaten ei zion berekitan bere buruari:

— Oraintxe baten batek txiterdi egingo balit ezkontako laster eginazoko nioke etxe-ikusia eta neuk be bere etxerako haronakoa!

Itxaron eta itxaron, udagoieneko lorearentzat be beti egoten da baten bat eta agertu zitzaion zelango halango gizonetzko bat eta birritan pentsatu barik ezkontako plantadu zen, egon be irakiten zegoen eta ezkontako, zergaitik ze bere lagunak ume kaskonduekin ikusten zituen eta ezin bere burua neska-zahar ikusi.

Neskazahar izaterainoko estukurak aldea batera utziz, ezkondu zen, eta itxaron eta itxaron be, etxaguntzara ezkondu zen. Kostatu zitzaion ez gutxi mendia hartzen baina tira, hezizaldi horrek balio izan zion.

Egun baten, domeka arrastiz, beresi batera joan ziren andra-gizonok baina-parratan soloan iminteko.

Jarri ziren han beresi goienean eta kontualdia kontatu orduan, badinotso gizonak andreari erdi burlazar erdi benetan:

— Hi, pentsatu sarri egin diat baina esan ez dinat oraindino inoiz egin, hi hain ederra eta galanta izanda zergaitino ezkondu haiz ba nirekin, zergaitino hau akordatzako ezkontze hau?

— Hago ixilik eta joan hadi beresi barrura eta zuzendu itzak ahalik eta baina-parrarik artezenak!

Joan zitzaion ba gizon hori eta beresia behera joan ahala, errezkan aurkituten ei zituen baina-parra artezak eta adapo bakoak, baina haragoan hobeak egongo direlakoan onak itxi eta hobeak topetan zebilen beresi guztitik zehar.

Larra be txarra izaten ei da eta gizon horri be egur okerrak geroago eta ugariago agertuten ei zitzaizkion eta lehen goragoan txartzat utziak zetorzkion gogora, eta halangoren baten gorantz aditu eta eupada bat egin ei zion andreari eta esan:

— Hi, balio dik berriro gora joan eta horiek goiko palu artezok hartzeak?

— Horrek balio izan balik ez nintzuan hirekin ezkonduko! —erantzun ei zion andre galant horrek.

Baina, konformidadea gauza handia dela eta, aurrera egin ei zuten andragizonok eta seme-alaba ederrak hazi.

Udagoiena zen eta egun baten ganaduentzako jatekoginen joan zitzaigun auzuneko etxagun zaharra.

Solorantzean, sagar, madari, ortuari eta gaisetiko guztiei begira zihoan ahoan txua eginda. Ikopera heldu zenean, iko putxa-putxa batzuk be jan zituen eta artadaira bideari ekin zion.

Artadaira heldu zenean, ezarri egin zen zigarro bat egiten han bide ertze-ko haritz garraztaren eperdirik harako trongoari eutsala.

Ziogarroa erreaz-erreaz, berak ereineko kalabaza hazitik sortuko aihen luzetik jaio zen kalabazatzarra ikustean, badinotso bere buruari:

— Gauzak ez zeudek ondo eginda. Hain aihen mehetik hain kalabaza handia eta honek haritz garrazta honek hain ezkur txikiak!

Buruari lor hori emoten eragoiola, zer?, eta ezkur bat jausi eta buru-buruan jo zuen ha etxaguna.

Lehenengotan ez zion hainbeste inportantzia emon baina jatekogintza aurrera eroiala zer?, eta badinotso berrien berriz bere buruari:

— Oker egon nauk, gauzak bere lekuan zeudek eta beudela egon be. Deskuidu santuan ezkurra egon den lekuan kalabazatzar hau egon balitzok, nireak egin zian!

Anbotoko Señorea, inok be ez dakigu zelan fundatu zen. Nik neuk maldizino batetik fundatu zelazkoa daukat entzunda.

Behin baten, ama-alaba bi bizi ei ziren baserriren baten eta ama fina eta behargina zen bitartean, alaba alperretik be pasatua. Beti ei zegoen buruko uleak orraztu eta orraztu eguzkiaren ordu guztietan.

Baina egun baten, amak ezin zuen gehiago eta haserre aldi baten, odolak ur egiteko gutxiren faltan badinotso maldizinoka bere alaba alperrari:

— Ez dinat ikusi nahi nire begien bistan be eta joan hadi betiko Anbotoko koba-zulora!

Alabak, berbok entzun zituenean, zuzian eta garretan urten zuen egaz letxe eta ez zen gehiago agertu.

Zazpi urte pasatu zirenean, amari Anbotora joatea gogoratu zitzaion bere alabari sorots egiteko eta halaxe egin zuen.

Iritsi zen Anbotoko koba-zuloaren atakara eta han zegoen bere alaba Anboto Señora eginik. Bizimodu onean, jan-edanen falta barik eta pozik herritarren laguntzari esker.

Amak ha egoera ha ikustean badinotso berriro maldizioka:

— Hi hemen ondoegi bizi haiz eta joan hadi hemetik Gorbeiaiko koba-zulora beste zazpi urterako.

Su eta garretan joan zen Anbotoko Señora Gorbeiarantz eta Superlegorreko koban hazi zen biziten.

Egun gutxi barru, inguruko artzainak eta herritarrak zer gura eta haxe eroten zioten Anbotoko Señorari eta Anboton baino hobeto bizi zen.

Superlegorreko koban zegoeneko zazpi urteotan koxitza txarrak baino ez zituen hartzen bere amak eta ez zeukan bakerik. Horregatik, zazpigarren urtean, berrien berriz joatea erabaki zuen alabari maldizioka ekiteko.



Superlegorreko kobazuloa kanporik hara.

Joan zen ba ama hori Gorbealara eta bere alaba Anboton baino hobeto bizi zela ikustean badinotso:

— Hi lehen baino hobeto eta ni neu lehen baino txarrago? Ez horixe, joan hadi berriro Anbotora eta ez dinat bakean utziko.

Anbotoko Señora, garretan joan zen berriro Anbotora eta holan ei dabil batetik bestera noiz arte ez dakigula.

Udako egun bero baten, kanikula zegoen egon bere, jentilak egarriz tximeltan ei zeuden eta euretariko batek Untzetaben hanka bat eta bestea Santa Mañen imini eta Torre Landako errotako andaparako ura edateko plantatu ei zen.

Makurtu zen jentil hori, imini bere esku luzeok errotaren aldamenetan eta zurrupada ikaragarri baten utzitu egin ei zuen Torre Landako errotako andapara hori.

Begira noraino izango zen egarri, andaparako keskailu, arrankari, sapa-buru, txubelaxu eta gagnetiko guztiak bere, irentsi ei zituen eta!

Errotariak bere, estukura lakoa pasatu zuen! Errota geratu egin zitzaion ur faltan eta itxaron egin behar harik eta ubidetik zetorren urak berrien berriz andapara bete arte.

Kontuak hartu handiak norainokoak izango ziren horiek jentilok hankak hain zabal iminteko, izan bere, Untzetapikutik Santa Mañera hiru kilometro inguru daude eta!

Nire aita eta, lehenago, pagalandarak edo txirpiak bila joaten ziren Gorbeia aldera, han pagadui ederrak daude eta egon bere. Gero txirpiok beste lur batzuetan landatuten zituzten.

Txirpitarako egun baten, gautu egin zitzairen eta Gorbeia koba baten geratu behar izan zuten gaua egiten.

Gauerdian, alauri batzuk entzun zituzten eta hobeto entzuteko, edo zer den edo ez den jakiteko, jagi eta kobaren atakara arrimatu ziren eta:

— Ni bakarrriiikkkk!, alauriak entzun zituzten Anbotoko Señora garretan joaten ikusten zuten bitartean.

— Gu geu bere, hemen gaude! —erantzun zioten eurek.

Baina bildurtu egin ziren, ez gutxi, eta berriro kobara sartu zirenean, lehen zeuden baino barrurago joatea pentsatu zuten badaezpadan zein Anbotoko Señorak zeozer egin.

Bazihoazten koba barrutik kandelargi batekin, baina halakoren baten, fu!, kandela amatatu egin zitzairen haize faltan. Orduan gure aitak esan zuen:

— Geldirik denok! Ezin diagu hemendik aurrerago jo, atakarago joan eta han emongo diagu gaurko gaua letaniak errezatuz!

Halantxe egin zuten eta hurrengo goizean, hartu pago txirpiok eta etxera etorri ziren susto sartu eta guzti.

Gorbeiako Superlegor koba-zulo ondoan gizon bi egon ei ziren ikatza egosten biak bietara eta halako baten batak badinotso besteari:

— Laster gautu egin behar dik eta ezetz imini kurutze bat kobaren atakan lurrean hinkatuta!

— Baietz! —besteak.

Eta baietz esan zuenak, hartu pago barda bi, kurutze eran imini, bedarrestukin batekin estu eta koba-zuloaten ataka-atakan plantatu zuen.

Ilundu zitzaien, afari izkia egin eta etzateko daudela sorginen alauriak entzun zituzten.

Kurutzea egin zuena bildurtu egin zen eta gorputzean pipiladura eta guzti badinotso besteari:

— Hi, nortzuk dituk horiek?

— Horiek?, parte txarrekoak, sorgin banda itzela!

— Zer gura ditek ba?

— Ba, koban sartu, baina hik jarritako kurtzea ezin ditek pasatu, ez zeukatek podererik!

Orduan sasoiko ikazgin gazte horrek panparroikeriaz edo nik ez dakit ba zergatik, kanpora urten eta sorginon aurka inon direnak egin zituen.

Baina sorginok, amorratuta zeudenez, ia-ia hil eginik izan zuten ha ikazgina; eskerrak arin sartu zena kobara, kurtzearen babezpera, osterantzean hantxe egiten du bereak!

Lehenago, goruetan egiten zen gauiluntzetan, batez bere neguan, eta holango iluntze baten, zapatuz, lamina bat agertzen zitzaion enbra bati.

Lamina hori etorri bakarrik ez, koipetsu edo kakokoa eskatu be egiten zion tabarra handia emonaz.

Egun baten, enbra horrek badinotso bere gizonari:

— Zu, badakizu eta, lamina bat agertuten zaidala zapatuero koipetsu eskatuten goruetan nagoela?

— A, hori bere bai? Ba gaur gauean ni neu geratuko natzaizu goruetan zure zeure soinekoak jantzita. Ikusiko dugu ia nirekin atometan den!

Esan eta egin. Hurrengo zapatuan, beti lez, agertu zen lamina hori tximinia zulo edo arratetik eta badinotso gorulariari:

— Joan den zapaturik hona alosoko bizarra hazi zaizun! Koipetsu edo kakokoa emongo didazu?

— Hobe ez! —erantzun zion andre jantzitako gizonak.

Utzi gorueteari, hartu burduntzian kakoko apur bat, txitxiburduntzi egin eta laminari ahoan txua egiten hasi zitzaionean, plast!, jo ezpain ezpainetan burduntzi harekin eta odola dariola bota zuen etorri zen lekutik.

Hurrengo goizean, egunargiz, hango ez dakit nongo andrea agertu ei zen ezpainak, bekara eta gainetikoak mandaituta, zauri guztiak zolduta, inori aurpegia emoten atometan ez dela.

Orozko eta Zeberio bitartean dagoen Untzetabe barrenean, arto-pilo ikaragarriak ei zeuzkaten jentilek.

Samartin, gaztelo bizkor bat zen eta beti zebilen jentilokin burlazar edo tentazar. Egun baten apostu bat egin zien esanez:

- Nik baietz saltu egin zuon arto-pilo gainetik!
- Ezetz, —jentilek!

Samartinek, ordurako, oinetako nasaiak zeuzkan eta jentilok konturatu orduko abiada hartzera joan zen saltu egiteko.

Saltu eginaz batera, Samartin artagarau artera jausi zen eta han atzeraurrera batzuk egin orduan oinetako nasai, poltsiko eta kolkoa be artagarauz bete zituen jentilen karkaxada artean.

Jentilak barre gura dena egin zioten Samartini baina honek, burua makurmakur eginda baina barrutik barre santzoka laster jo zuen etxera zein jentilak konturatu eta ostutako artagarauak kendu.

Holantxe, Samartinen bidez heldu zitzaigun Euskal Herrira artoa. Ereiteko sasoiak be sustartu zuen, noiz?, eta orrien urtekeran, udaberrian. Harrezkero makina bat arto-ogi, opil talo eta morokil jan da gure artean!

Jentilak gu baino aurreratuagoak zirelazkoa daukat entzunda labrantza, egurgintza, ikazgintza zein burdingintzan.

Samartin zuhurra zen baina ezin zuen asmatu burdingintzan eta nondik sorots egingo ibiltzen zen jentilen ingurumarietatik.

Ez zen atzebiduten eurengana joaten, jakina, lehenago be artoa ostu zieten eta, zuhurtasuna erabiliz.

Baina Samartin gosea bera baino be zuhurragoa zenez, burua hausi eta burua hausi, argudio batera heldu zen; zeinetara?, eta honexetara: bere lagun bat bitarteko zuela badinotso:

— Hi, joan hadi jentilen inguruetara eta euren arrimuan hasi hadi hauxe esaten: “Samartinek burdingintzarako kaldea lortu dik”.

Joan zen lagun hori eta Samartinek agindutakoa esaten hasi be bai. Jentilek adikuna txarrez eta bekoki astunekin begiratzen zioten eta jentil olagizon adituenak badinotso:

— Area nahastu barik zelan lortuko dik ba kaldea?


Berbok entzun zituenean, orpoetan har barik joan zen ha laguna Samartini santzoka esaten:

— AREA-AREA-AREA behar duk kaldea logretako!

Holantxe egin zuten eta aurrerantzean inon diren tresnak egiten zituzten etxe, solo zein basorako!

Orozko Urigoitiko pastore bat ardietara joan zen eta Superlegorreko kobara heldu zenean, deskantsu apur bat hartuz, koba barrura sartzea pentsatu zuen.

Sartuago eta ilunago zegoen eta kandela argia amatatu zitzaionean eurt egin eta atakara etortekotan zegoenean, ene!, ikatz txondor baten ke usaina eta egurren txisporroteoa barruntatu zituen. Hurreratu egin zen eta txondor ostean zegoen jentilak badinotso:



Superlegorreko kobazulo sakona barrurik hara.

— Joan hadi hemendik, nagusia lo zegot eta; harrapatzen bahau hireak egin dik, urten ezak lehen bait lehen!

Baina pastoreak ikatza barik urre gorria zela konturatu zenean, entzun eta gor egiten zion.

Jentilak orduan badinotso ostera bere:

— Joan hadi ba, eutso urregorritzko ilenti bat eta alde ieziadak hemendik!

Pastorea pozik zihoan kobaren atakarantz baina atzerik hara berba gogor hauek entzun zituen:

— Hire etxean ez duk faltako tuerto edo errenik!

Hau kontatu dizuna hemen daukazu, baina hori ikusi duenik ez dut aurkitu nire begien aurrean, baina pastore horren etxean maldizioaren hagea beti egon zela kontatzen da. Egia den? Batek badaki!

Gorbeia inguruan Lapurzulo deritzon zulo ikaragarri bat dago eta zaharren esanetatik, hantxe bizi ei zen hemeko lapurrik famatuena.

Inok ezin zuen harrapatu lapur hori non bizi den jakin arren. Gaiztoa zen izan be eta genteak bildur handia zion.

Egun baten, familia handidun zapateru bat joan zen Gorbealara etxean zeuzkan buru-haustek ahaztu nahian. Lapurzulo-ra heldu zenean, ezarri egin zen eta bere burua hankartean sartuta negarrak emon zion.

Zapateru horren negar-irrintzei jaubetuz edo, gizon batek urten zuen Lapurzulotik eta badinotso:

— Nor haiz eta zeri daragoiok negarrez?

— Ba, hara, zapateru bat nauzu, etxea umez bete dut eta ez daukat ezer eurei jaten emoteko, zer egin be ez dakit hainbeste aho mantenitako!

Lapur famatua, inoiz ez eta orduxean errukitu egin zitzaion eta lepotik eskua botata non dinotson:

— Tirauk gizon, belea beltzago ez duk egingo eta nik neuk erakutsiko diat nire neure ofizioa, lapurretan, ni neu nauk eta hemengo lapur famatua.

Zapaterua ikaratu egin zen baina lapurraren borondatea ikusirik, hatan geratu zen negarrari utzita.

Lapurrak ostuteko era guztiak irakatsi zizkion eta euren artean zelan arrapatu gizonak eta estukin, erramal edo kordelarekin lotu.

Egun baten, lapurrak aproba bat jarri zion zapateruari esanez:

— Orain arte nik neuk egin dizkiat estuteko moropilak baina oraingoan hik heuk lotu nazak erramal batekin hor pago baten arrimuan!

Zapateruak ondo baino hobeto lotu zuen lapurra pago bati deusala eta soltatu ez egiteko moduan zeukanean badinotso:

— Harrapatu haut!

Orduan, arineketan joan zen ha zapaterua herrira, agintariei esan gertatutakoa eta halantxe gartzelaratu zuten Lapurzuloko lapur famatua.

Herriak sari eta guztiak emon zizkion zapateruari eta haren etxean ez zen harrezkero goserik ezagutu.

Orozkon lehenago abade asko egoten zen eta behar handirik bere ez zeukatenez, egun baten eurerariko bi Gorbeiaiko Superlegorrera joan ziren.

Bidea ondo ez zekitenez, artzain bat hartu zuten gidari lez eta han zihozten mendia gora sotana-magalotsean.

Heldu Superlegorrera, ikusi koba-zuloa, atsedean apur bat be hartu eta Urigoitiko bidea hartu zuten gaulendian.

Bide arloak eginik zituztenean abadetariko batek badino bere esku biak burura bota eta itzulimurdika eragoiolala:

— Ene!, brebiarioa utzi dut ba eta, ahaztuta Superlegorreko koba-zuloaren ataka-atakan!

Horretara, abadeok apur bat nekatuta be bazeudela eta, artzaina joan zen brebiarioran, ibilteak ez baitzion ikararik emoten.

Artzaina joan egin zen baina Superlegorrera heldu zenean, sai banda bat ikusi zuen kobara sartu gura eta ezinean.

Ataguzti be, hartu brebiario hori eta Urigoitirantz abiatu zen eta hori eginenez batera, sai guztiak batera sartu ei ziren Superlegorren.

Susto-sartuta heldu zen ha artzaina eta abadeei kontatu zienean ikusitakoa, eurerariko zaharenak esan zion:

— Nasai, mutil, zuk ikusi dituzun txoriak ez dira saiak, parte txarrekoak baino. Horiek ezin izan dute urten barrutik brebiarioa egon delako atakan eta eleiz edo otoitz liburu baten aurrean ez daukate podererik.

Tira, abadearen berbek nasaitu egin zuten ha artzaina, osterantzean odolak ur egiteko moduko susto-sartu horrek ez dakit gauza onik ekarriko zion!

Udabarriko egun sargori baten hodei lainoak zetozen Untzetabeko menditik eta egurdarteko goiz beranduan, dena ilundu zen itxura bildurgarria hartuz zeru guztiak.

Orduko denporetan, oraintsuago be bai, leku batzuetan, hodeia bedein-katuteko ohitura zegoen eurite edo ekaitzak afrontuarekin jo eta kalterik egin ez egiteko soloetan ereitzak gauzeztanduz.

Orozkoko Olarteko abadeak, ha ilundea ikusi zuenean, deitu sakristauari, joan eleizara, jantzi erropak, hartu otoitz liburua eta isopoa, eta eleizportalean plantatu zen bedeinkazioa botateko asmoz.

Hasi zen otoitzok egiten baina sakristaua arteak hartu ezinik zegoen prakagorri edo parte txarrekoak ikusten zituelako hodei artetik eta jakina, abadearen estolari agarratzen zion bildurraren bildurrez.

Abadeak ezin zion berbarik esan errezu-errezuan zegoelako baina hain ikusten zuen estu eta larri sakristaua, errezuetan zegoela, bota gora gorara ezkerreko hanka eta zapata jaurtin zion hodeiari eta zer?, eta hodei lainoa erdibitu egin ei zen bitargi handi bat logratuz.

Halantxe lortu zuen hak abadeak eurite edo jausterik ez sufritzea eta dena lasaitu zenean badinotso sakristauari:

— Gehiago kostatu zait zu zeu defendidutea zeinda hodeia erdibitzea!

Urtekarrenean bere, kontetan da ha abadeak jaurtineko zapata, Olartetik Gorbearantz bost kilometro ingurura dagoen Austingarbiraino heldu zela, hantxe topatu zuelako mandazain batek.

Zeberio eta Orozko bitartean dagoen Untzetapiku mendiaren magaletan, Azpurun, Jentilzulo deritzon zuloa daukagu, entzute handikoa gure zaharren esanetatik.

Egun baten, jentilek Orozkoko andre bat eroan zuten eurekin eta kuebana gordeta euki luzaroan.

Orozkoarrek ahalegin handiak egiten zituzten andre hori handik aterateko baina alperrik, inondik eta inora be ezin zuten kendu kobaren atakan jentilok iminita zeukaten ha harri endemoninoa.

Gizon indartsuak egon dira egon be Orozkon eta egun baten gizonik indartsuenak, hartu burdinazko palanka bat, joan Jentilzulora eta handik ekin hortik ekin, logratu zuen ha endemoninozko harria kentzea.

Hori ikustean, jentilak eurak be bildurtu egin ziren eta alde egin Jentilzulotik. Orduantxe atera zuten ha andrea eta etxera eroan.

Harrezkero, hari Orozkoar gizon indartsuari, "Ierro Olabarria Palankos" izen-apelliduak imini zizkieten.

Gure aurrekoek kontatzen ziguten, Anbotoko Señorea, Lekanda inguru-maietako koba batera joaten zela orraztuten.

Behin koba barruraz gero, bere ule gorri eta luzeak orraztu egiten ei zituen urregorritzko orrazi batekin.

Gutziz atondu orduan, kobaren atakara urtetan zuen eta, entzunda daukadanez, orduxean hasten ei zen goizeko eguzkia urtetan.

Behin eguzkiak urtenaz gero, inok ez ei zuen Anbotoko Señorea ikusten, harik eta gaulendia edo gauluntzea allegatu arte.

Behin gauluntzeraz gero, eguzkia sartzamendian sartzen zenean, orduxean hasten ei zen batetik bestera, garretan, Anbotoko Señora hori. Nik neuk bere inoiz ikusi dudalazkoa daukat, ez nago guztiz zihur baina.

Jentilzulon, jentilak ezeze, laminak bere egoten zirela daukatzut entzunda. Egunez bakean egoten ei ziren baina gaua helduz gero, bazter guztietatik barruntetan zituzten berbalotsean edo alaurika.

Baten, zapatuz, labesua egiten zeuden, asterako ogi eta artoak erretan. Errariok labean sartu eta erre akabatuari begira zeudela, Jenntilzuloko lamina bat agertu zitzairen Orozkoko batzuei.

Labe-hagea, labe-para eta ipizkiaz joten hasi ziren baina ezin zuten ha lamina ha labeurretik kendu.

Halangoren baten, gose zela konturatu ziren eta bakea diruaz be ez dena lez pagatzen, hartu labe barrutik opil bat eta horrela emon zien andafuerazko jantzia edo despatxua.

Zaharrek esaten zigutenez, labesuak ondo jagon behar izaten ei zituzten zein jentil edo laminak errariak ostu. Izan be egingo zen, ze laberik harako arto eta ogiak gozoak dira izan bere eta.

ANBOTOKO SEÑOREA ANEGA-GARIAK GARAUTAN BESTE URTE HARONA

Anbotoko Señorea erretan dabilela entzuten genuen guk txikitan. Nik neuk ez dut sekula ikusi baina gure aititak eta, holan kontaktzen ziguten.

Behin baten, dena nintzen izan be jakin gura eta, nire neure aititari itandu nion esanez:

— Aitita, berorrek jakin be igual egingo du, baina zenbat urte egon behar du ba anbotoko Señoreak erretan Anbototik Gorbeiarako haronakoan?

— Zenbat urte? Ba, anega gariak garautan daukan beste urte! —erantzun zidan aitaitak irribarreka.

Ni ez naiz atomatu inoiz anega gariaren garauak kontaktzen baina urte askotxo direla uste dut kontatu barik be.

Jakina, urteak joan doazkigu eta arin gainera, horregatik ba egunen baten erreko da guztiz Anbotoko Señora hori eta gero ez dakigu ba zer gertatuko zaion! Nok jakin horien kontuon azkena?

Orozkoko pastore bat zegoen behin Superlegorreko koba inguruan ardiekin eta ba gauikuntzean ardiok koba inguruan utzi eta bera barrura sartu zen.


Pastore horrek zaharrendik ikasitako usadio bat zeukan, zein?, eta kandela bedeinkatua izitutea holako gauaroetan, koba zein txaboletan.

Halantxe egin zuen, baina loak noiz hartuko zegoela, ardiak gora-goraka barruntatu zituen. Hurreratu zen eta ikaragarritzko saiak ikusi zituen ardiak malogretan.

Saiok ezin zituenez uxatu, ez zeukan beste erremediorik, koba-atakako kandela bedeinkatua handik kentzea baino.

Halantxe egin zuen eta kandela bedeinkatua amatatuz batera, artean sartu ezinik zeuden sai guztiak sartu ziren Superlegorreko koban. Izan be, saiok ez ziren parte onekoak!

Halantxe lortu zuen hak pastoreak ardiak bizirik lortzea eta gaua izan arren, larrea behera etorri ei zen Orozkora, bidean errosarioari eragoiola.



Gaztetxoak Anbotoko Señorea eguzkia hartzen egoten zen haitzean.

Anbotoko Señorea entzute handikoa izan dugu gure artean, batez be zaharren ahoetan, gaurko gazteek holango kontuei barre egiten diozue baina.

Leku askotatik ibiltzen zelazkoa daukatzut entzunda, baina, nik neuk Anbototik hona Ganekogortara etorten zelazkoa entzuten nien gureko zaharrei.

Egaz eta garretan etorten ei zen etorri be eta gente guztia bildurkilik egoten ei zen zek izan behar ete duen pentsatuz.

Baten, Upora joan nintzen idebaten, pinupetako idak ebagiten eta gailuntzean, etxerantz nentorrela, ganeko sustua bizi behar izan nuen! Nik neuk ez dakit zer izango zen baina argitasun bat barruntatu nuen Upo gainetik Ganekogortarantz pasetan, Anbotoko Señorea izango zen beharbada.

Ni neu, bildurraren bildurrez, gorantz begiratzen hasteko asti barik etxera etorri nintzen gorputzean pipiladura eta hanketan dardakeoarekin.

Behin etxeraz gero, nasaitu egin ninduten etxekoek eta errosarioa errezatu ondoren, hantxe akabatu ziren nire estukurok!

Zeanuriko herrian, Muñigi-tik Lanbreabe-ra datorren errekan lamiñak egoten ei ziren, ugari egon be seguru.

Lamiñok, esnezaleak ei zirenez esne intziguaz zebiltzan beti eta Lanbreabetarrak sarri aurkitzen zituzten euren esne-maskeluak erdi hutsik.

Eguzkiak joten zuenean, orraztuten urtetan zuten erreka-munara eta ikusi be egiten zituztela esaten ziguten gure aitaitak eta.

Egun baten, Lanbreabeko errotako andaparan, anda-izara garbituten zebiltzan lamiñak eta anda-izara hori garbitu, bihurtu, harrian jo eta altzikituteko eskegi ei zuten haritz urkulu baten.

Lanbreabeko etxandere batek, hartu anda-izara ha eta bere etxera eroan zuen zertarako hartarako.

Egunez ez zitzaion enberazurik agertu baina gauera z gero, ikaragarritzko berbalotsak entzuten zituen hak andreak, zeintzuk?, eta hauexek:

— “Lanbreabeko etxanderea, ekarten ez baduna gure anda-izara, guk geuk hilgo diagu hire haskazia”.

Amenazu horien aurrean, euren zen anda-izara ha emon egin zien lamiñoi eta halantxe egin zituzten bakeok lamiña eta Lanbreabeko etxandereak.

Hemengo ez dakit nongo hargin batek, Kastrejanako harrizko zubia egiteko ardura hartu ei zuen.

Ez zen izango zubi handia ze egun bat baino ez zioten emon zubi hori egiteko baina halan eta guztiz be baiezkoan geratu zen ha hargina.

Zubia akabetako epea gaueko hamabietan amaitzen zitzaion eta horregatik goizean tertzioz hasi zen zubiginen.

Egurdartea joan zitzaion eta arrastia be aurrera, baina zubi-beharrak oraindino atzeraturik, erdi eginean zeuzkan hargin horrek.

Orduan, estu eta larri, ezintasunaren ondorioz edo, arteak be hartu ezinik badino berekitan:

— “Ez dituk etorriko inpernuko berbertako deabruak niri neuri lagundutera!”

Berbok esan bazituen ba ze, atoa plantatu zitzaizkion ondoan hirurogei mila deabru Julianetan eta berrogei mila Mikolasetan.

Ha bai zela ikustea! Deabruok, “eutso Julian, bota Mikolas”, esaten ei zuten alkarren artean eta zubia aurrera.

Hargina, pozik zegoen zubia aurrera zihoalako baina deabruak horren truke arima eskatu zionean, buruko uleak be kirikinolatzaren antzean geratu zitzaizkion.

Haretan tertzio haretan, nora jo ezean aurkitzen zen ha hargina baina oilarrarekin gogoratu zen eta eza eskuan zeukanez, santzo bi bota zituen oilarra zirudiela: Kukurruku! Kikiriki!

Eta, ene!, zubia harri baten faltan zegoenean, eta ia gaueko hamabiak jote-ko, oilar batek erantzun egin zion eta hantxe utzi behar izan zuten deabru-ek euren zubigintza, harri baten faltan.

Milagro ez bada, hak harriak han egon behar du oraindino be deabruaren berberaren hatzamar marka eta guzti, eta hori neuk ikusia zaizu gero e! Han dago harria, zeinda, hatzamar markak balitu lez!

Hau gerra hau, 1808an hasi eta 1814an amaitu zelazkoa daukat entzunda eta harrezkero beti jakin dugu edo entzun behintzat, horiek frantzesak, gerra ostean, hemen Gorbeia inguruan urre gorrizko kutxa bat gorde zutela haitzulo baten urre gorritz beterik.

Urteak joan eta urteak etorri, ez zen frantzesik barruntetan Gorbeia ingurutik eta egun baten, baserritar batzuei urre-gorri hori bila joateko asmoa etorri zitzaien.

Esan eta egin. Joan ziren gizon eta mutil koadrilla handia euren tresna eta guzti Gorbeiaiko haitzulo horretara.

Egin ahalak egin zituzten urre gorri hori topetan baina dena alperrik, txakur-amesean geratu ziren euren guztiak.

Etixerantz zetoztela, euretariko batek era honetara berba egin zien beste guztiei esanez:

— Zergatik ez goaz hara Bilboko aztu famatuagana eta itandu ia non dagoen frantzesok gordetako urre gorri hori!


— Joatea baino ez dago! —erantzun ei zuten besteek.

Joan ziren Bilbora, Arratiako tranbian, eta aztu edo adibinadorearen etxera heldu zirenean, ateetara urten zien aztu andereak eta esan:

— Zer da gura didazuena ba?

— Ba, honantxe eta onantxe frantzesadako gerra osteko urre-kutxa bila gabiltza eta ezin dugu aurkitu.

— Begira, joan zaitetze berriro haitzulo horretara, sartu estaka luze bat eta eguzkiak lehenengo jotzen duenean gerizpea norantz, hantxe jo ezazue lurra eta sakondu!



Gorbeiaiko Itxina. Azdui zoragarria.

Esana egin zuten baina lehenean geratu ziren. Horretara, baserritarrik indartsuenak badino erdi haserre:

— Oraingoan neu joango nauk andre horregana eta ikusiko dik ona zer den horraitio!

Joan zen gizon hori, jo aztuaren atepak, egin aurrekoen lako itauna eta erantzunaren zain geratu zitzaion.

Aztu-anderea gela ilun batera sartu zen eta tardatu egiten zuen, ez gutxi, bueltatzen. Bien bitartean, baserritarrak, gose be bazen eta, aztuak sukaldean egosten zeukan indanba-lapikoari tapea kendu, barruko lukainka eta saiheskiak jan eta berriro ezarri zen itxaroten.

Agertu zen halakoren baten aztu hori eta oraingo honetan haxe esan zion eskuetako paper tximur eta zahar batzuk igurdiz:

— Joan zaitezte berriro eta goizean eguzkiak lehenengo jotzen duen tokian, hantxe jo ezazue lurra eta sakondu!

— Zenbat da? —itandu zion gizonak.

— Lau siri eta beste hainbeste mari!

Baserritar indartsu hori etxera heldu zenean eta beste guztiak galdetzen hasi, honela erantzun zien:

— Mutilak!, aztu horrena dena duk guzurra, nola igarriko dik horrek urre gorria non dagoen, gela barruan zegoela jan egin dizkiat lukainka-sahieskiak bera konturatu ez dela! Utz diezaiogun beharleku honi eta geureari ekin, baserriko beharrari, probetxu handiagokoa izan be egingo diagu eta!

Gauzak, horrela geratu ziren, baina handik urteakarrenera, frantzes batzuk agertu ziren Gorbeia ingurutik mapa batekin.

Frantzesok, atak jo zituzten Balbina Olabarrikoaren aititaren aitarenean ha koba zuloa topetako laguntza eske.

Bildurtu be egin ziren, ez gutxi, hango etxeko guztiak, baina halan eta guztiz be ez zieten laguntza ukatu.

Ibili eta ibili, mapara begiratu, zuloak arakatu, halangoren baten aurkitu egin ei zuten frantzesadako gerran gordetako urre gorria.

Frantzesok, pozik baino posago geratu ziren eta Balbina Olabarrikoaren birraititari hamaseiko gorri bat emon zien lagundutalde.

Halantxe akabatu zen urte askotan zehar bititako urre gorrioren aurkitu beharra eta bake santu bat! Bakoitzari berea emotealangorik ez dago!

Dima eta Zeanuri bitartean Lamindao daukagu. Eleiza polit bat dago bertan baserri batzuk ondoan dituela. Landa famatu bat be bada, Petralandako Landa deritzona eta landa horretan parte txarrekoek egiten ei zituzten euren funtzinook, aker dantzok.

Baten, Lamindaoko baserri baten, anaia konkorr edo txepadun bi bizi ei ziren eta etxerik hara ardiak zaintzeari ekiten zioten, horixe zelako euren ogibidea, jakina, artxoak, lanea, esnea, gaztaiak zein putxea bitarteko zituztela.

Egun baten, anaietariko batek, ardietatik etxerantz zetorrela, sorginak barruntatu zituen Petralandako landan. Geratu egin zen eta zer?, eta hauxe entzun zuen:

“Astelehena
martizena
eguztena hiru
eguna
barikua
zapatua sei.”

Eta domeka zazpi —erantzun zuen hak anaia txepadunak, kristaua zenez, domekari bere tokia emon guran.

Petralandako Landako sorginok horiek berbok entzun zituztenean, hauxe esan zioten hari gizon konkordunari:

— Utz ezak hemen hori konkorr hori eta hoa bakean heure bidean!

Ha gizona pozik zer joan zen konkorr barik! Etxera heldu zenean eta anaiari kontatu gertatutakoa, badinotso beste anaiak:

— Neuk be joan egin behar diat beste hainbeste egiteko!

Esan eta egin! Joan zen egun baten ardietara eta gaulendian barruntatu be egin zituen sorginak asteko egunak esaten. Zapatura heldu zirenean, berak be “domeka zazpi” erantzun zien.

Sorginek orduan, sano haserre, maldizio bat bota zioten alaurika eta irrintzaka esanez:

— Joan hadi gure begien bistatik eta lehengo konkorrak gainera, eutso hire heure anaiarena be, eta orain baten faltan bi izango dituk!

Horixe pasatu zelazkoa daukat entzunda. Gaurko munduan arean dakienarentzat, hau, kontua izango da baina lehenago dena sinestuten zuten eta ez zen txantxetako kontua zeinda kontuan eukitekoa.

Zeanurin, Uribe auzunea be guztiz famatua da lamiñak direla eta. Bertara dagoen bideak Meagorri dauka izena. Horrek esan gura du mineral gorria urtetan dauan lekua, hobeto esanda, lehenago urtetan zuena, orain kamiñoa eginda dago eta. Oraindino be ikusten da ha lupetz gorria han inguruan.

Ba, hantxe, Meagorritik doan errekatxuan lamiñak egoten ei ziren orraztuten eguzkibegira urtenda.

Egun baten, andre batek ha urre gorrizko orrazia ostu egin zien lamiñei eta etxera eroan. Baina, baketan be ez ziotenez uzten berrien berriz emotea baino ez zuen euki, gorriak bizi nahi ez bazituen.

Orrazi hori emon arren, lamiñetariko bat, tximiniako arratetik sartzen zitzaion eta txitxiburruntzi egiten zuenean hak lamiñak be beste hainbeste egiten ei zuen baina sapaburu, sugelandara, musker edo txubelaxoekin eta hari andreari koipetsu edo urdai-koipea eskatuten zion piztiok zukututeko.

Gaur bai eta bihar be bai, gogait eginda zegoen ha andrea eta egun baten, akordatzakoan, koipea piztietara bota beherrean, lamiñari berari bota zion eta harrezkero, ez ei zen lamiña gehiago barruntatu han Urkistebe-n, ez Beretxiko errekatxuetan.

Eta ba, hau kontu hau holan bazen sartu kalabazan eta ezpabere urten dezala Zeanuriko plazan!

Dima herrian dago Zamakola eta hango baserri baten Petra eta Manu andragizonak bizi ziren.

Lehenago ez zegoen argi indarrik eta argizari, petroleo edo karburoa erabilten zen argia egiteko.

Egun baten Petrak esan zion Manu bere gizonari:

— Manu, bihar Villarora joan behar didazu petroleotan, asterako petroleoaren eske.

— Bai, joango natzaizu egun sentiko kukurrukuak joten duenean.

Halantxe egin zuen Manuk. Jagi tertzioz, barauskarri apur batekin barausi, jantzi domeketako soinekoak eta:

— Petra, dirua emon beharko didazu petroleotarako?

— Bai, banu, baina ez daukagu zentimo bat esan eta bera be. Eutsiz dozenerdi arrauntza eta hauexen truke emoten dizutena ekar ezazu edo gainetikoa hurrengurako fiatu!

Joan zen gure Manu Villarora petroleotan. Bidean doala, asto bat aurkitu zuen biderdian.

“Arre hortik!” —egin zion gedar, baina alperrik. Berriro be, “kenakit enbarazutik” eta lehen letxe. Hirugarrenean badinotso: “Zer jaungoiko behar duk ba astoa? Eta horiek berbok entzun orduan, sutan, alde egin zion hak astoak Baltzolako kobara eta barruan estaldu.

Bildurtu be egin zen Manu, baina goizeko angelus errezzatu ondoren, aurrera egin zuen Villarorantz.

Petralandako bidekurtzetik zihoala sorginak ikusi edo barruntatu zituen euren funtzinoei eragoiela eta santzoka esaten:

— Josepa etxandereak, urli lekutakoak, ez du eukiko osasunik harik eta gozatuten dabilen gozamenak toketan zaiolari entregatzen ez badizkio!

Uleak be arteztu egin zitzaizkion Manuri eta Lamindaoko larreak behera, behingobaten heldu zen Villaroko petroleo dendara.

— Tertzioz be bazatoz Manu! —esan zion dendariak.

— Bai, eta arnasestuan gainera!

— Zer gertatu zaizu ba?

— Ba, hauxe eta hauxe honantxe eta honantxe, non?, eta Petralandako Landan!

— Hori kontu hori ezin utz zenezake Josepari esan barik; zein ezbeharren bat gertatu. Eutsi behar duzuna eta zoaz agudo Josepa urlri lekutakoarenera belu baino lehen.

Manu, orpoetan har barik joan zen Joseparenerantz, baina ez lehengo bideetatik, kaminoz baino.

Joseparenera heldu zenean, ia berbartu eta guzti zegoen Manu eta badi-notso Josepak:

— Zek imini zaituen baino ez da hain estu eta larri!

— Zek? Bazeneki jakin hor Petralandako Landan zer entzun diedan sorginei!

— Zer entzun diezu ba?

— Ba Josepa, ez duzula izango osasunik harik eta zure gozamenak toke-tan zaionari emon artean!

— Ene Jesus! —esan zuen Josepak—, norberea ez denarekin jaubetu naiz eta, jakina, jakin dut hortik gauza onik ez datorrena, atoan emongo diot bakoitzari berea!

Halantxe egin zuen. Deitu morroiari, buztartu idiak, bete burdia bereak ez ziren tresnekin eta egurdarte barruan kitutu zituen neba-arrebenganako zorrok.

Baltzolako koba Diman daukagu. Bertara bidean Gibraltar izeneko baserria aurkituten dugu eta bera dela esaten da Arratiako baserririk zaharrena.

Baltzolako koba-zuloaren aurretxoan Jentil-zubia dago, berezko zubia, haitzean aterea, antzinako jentil eta lamiñen eguzki lekua.

Lamiñak, koba horretan bizi ei zitzaizkigun euren janari, apaindura eta guztiekin. Gerrizgorea andrazkoena modukoa zen baina oinak oiloaren antze-koak, erparik erpara azal eta guztizkoak.

Baltzolatik urrun barik, Petralandako Landa dago eta antzina, akelarre eta antzerako ospakizunak egiten ei zituzten parte txarreko guztiok.

Behin baten, Anbotoko Señorea be garretan etorri zitzaien Superlegorretik Petralandara eta euren jaia ospatzeko azeri bat harrapatu zuten gero bere inguruan egiteko euron funtzinook.

Anbotoko Señorea seina eginda zegoen eta akelarre ostean, seintzaintzari eragoion bitartean, beste guztiek opariak emon zizkieten, batzuk, zelemín bete gaztaina, beste batzuk piper eta berakatzak eta gainetikoek ba beste zerbaist, bakoitzak ahal zuena.

Behin akelarrea amaituz gero, osterá be bakoitza bere lekuetara. Anbotoko Señorea, jakina, ama-alabak, Gorbeiako Superlegor kobara eta lamiñak Baltzolakora joaten ei ziren beste hurrengo baterarte.

Urteak joan urteak etorri, galduz joan ziren akelarre ohiturok eta esaten da Eibarreko eskopetekaitik ezeze, San Prantziskoko kampaeotsagatik be galdu zirela betiko horiek kristau aurreko lamiñok. Holan izan be egingo da ze, ni neu sarri egon izan naiz Baltzolako koba inguru zein barruan eta ez dut horien gerizarik be ikusi egundo.

Behin baten, neskatxi bat joan zen joskilagana jantzi bat erosten. Hak joskila hak linozko soinekoak egin eta josten zituen. Soloetan linatzak zituen eta goruetan ekinez lortzen zituen lino-hari eta ehunak.

Neskatxi horrek erosi zion jantzia baina, uste zuen baino karutxoagoa zenez, lau-siriko batzuk edo ez dakit zenbat erreal utzi zizkion zor.

Handik egun batzuetara, hil egin zen ha neskatxia zertatik hartatik eta joskila enteratu zenean badino berekitan:

— Ene! Horrek neskatxi horrek zor utzi dizkit siri batzuk eta ez diot parkatuko harik eta kitutu arte.

Lehenago, munduan dena ondo egin ez zutenak, hil ondoren, euren ari-mak, jakina, ermita edo eleizarik eleiza ibiltzen ei ziren harik eta euren zorrak betatu arte. Neskato hau be, hil eta gero mundura etorri zen zorra betatuten.

Horretarako, krida joan zen etxaguntza batera. Ugazabarekin berba egin zuen eta soldata aipatu zenean badinotso hak neskatxiak:

— Nik neuk honebeste siri eta horrenbeste erreal eskatzen dizkizut, besterik ez!

— Hori gutxi duzu! —erantzun zion ugazabak.

— Berdin dit, horrexerekin nahikoa dut eta kitu!

Ugazabak ezin zuen aditu haren neskaren eskaria eta etxeko beharrak egin ahala sorots egiten zion badaezpada.

Gaua heldu zenean, denak joan ziren ohera ha neskatxia izan ezik. Sutean geratu zen. Baina ugazabak suteko giltza zuloatik sorots egiten eragoion eta azpira gaineko otzaratik mizpiru putxa-putxa pare bat hartu eta eurak jan guran surteko treberan jarriten ikusi zuen. Orduan, arteak be hartu ezinik, zabaldu suteko atea, joan neskatxiagana eta badinotso:

— Nor zaren eta hona zek ekarri zaituen jakin nezake?

Eta hak neskatoak, gertatutako guztia kontatu zion ugazabari begietatik negar anpuluak dariola.

Ugazabak, gogor hartu beharrean, nasaitu egin zuen eta ate osteko horma zulotik atera ha zorra kitututeko lain diru eta badinotso:

— Eutsiz diruok eta zoaz zeure bidean!

Hurrengo goizean, tertzioz joan zen joan be ha neskaxia joskilaren etxera. Ateak jo zizkion eta egunon esateko asti barik esaten dio hari goruetan eragoion joskilari:

— Hemen dituna diruok, kitutu dinat zor guztia!

Diruok hartu bazituen ba ze, ha biotz gogorreko joskila ha su eta gar joan zen goru eta guzti airean Anbotorantz, Anbotoko Señora bihurtuz. Eta garretan ei dabil harrezkero Anbototik Gorbeiako Zuperlegorrera haronakoak egi-ten.

Hau fetxoria hau kontatu duena hemen daukazu, baina ikusi duena batek badaki non!

Dima partean, Petralandako Landa daukagu eta hango bidekurtzea entzute handikoa izan da beti.

Txikitan entzunda daukadanez, Lamindao-ko andra-gizon bi, barikuetan, Petralandako Landa-ra joaten ei ziren hango laminekin euren funtzinoak egiteko.

Joan, egaz joaten ei ziren. Horretarako, lehenengo eskuak hezotuten zituzten suteko harri-losen izerdiaz eta behin hezotuz gero, paparra igurdi hauxe esanez: “laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik”!

Egun baten, etxeko kriaduak be, gutxiago ez izateko, beste hainbeste egin gura zuen horiek berba moduok ahotik askatuta.

Bariku baten, uzama eta ugazabak Petralandako Landa-rako bidea hartu zutenean, berak be, hezotu harri-izerdiaz esku eta paparrok eta badino, baina atzekoz aurrera: “laino guztien gainetik eta sasi guztien azpitik”!

Eta, ene! Han joan ei zen kriadu gizagaixoa guztiz zorabiatu eta urratuz beterik Petralandako Landa-ra.

Uzama eta ugazabak haren kriaduren fetura edo itxura ikusirik badinotsie barre-santzoka:

— Zelan jo duk hona ba, enbeleko halango horrek?

— Ba, honantxe eta honantxe!

— A, kokorio, malbako, atzekoz aurrera esan dituk berbok ba eta! Esan itzak berbok erara eta hoa berriro etxera bihar goizean tertzioz hasteko gauduentzat jatekoginen.

Petralandako Landa-ko lamina eta lamina ez zirenen fetxoriak zelangoak zirenen berri, ondo ixilean gorde zaigu beti, badaezpada, baina nire gogoaldian beti ezagutu dut Petralandako bidekurtzeroko pagorik handienez kurte bat eta kontatu egingo dira baina ikusi ez du egin inok lehen kontetan ziren bezalako fetxoriarik. Eskerrak!

Zeanuri partean, han Gorbeia-aren magal barrenetan, Lanpreabe auzunea dago eta hango errekan laminak bizi zirela entzun dugu beti.

Behinola, Lanpreabe-ko mutil bat, berak ez dakiela, ezkontzeko plantatu zen holango lamina batekin.

Mutilari ama gaixotu zitzaion eta egun gutxi barru hil. Orduan nobiatzat zeukanak, anda-izera ekarri zion amari entierruan gainetik botateko.

Halantxe egin zuten. Baina, abadeak, ha anda-izera ikusirik badinotso mutilari belarrira:

- Nok emon dik hori anda-izara hori?
- Nire neure andrea izango denak, hortxe atzean datorrenak!
- Horrek? Hori badok lamina!
- Zer dinost berorrek?
- Aditu, aditu iezaioke oinetara eta ikusiko duk!

Aitaren eta semearen! Mutila ikaratu be egin zen, ez gutxi, berarekin ezkontzekotan zegoenari patoaren hankak ikusi zizkionean.

Entierrua akabatu zenean, mutilak hartu anda-izera, joan etxera, atea ondo itxi eta zain geratu zen.

Laminak, atea jotzen zizkion baina mutilak ez zion aterik zabaltzen tartantza emonaz eta esanaz:

- Anda-izara gura baduna, begiratu ezana giltza-zulotik!

Hurrengo gauiluntzan, lamina giltza-zulotik adi zegoela, mutilak hartu burinazko burduntzi gori bat eta begia atera zion hari laminari.

Laminak, barrukoa nor zen jakin guran, alaurika eta inon diren grillistuak boteaz galdezka eragoion:

— Nor haiz hi?

— Ni? NEU!, erantzun zion mutilak.

Laminak orduan, ospa egin zuen handik eta Lanpreabe-ko erreka-ko putzura egin saltu.

Behin haraz gero, kexatzen hasi zitzairen beste laminei eta haiek esaten ei zien bengantza adikunaz:

— Nok egin dina begi galtze hori?

— NEUK! —erantzun zien hak lamina hak.

— Ba, heuk egin baduna, zertan hator kexaz beterik! Hurrengoan kontuzago ibili, mamala, susterbako hori halango hori!

Anbotoko Señorea, gure amamak esaten zuen lez, Anboton eta Gorbeian ezeze, hemen gure Baltzola-ko koban be egoten ei zen denporaldiak emoten.

Egun baten, hemengo batenbati, beintxa bat faltatu zitzaion kortatik, hau da, urte biko txahal urruza ederra, eta bila joan ziren Baltzola ingurumarietatik.

Gaulendia zen eta ezin zuten sustertu beintxa hori eta badaezpada, eza eskuen dagoela eta, Baltzolako koba barruan aditutea pentsatu zuten.

Sartu ziren barrura, eupada batzuk be egin zizkieten hari beintxa hari eta ene!, urruma batzuk entzun zituzten. Horretara badino batek:

— Aikomen hemen gura beintxa!

Eta beintxa horri heltzekotan zeudenean, Anbotoko Señora galanta ondolan zeukala konturatu ziren.

Anbotoko Señorak honela egin zien berba beintxatan joan zirenei:

— Nok askatu du ahoa, “aikomen hemen gure beintxa” esanaz?

— Neuk! —erantzun zion batek.

— Eutsie hau beintxa hau, baina berba egin duenak ez dauka joaterik, neurekin lotu behar du hemen, harik eta beintxa truke beste zeozer ekarri arte!

Halantxe egin ei zuten eta azkenean Anbotoko Señorak libratu egin zuen ha gizon ha, ez, ezer be ezaren truke, —ezer be eza begirako da ona—, hainbat urregorriren kanbioan baino. Ha zela eta, susto-sartua kendu ezinik bizi zen luzaroan. Ez zen gutxiagorako izan be!



Gure zaharrek kontetan zigutenez, lehenago, hartza bizi ei zen Baltzolako koban. Hartza, baina, ikaragarria seguru, gizon itxurakoa, lumaz josita egon arren kaskatetik behatzetararteraino.

Egun baten, andrazkoren bat ei zebilen Baltzolako koba ingurutik labegurra bila eta, akordatzakoan, zazt!, goratu hartz horrek eta berarekin eroan zuen kobara.

Koban sartu zuenean, nik neuk be ez dakit zenbat kintaleko harria jarri zuen kobaren atakan zein andreak eskapatu.

Han bizi ziren biak eta halangoren baten andrea ernari imini zuen eta handik gerora seme bat be izan.

Seme hori hazten zetorren, hazkai andiaz etorri be. Kaskondu zen eta mutilto gaztelo egin zenean, badinotso amari:

— Ama, guk biok zer egiten dugu hemen horrekin hartz kankailo horrekin?

— Zer egingo dugu ba, bizi ahal dugun moduan, ezin dugu urten hementik eta!

— Urten ezetz? Neuk kenduko dut koba arrateko harria!

— Zuk ezin zenezake kendu, nik neuk be ezin dut eta!

— Hori ikusiko dugu!

Egun baten, hartza kanpora joan zen baten, ama-semeok hurreratu ziren kobaren atakara. Semeak heltzen dio hari harri endemoninoari eta txirran bota zuen Baltzolako larrea-zeharretatik behera.

Hartza ez zen atomatu andre eta seme bila joaten, ondo zekien jakin be, semeak indarrez aitatarra baina guraizanez amatara emon zuela eta ez zeukala zereginik. Gehiago ez da jakin haren hartzaren berririk!

Lehenago, gaur baino Urkiolara joakera handiagoa zegoen eta gaur baino modu gutxiagorekin, oinez denok.

Egun baten, dimoztar bat joan zen promesa betatuten Urkiolara. Hortik, Oba-burutik zihoala, Anbotoko Señorak urten zion bide bidera.

Gizonak, ez ikusi egin zion eta ia-ia burua hankartean duela, aurrera egin zuen Urkiolarako bidean.

Behin Urkiolaraz gero, sartu zen eleizan, autor-entzulearekin konfesatu, meza entzun, limosna egin eta bere promesa betatu orduan, badinotso abadeari:

— Jauna, Obaburun Anbotoko Señorak urten dit biderdira eta ez ikusi eginik alde egin diot baina bildur naiz harantzean berriro urtengo ez ete didan!

— Ez arduratu, Jaungoikoarekin bakean zoaz eta ezin dizu ezer egin, ez baitauka podererik Jaungoikoaren aurrean! Orain, beharbada, eskua eskatuko dizu baina ez luzatu eskurik zapi edo soinekoren bat imini barik, hori jagoenez gero, ez akobardatu, ez eta atzemardoka ibili be!

Bazetorren ha gizona eta Obaburun berriro be Anbotoko Señora eta zer?, eta eskua ez zion eskatu ba!

Dimoztarrak, betuxokerietan ibili barik, Urkiolako abadearen esana eginenez, hartu moko-zapi bat, eskuan imini eta gero emon zion bostekoa Anbotoko Señorari.

Bostekoa bota eta moko-zapia gordetan zihoala, Anbotoko Señoraren bost hatzamarrak egindako erre-marka ikusi zuen. Zergatik hargatik esango zion zapiarena hak Urkiolako abadeak; ez deritzazu?

Mañaria herria be entzute handikoa izan da beti sorginak direla eta. Gure amandrek esaten zigun, han, Mañarian, Baseta auzunan andrazkoen tertulia handiak egiten zirela.

Baten, usadioari jarraituz, alkartu zen andra koadrilla hori eta goruetan eginez —eginez, berriketaldia be egin zuten.

Gaulendian, bakoitza euren etxeetarako plantatu ziren. Lehenago ohitura zegoen etxetik urtekeretan eta bueltan, santzoak botatea nor nondik dabilen abisetako.

Tertuliako andraren batek bota ei zuen santzoa eta ene!, sorginek erantzun. Berriro beste bat eta sorginek be bai.

Orduan, arineketan hasi zen ha andrea sorginak atzerik hara, kateotsean, jarraitzen ziotela itargiaren argipean.

Bere etxera allegetako itxaron barik, han Basetatik hurren zegoen base-
rrian atea jo eta barrura sartu zen, ez nor, ez zertan, ez zergatik zihoan era haretan azaltzeko epe barik.

Sorginak be atoan heldu zitzaizkion baina, graziak podere barik geratu zirena, osterantzean gorriak ikusi beharko zituen hak andratxoak! Hau ez da broma gero e! Hau neuri amamak kontatua da gero; kontuz!

Usansolon dago zubi bat, Lamindarateko zubia eta zubi hori entzute handikoa dugu laminak urtetan zutelako zubi gainera euren uleak orraztuten.

Egun baten, andrazko bat joan ei zen iturriko uretan eta Lamindarateko zubitik pasatzerakoan, laminak ikusi zituen orraztuten. Hurreratu zen baina alperrik denak egin zuten saltu zubipeko otsinera.

Orduan hak andreak, laminak ahaztuta utzitako urregorritzko orrazia hartu zuen eta bere etxera eroan.

Eroan egin zuen orrazi hori baina gero laminak ez zioten baketan uzten harik eta orrazia debolbitu arte. Tabarra emon ezeze, amenazuak be botaten zizkioten andreaki esanez:

“Maria, ekar ezazu orrazia
ezpabere galduko dizugu
zure kortako askazia.”

Eta azkenean, emon egin behar izan zien ha urre gorritzko orrazia, arean bakerik euki gura izan bazuen.

Gaur ez du inok sinestuten laminen kontuetan baina ha zubia oraindino be han dago eta hortik deritzo “Lamindarateko zubia”.

Hamar urte inguru nituela, amak Urkiolara eroan ninduen promesa bat betatuten. Gaxorik egon nintzen eta osatu orduan, nire amak kunplitu egin gura zuen bere promesa.

Bedratzi egun emon genituen Urkiolan. Bedratzi egunotan, bedratzi sermoi eta meza entzutea tokatu zitzaigun.

Egun bateko mezatik bestekora bitartean asti handia eukiten genuen zertako hartako eta ibili egiten ginen gahienetan Urkiola-mendietatik denpora emoten.

Sandoia mendira be joaten ginen eta han Anbotoko Señorak urtetan zuen arrasti beranduan, abemarietako kanpaiak jo-akabatu orduan. Batzuetan, elegante jantzita, dotore-dotore, baina beste batzuetan txispa edo sua eskuan duela eragoten zion bere beharlekuari.

Txispa dariola ikusten genuenean, arin baino be arinago sartzen ginen Urkiolako eleizan, entzutea geneukalako, haretariko txispa batek ikutuz gero, betiko geratzen zinela kondenatuta.

Nobena edo bederatziurreneko bedratzigarren sermoia entzun genuenean, gaixo-osatu bakoitzak, utzi makulu edo denadelakoak hormatik eskegita, hau da, Urkiolako San Antonioren altzarik harako hormari deutsalara, eta etxera etorri ginen ama eta biok, pozarekin negarrez!

Behin baten, gure tia Artetakoa idebaten joan zen Upo mendira, horra, Galdakao eta Zeberio bitarte ingurura.

Han ibili zitzaigun idebaten eta aspelginen zebilela gauluntzerantz, Anbotoko Señorea ikusi ei zuen Upotik Mandoiara joaten egaz eta garretan, sua dariola.

Sustatu egin ei zen eta utzi idok bertanbera eta abemariak jo baino lehenago etxean zen, badaezpada behar ez denaren bat gertatuan be.



Gorbeako Itxinan. Atxularko begia, Superlegorreko bidean.

Behin etxeraz gero, itxi etxeko ateak, tranpako eskilarak bajatu eta kortako behien askan estaldu zen dar-dar eta bildurkilik.

Handik geroagora, ganaduentzat jatekoginen ibili ziren semeak be etxeratu ziren eta amari deiez hasi zitzaizkion ia dei-barruan dagoen edo ez jakiteko.

Semeon deietara, erantzun egin zuen amak baina kortatik, kortako behi-askatik berbalturainokoarekin esanez:

— Hemen naukazue bildurkilik, erduzie!

Joan zitzaizkion semeok eta haretan fetura haretan aurkitzean euren ama hori badinotse arduraz beterik:

— Zer egiten duen baino ez da berorrek hemen era horretan!

— Zer egiten dudan? Ba, honantxe eta honantxe ikusi diat Anbotoko Señorea eta kondenatu ez nadin honaxe etorri nauk!

— Ez ama! —erantzun zien semeek—, ez beza euki berorrek horren bildurrik, zergatik ze gaur ez daukagu Anbotoko Señorearen errasturik!

— Orduan, zer ikusi diat ba nik?

— Ba, beste zeren bat izango zen. Tira, goazen eta afal dezagun honez-kero gosea eginda egongo zara eta.

Gure tia Artetakoak esana egin zien semeei baina harrezkero ez zen atomatu gehiago bakarrik idebaten joaten batez be dei barrutik harago, badaezpada be!

Lehenago, den denari izaten zitzaion bildur handia, batez be parte txarre-koei eta euren artean inizituari.

Entzuteak egoten ei ziren, entzute handiak, inizituak joz gero kondenatuta lotuten zela ha inizituak jo duena.

Horregatik, inizitua barruntetan genuenean, atoan sartzen ginen etxean edo estarian inizituak jo ez egiteko. Gehiago oraindino, inizitua hasten zenean, kandelarioetan bedeinkaturiko kandela bedeinkatua izituten genuen eta erramu egunean bedeinkatutako ereinotza erre, inizituaren erpa zorrotzetatik libretako.

Egun baten, uda-udako kanikulan, nire gizona egon zen etxe aurreko portaladan auzokoarekin berbaz bedar sikuen arduraz. Euki be, zabal-zabal geneuzkan bedar sikuak solotan eta ez genuen behar euririk bedarrok aro onean metatu gura bagenituen.

Berbaz-berbaz zeudela, zazzzt!, ikaragarritzko inizitu bat jausi zitzaien gizon bieie bien erdi-erdira. Zelaiko lurra be alztatu egin zuen hak inizitu mantzinak eta gizonok, bizirik zeudela konturatu zirenean, orpoetan har barik erretiratu ziren korta barrura.

Ha asuntoa, sustuan bakarrik geratu zen baina inizituari bildurra eukitekoa da, izan be, bat baino gehiago hil be egin da inizituak jota eta entzuteak daude, hil ez arren be, baten batzuk kondenatuta be geratu zirela. Inizituarekin kontuz! Orain arte behintzat, ez da jaio gizonik, horri inizitu horri gehiago egin dionik, eta denpora izango da testigu, baina, Jaungoikoz kanpo, ez dut uste gero be, beste inok gehiago egingo dionik!

Urteak izango dira, Galdakaoko andretxu bat errenta ordaintzen joan zela ugazabaren etxera. Errenta, oilasko pare bat eta berrogeita hamar hogەرleko zen.

Oinez zihoan andretxu hori eta bildurrez beterik, paraje haretatik Patakon lapur famatuak bidera urtetan zuelako eta dena ostu.

Jon eta joan, halako baten, bidekurtze baten, zer?, eta, gizon batek urten zion bidera esanez:

— Nora zoaz ba hain prisaz andretxoa?

— Ba, ugazabari urteko errenta pagetan, baina arduraz noa zein Patakon lapurrak bidera urten!

— Neu nauzu Patakon!

— Ene ama! Oraintxe bai nagoela ni ona!

— Ez zaitetz ikaratu! —esan zion Patakonek.

— Ikaratu ez? Zer egingo dut ba? Ugazabari errenta guztiz pagetako beste diru be ez dakart, hogەرleko bi falta zaizkit kitututeko eta orain dakardana be kentzen badidazu zer?

— Ez zaitetz artegatu! —esan zion Patakonek—, neuk emongo dizkizut hogەرleko biak eta paga iezaiozu ugazabari errenta guztia eta zoaz bake bake-an!

Andretxoa ikaratu be egin zen baina halan eta guztiz be, joan egin zen ugazabaren etxera eta errenta ordaindu.

Ugazabak, ohitura zen lez, bazkaria emon zion beste errentadore guztiei bezala eta bazkaldu orduan berriro etorri zen bere etxera.

Etxera heltzean badinotse etxekoei oraindino be sinestu ezinik egun horretan bizitakoa:

— Errenta osoa kitutu dut!

— Zelan ba?

— Ba, honantxe eta honantxe Patakonek urten dit biderdira eta ostu beharrean berak eman dit falta izan dudana!

Etxekoei kostatu egin zitzairen sinestutea baina geroago jakin zuten Patakonek ostean egin zuen fetxoria.

Patakon, zaldi gainean ibiltzen zen eta egun horretan, gauez, zaldiari erradurak atzekoz aurrera josi zizkion honantz datorrelakoan harantz joateko.

Haren Galdakoztar andretxoaren ugazabaren etxera allegatu zenean, eskilara bat hartu, igon eta errenta diru guztiak ostu zizkion hari ugazabari.

Patakon, beti lapurra. Kasu honetan hogerleko biko abisaria imini zuen baina gero errenta-diru guztiak bereganatu.

Baina, beste batzuen terrenoko mugarrietan barrura sartzen denak, gaur ez bada biar, aurkitu egiten du bere ordea eta esaten dute azken txarra izan zuela Patakon lapurrak.

Bedia partean, Kolasiño dago eta bertan ur-errota bat. Egun baten, gizon bat joan zen Kolasiñoko errota horretara gari-zorro bat ehoten.

Bidean dihoala, asto bat plantatu zitzaion bidezidor erdian eta bere purrustada eta ostikadekin ez zion pasorik uzten.

“Kenakit enberazutik” esaten zion baina hak astoak zirkinik be ez zion egiten. Berriro be esan zion kentzeko eta beste hainbeste.

Halakoren baten, haserretuta, maldizioka hasi zitzaion “txori gorriak” botaten esku-makila jasota.

Maldiziook bota bazituen ba ze, ha astoa hazi eta hazi egin zitzaion bildugarrizko itxura hartuaz.

Gizona sustatu egin zen demasean eta sustetarik, aitaren eta semearen eginik badino berekitan:

— Zer Jaungoiko da ba hau asto hau? Hau ez da parte onekoa, Jesus, Maria eta Jose, erduzie laguntzera, osterantzean, nireak egin du!

Horiek berbok entzun zituenean, hak asto deabruak alde egin zuen damorro baten Lekubaso-ko presarantz eta handik gehiago, ez ei du ikusi inok ha asto deabrua.

Egun baten, Bidebietatik San Migel-era zetozten nire aita eta amama. Erreka bazterretik etorri ziren. Erreka horretan, Perratxa deritzon erreka-arroan, egun bi lehenago, gizon bat ito zen.

Perratxa-ra heldu zirenean nire aita eta amama, honek, amamak, hau zer hau esan zion semeari ondo-beharrean:

— Semetxoa, hementxe ito zen gizon bat lehengo egunean eta erreztatu dezagun “Aitagurea” bat bere alde.

Halantxe egin zuten. Baina “Aitagurea” erreztatu akabatuz batera, Perratxa-ko uretatik zezen batek urten zien ahotik sua dariola eta buelta bi emon orduan euren ingurutik, berriro be sartu zitzairen Perratxa-ko putzuan.

Ama-semeok sustatu egin ziren, eta ez gutxi, batez be semea, nire aita, eta horretara badinotso nire amamak nire aitari:

— “Horrek gizon horrek, ez dauka errezu beharrizanik, inpernuan dago, goazen behingo baten etxera!

Behin etxeraz gero, etxeko eta herriko, denak jakin zuten gertatutakoa. Udaberrirantz, abadeak, soloekin batera ha erreka arroa be bedeinkatu egin zuen eta harrezkero ez da gehiago zezen demonintru horren berririk entzun.



JESE-95

Gautiluntze baten, iturriko uretan joan zen Ariz-ko gizon bat eta orduakarenean be ez zenez agiri, jaubetu egin zitzaizkion etxezoek.

Etxe inguru guztiak arakatu zituzten eta ezer be ez. Iturrira bertara be joan ziren eta gerizarik be ez.

Begiran pasatu zuten gau guztia eta eguna zabaldu zuenean, kanpoko eskilarapean aurkitu zuten ha gizona mandaituz beterik. Horretara, esan zien etxezoek ikaraz beterik:

— Zer Jaungoiko pasatu zaizun baino ez da!

— Zer pasatuko zitzaidan ba, abemariak jo eta gero joan nintzen iturriko uretan eta sorginek harrapatu naute eta batetik bestera erabili gauaro guztian!

Etxezoek, parte emon zien herriko abadeari eta hak, errogatibak egitea pentsatu zuen, zein berriro be antzekoren bat gertatu ez dadin.

Esan eta egin. Eleiz inguruari hiru buelta emonik egin zituzten errogatibok eta halantxe akabatu zitzaizkigun sorgin guztiak beti betiko.

Baten seguru, hortik Gallotik Kolasiñorantz joan ei zen andre bat abemariak jo eta gero, eta Galloko kurtzeroko oilarraren ondotik zihoala, txerri-eli edo txerri banda bat agertu zitzaion irrintza eta urrumotsean.

Andre hori, odolak ur egiteko moduan zegoen zer egin ez zekiela. Apur bat konortera etorri zenean, berriro be abemariak errezatu eta orpoetan har barik ekin zion etxera-bideari.

Behin etxeraz gero, bizitako guztia kontatu zien berekoei. Etxekoek bur-lazartzat hartu zioten kontatutako guztia esanez:

— Txerri-eli batek urten badizu bidera, zergatik ez duzu ba ekarri bat etxera, urtean zehar hazi eta jateko?

— Zaudete ixilik! —erantzun zien hak andreak—; horiek ez dira izan kortaxietako moduko txerriak, horiek erdia txerri eta erdia pertsona-arimak izan dira, hilez gero kondenaturik dabiltzanak mundurik aramaio harik eta euren bizitzako mantzinkerien ordea betatu arte. Horiengin kontuz! Horiengandik hobe egun argiz apartatu, zein norberari behar ez denaren bat egin. Berriro dinotsuet, kontuz!, eguna egunezkoentzat da eta gaua gauezkoentzat; hauek azkenengook, norbera bila joan barik be laster gainetu litezke gero! Gauari errespetoa izan behar zaio, ezbeharrak gertatu egiten dira eta!

Hak andreak, hain esan zituen berbok barrutik eta bene-benetan, etxe-koak be hatan geratu ziren eta ez zuten komertazino hori gehiago atera euren artean, badaezpada!

Paulo Arrigorriagakoa, —guk bertokok Arguya deritzogu gure herriari—, San Roke ermitapeko basoan zebilen ganaduei azpiak egiteko azpigarrria baten bere arrebarekin.

Halakoren baten, gizon ezezagun bi agertu zitzaizkion Paulori eta bere ondo-ondora joanik esan:

— Hi, geurekin etorri behar duk Zollora!

— Zollora zertan?

— Ba, lapurrak gaituk eta Zolloko hire urli lagunari lapurren egiteko!

— Lapurren? Ez horixe! Eta gainera zer egingo diat ba ipuztarri eta nire arrebarekin?

— Ipuztarria bialdu ezak arrebarekin etxera eta hi hator gurekin, onezean gura ez baduk txarrezean!

Paulok gauzak berde ikusi zituen eta esaneko moduan, bere arreba etxera bota zuen ganaduekin eta bera lapurrokin geratu.

Zollorantz zetozten hirurak hiruretara mendia behera eta, etorrian-etorrian, lapurrek haxe esan sioten Paulori:

— Zollora heldukeran, urli baserrian joko dituk atea, hango etxaguna hire ezaguna duk eta hik eskatzen badiok dirua ez dik ezetzik esango. Gero bueltatu eta geuri emon lapurren egineko diru hori, entzun duk?

Paulo bildurkilik eta kakadario geratu zen lapurren eskariari zelan erantzun pentsatuz. Bazekian amenazupean be ez zena gauza holako lapurreta bat egiteko eta ondo baino be hobeto ezagutzen zuen baso barrenera heldu zirenean badinotse Paulok lapurrei:

— Kakalarri nauk eta utziko didazue hor bazter baten frakak soltetan?

— Bai, baina arin, ez diagu kopletarako astirik eta!

Paulok, bazekienez non zer zegoen, lapurrok zigarro bat egiten eragoio-
en bitartean, sasi eta idaz beteriko karobi sakon batera sartu zen eta han itxa-
ron zirkinik egin barik.

Lapurrak luze eritzita zeuden Pauloren tardantzarekin eta eupada bat bota
zioten baina han ez zegoen erantzunik.

Lapurrok artegatu egin ziren eta bata batetik eta bestea bestetik Paulo bila
hasi ziren. Egin ahalak egin zituzten baina dena alperrik, Pauloren gerizarik
be ez!

Eguzkia Zollo-mendi ostean sartu zenean, lapur biok bertanbera utzi
zuten Paulo topeta hori eta ospa egin behar izan zuten euren eginena bete
barik.

Paulok, karobi zaharrea igaro zuen gauaro guztia eta hurrengo egune-
an, goiz beluan, inor ez zuenez barruntetan ingurutik, urten karobitik eta
katua sagu koiuten baino be ixilago logratu zuen Zolloko baserri baten atea
jotea.

Behin Zolloraz gero, joan zitzaizkion bildur guztiak. Parte emon zuen
herrian eta handik luzera barik koiu zituzten lapurrok Arguyatarren bakerako.

Horrek Anbotoko Señora horrek historia asko dauka. Eurretan bat hauxe duzu, gure zaharren esanetatik, nik neuk ezin nezake emon horren testigantzarik baina.

Behinola, Mañaritik Urkiolara bitarteko baserri baten, bikuntzako etxe baten, batean bizi ziren atso-agureak euren seme-alaba solteruekin eta bestean lehenengo ezkondu zen semea, bere andre eta alaba ederrarekin.

Udako bero kanikula baten, seme ezkondu hori, basabehietara joan zen urteko zezinetarako elegia egiten.

Bero zegoen, bero eta behi nabarra nondik denik be ez. Behi nabarra ezeze, urik be ezin zuen aurkitu udako zikatearekin agortuta zeudelako errekatxo guztiak.

Halakoren baten, egarriaren egarriaz, bero-pasaturik, maldizio-gedarrez hasi sen berekitan esanez:

— Jaungoikoak entzungo ez badit be, deabruak berak entzungo balit eta hementxe sortu iturri bat ura edan eta asaskaldi on bat hartzeko!

Berbok ahotik askatuz batera, dotore jantzitako gizon bat agertu zitzaion ondoan eta esan:

— Zer gura duk ba gizon?

— Zer? Ura, zer gurako diat ba!

— Bazeukat nik hiretzako beste ur baina ur horren truke eure alaba emon behar didak neurekin ezkontzeko!

— Bai gura baduk, alaba zein beste edozein gauza, baina arin ur hori, ito behar diat eta!

Esan eta egin. Sortu zen ur txorroa eta gosunea goitik behetik, trago eder-rak bota zituen gizon horrek.

Behin freskaldia hartu zuenean, berriro be berba egin zion hak gizon dotoreak eta badinotso:

— Imin itzak eskuak txorroan eta eraztun bat jausiko duk. Har ezak eraztun hori eta sar iezaioak alabari hatzamarrean.

Mañariko gizon horri etxera etorteko tertzioa allegatu zitzaion eta eraztun hori eskuetan zuela etxera joan zen.

Bidean nahiko lorrik emoten zion bere buruari zek izan behar ete duen pentsatuz eta etxera helduz batera badinotso bere andreari:

— Andrea, gaur Txitxirri edo deabrua ikusi dut basoan dotore jantzita!

— Zaude ixilik, esan be egitea holakorik!

— Ikusi bakarrik ez, hauxe eta hauxe gertatu zait eta hona hemen eraztuna gure alabari hatzamarrean iminteko!

Andrea aitearenka eta “ene Jesus”ka zebilen gizonak eraztuna alabari hatzamarrean sartzen zion bitartean.

Hirurak zeuden harrituta eta andreak, eleiztarra zenez, geroagorako utzi barik, badino estukuraz beterik:

— Goazen atoa Abadiñoko abadeagana, inok jakitekotan harexek jakingu du zer egin behar dugun tragu honetatik bakez urtetako.

Joan ziren hirurak eta kontatu be egin zioten abadeari gertatutako guztia. Abadiñoko abadeak badinotse:

— Badaezpada eraztuna ez kendu hatzamarretik zein deabrua haserretu. Gero joan etxera eta ez urten etxetik ezertarako be. Nik orain bedeinkatu egingo zaituztet, zeuok eta zeuon etxea eta hara ezingo da sartu deabrua, bedeinkazioen aurrean ez dauka eta podererik.

Abadeak, “in nomine patris...” eta gainetiko otoitzekin bedeinkatu zituen eta etxean gorde ziren atea eta lehioak guztiz itxita.

Hurrengo egunean, neska horren aita, berriro joan zen behi nabarra bila eta egin ahalak egin arren, ezin aurkituta, etxera etorri zen.

Afaiten zeudela, alabak behi nabarraren arrana entzun zuen eta malik pentsatu barik, aitak “geldi-geldi!” esan orduko, kortako atea zabaldu zion behi nabarrari.

Aita atzerik hara joan zitzaion baina berandu. Kortako atea zabalduz batera, zuzian desagertu zen alaba eraztun eta guzti.

Hurrengo goizean, jakitun zegoen Mañaria eta inguru guztia eta bila hasi ziren Anboto eta Urkiola inguruetatik. Dena alperrik.

Handik geroago batera, neska horren hiru mutil-lagun plantatu ziren bila joateko. Anbotoko koba nagusira joatea pentsatu zuten. Hirurotatik bi bildurtu egin ziren eta etxera bueltatu.

Ha mutil bakarra, mandazain indartsua zen izan be, ez zen geratu ha neska aurkitu arte.

Ibili eta ibili, allegatu zen Anbotoko koba atakara eta eupadaka hasi zen eza eskuan zeukala gogoratuz.

Baina, eza barik erregina lako andre eder bat aurkitu zuen koba barruan bere ule gorri eta luzeak orraztuten urregorritzko orraziaz.

— Nor zaitudan baino ez da? —esan zion mutilak.

— Hori gutxiena da. Nik neuk hemen egon behar dut betiko eta zu zoaz bakean zeure etxera! —erantzun zion hak neska ederretik be pasatuak.

Ha mutila etxera joan zen eta ikusitako guztia kontatu zuen aho-zabalik utziaz etxeko, herritar eta inguruko guztiak.

Gure zaharrek esanda dakigu, nik ez dakit zelango gauiluntzetan be, zutan eta garra dariola ikusten zutela Anbotoko kobako erregina hori eta horregatik imini ziotela hau izen hau: ANBOTOKO SEÑORA.

Superlegorreko koba, nire txabolatik hurren dagoen koba da. Handia eta sakona zaizu. Agotzarekin kargatuko kamioi bi bata bestearen gainean iminita beharko lirateke horren koba horren goia joteko.

Kobaren bokea hegoeran dago eta erdia Urigoitirantz. Haitzean barrura da eta esaten dute handik sakonetatik dijoan erreka Arraban sartzen dena dela. Ur freskoa eta iluna.

Gauza edo kontu asko kontetan dira Superlegorreko kobaren gainean. Baten seguru, baten batzuk joan ei ziren lehenengoz barrura eta barruan dena ei zen urregorria. Bigarrenez joan zirenean ostera, dena suge-burua.

Besteren baten, abade bat joan ei zen kobaren sakonak ikusten kandela argiaz eta haizeta batez amatatu egin zitzaion ha kandela. Errukarri aurkitu zuen bere burua, baina eskerrak bere bila joan zitzaizkion lagunek kandela negarrak ikusi zituztela zelaitik eta topatu, bestela han egiten du bereak.

Baina Superlegorren gainean entzun dudarik eta handiena zera da: Baranbioarrari pasatutakoa.

Txope Baranbiokoa ikatza egosten egon ei zen Superlegor kobaren ingurumarian. Ikatz txondorra gauzez be zaindu egin behar da eta hatan zegoela, goizaldeko ordu bietan Anbotoko Señora ikusi ei zuen Superlegorreko koban sartzen garra dariola, inizitua letxe.

Bildurtu egin zen Baranbioarra eta “neure Jesukristo jauna” errezetan era-goion harik eta harri-kanpaiak jo arteraino egunsentiarekin batera. Eskerrak errezuei —esaten ei zuen hak Baranbioarrak—, osterantzean batek badaki han zer gertatuko zitzaion!

Anbotoko Señora ezeze, sai antzeko txori deabruak be sartzen zirelazkoa daukat entzunda. Abemarietan urten eta oilarrarekin sartu.

Hau txorion kontu hau, ez dakizut ba zelan izango den baina Galda-kaoztar jakitun bati daukotzat entzunda hau zer hau. Ba horiek txoriok ez zire-

la parte txarrekoak saiak baino. Superlegorreko koba sakona da eta azken-
raino inor ez ei da allegatu gaurko adelantuak etorri arte, sakonari handi bat
dagoelako azken antzean. Ganaduak, udako beroetan leku fresko eta ura eda-
ten sartzen ei dira Superlegorren eta jakina, batzuk jausi han azkeneko amil-
degian eta tragatu. Orduan saiak joaten ei dira ha okela jaten. Galdakaoztar
honek aurkitutako hezurretatik ei daki hau kontu hau. Izan be igual izango
da egia ze lehenagoek holako konturik ez zekitenez eta gaurko erarik ez zute-
nez koba azkeneraino heldu eta hango hezurak aztertzeke, saiak barik parte
txarrekoak zirela uste izango zuten. Ikusi eta gero, edozeinek daki, arteraino
ostera inok be ez. Gaur egun, argitasun gehiago daukagu eta lehengo misterio
asko argitu egin zaizkigu. Jakituria zer den e!

Negu aurretxo baten, urteko lehen edur-malutak barruntatuz batera, ardie-tara joan ziren Paulo eta Pello anaia biak.

Ardiak Balzolako koba-zuloaren ondoko landan zeuzkaten eta edurra loditu baino lehen etxera edo tejamanara ekarri nahi zituzten.

Han zebiltzan ardiok pilatu nahian, bateko txakurrari txistu egin, beste-ko makila jaso edurrak mara-mara eragoion bitartean.

Ahalegin guztiak eginda be, dena zen alperrik. Edurrak, goian-behean, zarratu-zarratu ekiten zion eta santiamen baten zuritu zen dena, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei hanka meheak edurtzan sartzen zitzaizkienean, euren artileak edur-bolaz jazten ziren pisuaren pisuaz ibili ezinik utziz.

Ardiok lehorreratu nahiaren ekina begien bistan zegoen baina ezina bis-tarago. Horregatik Paulok ondobeharrean badinotso Pello anaia gazteari:

— Hi, honekin edurtza honekin ezingo gaituk etxera joan, pentsatu be ez. Orduan, horraxa, Balzolako koba-zulora eramango dizkiagu ardiok harik eta lurmendu arte. Zer deritzok?

— Nik neuk ondo! —erantzun zion Pellok. Nire aldian, ez diat sekula honelako edurtzarik ezagutu. Hik bai?

— Hobe ez! Ni neu gerrirainoko edurtza be ezagututa negok, hi jaiobe-ri hintzela. Orduan, basabehiak eta zaldiak sartu nizkian hortxe Balzolako koba-zulo horretan. Gaur ardiak egin beharko dizkiagu, osterantzean hotzak hilgo dizkik gesu baten gautu egin behar dik eta.

Halaxe egin zuten. Aidatu ardiok eta denabeharrean heldu ziren ardi eta guzti koba-zulo haretara.

Behin koba-zuloraz gero, ardiek euren artileak astindu zituzten edur-bolak botateko. Jarraian etzan eta hausnar hasi ziren haitz-zuloaren abaroan.

Paulok eta Pellok be euren soinekoei astinaldi bat emon eta gero, ezarri egin ziren koba-zuloaren arratean.

Paulok, sua izitu zuen eta jateko apur bat atera bere zakutotik. Pellok ez zeukan soinekoa baino besterik eta esan zion:

— Hi, Paulo, zer dela eta ekarri duk hau guzti hau? Jakin egin duk ala gaur gaua hemen egin behar diagula?

— Jakin ez, —erantzun zion Paulok irribarreka—, baina edurrarekin kontuz, edurra zuria dela beltza duk eta badaezpada zuhur ibiltealakorik ez zegok. Nik neuk be aitagandik ikasita zeukat eta hik heuk be ikasiko duk nire adinera orduko.

Biak bietara, jan zuten Paulok eramandako jakia eta kontu kontetan zeuden noizbehinka sugarretan eskuak igurtziz.

Kandela bedeinkatu bat be biztu zuen Paulok. Honek beti eramaten zuen kandelario egunean bedeinkatutako kandela bedeinkatua aldean, behar zenean izituteko, sinesmen handikoa zen eta.

Loak noiz hartuko zeudela, Pellok suge handi bat ikusi zuen suaren ingurumaritik ardietarantz.

Zutundu egin zen eta surtatik bertatik ilenti handi bat hartuz, ha suge ika-ragarria hiltzen joan zen.

— Zertan hoa? —itandu zion Paulok.

— Suge endemoniño bat zegok hemen eta hil egin behar diat.

— Ez, Pello, ez ezak hil, hori be Jaungoikoak egina duk eta!

— Berdin zidak, hil egin behar diat eta kito!

Esan eta egin! Pellok indar guztiaz bota zion ha ilentia sugea buruan joko zuelakotan, baina, huts egin zuen eta buruan barik buztanean jo eta buztan punta kendu.

Sugea estaldu egin zitzaion koba barruan. Txori-gorri eta guztiak bota zizkion sugeari koba barruko iluntasunean, baina alperrik, sugearen gerizarik be ez.

Gaua igaro eta eguna zabaldu zenean, Paulok joan-etorri bat egin zuen inguruetatik eta esan zion Pellori:

— Hi, egun eguzkitsua egertu duk eta egurdartean ez bada, arrastirako lurmenak agertuko dituk eta joan ahal izango gaituk astiro-astiro etxera.

Halaxe gertatu zen. Arrastian, hartu ardiok eta gau iluntzerako bake bakean zeuden etxean ardi bat esan eta bera be galdu barik.

Negu luzea be joan zen eta udaberria etorri zenean, Paulori guda batera joan beharra etorri zitzaion.

Urrun joan behar izan zuen, Luyandoko Malato arbola baino askoz urrunago. Borondatez kontra baina joan egin behar.

Guda hori luzea izan eta luze egin zitzaion Paulori, baina halakoren baten akabatu zen gerra hori eta lizentziatzeko eguna allegatu.

Gabon eguna zen. Eguerdi ostean lizentziatu zituzten gudariok. Poza eta algara ez zen falta, baina Paulok, begiak jaso eta esan zion bere buruari:

— Ni negok ona! Gabon arrastia duk eta ez zeukat gaur etxera heltzeko modurik. Aurtengo Gabonak bidean egin beharko dizkiat. Baina tira, konformatu egingo nauk, gerra honetatik bizirik urten diat eta.

Hausnarketok eginda, etxerako bidea hartu zuen Paulok. Oinez zetorren bakar kabarrik eta pentsakor.

Handik lasterrera gizon ezezagun bat hurreratu zitzaion Paulori eta era honetara berba egin zion:

— Zer burutazino darabilk buruan?

— Zein erabiliko diat ba, Gabon gaua etxean egin gurarena! —erantzun zion Paulok.

— Benetan be Gabon gaua eureekin egin nahi duk?

— Hik heuk be ez dakik zenbat baino gurago niakeen Gabon gaua neure etxekoekin egitea!

— Hori gura baduk, plantatu hadi apurrin nire neure lepoan eta nik neuk eramango haut airean! Baina, kontuz, kondizio batekin: egaz goazela ez duk esango “arre deabrua” baino besterik, entzun didak?

Paulok ezin zuen ezer ulertu baina, alde batetik etxera-gogo handia zue-
nez eta bestetik hari gizon bereziari ezetz esaten ausartzen ez zenez, badi-
notso:

— Ondo zegok, joango nauk. Baina ba al dakik hik ni nongoa naizen?

— Jakingo ez diat ba! Gogoratzen al duk, behinola, hi eta hire anaia nola egon zineten Balzolako koba-zuloan gaua egiten edurtza handi batekin eta zelan hire anaia Pello ha sugea hil guran ibili zuan!

— Bai!, gogoratuko ez nauk ba!

— Ba ikus ezak nire eskua, hatzamar txikia falta diat. Hauxe duk hire anaiak ilentiarekin kendutako buztan punta. Oraindino hire anaiarenganako berbak ondo gogoan dizkiat: “bakean uzteko sugea be Jaungoikoak egina dela eta”; horregatik zorrean negok eta eramango haut Balzolako kobaraino.

Esan eta egin! Deabruak apurrin hartu zuen Paulo eta honek “arre deabrua” esnaz batera airean zeuden.

Gabon egun horretako iluntze aurretxoan heldu ziren Balzolako koba zuloaren arratera. Paulo guztiz zorabioturik zegoen eta bere konortera etorri zenean ezin zuen sinistu be egin Balzolan zegoenik.

Deabruak Paulori zion zorra hobeto bete guran edo, hauek berbok esaten hasi zitzaion:

— Hi, Paulo, hator koba-zulora barrura, hor barruan zeozer zeukat bai hiretzako eta bai hire anaia Pellorentzat.

Joan ziren biak barrura eta han kobaren sakon sakonean artza bat bete urregorri zeukan deabruak gordeta. Horretara badinotso:

— Eutsoz, har itzak artza eta bertako urregorri guztiak ondo eginaren pagurako. Ostera, hire anaia Pellori eraman iezaiok hau gerriko gorri hau eta esan iezaiok oraingoz libratu egin dela. Hi izan haizen kasuan Pello izan balitzok, harenak egin zian!

Ikusiak eta entzunak entzun ondoren, Paulok, hartu deabruak emondakook eta abemarietarako bere etxea jo zuen.

Ateak jo, etxean sartu eta bizitako guztia kontatu zien etxekoei. Haiek harrituta zeuden baina pozik.

Denak lasaitu zirenean, Paulok Pellori esku bata lepora bota eta bestean gerriko gorria zeukala etaten dio:

— Hi, Pello, hau gerriko hau heuretzat eman zidak deabruak!

— Nik zertarako behar diat ba gerrikoa, —erantzun zion Pellok—, lotu iezaiok etxe aurreko intxaurrari!

Halaxe egin zuen Paulok. Baina gerrikoa intxaurrari lotuz batera, zzzzziiiiisssstttt!!, sustrai eta guzti desagertu zen ha intxaur hondoa lainoetan galduz.

Denak ikaratu ziren eta badaezpada, haiek urregorriak be, etxerako utzi beharrean, abadeari eramatea pentsatu zuten. Eta esaten da, haiek urregorri guztiak San Pedro parrokiako urteroko Gabon gaueko meza ordaintzeko erabili zirela.

Dima herrian entzute handiko leku bi dauzkagu. Bata Balzola eta bestea Lamindao ondoko Petralanada.

Jentilak Balzolan bizi ei ziren eta denok izaten genion bildur zein behar ez denaren bat egin labrantzetan. Etxeetan ezin zitzaizkigun sartu, bedeinkatuta genituelako.

Labrantzetako koxitzak logretako be bedeinkazioak botaten zituen abadeak eta entzunda daukotziet zaharrei, badaezpada, jentilak pozik eukiteko, Balzolako koba zulora dirua botaterainokoak egiten zituztela.

Sorginak berriz, Petralandako bidekurtzean egiten ei zituzten euren funtzinook eta gauzez ez ei zen handik arrimatu be egin behar badaezpada.

Baina baten, abadearen esanez, ezin gauza onik egin eta sorginokin, Petralandako bidekurtzeko pagorik handiengan kurtze bat egitea erabagi zuten Dimoztarrek. Eta zer? Ba, santo erremedio! Hantxe akabatu ei ziren sorgin-keriok eta sorginen bildurrok.

Urteak joan urtean etorri, Petralandako bidekurtzeko ha pagoa bota egin zuten zertako hartako eta jakina, Dimoztar zaharrak kexaz beterik agertu ginen hak kurtzedun pagoak mesede baino ez digula egin esanaz. Gaur egun, ez du ia inok sinesten sorginetan baina hak kurtzedun pagoak ez dio inori kalterik egin eta bere berezko bizia ondo irabazita euki du. Dimoztarrok diruagatik be ez genuen bota eta salduko ha pagoa, guretzat aparteko sinifikazinoa euki duelako. Baina tira, belaunaldi batetik bestera gauzak aldatu be egiten dira eta hori goiti beiti zahar on egin gaitzeltela Dimoztar eta gainetiko guztiok!

Dimoztar bat zebilen behin baten ikazginen. Dimako hegoalde edo eguzkibegi baten zegoen egurginen gero ikatz-txondorrari betegarria botateko. Estu eta larri zebilen ibili be ze, ikatz-txondorra martxan zeukan eta badaezpada egur gehiago gura zuen bere ondoan.

Hatan dabilela, maldizino edo txorigorri bat bota zuen eta boteaz batera deabrua agertu zitzaion esanez:

— Egurra ezeze, ikatza be nik neuk egosiko diat heure alabaren arima eskeintzen badidak!

— Bai gura baduk! —erantzun zion dimoztarrak, zer esaten duen be ez zekiela.

Deabrua hasi zitzaion ikatz beharrak egiten eta horretara, dimoztarra larritu egin zen eta Dimako parrokoagana joan eta konfesatu.

Abadeak, bedeinkazioa emon eta gero honela esan zion, hari, arteak hartu ezinik zegoen ikazginari:

— Joan hadi ezodein baserritara eta aurkitu ezak marti-oilar bat. Gero sartu kolkoan eta joan ikazgintzako lekura. Behin haraz gero, deabruak ikatz-beharrak akabatu baino lehen, kukurruku egin erazo iezaiook oilarrari eta podere barik utziko duk deabrua.

Esan eta egin. Joan zen ikatz-txondorra egosten zebilen artadaira eta deabruak ikatz egostea akabatu orduko, “KUKURRUKU” egin erazo zion marti-oilarrari eta deabruak alde egin behar amorrus beterik.

Halantxe lortu zuen hak gizonak bere alaba ederraren arima salbatzea eta aurrerantzarako kendu zitzaizkion bai maldizioka ibilteko gogoak. Zelan ez ba?

Gure aurrekoen esanetatik eta, Anbotoko Señoreak Urte bete egiten ei zuen Anboton eta beste urte beta Orduñako haitz zuloan, han Antiguako Amaren azpian.

Orduñako abadeak eta Urkiolakoak, urtero bedeinkatzen zituzten haitz-zulo biak Anbotoko Señora horrek zein kalteak egin gure soloetan.

Gabon eguna izaten zen bedeinkazinoa botateko eguna. Urte baten, Orduñako abadea atzeratu egin zen bedeinkazinoa botaten eta inon diren kalteak egiten hasi zen Anbotoko Señorea Nerbion ibaiaren ingurumarietan.

Orduñako abadea atoaan joan zen Orduñako haitzera eta bedeinkatu egin zuen haitz-zulo hori Anbotoko Señorea kanpoan dela.

Jarraian, Urkiolako abadeari emon zion parte, hak be, beste hainbeste egi-teko Anbotoko koban.

Urkiolako abadeak, Gabon egunetik zeukan bedeinkatuta Anbotoko koba zuloa eta Anbotoko Señoreak ez zeukan han sartzerik edo gordetarik.

Koba biak bedeinkatuta geratu zirenez, Anbotoko Señorea bietatik kanpo geratu zen eta urte guztian ibili ei zen Anbototik Urkiolara haronakoan, garra dariola gauiluntzetan en partikular.

Nik neuk be ez dakit zenbat denpora emon behar duen Anbotoko Señoreak egaz garra dariola, baina hemeko agure bati daukotzat entzunda, anega-gari batek garautan daukan beste urte egon behar duela batetik bestera! Entzun, halan daukat eginda, baina egia den?, batek badaki!

Miraballes herrian, gaur Ugao deritzogunean, Anbotoko Señorearen entzute handiak egon izan dira beti. Zaharrek sinestu egiten zuten, gazteok ez hainbeste.

Egun baten, hemen Amendolan, Upo mendia baino beheratxoagoan, harizdui bat zegoen eta hodei egun baten inizituak ardi batzuk tragatu edo hil egin zituen.

Ardi tragatuok karobi zahar batera bota zituzten eta euren okela usteltan hasi zenean, sai bandak etorten ziren ha okela ustela jaten.

Hau ikusirik, Ugaoko bi joan ziren egun baten hara karobira eta saiak barruan direla, bota gainetik sare bat eta saiok atrapatu zituzten.

Ordurako prest zeuzkaten fabrikan egineko burdinazko orkatxak eta galtzupollak gero euren fetxoria egiteko.

Zein zen fetxoria? Ba, hauxe: saiok bizirik harrapatu, galtzupollak orkatxetan estu eta sai bakoitzari erpetatik eskegi. Gero sua emon galtzuari eta egaz egiten utzi, sai banda horrek Anbotoko Señorearen itxura har zezan.

Pentsatu eta egin. Irailaren zortzian, gaulendiko abemaria ostean, Ugaoko Udiarrako Amaren jai egunez soltatu zituzten saiok eta garretan joan ziren Ugao, Arrankudiaga, Audio eta Orduña gainetik.

Behin Orduñaraz gero, galtzupollak erre egin ziren guztiz eta akabo, halantxe akabatu ei ziren haiek sugarrak, ezertariko kalterik egin barik.

Ugaoko bromista biek, lorik be ez zuten egin gau guztian. Denpora guztian zeuden pentsetan eurek sortu zuten arriskuan. Haiek sugarrak amatatu ziren partetik, amatatu ez balira zer? Bazterrak guztiak erre! Horregatik, sekretotan euki zuten ha fetxoria luzaroan, etxeko, herriko, inguruko eta kartzelaren bildurrez.

Hori, bromista bien aldetik, baina herrian ez zen entzuten Anbotoko Señorea garretan ikusi zutela baino besterik. Gente guztia sinestuta, abadeak eurek be zer pentsaturekin buruan, berba baten esanda, Nerbioi arro guztia egon ei zen uleak arteztuta eta gorputzean pipiladurearekin harik eta handik luzarora fetxoria guztia argitu artareino. Ez zen gutxiagorako izan be, horraitio!

Olarreko Señorea deritzona, Zeberiko Upon egoten ei zelazkoa daukatzut entzunda eta Upotik Txakarrera ibiltzen ei zela bere haronakoak egiten.

Upon eguzkiak jotzen zuenean, Upon geratzen zen bere ule gorriak orraztuten eta Upoko eguzkia joaten zenean, Txakarrera etorri eta beste hainbeste egiten zuen.

Señora galanten batek izan behar zuen. Ez zeukan fama onik ze, sarri ikusten ei zuten erdi biluzik inguruko artzain, mandazain eta bidazkiei on baino kalte gehiago egiten.

Egun baten, Olarreko andre bat joan zen Upora Señora horri kartilla kantatzeko asmoz eta ikustean badinotso:

— Hi, zer egiten duna erdi biluzik gizonak guztiak proboketan? Hi pertsona barik inpernuko zezena haiz eta utz gaitzak bakean!

— Ja-Ja-Ja! Niri neuri ahoa berotzen hator? Joan hadi etxera eta ikusiko duna zer den niri atentzioa deitzea!

Ha andrea joan zen ba bere etxera eta helduz batera surten egosten utzi zuen esne guztiak ganaz egin ziola konturatu zen eta bainoen berekitan:

— Horrek Olarreko Señora horrek maldizioa bota zidak baina ez dik berearekin urtengo, ez horixe!

Geroagorako utzi barik, andre hori D. Pedro abadeagana joan zen eta bizitako guztia kontatu.

Abadeak, hurrengo egunean, Upoko ermitara joan eta bedeinkatu egin zuen ha paraje guztia eta Olarreko Señoreak Txakarrera joan behar izan zuen. Txakarre bera be bedeinkatu egin ei zuten eta gero ez daki inok handik norako bideari eragon zion, baina egundo gehiago ez zena egertu ondo jakitun gaude. Bakea langoa!

Zeberio helbarrenen Orozko parterantz Udiarra dago, Miraballes edo Ugao herriaren linderoan.

Udiarran Amabirjinea agertu zen arantza edo elorri baten gainean, hantxe, Zeberio eta Ugaoren arteko lindero-linderoan.

Zeberioztarrak Udiarrako Amabirjinea gaur Santa Kurtzeko eleiza dagoen tokira eroan zuten. Lehenago han ez zegoen eleizarik, haritz handi bat baino, eta haraxe eroan zuten.

Handik lasterrera, Udiarrako Amabirjineak, Santa Kurtz utzi eta berriro hartu zuen Udiarrako arantza gainea.

Gauzak horrela, Zeberio eta Ugaoko abadeak Ugaon alkartu ziren gaur Udiarrako Amabirjinearen eleiza dagoen tokian.

Garai aretan, jakina, han be ez zegoen gaurko eleizarik, beste haritz handi bat baino. Haritz horren azpian alkartzen ziren Zeberio, Orozko, Laudio eta abar luze bateko pastoreak Gorbeiatik ganaduak nora ekarri ebatzi eta barrutiak banatzeko.

Abadeok be han alkartu ziren eta Udiarrako Amabirjinea zein herritara eroan ebatzi baino lehen, prozesino bi egitea onartu zuten: Bata Udiarratik Santa Kurtzera eta bestea Udiarratik Ugaora, hau da, bietan zeuden haritz nagusipetara.

Prozesinoetarako baldintza bat imini zuten, zein?, eta haxe: Bai batzuek eta bai besteek, kandela bedeinkatu bana izituta eroatea, eta harizpe bakoi-tzean kandela izitu gehien daukanarentzak izatea Udiarrako Amabirjinea.

Lehenengo Zeberiokoek eragoioen prozezinoan eta esaneko harizpera heldu zirenean, ia kandela guztiak amatatuta zeuzkaten.

Ugaokoek be beste hainbeste egin zuten eta hangoek osteraz askoz kandela gehiago euki zituzten amatatu barik euren harizpera allegakeran.

Herri bietako abadeok berriro be batzartu ziren eta ordurik hona Ugaon geratu zen Udiarrako Amabirjinea.

Ugaotarrak ermita txikitxo bat egin zioten Amabirjineari hantxe harizpean eta urteak joan urteak etorri, txiki geratu zitzaenez, eleiza handiagoa egin zuten, gaur dagoena. Polita benetan! Gaineko fedea eta debozinoa diogun denok be!


Surteko hautsa ona baino hobea genuen lehenago erropen garbikuzirako eta ondo esimadu eukiten genuen hauts hori menester horretarako.

Lehenago, lexia egiten zen erropen garbikuzia egiteko. Egurrezko kaxa aparteko baten ur irakina eta surteko hautsa nahastuten ziren eta hara barrura erropea sartu eta itxi ondo beratuten. Gero erre kara eroan eta han labareroan garbitu eta harrian jo, gero bihurtu, eta altzikitu orduan eskegi sika-tzeko.

Frantzesillazko edo beste tela gogorreko soiñekoak, txerriturik egoten zirenez, errekan beratuten itxiten ziren harri bat edo gainean iminita, urak eroan ez egiteko, zein ur korrienteak eroan.

Eta, surteko hautsa edo basoan eginekoa, Zeberiotik hona Miraballesera pasetan zuten, otzaretan eta, gero trenean Bilbora eroateko bogadak edo lexiak egiteko.

Orduko interan ona zitzaizun hori hauts hori, ez bakarrik garbikuzietarako, soloetarako be bai, txori-sats edo abonu orde, gaur adelantu handiak daude baina. Holantxe, holantxe bizi ginen, komerentzia handi barik baina pozik. Gaur, larrean bizi gara, ez deritzazu larregi gaurkoari? Ni neu behinik behin hatakotzat nago!



JESSE-95

Orain kontatuko dizudana ez da kontua egia baino. Nik neuk entzunda neunkatzen gure parroko zaharrari baina bere esateetatik, hau pasadizu hau, gaurko erderan barik ordukoan eskribituta dago eta parroko zaharrak berak leiduta liburu inportanteren baten.

Juizio eta guztiak egon zirela kontatu zidan eta juizio hori 1555ean egin zela, non?, eta Valladolid-en. Haraino joateko zeozer izan be egingo zen, ez deritzazu?

Nik neuk beharbada ez dizut ondo kontatu be egingo baina gutxi gora-behera honela zaizu han pasatu zena.

Hemen, Zeberion, antza, Katalina de Gezala izeneko neskatxi bat sorgindu egin zuten eta bere aitak, Juan de Aranak, juiziora eroan zituen Diego de Ginea eta Maria de Gezala.

Neskato horren deklarazioetan, hainbat Zeberioko persona zein auzonaren izen agertzen da.

Nik neuk ezin nitzake denak gogoratu, baina auzunen artean batzuk gogoan dauzkat, gaur be hortxe dauzkagu, esate baterako: Gezala, Areilza, Bertzuten, Artxanda, Ereñotza, Amezola, Barbatxao, Isasi, Gorozitu, San Bartolome, Etxazo, Torrezar, Solatxi, Argiñao, Zeberiozana, Uribarri, Larrabide eta zelan ez parrokiaren izena: Santo Tomas de Olabarrieta.

Sorgintzeari jarraituz, antza, Katalina de Gezala neskatxi hori sorgindu egin zuten Petralandako landara eroanez eta hango akelarre edo sorgin funtzioan perte hartu erazoz.

Akelarre horretan, antza, deabrua zen nagusi eta naturaren aurkako gordinkeriak ez ei ziren falta eta "honek barre egiteko gana emoten dit" baina deabruak akerraren itxura hartzen ei zuen eta bere txixa edan erazoten ei zioten neskatxi horri.

Ereñotzatik hasita joaten ei ziren egaz Petralandara. Liburuan Petralanda dino, baina Zeberion ez dago Petralandarik, Akerlanda bai. Baliteke erraturen bat izatea edo Zeberiotik Dimara egaz joatea eta han egin akelarrea, Dimako Petralandako Landan.

Gure parroko zaharraren esanetatik, detalle askoz be gehiago dakarz liburuak, baina, laburtuz eta argi esanez, azkenean, neskato sorginduaren aitak irabazi egin zuen juizioa eta horren ondorioz, Diego de Ginea eta Maria de Gezala zigortu egin zituzten ura eta kordel zigorrera.

Zigor hori ez ei zen izan gogorrenetarikoa, eta gutxiago garai horretan gertatu ziren sorginkerien ondorioak ezagututa.

THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS
50 EAST LEXINGTON AVENUE
NEW YORK, N.Y. 10017
1987

BERRIEMAILEAK

Oharra: Berri-emaile bakoitzak bere zenbakia du, berau, kontatutako ipuin edo eta esaunda bakoitzeko lehenengo zenbakiaz adierazirik agertuko da.

Bigarren zenbakiak, berriemailearen ipuin-esaunda kopuruan ordena esaten digu.

Fitxa bakoitza grabaketa garaian egina da eta horregaitik banaka batzuren heriotze data ematen bada ere (transkripzioa beranduago egin delako), beste askorena ez da ematen bizitzaren joanean hiltzen joan arren.

Egia esateko, asko hil zaizkit, baina aikomenzan euren testigantzak etorkizunerako.

1. PATXI ETXEBARRIA ARROITA

Neure aita. Zeberioko Undurra auzunekoa. Nekazaria bere aldi guztian. Grabaketak urte desbardinetan eginak dira: 1979an, 62 urte; 1983an, 66 urte; 1987an, 70 urte; 1991ean, 74 urte.

2. LEONOR AYESTA GOIKOETXEA

Neure ama. Zeberioko Uriondo auzunekoa baina Undurrara ezkondua. Nekazari eta etxeoandrea bere aldi guztian. Grabaketak urte desbardinetan eginak dira: 1979an, 60 urte; 1983an, 64 urte; 1987an, 68 urte; 1991ean, 72 urte.

3. JOSE ARROITA BERNAOLA

Zeberioko Undurrakoa. Ezkondua. Grabaketa, 1983an, 60 urte. Nekazaria bere aldi guztian.

4. JUANITA ARROITA BERNAOLA

Zeberioko Undurrakoa. Ezkongabea. Grabaketa, 1983an, 50 urte. Nekazari eta etxeoandrea. Oso eleiztarra.

5. PAULA ARROITA USATEGI

Neure amama. Aitaren ama. Zeberioko Undurrakoa. Nekazari eta etxeoandrea. Grabaketa, 1977an, 84 urte.

6. DOLORES BELDARRAIN ARTETXE

Zeberioko Ugarte auzunekoa. Ezkondua. Grabaketa, 1987an, 83 urte. Nekazari eta etxeoandrea bere aldi guztian ia-ia gaztelerarik ez daki.

7. JUAN SOLATXI EMALDI

Zeberioko Etxebarri auzunekoa. Ezkongabea. Nekazaria bitarteka, osterantzean lantegi baten ibili da erretiratu arte. Grabaketa, 1986an, 72 urte.

8. DOMINGA IRIONDO BARROETA

Zeberioko Gezala auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxeoandrea bere aldi guztian. Grabaketa, 1988an, 84 urte.

9. KAIETANA GOIKOETXEA

Zeberioko Elexartza auzunekoa. Ezkondua. Grabaketa, 1983an, 79 urte. Nekazari eta etxeoandrea bere aldi guztian. Aspaldiko urteotan Etxebarri auzunera etorririk daude biziten, izan ere Elexartza gaur pinu artean dago. Dana dala bere euskera Elexartzakoa da.

10. GREGORIA GOTI SALZEDO

Zeberiko Elordi auzunekoa. Lehenengo Lemoara joan eta gero Bediara ezkondua. Grabaketa, 1979an 78 urte. (Bere iloba Joseba Lekue erabili nuen grabaketa bitarteko).

11. DOLORES ARTIÑANO

Zeberiko Etzaso auzunekoa. Ezkondu arte nekazaria gero Basaurin bizi izan da urte askotan eta gaur Galdakaon bizi da. Neure amaxea da. Grabaketa, 1991ean, 65 urte.

Kasu hau kontutan hartzekoa da. Basauri erdal-herria da baina nire emaztearen gurasoen etxean euskera hutsa erabili da eta zaindu etorkizunean. Beste batzuk osterak kasu berdinean euskara galdu egin dute, ez eurak baina bai seme-alabak.

12. JOAKIN GOTI

Zeberiko Ametza auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria, hargina eta trikitilaria. Grabaketa, 1990an, 90 urte. Azken urteotan Zubibbarri auzunera etorria eta gaur Isasin bizi da.

13. FELIX MAIZ

Zeberiko Zubibbarri auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria bere aldi guztian. Grabaketa, 1982an, 88 urte.

14. JUANITA AMORRORTU IPIÑA

Zeberiko Barbatxao auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria eta etxeoandrea bere aldi guztian. Grabaketa, 1986an, 86 urte. Areilza auzunera ezkondu zen eta han bizi da.

15. ASENSIO BELDARRAIN

Zeberiko Solatxi auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxegintzako arotza edo zurgina. Grabaketa, 1991ean, 88 urte.

16. JOSE MARI LASA BENGOETXEA

Zeberiko Artiñao auzunekoa. Ezkondua. Lantegi batetan lanean. Grabaketa, 1991ean, 60 urte. Orozkora ezkondu zen eta han bizi da.

17. TEODORA URIBARRI URKIDI

Zeberiko Areilza auzunekoa. Ezkondua. Nekazari eta etxeoandrea bere aldi guztian. Grabaketa, 1985ean, 85 urte.

18. MAGDALENA BENGOETXEA ALDEKOA

Zeberioko Idirin auzunean jaio baina Mintegi auzunean bizi Artiñara ezkondu arte. Grabaketa, 1983an, 76 urte. Gaur Basaurin bizi da bere alabarekin.

19. JUAN AKESOLO

Zeberioko Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Lantegian lanean erretiratu arte. Grabaketa, 1979an, 64 urte. Gaur Ugaon bizi da.

20. ZIPRIANO ETXEBARRIA

Zeberioko Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Nekazaria. Grabaketa, 1979an, 67 urte. Gaur Ugaon bizi da.

21. DAMIANA ETXEBARRIA

Zeberioko Bertzuten auzunekoak. Ezkondua. Nekazari eta etxeoandrea. Grabaketa 1979an 67 urte zituen. Gaur hilda dago.

22. TXOMIN ARETXAGA

Zeberioko Santa Krutz auzunekoak, Olatzarrera ezkondu baina berriz Santakurtzen bizi da. Grabaketa, 1985ean, 75 urte. Lantegi batetan bere aldiak. Laguntzaile lez erabili dut grabaketa batzuetan.

23. KARMEN LARRONDO LINAZA

Zeberioko Santakurtz auzunekoak. Nekazari eta etxeoandrea. Grabaketa, 1986an, 64 urte. Areilzara ezkondua eta bertan bizi da. Grabaketa bere alaba Mari Karmenek eginekoa.

24. IGNAZIA SALZEDO ARETXAGA

Zeberioko Uriondo auzunekoak. Nekazaria eta etxeoandrea. Grabaketa, 1983an 75 urte. Ezkondua. Gaur Ugaon bizi da bere familiarekin.

25. SIMON GOYOAGA

Izatez, Zeanuriko Ipiñaburukoa. Orozkon kridu egondakoa eta Zeberioko Undurrara ezkondua. Bertan bizi zen hil arte. 1979ko grabaketan 77 urte zituen. Larogetik gora zen hil zenean. Nekazaria eta mitologia-ipuin kontatzaile onena. Beronekin hasi nuen nire ETNIKER lana.

26. ERROSARIO SALZEDO ARETXAGA

Zeberioko Uriondo auzunekoak. Nekazari eta etxeoandrea. Grabaketa, 1983an, 70 urte. Ezkondua. Areilza auzunera ezkondu zen eta han bizi da.

27. JUSTO ARTIÑANO

Zeberrioko Etxaso auzunekoa. Ezkondua. Nekazaria. Gazterik alarguna familia handiagaz. Grabaketa, 1977an 83 urte.

28. JOSE LUIS ARTIÑANO IRIONDO

Zeberriokoa. Etxasoko Anebeko auzunekoa. Nekazaria baina Bilbon beharren ibilia urte batzuetan. Ezkondubakoa. Grabaketa, 1991ean 60 urte.

29. DOMINGO ARROITA

Orozkokoa. Ezkondua. 1982an, 77 urte. Garraiolaria. Aspaldirik bizi da Basaurin.

30. JUANA LARREA

Orozkokoa. Ezkondua. Domingo Arroitarenean andrea. 1982an, 81 urte. Bizi, Basaurin bizi da.

31. MARIA CONCEPCION GOTI

ESTANIS ETXEBARRIA ZUBIZARRETA

Orozkoko Jauregi auzunekoak. Andra-gizonak. 60 eta 59 urte; grabaketa 1983an. Biak batera aipatzen ditut eta arrazoiak haxe da: Estanis bera da ipuinarria baina eztaurretik operatuta dago eta ezpainak bakarrik mobitzen ditu. Bere andreak den dena ulertzen dio eta jarraian kontaktzen du. Beraz, transkripzioa andrearen ahotsari eginekua da.

32. TEODORA ABELINA ZUBIZARRETA HIERROLABARRIA

Orozkoko Jauregi auzunekoa. Ezkondua. Grabaketa, 1983an, 91 urte. Etxekoandrea.

33. PETRA ETXEBARRIA

Orozkoko behepartekoa. Ezkondua. Etxekoandrea. Grabaketa, 1983an, 86 urte.

34. ANSELMO AMONDARAIN

Orozkokoa. Artzain izandakoa Gorbeian. 1983.eko grabaketan 82 urte. Zahartzaroan Galdakaoratua.

35. MARIA URRUKIKOETXEA OLABARRIETA

Zaratamoko Irigorri auzunekoa. Etxekoandrea eta nekazaria. Inoiz lantegian ibilia. Grabaketa 1987an, 68 urte.

36. ANDRES KORTAZAR

Zeanuriko Ipiñaburukoa. Baserritar nekazaria. Ezkondua. 1982. grabaketan 68 urte.

37. FRANCISCA AGIRREZABALA

Zeanuriko Zutzute auzunekoa. Grabaketa 1989an. 71 urte. Emakume hau irratiesataria izan da eta hortik erabilera landu batzuk. Grabaketa M. Pilar Espartak egina.

38. KATALINA PETRALANDA ETXEBARRIA

Dimako Indusikoa. Nekazaria. Ezkondua. Grabaketa, 1981ean 76 urte. Grabaketa bere iloba Gaizka Zamalloak egina. Urte asko bizi izan da Galdakaoko Artola auzunean.

39. MARIA ARTETXE

Artea-Arratiakoa. Ezkondua. Zeanuriko Lanpreabera ezkondua. Grabaketa, 1987an 101 urte. Grabaketa Amaia Espinosak egina.

40. TOMAS SAGARNA

Dimakoa. Nekazaria. Ezkondua. Grabaketa, 1983an 70 urte. Grabaketa J. M. Bizkarguenagak egina.

41. ISIDORA ARTETXE

Galdakaoko Usansolokoa. Etxekoandrea. Grabaketa, 1980an 68 urte. Grabaketa J. J. Gurtubay ikasleak egina.

42. LUISA ARTEAGOITIA

Basauri-San Migelekoa. Etxekoandrea. Grabaketa, 1980an 74 urte. Grabaketa J. J. Gurtubay ikasleak egina.

43. JULIA AZKUE

Galdakaoko Irigoien auzunekoa. Nekazaria. Grabaketa, 1980an 71 urte. Grabaketa J. J. Gurtubay ikasleak egina.

44. AGEDA ZABALANDIKOETZEA

Arguya (Arrigorriaga)ko Bilborantzako azken auzunekoa, Malmasin gainekoa. Nekazari eta etxekoandrea. Ezkondua. 1986an, 78 urte.

45. PAULA DUÑABEITIA UGARRIZA

Galdakaoko Erletxetakoa. Ezkondua. Etxekoandrea. 1985ean, 69 urte. Transkripzioa neurea bada ere, grabaketa Eduardo Bizkarra neure ikasleak egina da.

46. JOSE KANALES GOIKOETXEA

Artea-Arratiakoa. Ezkondua. Lantegi baten ibilia eta gero artzain Gorbeian. 1986an, 86 urte. Gaur Areatzan bizi da.

47. PATXI BILBAO

Dimakoa, baina Lemonan bizi da. Ezkondua. Nekazaria. Dultzainerua. 1986an, 79 urte.

48. ANESTASIO LARREA ELEZKANO

Dimako Agustieta auzuneko. Gaur Galdakaon bizi da. Firestoneko lagile bere aldian. 1986an, 59 urte.


49. ROKE ABRISKETA AÑIBARRO

Ugaokoa (Miravalles), Morteru auzuneko. Nekazaria. Grabaketa, 1990ean 73 urte. Grabaketa bere iloba Leire Abrisketa Atutxak egina.

Jakingarri lez, Roke orain Ugao-Ugaon bizi da. Bere baserria botata dago autopista egiteko. Inguruko baserriak ere, Lupordo etab., berdin-berdin.

50. MARIA KLEOFE ITURRIAGA GOIARROLA

Miraballesekoa. Etxekoandrea. Grabaketa, 1987an, 94 urte. Zeberiora ezkondua. Gaur be bertan bizi da, neguak Bilbon egiten baditu ere.



HIZTEGIA

Gorbeia inguruko euskara aberatsaren ezaugarrietariko bat, hauxe hiztegi hau da. Hiztegi honetan, orain arteko hiztegietan jaso ez diren hainbat hitz, esamolde, esaera eta antzerako eskeintzen dira, irakurgaion ulermena erraztuz, herriaren aberastasuna galdu ez egiteko.

ABANTEAN: arin, zuzian.

ABARKA-MEDIAK: oinetakoak, gomazko abarkak eta ardilanazko mediak.

ABEMARIAK: iluntzetan jotzen diren kanpaiak ermita zein eleizetan.

ADINON: ezer egin barik egotea.

ADITU: Begiratu, ulertu.

AHOA ASKATU: berba egiten hasi.

AHOBIZARRAK: ahoko mihia lohi eta jateko gogorik ez.

AIKOMEN HAMAIIKA T ERDIAK: (esaera): Hau da izatekoa!

AIKOMEN: hona hemen (singularra).

AIKOMENZAN: hona hemen (plurala).

AKARREOA: edozein ekarri-eroan egitea (idea, garia, bedarra etab.).

AKO: Harako.

AKORDATZAKOAN: akordu barik, uste ez dela, ustekabeen.

ALBORA-KARGA: mozkorra.

ALDEA BATERA: Dena jarraian.

ALTZI: apur bat.

ALTZIKITU: Erropa bustiari ur handiena sikatu.

ANAJEA: anaia.

ANDA-IZARA: Antzinako hiletetan gorpua batzeko maindira.

ANDAFUERAZKO JANTZIA: esaera: kanpora bota. Kasurik egin ez egitea.

ANTEPETXUA: bentana edo balkoietakoa salientea.

APARAJUA: trastea, elementua.

APATXOTSA: arin ibiltea.

ARDATZ-AGEA: bedar-meteak erdia gora daukan agea.

AREA: soloak lantzeko hagin askodun tresna.

AREAN: Apur bat, zertxobait.

AREHAGINAK: arearen haginak.

ARMIN: Barruko genioz.

ARRASKA: Orrazia.

ARRATE: kobazulokoa zein arantza-hesi edo harrizko baten egindako zuloa.

ARRIKANPAIAK: egunsentian jotzen diran eleiz-kanpaiak, albakoak.

ARTEAK ARTU: lasaitu, baretu.

ARTERAINO; Arte.

ASPELA: Bedar, ida edo antzerakoen multzo egina.

ATAGUZZTIBE: hori goiti-beiti.

- ATAUTEA: zerraldoa.
- ATOAN: berehala, momentuan.
- ATOMATU: Ausartu, atrebitu.
- ATXEA-MOTXEA: hatzamarren jolasa, (atxea-motxea perolipan...).
- ATZEMARDOKA: Atzerik hara tanteoan.
- AURBERA: Aldapa beheara.
- AURGORA: Aldapa gora.
- AURPEGI GAZI: haserre aurpegia, adikuna txarrekoa.
- AURRETIZIK: aurrezdik, aurretik, lehena-gotik.
- AZDUI: Haitz askoko tokia (Itsasaldean, Astui).
- AZKARRIA: Handia.
- AZPIRAPALUA: azpiran atzera-aurrera uruna eralgiteko bahepeko palua.
- AZO: Erazo, erazi.
- BAHEROA: Bahegilea.
- BAKEALANGOIA: Bake santu bat.
- BAKEAREN: bakeagatik.
- BALTZITU: Golpeka handitu.
- BANUTZEA: bainuak hartzeko etxea.
- BARRAKAK EGIN: (esaera): Fetxoriak egin.
- BASAMIKA: txori mota bat, oskilasoa, uso-aren antzekoa.
- BASOINARRA: txilarra.
- BATZANDU: Batu.
- BAZPIAK ERANTATU: Buruan jo ileak astinduz.
- BAZTERRAK ENDERDATU: nahastea sortu, zuzena okertu.
- BEGIPISUAN: begira saldu ganadu bat.
- BEGIRA: Gaua eman heriotzetan etab.
- BEITSO: Har beza.
- BEKARA: Aurpegiaren alde bat.
- BELEA BALTZAGO EZ EGIN: esaera. Gauzak txarrago ezin joan.
- BELEKIA: egurrezko edo zurezko aitzur modukoa.
- BERBALTUA: tartamutua.
- BERBARA ETORRI: berba egiten ikasi ume-tan edo konortea gadu ostean.
- BERDE: 1.- kolorea. 2.- haserre. 3.- egural-di txarra.
- BEREKITAN: berekautan.
- BEREZ ERNEA: erein edo landatu bakoa.
- BEROA: Genio bizikoa.
- BESTE MUNDUKOAK: mitologia kutsuko pertsonaiak.
- BETUXOA: Eskaparia; begiak bajatuta begi-ratzen duena errezeloz beterik.
- BETXINTAK: bepuruak (begi-buruak).
- BIDEARLOA: bide luzea.
- BIDIRU: bi edo hiru.
- BIJON: esaera: ondo ibili, ondo joan.
- BILDURKILIK: bildurrak hil eginik, bildur handiagaz.
- BILDURSARTUA: lehenagotiko bildur kendu ezina.
- BIOZTURIA: urdailaren ahoa, bihotzerre tokia.
- BIRIPOA: birapoa.
- BIZIPISUAN: ganadua bizirik pisatuta saleroste.
- BORROA: Meko, indarga, txikia.
- BOTOA: Ikatza egosteko lur-zelaikada biritila.
- BREBIARIOA: abadeen eguneroko otoitz liburua.
- BURUKO LORRA: Buruhaustea.
- DAMORROA: ganaduen haserre-urrukak
- DANDABELA: lepoa edo joteko beste gorputz zati bat.
- DANDARRAZ: dariola.
- DAÑINO: kalte egiten duena.
- DE REO: basoa osoan bota, zutunik ezer itxi barik.
- DEI-BARRUAN: Deitzerakoan, entzun eta erantzuteko eremua.
- DEMONINTRUA: deabrua esateko eufemismoa.
- DENODU: indarra, kemena, ugaritasuna.
- DENPORAK AGERTUKO DU EDURRA MENDIAN: (esaera): Egia jakingo dela orain ez bada, geroagoan.
- DENPORALDIA: denpora asko.

- DENPORALEA: eguraldi txarra.
- DESORAN: orduz kanpo, berandu.
- DISKUTIA: eztabaida.
- DITEA: Gogo, asmoa.
- DOMINISTIKUM: Latinezko "Dominus tecum", (gazt. estornudo).
- DRINEAN: arin be arin, orpoetan ar barik.
- EAURT EGIN: Buelta eman, haranzkotik honantz.
- EGARRIAK TXIMELTAN: Egarrri handiaz.
- EGARRIBERA: egarrisua.
- EGILLAMUA: egia, egi zelaia.
- EGIN AKABADU: edozein ekintza amaitu.
- EGINENA: zeregina.
- EGUR ESKARMENTADUA SUGIN ONA: esaera: lanean ondo hezia.
- EGURDARTEA: eguerdi aurrea, eguerdirarteko denporea.
- EGURGINEN: sua egiteko egurra prestatzen.
- EHULERUA: ehunlea, liñoa iruten zuena.
- ELEGIA: Aukeratzeko posibilitatea.
- ELEIZASTIKUA: eleizara asko doana.
- ELEIZURTERA: bateoaren hurrengo egiten den eleizkizuna.
- EN PARTIKULAR: batez be.
- ENBELEKOA: Aurretik kendu ezineko zazpi-sutea, (Trabatik kendu ezina. "Tabarrosoa").
- ENBERAZUA: estorbua.
- ENBRA: andrea.
- ENBROLLO: nahastea.
- ENDEMONIÑO: handia, oso handia.
- EPERDIA EMON: kasurik egin ez, haserre egon, deskonforme egon.
- EPERDIAN MUN EGIN: esaera: zereginik ez dagoela adierazteko.
- ERAGI: Jagi erazi.
- ERAGON: Ekin, jardun.
- ERDI-EGINEAN: zeozer biderdian geratu.
- ERDI-TERTZIOA: erdi ingurua.
- ERDUZIE: erdu (plurala).
- ERLEZTARRA: liztorra, (gazt. avispa).
- ERNAROA: haziaren erne aroa.
- ERNEGAZIÑOIA: amorrua, haserre.
- ERRANDONEA: bogada egiteko zurezko ontzia. Barrika erdiaren jasekoa.
- ERRASU: Zerua garbi.
- ERREKADU EGIN: ezkontzeko proposamena eroan, norbera zein inorentzat.
- ERRENTORE: errentan bizi dena, inkilinoa.
- ERREUNE: Erreta dagoen uea.
- ERREZKAN: asko, ugari.
- ERREZUA: otoitza.
- ESKANDALUA: 1.- asko, ugari. 2.- eskandalua.
- ESKRIBIDU: idatzi.
- ESKUSADUA: komuna.
- ESKUSORKIA: eskuak sitatzeko trapua.
- ESNE-ZABALDU: gaxo bat. Esnea zabaldu errape edo titi barruan.
- ESTARIA: Estalia, leku ezkutua.
- ESTOLA: abadeak mezea emoteko jantzi-tariko bat.
- ESTUKINA: zeozer estuteko bedar, gari, mimen edo kordela...
- ETXE-IKUSIA: ezkondu aurretixuan bata bestearen etxe-etxeak erakustea.
- EZLEKUA: (Deslekua). Ohizkoa ez den lekua, apartekoa.
- EZA ESKUAN EUKI: esaera: badaezpada lortzen saiatzea.
- EZARRI: 1.- jarri. 2.- arrautzak inkubatu.
- EZEBEZA BEGIRAKO ONA: esaera: begiak ez du ahutsa be onartzen.
- FATUA: ganorabakoa.
- FETURA: itxura, patxada.
- FRAKAGORRIAK: deabruak.
- FRAKAK SOLTAU: kaka egiten joatea. (eufemismoa).
- FRAKETAN KABIDU EZIN: esaera: zeozer-gatik artega, urduri egotea.
- GABONKARIAK: Gabon-otzarako jan-ediariak.
- GAINETU: Gainera etorri zerbait egin asmoz.

GALDAILLA: kobrezko ontzi bat laratzuan edozer egosteko.

GALEREA: barregarria, aparajua.

GALTZUPOILA: eskuta, esku biak hartu ahaleko galtzu karga.

GARIA: Garatxa, (gazt. verruga).

GARRETAN: garra dariola.

GARRIKOTEA: Gerria lodi edo mitxelinak eginda dagoena.

GASTELUSEARRA: ganaduari sama inguruko lumak jaustea.

GAUGARRAK: zeruko gauetako garrak.

GAULENDIA: iluntzea, ilunabarra.

GAUZEZTANDU: balio ezean geratu.

GAZGIN: Txarra, kaltegilea.

GAZTELOA: gaztekotea.

GELDORREZTARU: Odoloste eta buzkentz freskoak lehenengo egostea.

GENEKO: a zelako! (gazt. menudo/a, vaya...).

GESU BATEN: Lasterrera, denpora gutxi barru.

GOBADA: bogada, eropa-garbikuzia.

GOITI-BEITI: Gora-behera.

GORATU: Heldu, agarratu.

GORRIAK PASATU: larrialdiak, estukurak pasatu.

GOSUNEA: Arin edatearen ondoriozko samako mina.

GOZO-GAUZAK: dultzeak orokorrean.

GRANDEA: dezentea, alosokoa, ona, tamainokoa.

GRAZIAK: eskerrak.

GRILLISTUA: irrintza handia.

GURADANA: Asko, handia.

GURAIZANA: maitasun fisikoa. zein bihotzekoa.

HAGEA: 1.- arbola edo egurra. 2.- tradizioa, erentzia.

HAGEARENA: etxea erre orduan berria egiteko emoten zena, zutik zein ebagita

HAGINADURA: ahokoa edo izara-manteletako ertzeko bordadua.

HAINBATEN: Nonbaiten.

HAIZETUTA: pertsona zein ganadua digestio-haizez handiturik dagoenean.

HALTZAREN ONDOAN HALTZA ERNE: esaera, (zer ikusi ha ikasi).

HANDIK GEHIAGO: handik aurrera(go).

HARONAKOA: hara eta honako joan etorria.

HASTE NEKE: (esaera): Hastea baino ez dela behar.

HAZBEGIAK ONDO EUKI: esaera: umea sano jai, defekto barik.

HAZKAIA: haziera, zelan hazten doan, (gazt. crecimiento).

HERRI-IDI: herri-behitik jaiotako zekor iditua, euskal errezakoa.

HERRI-ZEKORRA: euskal errazako zekorra, gorriskea.

HESIALDI: Egurrezko hesiaren iraupena.

HEZIALDI: heziten denpora bat emon, esperientziak irakatsi.

HODEIAK JO: trumoia.

IDERGIBERRI: Ilargi berri.

IDERGIBETEA: ilargi betea.

IGERO: liño-matazak garbitze-ekintza.

IGESKA: Zuhaitz enborreko perretxiko sikua, jo-jo egin eta gero, txispatik sua hartzeko onenatarikoa. Lehenago, harri-rik hara sua egiteko oso erabilia.

IGURDIALDI: masajea.

ILUNDEA: laino ilunak egindako iluntasuna.

INFERNUKO LEKUA: oso urrun.

INIZITIA: oinaztargi, oinaztua.

INON DENIK: Holako gauza arrarorik!

INONTZA: Ihintza.

INTERAN: Garaian, denporan.

INTILLA: tragaza, soloa lantzeko tresna bat.

INTXAURMANTXERUAK: eskuetako intxaur-sumikearen aurkako mamuak.

INTZERREA: Leia egiten dueneko haize hotza.

INTZIGUA: gogo handia.


IPIUZTARRI: idi uztarri. bikotea.

IRRIINTZA BATEN: irrintzaka geteru barik.

- ITARIN: egin arin, guztiz ondu barik, zeo-
zen faltan.
- ITAURREN: uztartutako idi edo behien
aurretik ibili gidatzeko.
- ITERANTZUNA: tentaka ibili, alusiñoak
egin.
- ITURRIKOURA: iturri naturaletako ura.
- ITUZURA: Teilatutik kanpoaldera jausten
den euria. Itogina, etxe barrura.
- IXORRABARRI: ernaritu berri.
- IZENTAZIÑO: muestra bat.
- JAGI BI: ogia egin orduko birritan jagi
erazo, fermentatu erazo.
- JAKATZU: Jateko apetito barik.
- JAUNEKOBAN: jo ta ke.
- JENTILBOLAK: harrizko bola biribil han-
diak jentilen jolaserako.
- KAKOKO: zarteneko gazigarria: pernil,
urda, lukainka...
- KANDELARGIA: kandela bidez egiten zen
argia.
- KANIKULA: udako bero sano handia.
- KANPOSANTUA: ortusantua, hilerria.
- KARGERA: ikatz-txondorren erdiko agea.
- KARGU EGIN: aditu, begiratu, zaindu,
jagon.
- KARRAN: Karraderan, arineketan, korrikan.
- KEBRANTATXUR: sakon aitzurtzeko aitzur
nagusia, bideak egiteko etab.
- KETOA: motela, paratua, odolbakoa.
- KIKIRIBUELTA: burua hanketan dela buel-
ta egitea, (gazt. voltereta).
- KIPUTU: Hatzamarrak zurizkatu urak edo
hotzak. Kipautu, kipatu.
- KIRIKIÑUSIA: gaztaiñudietako gaztaina-kiri-
kiñoak batzeko hesia.
- KIRIMILLAK: koskillak.
- KOKORIO: lelo, malbako, enbeleko.
- KOKOTERRE: kokote eskasa, argala, zuloa
eginda duena.
- KONTRATERRENOA: zelai edo lisu ez da-
goena.
- KORTATXIA: korta barruan txarriaren txar-
ri-kortea.
- KOTEJAZIÑO: naurria, zenbatekoa.
- KOXITZA: Emaizta.
- KOZKOT: buruan "koz" edo koskorroia
emotea. "Atxea-motxea"ko zigorra.
- KREDITUA: batengan sinestutea, fiatzea.
- KURTZEROA: bidekurtzea.
- LABEGURRE: laberako, labeko surako egu-
rra.
- LANTZEAN: noizean behinean.
- LARATZUAK EZAGUTUKO DU: (esaera):
Eguneroko bizitzak ezagutu.
- LARDANGAINA: gehiegi, larregi, lardan-
beste.
- LARRATU: kanpora bota, aldendu erazo.
- LASIERTUNA: ganaduen gaixo bat: errape-
ak gogortu, (gazt. mamitis).
- LEHENAGO MORO: esaera: ezergatik be ez
lukeela ekintza hori egingo.
- LEHENGO EGUN BATEN: orain dela egun
batzuk.
- LEPO BETE EMAN: Lepoan jo-jo egin.
- LEPOZURIA: alperra, nagia, lanari fit egiten
diona.
- LINDEROA: muga, muna, basoan arbola
iladea muga bereizteko.
- LOPETXAK: gaztaina mota bat.
- LUMORRAZTU: txorikumea lumaz jantzitea.
- LUMORRAZTUBAKOA: 1.- lumaz jantziba-
koa. 2.- heldu edo maleziabakoa.
- MAGALOTSA: Erropa-magalaren zarata.
- MAJO: polito, ondo, dezente.
- MAKINA BAT: asko.
- MALBAKO: Malezia gabeko.
- MANDAITU: Handitu.
- MANDAZAINA: astakirtena, kankalloa.
- MANTENITALDE: lan egin mantenidu alde,
batez be kriadu-lanetan.
- MANTZINA: txarra, gaiztoa, okerra, gazgi-
na.
- MANTZINKERIA: gaiztokeria, okerkeria.
- MARI: Marabedi, (diru mota bat).
- MARTXANDERA: Arraultza eta egazti eros-
lea, salerosketarako.

- MEDIGINEN: mediak egiten.
- MENDIA HARTU: Bizitoki berrian egokitu.
- MERINDAFARIA: iluntzerantz egiten den janaria, sarritan soloan bertan.
- MIÑEAN HAR BARIK: berba egiteko ez duela ikararik.
- MIRAKOLLOSA: berritsua, kurioa, inoren susman dabilena.
- MIRUA(k) HARRA(RI) LETXE: esaera: arin, berehala.
- MIZKERIA LAN GAIZTO: (esaera): Kapritxosoa izatea.
- MOKIL-AUSI: soloko mokilak jo eta apurtu lurra birrinduteko.
- MORROLLADA: txerria hil ondorengo odoloste eta abar jatea.
- MORTALAK: handiak, ikaragarriak.
- MUNDURIK ARAMAIO: esaera: mundutik zehar bideak betean.
- NAHASTE: (enklitiko): batera. Adib. urligaz nahaste edo batera.
- NAHINON: edozein lekutan.
- NAHINOZ: edozein momentutan.
- NARRUA JO: txotxoka egin, untzea jo, sexu harremanak izan.
- NARRUKOA: golpea.
- NOIZAGO: hurrengo noiz?
- NOIZGURA: gura duzunean.
- ODOL MALAURIA: zauri zoldu bateko odola, zoltzairikakoa.
- ODOLAK UR EGIN: haserre bizia.
- ONDO ESAN: ondo tratatu.
- ORDUAN: 1.- Eta gero; ondoren. 2.- Beraz.
- ORPOETAN HAR BARIK: esaera: arin be arin, apatxotsean.
- ORTUSANTUA: hilerria.
- OSKA: Zuloa.
- OTEGURRA: Ote egurra.
- OXORROA: mizmerua.
- PARAJE: lurralde.
- PARTE-TXARREKOAK: mito-pertsonai txarrak.
- PARTIDEA: asko.
- PIPILADURA: oilo-narrua pertsonetan, (gatz. carne de gallina).PISPIT: txatxamarka egin, (gatz. pellizco).
- PITANTZA: errotariak diruaz barik irinetan kobratzen duena.
- PITXINA: pitilina.
- PLAGEAK HARTURIK: (esaera). Gehiago lortu nahian.
- POILAK: galtzu zein liñoagaz egiten ziran kargatxuak edo eskutak.
- POTRO-BOLTZAK: barrabilen ganeko narrua.
- PUTXA-PUTXA: Bigun-bigun.
- PUTXA: Gatzatua.
- RIK HARA: -tik segituan; -tik hur; aldetik.
- SAKONARIA: sakontasuna.
- SALDAIMENTUAK: gaztaina mota bat.
- SAMA-SIKUA: egarribera, edailea.
- SANDONIAK: San Antolinak.
- SANO: Oso.
- SAPUTZAK: soloa lantzerakoan ateraten diren bedarrak.
- SARTZAMENDIA: eguzkia sartzen den tokia.
- SASTAPARRA: edozelako zer txiki bat, bedar, egur eta abarrezko bat.
- SEGUN ITXURA: antza denez, itxura denez.
- SEGURU: Antza, diruenez.
- SIKERAN: gutxienez.
- SIRIA: lehenagoko moneta mota bat.
- SOLIBA: etxe barruetan oholpeko ageak.
- SOROTS EGIN: Sorotsi, bigilatu.
- SUMIKA: erretxineak, soloariak edo egosteak uzten duen mantxa berezia.
- SURTE: behesua sutan.
- SUSTERBAKOA: ganorabakoa, feturabakoa.
- SUSTERBAKOKERIA: ganorabakokeria, lelokeria.
- SUSTERTU: Aurkitu, topatu.
- TALABURRIÑA: taloak erretako asta eta guztizko birdina-zapala.
- TALO JAGIA: legamin eta guztizko taloa, gehienetan ogi-urunezkoa.

- TAUPADOTSA: Bihotzaren taupada bizkorrira.
- TEJAMANA: bedar sikua eta abar gordetako txabola nagusia.
- TEKLA: aitzakia, allegoa.
- TENOLA: indarra, gogoa, alimua.
- TENTADU: ikutu.
- TOILARA: etxeko atzealdea, sagardo, txerrigauzak etabarretarako.
- TRAGATU: animalia bat berez hil. Jateko ez den pizti bat norbaitek hil.
- TRAJURA: Itxura, patxada.
- TRANPAKO ATEA: kortara bajatzeko barruko eskillaretako atea.
- TREBITUA: buruaustea, konfliktua, nahastea.
- TRIPISKILDU: Zati-zati egin; apur-apur egin.
- TURRUMUTUA: zarata sano handia.
- TXAKURRANDIA: moneda mota bat, (gazt. perra gorda).
- TXAKURTXIKIA: moneda mota bat, (gazt. perra chica).
- TXANGORI: Sargori antzeko beroa.
- TXANKERRE: hanka meheak edo argalak dituen.
- TXERRINKA: gurgila, errudea.
- TXERRINTOLA: egur, alanbre lodi edo zinezko jolas-gurgila.
- TXILINDROIA: gariaren ernaro osteko mokil-zokilak birrintzeko tresna.
- TXINGAR: Egur-brasa.
- TXIRРАН: Bueltaka-bueltaka, bilinbolan.
- TXIRRIPIZTADA: txipristina.
- TXIRRI TXIRRIA: girgilua, kilkirra.
- TXITERDI: berberdi, hitz erdi.
- TXORIGORRIAK: maldizioak.
- TXOTXOKA EGIN: narrua jo.
- TXUBELAXUA: Igela.
- TXURIA GORA: esaera: laminak esnea surten ganaz hasten zeneko berbak.
- UME-JAZOA: solteratako umea.
- UMEA GALDU: aborto naturala.
- UNBARDINKA: jolasa: oin biak batera jarri eta lasterketa egitea. saltoka.
- UNTZEJOA: narrua jotea, (eufemismoa).
- URATZEA: ur asko.
- URGUXUA: txubelaxua, ugaraixoa, igela.
- URREAN: Antza, seguru, dirudienez.
- ZANKALOSTE: Belaunaren atzea.
- ZAPALAGEA: ikatz-txondorrerako egurrezko mailu handi bat.
- ZEHEA: fin-fina, xehea, birrin-birrina.
- ZEIN... EGIN: EGINEAN ere; egiten ba... ere; (gazt. por si...).
- ZEINAKIO: zer egin ez dakiala, ezer egin barik.
- ZEINDA: Hau da; hots; adibidez; esaterako.
- ZEITEKO: zertarako, zergaitik?
- ZELANBEIST: nolabait, zelan edo halan.
- ZER DAN BEIST: zer den edo zer ez den.
- ZIA: Koipe-ura.
- ZIN: zinezko baldea, ontzia.
- ZIRIBEDAR: Bedar mehe eta luzeak.
- ZIRIGUTZI: erremolino, astinaldia.
- ZIRIPORRA: burdi-ziri nagusiak joteko mailu nagusia.
- ZOLIBA: (ikus. soliba).
- ZORRAK KANPAIAK PAGATU: esaera: hilez gero zorrik ez.
- ZOTZALBO EGIN: esaera: behar gitxi egin, askorrik ez urratu.
- ZURZUBIL: Zumitzak edo zimentzak gurtzatzeko tresna.
- ZUZIAN: Arin, oso arin.












AURKIBIDE TEMATIKOA

Ipuin edo eta esaundon sailkapen hau pertsonai mitiko zein beste gai batzuei begira egin da baina euretariko askoren barruan gure euskal kultura barruko hainbat deskribapen eder ere agertzen da berri-emaileetariko asko ez baitira ipuinlari ipuinlariak, euren erara kontatzen dute dakiten hori eta hemen horixe dager.

Hona hemen adibide gisa 19.12: hor Jentilak aipatzen dira eta aurkibidean Jentilen sailean joango da, baina kontaketa horretan ikazgin eta ikatzaren berri zehatz eta ugaria ematen da.


Beraz, sailkapen honek zeozer lagunduko digu baina batean bestean sailkapen zabal honen barruan beste jakingarri asko agertuko da.





Animalia eta landareak:

1.5; 2.5; 2.6; 2.7; 2.8;
2.10; 2.15; 5.3; 25.16;
28.2; 49.2.




Barregarriak:

2.11; 19.10; 19.11;
28.1.




Sexu kutsukoak:

2.17; 18.1; 25.9; 28.1;
40.2.



Bizikera zaharrak:

1.6; 1.7; 1.12; 2.13;
2.16; 50.1.



Eguzkia:

1.1; 25.20; 33.1; 37.1.



Sineskerak:

1.4; 10.1; 11.3; 25.10;
25.17; 25.19; 25.20;
25.21; 25.24; 49.4.




Ospakizunak:

1.11; 2.12; 2.19;
25.13; 25.26; 38.2.




Eleiz kutsukoak:

1.4; 1.7; 2.7; 19.5;
19.6; 25.17; 25.22;
49.4.




Azegunak:

1.8; 2.5; 19.10; 19.11;
21.4.




Gertakizunak:

2.20; 25.13; 25.27;
37.1.




Igarkizunak:

1.9; 2.11; 25.28.




Kondenaduak:

19.5; 19.6; 25.2; 42.1.




Lapurrenak:

1.13; 1.14; 25.9; 31.2;
41.5; 44.1.




Superlegor koba:

25.2; 25.4; 25.5; 30.3;
31.1; 31.3; 34.2.



Superstizioak:

2.4; 11.2; 25.24; 26.1;
41.4.



Istoriokoak:

1.14; 2.2; 2.13; 20.1;
25.13; 25.28.

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Zeberiokoa. Filosofiararteko ikasketak egin ondoren Derioko Seminarioan, Magisteritza egin zigun. Karrera berria sortuz batera, Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, ohorezko matrikula ateraz. 1988tik "Cum laude" eta guztizko doktorea dugu Euskal Filologian "Zeberio Haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa" ikergaiaz.

Gaur egun, euskaltzaindiakoa izateaz gain, doktorego tesietako zuzendari bezala, herri-euskara bizia jasoteko proiektu oso interesgarri eta behar beharrezko baten dabil Etno-Linguistika bidean.

Beste alde batetik, On Jose Miguel Barandiaranek sortu eta zuzendutako Bizkaiko ETNIKER taldekidea dugu Labayruren babespean. Guzti honen ondoren, idazlea ere badugu. Batez ere hiru arlo landu ditu: Euskal Linguistika; Etnografia eta Ipuingintza Bizkaiera gaurkotuan zein Batuan.

Lehendik ere bai, baina batez ere, Barandiaranen eskolakoa izanik, doktorego tesia burutzerik hona, argi ere argi ikusi du euskara biziak daukan garrantzia euskararen etorkizunerako.

Juan Manuel Etxebarria Ayestak, liburu honetan, Bizkaialdeko Gorbeia inguruan herririk hara jasotako euskara aberatsean oinarriturik, ia 200 etno-ipuin eta esaunda eskeintzen dizkigu euskara Batuan etorkizuneko euskararen aberasbidean.

"EUSKARA LURRALDEZ LURRALDE" K

EUSKAL ESKUALDE DESBERDINETAKO HIZKETA BIZIAREN ERAKUSTOKI NAHI LUKE IZAN.

"BIZKAIALDEKO IPUIN-ESAUNDAK" DATOR LEHEN ZENBAKIAN,

ONDOREN EKARRI NAHI DENAREN BIDERAKUSLE GISARA.

IPUIN ETA ESAUNDA HAUEN BIDEZ, LURRALDE HONETAKO EUSKARA ABERATSA EZEZE,

BERTAKO BIZTANLEEN BIZITZA-IZAKERA ERE EZAGUTZEKO BIDEAN ZAUDE.

ZATOZ IPUIN EDO ETA ESAUNDOTARA ETA

ABERASTU ETORKIZUNeko EUSKARAREN BENETAKO BATASUNA!

